eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

CRM1/XPO1 nukleotiko esportazio hartzailearen fisiopatologia: funtzio zelularraren eta ituratze terapeutikoaren azterketa

---

Physiopathology of the nuclear export receptor CRM1/XPO1: studies on its cellular function and therapeutic targeting

Doktoretza-tesia

Maria Sendino Mouliet
(2022)

Zuzendariak:

José Antonio Rodríguez Pérez Doktorea

Miren Josu Omaetxebarria Ibarra Doktorea

Aurkibidea / Index

Laburdurak / Abbreviations

FARMAKOAK / *DRUGS*:

- **ActD:** Aktinomizina D / *Actinomycin D*
- **ALS:** Alisertib
- **CHX:** Zikloheximida / *Cycloheximide*
- **LMB:** Leptomizina B / *Leptomycin B*
- **SEL:** Selinexor
- **TAZ:** Tazemetostat
- **SINE:** Esportazio nuklearraren inhibitzaile hautakorra / *Selective inhibitor of nuclear export*

MINBIZI MOTAK / *CANCER TYPES*:

- **ALL:** Leuzemia linfozitiko akutua / *Acute lymphocytic leukaemia*
- **AML:** Leuzemia mieloide akutua / *Acute myeloid leukaemia*
- **CLL:** Leuzemia linfozitiko kronikoa / *Chronic lymphocytic leukaemia*
- **CML:** Leuzemia mieloide kronikoa / *Chronic myeloid leukaemia*
- **DLBCL:** B-zelula handien linfoma hedatsua / *Diffuse large B-cell lymphoma*
- **HCL:** Trikoleuzemia / *Hairy cell lymphoma*
- **HL:** Hodgkin linfoma / *Hodgkin lymphoma*
- **HNSCC:** Buru eta lepoko zelula eskatatsuen kartzinoma / *Head and neck squamous cell carcinoma*
- **MCL:** Mantuko zelulen linfoma / *Mantle cell lymphoma*
- **MM:** Mieloma anizkoitza / *Multiple myeloma*
- **MZL:** Area marginaleko linfoma / *Marginal zone lymphoma*
- **NHL:** Ez-Hodgkin linfoma / *Non-Hodgkin lymphoma*
- **NKTL:** Natural killer/T-zelulen linfoma / *Natural killer/T-cell lymphoma*
- **NSCLC:** Birikietako zelula ez-txikien minbizia / *Non-small-cell lung carcinoma*
- **PCNSL:** Nerbio-sistema zentraleko linfoma primarioa / *Primary central nervous system lymphoma*
- **PMBL:** B-zelulen linfoma mediastinal primarioa / *Primary mediastinal large B-cell lymphoma*
- **TCL:** T-zelulen linfoma / *T-cell lymphoma*

PROTEINA EDO GENEAK / *PROTEINS OR GENES*:

- **AP2B1:** *AP-2 complex subunit beta*
- **APX:** *Ascorbate peroxidase*
- **ATR:** *Serine/threonine-protein kinase ATR*
- **AURKA:** *Aurora Kinase A*
- **BCR-ABL:** *Breakpoint cluster region-proto-oncogene tyrosine-protein kinase*
- **BirA:** *Bifunctional ligase/repressor BirA*
- **BRCA1:** *Breast cancer type 1 susceptibility protein*

- **BRCA2:** *Breast cancer type 2 susceptibility protein*
- **c-ABL:** *Tyrosine-protein kinase ABL*
- **CBEP4:** *Cytoplasmic polyadenylation element-binding protein 4*
- **CD38:** *Cluster of differentiation 38*
- **CDC25C:** *M-phase inducer phosphatase 3*
- **CDC27:** *Cell division cycle protein 27 homolog*
- **CDC7:** *Cell division cycle 7-related protein kinase*
- **CHK1:** *Checkpoint kinase 1*
- **CK2α':** *Casein kinase II subunit alpha'*
- **cMyc:** *Myc proto-oncogene protein*
- **COMMD1:** *COMM domain-containing protein 1*
- **CRM1:** *Chromosome Region Mantenaince protein 1*
- **CRTC1:** *CREB-regulated transcription coactivator 1*
- **DEAF1:** *Deformed epidermal autoregulatory factor 1 homolog*
- **DMWD:** *Dystrophia myotonica WD repeat-containing protein*
- **DUB:** Deubikuitinasa / *Deubiquitinase*
- **EZH2:** *Enhancer of zeste homolog 2*
- **FGF1:** *Fibroblast growth factor 1*
- **FMRP:** *Fragile X mental retardation protein*
- **FR1OP:** *Centrosomal protein 43*
- **GFP:** Proteina fluoreszente berdea / *Green fluorescent protein*
- **HDAC1:** *Histone deacetylase 1*
- **HDAC5:** *Histone deacetylase 5*
- **hRio2:** *Serine/threonine-protein kinase RIO2*
- **HRP:** Errefau min peroxidasa / *Horseradish peroxidase*
- **Hxk2:** *Hexokinase 2*
- **IF2B:** *Translation initiation factor eIF-2B*
- **LIMD1:** *LIM domain containing protein 1*
- **MAP:** *Mitogen activated protein*
- **mDia2:** *Protein diaphanous homolog 3*
- **mRFP:** Proteina fluoreszente gorria / *Red fluorescent protein*
- **MSH2:** *DNA mismatch repair protein Msh2, MutS protein homolog 2*
- **MSH6:** *DNA mismatch repair protein Msh6, MutS protein homolog 6*
- **mTOR:** *Serine/threonine-protein kinase mTOR*
- **N:** nukleokapsida / *Nucleocapsid*
- **NF-κB:** *Nuclear factor kappa-light-chain-enhancer of activated B cells*
- **NPM1:** *Nucleophosmin*
- **NSD2:** Histone-lysine N-methyltransferase NSD2
- **NUP:** nukleoporina / *nucleoporin*
- **p53:** *Cellular tumor antigen p53*
- **PAX:** *Paired box protein Pax*
- **PER1:** *Period circadian protein homolog 1*
- **PKA:** *Protein kinase A*
- **PKI:** *Protein kinase inhibitor*
- **PLK1:** *Polo like kinase 1*
- **PRC2:** *Polycomb repressive complex 2*

- **pUL69:** *mRNA export factor ICP27 homolog*
- **Ran:** *GTP-binding nuclear protein Ran*
- **RanGAP1:** *Ran GTPase-activating protein 1*
- **RARA:** *Retinoic acid receptor alpha*
- **RCC1:** *Regulator of chromosome condensation*
- **RIP3:** *Receptor-interacting serine/threonine-protein kinase 3*
- **SBSN:** *Suprabasin*
- **SEPT6:** *Septin-6*
- **SHIP2:** *Phosphatidylinositol 3,4,5-trisphosphate 5-phosphatase 2*
- **SIR2:** *NAD-dependent protein deacetylase sirtuin-2*
- **SMAD4:** *Mothers against decapentaplegic homolog 4*
- **SNUPN:** *Snurportin 1*
- **SPN90:** *NCK-interacting protein with SH3 domain*
- **STK38:** *Serine/threonine-protein kinase 38*
- **TFE3:** *Transcrition factor E3*
- **TOP2A:** *Topoisomerase II*
- **TUBAL3:** *Tubulin alpha chain-like 3*
- **UAF1:** *USP1 associated factor 1*
- **UBR5:** *E3 ubiquitin-protein ligase UBR5*
- **USP12:** *Ubiquitin carboxyl-terminal hydrolase 12*
- **WDR20:** *WD repeat-containing protein 20*
- **WDR48**: *WD repeat-containing protein 48*
- **X11L2:** *Amyloid-beta A4 precursor protein-binding family A member 3*
- **XPO1:** *Exportin 1*
- **XPO2:** *Exportin 2*
- **YFP:** Proteina fluoreszente horia / *Yellow fluorescent protein*
- **ZO2:** *Tight junction protein ZO-2*

ERREAKTIBOAK / *REAGENTS*:

- **APS:** Amonio persulfatoa / *Ammonium Persulfate*
- **BP:** Biotin-fenola / *Biotin-phenol*
- **BSA:** Behi-albumina serikoa / *Bovine serum albumin*
- **DAPI:** 4',6-diamidino-2-fenilindoldun / *4',6-diamidino-2-phenylindole*
- **DMEM:** *Dulbecco's modified Eagle's medium*
- **DTT:** Ditiotreitol / *Dithiothreitol*
- **ECL:** Areagotutako kemiluminiszentzia / *Enchanced chemiluminescence*
- **EDTA:** Azido etilendiaminotetraazetikoa / *Ethylenediaminetetraacetic acid*
- **FBS:** Idi-umeki serum / *Fetal bovine serum*
- **GBP:** GFP lotzeko proteina / *GFP binding protein*
- **GI:** Garbiketa indargetzailea
- **NEM:** N-etilmaleimida / *N-ethylmaleimide*
- **NTP:** Nukleosido trifosfatoa / *Nucleoside triphosphate*
- **PBS:** Fosfatoarekin tanponatutako gatz soluzioa / *Phosphate buffered saline*
- **PIC:** Proteasa inhibitzaile nahastea / *Protease inhibitor complex*
- **PMSF:** Fenilmetilsulfonil fluoruroa / *Phenylmethylsulfonyl fluoride*

- **RPMI:** *Roswell Park Memorial Institute*
- **SDS:** Sodio dodezil sulfato / *Sodium dodecyl sulphate*
- **SDS-PAGE:** Sodio dodezil sulfato-poliakrilamida gel elektroforesia / *Sodium dodecyl sulphate–polyacrylamide gel electrophoresis*
- **TAE:** Tris-Azetiko-EDTA / *Tris-Acetate-EDTA*
- **TEMED:** Tetrametiletilenediamina / *Tetramethylethylenediamine*
- **TTBS:** Tween-Tris-arekin tanponatutako gatz-soluzioa / *Tween-Tris-buffered saline*
- **XTG9:** X-tremeGENE 9

BESTE BATZUK */ OTHERS*:

- **ϕ:** aminoazido hidrofobikoa / *Hydrophobic amino acid*
- **AGC:** *Automatic gain control*
- **ATP:** Adenosina trifosfatoa / *Adenosin triphosphate*
- **BioID:** *Biotin identification*
- **BM:** Hezur muin / *Bone marrow*
- **cDNA:** DNA kodetzailea / *coding DNA*
- **CI:** Konbinazio indizea / *Combination index*
- **C_{max}:** Kontzentrazio maximoa / *Maximum concentration*
- **cNES:** Nukleotiko esportazio seinale kandidatua / *Candidate nuclear export signal*
- **cNLS:** Nukleora lokalizatzeko seinale klasikoa / *Classic nuclear localization signal*
- **DDR:** *DNA damage response*
- **DNA:** Azido desoxirribonukleikoa / *Desoxirribonucleic acid*
- **EMA:** Sendagaien Europako agentzia / *European Medicines Agency*
- **FDA:** Elikagai eta sendagaien administrazioa / *Food and Drug Administration*
- **FDR:** *False discovery rate*
- **FG:** Fenilalanina-Glizina / *Phenilalanine-Glycine*
- **FI:** Fluoreszentzia intentsitatea / *Fluorescence intensity*
- **GDP:** Guanosina difosfatoa / *Guanosine diphosphate*
- **GIB/HIV:** Giza immunoeskasiaren birusa / *Human immunodeficiency virus*
- **GTP:** Guanosina trifosfatoa / *Guanosine triphosphate*
- **HBOC:** *Hereditary breast and ovarian cancer syndrome*
- **HCD**: *Higher-energy C-trap dissociation*
- **HGNC:** Geneen nomenklaturarako HUGO batzoredea / *HUGO Gene Nomenclature Committee*
- **HNPCC:** *Hereditary nonpolyposis colorectal cancer (Lynch syndrome)*
- **HPA:** Giza proteina atlasa / *Human protein atlas*
- **IGHV:** Immunoglobulinen kate astun aldakorra / *Immunoglobulin heavy-chain variable*
- **IP:** Immunoprezipitazioa / *Immunoprecipitation*
- **KF:** Kaltetutako frakzioa / *Affected fraction*
- **LC:** Kromatografia likidoa / *Liquid chromatography*
- **LFQ:** Etiketa gabeko kuantifikazioa / *Label free quantification*
- **m/z:** Masa/karga / *Mass/charge*
- **MCS:** *Multiple cloning site*
- **MMR:** *Mismatch repair*
- **mRNA:** RNA mezularia / *Messenger RNA*

- **MS/MS:** Tandem masa-espektrometria / *Tandem mass spectrometry*
- **MW:** Pisu molekularra / *Molecular weight*
- **N:** Nuklear / *Nuclear*
- **NES:** Nukleotiko esportazio seinalea / *Nuclear export signal*
- **NLS:** Nukleora lokalizatzeko seinalea / *Nuclear localization signal*
- **NPC:** Nukleoko poro-konplexua / *Nuclear pore complex*
- **NZ:** Nukleozitoplasmatikoa / *Nucleocytoplasmic*
- **PCR:** Polimerasaren kate-erreakzioa / *Polymerase chain reaction*
- **PEO/WPE:** Proteina erauzkin osoa / *Whole protein extract*
- **PGB/PPB:** Proteinen gertuko biotinilazioa / *Protein proximity biotinilation*
- **Q:** Kuartila / Quartile
- **Rev:** Alderantzizkoa / *Reverse*
- **RNA:** Azido erribonukleikoa / *Ribonucleic acid*
- **SV40:** Zimino birus 40 / *Simian virus 40*
- **TARGET:** Genenomikaz gidaturiko terapiarako garrantzitsuak diren tumore asaldurak / *Tumor alterations relevant for genomics-driven therapy*
- **T_m:** Urtze temperatura / *Melting temperature*
- **UA:** Ugaritze-arrazoia / *Proliferation ratio*
- **WN:** Wregex-NESmapper
- **Z:** Zitoplasmatikoa / *Cytoplasmatic*

Abstract

Cellular homeostasis crucially relies on the correct nucleocytoplasmic distribution of a vast number of proteins. Many of these proteins are dynamically shuttled between the nucleus and cytoplasm by specialized receptors, such as the nuclear export receptor CRM1/XPO1. By recognising and binding specific sequence motifs termed nuclear export signals (NESs), CRM1 mediates the translocation of hundreds of proteins to the cytoplasm, and thus regulates critical signalling pathways and cellular functions. Mutation and altered expression of CRM1 are common in human tumours, an observation that has recently brought CRM1 inhibition into the focus of anticancer therapy.

Several aspects of the physiopathology of CRM1 remain to be further investigated. On one hand, dozens of CRM1-dependent NESs have been reported, but the NES motifs of many potential cargos are still unknown. Furthermore, the CRM1/NES interaction has been characterized using structural and biochemical approaches *in vitro*, but mechanistic studies of CRM1-mediated export in a cellular context are still lacking. Moreover, a recurrent mutation in CRM1 (E571K) has been shown to possess oncogenic capacity, but the cellular effects of this mutation remain to be further characterized. On the other hand, although CRM1 inhibitors, such as selinexor, are already entering clinical use in cancer therapy, there is still limited knowledge about how these inhibitors can be combined with other targeted drugs, and what their global cellular effects can be.

The results presented in this PhD Thesis shed further light on these aspects of CRM1 physiopathology. On one hand, new functional NES motifs have been identified and characterized in several cellular and viral proteins, including (i) the cofactors of the USP12 deubiquitinase, (ii) potential CRM1 cargoes related to cancer, (iii) a recently-described set of small human proteins, termed micropeptides, and (iv) the nucleocapsid protein of human coronaviruses. These studies have been carried out using either a well-established nuclear export assay (termed Rev(1.4)-GFP assay) or a novel assay described here, termed $SRV_{B/A}$ assay. Furthermore, the $SRV_{B/A}$ assay has been used to gain mechanistic insight on CRM1-mediated NES export in a cellular context, by extensively analysing the effect of single amino acid mutations in the NES-binding region of CRM1, including the cancer hotspot mutation E571K. On the other hand, an *in silico* analysis of genes co-expressed with CRM1 has led to the selection of two potential candidates (EZH2 and AURKA) for selinexor-based combination treatments. Inhibitors of these proteins have been evaluated in combination with selinexor using a cellular model of acute myeloid leukaemia. The results suggest that combined

inhibition of CRM1 and AURKA warrants further investigation as a potential strategy for cancer therapy. Finally, a new proteomics approach based on compartment-specific proximity biotinylation of proteins using the APEX2 peroxidase has been developed and tested. This approach can be used to identify new CRM1 cargos, as well as to gain global insight into the cellular effect of CRM1 inhibition.

1. Sarrera

(Sendino et al., 2018 eta Sendino et al., 2020a-n oinarrituz berrikusi eta eguneratutako testua)

CRM1 (*Chromosome Region Mantenaince protein 1*) proteina legamietan kromosomen egituraren egonkortasunaz arduratzen den proteina gisa zen ezaguna. 1997. urtean, bestelako proteinak nukleotik zitoplasmara garraiatzeko, esportatzeko, gai dela aurkitu zen (Fornerod et al., 1997; Fukuda eta al., 1997; Stade et al., 1997; Ossareh-Nazari et al., 1997). Orduan, ez zen funtzio hori duen bestelako proteinarik ezagutzen, eta, hori dela eta, CRM1 proteinak XPO1 (*exportin 1*) izena ere hartu zuen. HUGO gene nomenklaturaren batzordearen (*HUGO Gene Nomenclature Committee;* HGNC) arabera sinbolo ofiziala XPO1 bada ere, tesi honetan CRM1 sinboloa erabiliko da, erabiliena baita literaturan.

CRM1ek esportatzen dituen proteinetan aminoazido sekuentzia laburrak ezagutzen eta lotzen dituela frogatu zuten garai hartan argitaratutako lanek. Sekuentzia labur horiei "nukleotiko esportazio seinale" (*nuclear export signal*, NES) izena eman zitzaien. CRM1ek 400 bat proteina zelular zein birikoren esportazioa bideratzeaz gain (Fung et al., 2021), hainbat RNA molekulen esportazioaren arduraduna ere bada (Hutten eta Kehlenbach, 2007; Okamura et al., 2015). Horrek, zelulen ongizaterako ezinbestekoak diren hainbat prozesutarako pieza gako egiten du CRM1. Esaterako, NF-κB (*nuclear factor kappa-light-chain-enhancer of activated B cells*) bidezidorrean edota zelula-zikloan CRM1en mendeko esportazioa gertatu gertatzen da (Turner eta Sullivan, 2008). Mitosian ere parte hartzen duela behatu izan da (Arnaoutov et al., 2005).

Guzti horrek CRM1 eta minbiziaren arteko erlazioa ikertzeko bide eman du, eta CRM1en mutatutako aldaerek zein CRM1en gainadierazpenak minbiziarekin lotura badutela baieztatu da. Hori horrela, CRM1 minbiziaren kontrako terapiarako itutzat hartu (Gravina et al., 2014a; Tan et al., 2014), eta hainbat ikuspuntu ezberdinetatik ikertu da (Koyama eta Matsuura, 2012; Fung eta Chook, 2014; Monecke et al., 2014). Ikerketa horiek klinikan erabilgarriak diren CRM1en inhibitzaileen gaineko ezagutza handitu dute. CRM1en deskribatutako lehen inhibitzailea leptomizina B (LMB) izenekoa izan zen (Kudo et al., 1998). Konposatu hori CRM1en inhibitzaile oso eraginkorra bada ere, gaixoetan kontrako efektu larriak sortzen ditu, eta beraz, ezin da klinikan erabili (Newlands et al., 1996). Badira baina SINE (*selective inhibitor of nuclear export*) familia osatzen duten beste inhibitzaile batzuk, zeinak eraginkorrak bezain seguruak diren (Senapedis et al., 2014). SINE horietako batzuek ikerketa preklinikoetan aurrera egin dute; inhibitzaile horietan aurreratuenak, selinexor izenekoak, entsegu klinikoetan ere aurrera egin du eta minbizi mota jakin batzuk tratatzeko oniritzia jaso du oraintsu bai AEBetan zein Europan (Food and Drug Administration, 2019, 2020a, 2020b; European Medicines Agency, 2021).

CRM1en gaineko ezagutza, bai bere funtzio fisiologikoei dagokienez baita minbiziarekin duen loturari dagokionez, zabala bada ere, zer argitu badago oraindik ere. Aipatzekoa da CRM1en mende esportatzen diren proteinen zerrenda osoa (CRM1en esportoma) osatzeke dagoela, eta horrekin lotuta, CRM1en mutazio ohikoenak edota CRM1en inhibitzaileek haren esportoman eragiten duten asaldura ere ikertzeke dago. CRM1 minbiziarekin zerikusia baduela ezaguna da eta bere inhibizioa eragiten duten farmakoak beste agente kimioterapiko batzuekin konbinatzeak minbiziari aurre egiteko baliagarria dela ikusi bada ere, beste konbinazio asko ikertzeke daude. Bestetik, CRM1ek NESak nola lotzen dituen deskribatu den arren, loturarako gakoak diren CRM1en aminoazidoek lotura horretan zenbateraino parte hartzen duten ez da sakon aztertu.

1.1. Nukleo eta zitoplasmaren arteko proteinen garraioa

Zelula eukariotoen berezitasun nabariena zelula barneko mintz-sistema bidezko konpartimentalizazioa da. Mintz-sistema horrek mugatutako bi konpartimentu nagusiak nukleoa eta zitoplasma dira. Konpartimentu horiek banatzen dituen mintzari gaineztadura nuklear izena ematen zaio, eta nukleoa eta zitoplasma fisikoki banatzen baditu ere, konpartimendu bien artean zelularen homeostasia mantentzeko beharrezkoa den etengabeko komunikazioa egikaritzea ahalbidetzen du. Komunikazio hori molekulen garraio nukleozitoplasmatikoaren bidez ematen da. Molekula gehienen garraioa gaineztadura nuklearraren zehar mihiztatuta dauden nukleoko poro-konplexu (*nuclear pore complexes*, NPC) izeneko kanal batzuetan zehar gertatzen da. Tamaina txikiko molekulek, horien artean 30 kDa baino txikiagoak diren proteinek ere, printzipioz, NPCak difusioz zeharkatu ditzakete; alabaina, NPCa zeharkatzen duten proteina gehientsuenak (baita oso handiak diren proteina-konplexuak ere) garraio-hartzaileei lotuko zaizkie energiaren mendeko prozesu baten bidez garraiatuak izateko (Knockenhauer eta Schwartz, 2016; Schmidt eta Görlich, 2016). Garraiatuak diren proteina horiei “kargo” izena eman zaie tesi honetan. Kargoen garraioa makineria espezializatu baten bidez ematen da. Makineria horrek hiru pieza nagusi ditu (1. irudia): (1) NPCak, (2) gaineztadura nuklearraren alde bien arteko Ran GTPasa txikiaren gradientea, zeinak garraioaren noranzkoa zehaztuko duen, eta (3) garraio-hartzaileak edo karioferinak, zeintzuek garraiatuko dituzten kargoetan seinale espezifikoak ezagutuko dituzten (Pemberton eta Paschal, 2005; Tran et al., 2014; Cautain et al., 2015).



1. irudia: Nukleoko poro-konplexuetan (NPC) zeharreko proteina-garraio nukleozitoplasmatikoa. Proteina txikiak (<30 kDa), printzipioz, nukleoaren eta zitoplasmaren artean difusioz mugi daitezke NPCetan zehar. Proteina handiagoek, garraio- (inportazio- edo esportazio-) hartzaileen beharra dute konpartimentu batetik bestera mugitu ahal izateko. RanGTP/RanGDP gradienteak (RanGTP-kontzentrazio handia nukleoan, eta RanGDP-kontzentrazio handia zitoplasman) garraioaren noranzkoa finkatzen du.

NPCak, gaineztadura nuklearreko kanpo eta barne mintza fusionatzean agertzen diren poroetan txertatzen diren 30 bat nukleoporina (NUP) izeneko proteina ezberdinen hainbat kopiaz osaturik dauden konplexu proteiko handiak (∼ 120 MDa) dira (2. irudia). NPCek errotazio-simetria zortzikoitza (Gall, 1967) agertzen duten gainezarritako hiru eraztun itxurako egiturez eraturik daude; eraztun nuklearra, tarteko eraztuna eta eraztun zitoplasmatikoa. Neurri handi batean, NPCek gaineztadura nuklearraren planoarekiko simetria bikoitza ere erakusten dute. Simetria bikoitz gabeko zonaldeak bi dira; zitoplasmako aldean agertzen diren zitoplasmako filamentuak eta nukleoko aldean agertzen den saski nuklearra. Gainera, NPCaren erdialdean eratzen den kanalean egitura zehatzik ez duen fenilalanina-glizinatan (FG) aberatsak diren motiboez eratutako FG-motibo sarea eratzen da (Pemberton eta Paschal, 2005; Knockenhauer eta Schwartz, 2016; Lin et al., 2016; Lin eta Hoelz, 2019).



2. irudia: NPCaren eskema. Gaineztadura nuklearrarekiko NPCaren sekzio perpendikularra erakusten da. Bertan NPCaren atal ezberdinak adierazi dira.

FG-motibo sare horren propietate fisiko-kimikoei esker, tamaina jakin batetik gorako proteinak ezin dira nukleotik zitoplasmara edo zitoplasmatik nukleora era askean mugitu. Aurretik, tamaina muga hori 30 kDa-etan dagoela aipatu da, eta izan ere, denbora luzez NPCak muga hori duela kontsideratu da. Egun, tamaina-muga zehatz hori zalantzan jartzen da, eta FG-motibo difusio-sareak molekula txikienak handienak baino gutxiago atxikitzen dituela planteatu da (Timney et al., 2016).

Aipatutako garraio-makineria espezializatu horren bigarren pieza Ran GTPasa da. Ran GDPri (RanGDP) edo GTPri (RanGTP) lot dakioke garraio-hartzaile eta kargoen arteko elkarrekintza erregulatzeko (Pemberton eta Paschal, 2005; Tran et al., 2014; Cautain et al., 2015). RanGDParen kontzentrazioa zitoplasman da handia, RanGTParena, berriz, nukleoan (Ikusi 1. irudia). RanGDP/RanGTP gradientea mantentzen duten kofaktoreak bi dira: GTPasa aktibatzailea den RanGAP1 proteina zitoplasmatikoa, eta kromatinari lotutako nukleotidoak trukatzeko RCC1 proteina. Ran gradiente hori hain da determinantea garraioaren noranzkoa zehazteko, non, RanGTPren kontzentrazioa zitoplasman artifizialki emendatzeak garraioaren noranzkoa alderantzikatu dezakeen (Nachury eta Weis, 1999).

Azkenik, garraioa egikaritzeko kargoekin batera gaineztadura nuklearraren alde batetik bestera mugituko diren garraio-hartzaile edo karioferinak daude. Giza genomak 25 karioferina kodetzen ditu (Çağatay eta Chook, 2018); horietako zenbaitzuek kargoak gaineztadura nuklearrean zehar noranzko bietan garraia baditzakete ere, gehientsuenak nukleoranzko hartzaile gisa (inportinak) ala nukleotiko hartzaile gisa (esportinak) aritzen dira esklusiboki. Nukleora garraiatzen diren proteina gehienak α-inportina/β-inportina heterodimeroaren mende egiten dute, zitoplasmara garraiatzen direnak aldiz, CRM1en mende (3. irudia).

α-inportina/β-inportinaren zein CRM1en bidezko garraioan RanGTPak zuzeneko eragina du, hartzaile eta kargoen arteko elkarrekintzak modulatzen baititu (3. irudia). Izan ere, nukleoko RanGTPak, inportazio- zein esportazio- konplexuekin elkarrekiten du. Batetik, inportina/kargo konplexuen desmuntaketa bultzatzen du, horrela inportazio-kargoa nukleoan askatuz. Bestetik, CRM1 esportazio-hartzailearekin eta haren kargoekin bat eginez CRM1/kargo/RanGTP konplexu trimerikoa osatzen du, CRM1 eta kargoen arteko interakzioa egonkortzeko. Konplexu hori, zitoplasmara heldutakoan, RanGAP1ek GTParen hidrolisia eragingo du, eta esportazio-kargoa zitoplasman askatuko da (Dickmanns et al., 2015).

Garraio-hartzaile horiek behin kargoa dagokion konpartimentuan askatu dutela, birziklatuak izango dira. Inportazio hartzaileen kasuan, β-inportina RanGTPari lotuta igaroko du NPCa, α-inportinak ordea, RanGTPaz gain XPO2 esportinaren beharra izango du (Lu et al., 2021). CRM1ek berriz, bere kabuz igaroko du NPCa (Dickmanns et al., 2015).



3. Irudia: Garraio nukleozitoplasmatikoaren mekanismo nagusiak. Ezkerraldean α-inportina/β-inportina (αInp/βInp) bidezko inportazioa ageri da. αInp/βInp heterodimeroak zitoplasman bere kargoak lotu eta NPCetan zehar nukleora garraiatzen ditu. Behin, konplexua nukleora heldu denean RanGTParekin elkarreragin eta inportazio-konplexua desmuntatzen da. Eskuinaldean CRM1en mendeko esportazioa ageri da. CRM1 hartzaileak nukleoan bere kargoak ezagutu, eta RanGTParekin batera, esportatua izango den konplexu trimerikoa eratzen du. Konplexu hori, zitoplasmara heltzean, GTParen hidrolisia medio dela desmuntatu, eta CRM1 hartzailea zein esportazio-kargoa askatuko dira.

Makineria horretaz gain, badira proteina jakin batzuen garraioa zorrozki erregulatzen duten bestelako mekanismo batzuk ere, hala nola, proteinen fosforilazioa (Nardozzi et al., 2010; Panayiotou et al., 2016), ubikuitinazioa (Rodríguez, 2014) edota garraio-kargoetan karioferinek ezagutuko dituzten seinaleak dimerizazioaren bidez estaltzea (Rodríguez et al., 2004; Engelsma et al., 2007).

1.1.1. Inportazio eta esportaziorako seinaleak

Karioferinek garraiatuko dituzten proteinetan dauden peptido-sekuentzia espezifikoak ezagutu eta lotzen dituzte. Peptido-sekuentzia horiek garraio nukleozitoplasmatikorako seinale moduan aritzen dira. Seinaleok bitarikoak izan daitezke: inportinek ezagutzen eta lotzen dituzten nukleora lokalizatzeko seinaleak, NLSak (*nuclear localization signals*), eta esportinek ezagutzen eta lotzen dituzten nukleotiko esportazio seinaleak, NESak (*nuclear export signals*).

1.1.1.1. Nukleora lokalizatzeko seinaleak (NLSak)

Inportaziorako ondoen karakterizatutako hartzaileak, α-inportina/β-inportina heterodimeroak alegia, NLS "klasikoa" ezagutzen du (*classic NLS,* cNLS). cNLSa aminoazido basikozko errenkada batez edo biz osatutako peptido-sekuentzia da. Errenkada bakarreko cNLSen adostasun-sekuentzia K-K/R-X-K/R da eta errenkada bikoena (K/R)(K/R)$X_{10-12}$$(K/R)_{3/5}$, non, X hizkiak edozein aminoazido adierazten duen eta $(K/R)_{3/5}$-k, bost aminoazidotik hiru lisina edo arginina direla (Soniat eta Chook, 2015). SV40 birusaren T-antigeno luzearen ^{126}PKKKRKV^{132} sekuentzia aminoazido basikozko errenkada bakarreko cNLSaren adibide da (Kalderon et al., 1984a, 1984b), nukleoplasminaren ^{155}KRPAATKKAGQAKKKK^{170} sekuentzia, aldiz, errenkada biko cNLSaren adibide (Dingwall et al., 1988).

NLS klasikoez gain, badaude beste inportinek ezagutzen dituzten NLS "ez-klasikoak". Horietan gehien ikertu direnak, inportina-β_2-ak ezagutzen dituen PY-NLSak dira. PY-NLSak egitura definitu gabeko 20-30 aminoazidozko peptido seinaleak dira. Sekuentzia horien C-muturrean R/K/H(X_{2-5})PY motiboa dago (X_{2-5} bi eta bost aminoazido arteko edozein sekuentzia izan daiteke). N-muturrean, aminoazido basiko edo hidrofobikozko errenkada egon daiteke, zeinak PY-NLSak bi azpitaldetan banatzen dituen, bPY-NLSak (basikoak) eta hPY-NLSak (hidrofobikoak) (Lu et al., 2021).

1.1.1.2. Nukleotiko esportazio seinaleak (NESak)

CRM1ek, "leuzinatan aberatsak" diren NES peptido-sekuentziak ezagutzen ditu. NES horietan 4-5 aminoazido hidrofobikok agertzen duten kokapenaren arabera adostasun-sekuentzia bat osatzen dute. Adostasun-sekuentzia klasikoa, $\phi^1X_{(2-3)}\phi^2X_{(2-3)}\phi^3X\phi^4$ sekuentzia da. ϕ sinboloak aminoazido hidrofobiko bat, normalean leuzina dena baina, isoleuzina, balina, fenilalanina edo metionina ere izan daitekeena adierazten du, eta X hizkiak edozein aminoazido (Kosugi et al., 2008). Adostasun-sekuentzia horrekin bat egiten duten NES motiboen adibide dira GIB birusaren Rev proteinaren ^{75}LPPLERLTL^{83} (Fischer et al., 1995) edo PKI proteinaren ^{37}LALKLAGLDI^{46} (Wen et al., 1995) sekuentziak. Adostasun-sekuentzia horri ϕ^0 posizioa ere gehi dakioke maiz, horrela gertatzen da adibidez SNUPN proteinaren NESaren kasuan

^{1}MEELSQALASSFSVSQ^{16}, non metionina ϕ^{0} posizioan aurkitzen den (Dong et al., 2009a). Aipaturiko adostasun-sekuentziaz gain, NESek konformazio jakina ere izan ohi dute: N-muturrean, α-helize egitura hartu ohi dute, eta C-muturrean, berriz, harizpi-erakoa (Dong et al., 2009b).

CRM1i lotzen zaizkion NES motiboentzako adostasun-sekuentzia eta egitura orokor bat definitu den arren, NES aktibo guztiek parametro horiek betetzen ez dituztela ikusi da. Adibidez, GIB birusaren Rev proteinaren NESak adostasun-sekuentzia betetzen badu ere, ez du α-helize/harizpi egitura erakusten. Horren ordez, CRM1i luzetara lotzen zaio (Güttler et al., 2010). NES aktibo guztiek adostasun-sekuentzia betetzen ez dutela, eta aurreikusitako egitura ere ez dutela agertzen ikusita, adostasun-NESen sailkapen zabalago bat proposatu da (1. taula) (Kosugi et al., 2008; Fung et al., 2015, 2017). Sailkapen zabalago hori NESek CRM1 lotzen duten noranzkoaren eta aminoazido hidrofobikoen kokapenaren araberakoa da. Horrela, CRM1en poltsiko hidrofobikoa klasikoki deskribatutakoaren noranzko berean lotzen duten NESak "*plus*" izendatu dira, eta oraintsu deskribatu diren eta CRM1 kontrako noranzkoan lotzen dutenak "*minus*" edo "*reverse*" (Fung et al., 2015). Gainera, aminoazido hidrofobikoen kokapenaren arabera mota ezberdineko *plus* zein *minus* NESak daude. *Plus* erakoak zazpi dira: 1a, 1b, 1c, 1d, 2, 3 eta 4, *minus* erakoak, ordea, lau: 1a-R, 1b-R, 1c-R eta 1d-R (Kosugi et al., 2008; Fung et al., 2015, 2017).

1. taula: Mota ezberdinetako NESen noranzkoa, sekuentzia eta egitura. Φ sinboloak leuzina, isoleuzina, balina, fenilalanina edo metionina aminoazidoa adierazten du, normalean leuzina, eta X hizkiak edozein aminoazido (Kosugi et al., 2008; Fung et al., 2015, 2017).

Noranzkoa	Mota	Sekuentzia	Egitura
Plus	1a	ΦXXXΦXXΦXΦ	Helize-harizpi egitura. α- (1a eta 1c motakoak) zein 3_{10}- (1b motakoak) helizeak motaren arabera
	1b	ΦXXΦXXΦXΦ	
	1c	ΦXXXΦXXXΦXΦ	
	1d	ΦXXΦXXXΦXΦ	
	2	ΦXΦXXΦXΦ	Begizta egitura
	3	ΦXXΦXXXΦXXΦ	α-helize egitura esklusiboki
	4	ΦXXΦXXXΦXXΦXXXΦ	3 motakoen bezalako α-helizea, gehi beste NES motetan agertzen ez den bosgarren aminoazido hidrofobikoa bere baitan hartzen duen harizpia
Minus	1a-R	ΦXΦXXΦXXXΦ	Harizpi-helize egitura (*Plus* 1 motakoen egitura bezalakoa alderantzikaturik)
	1b-R	ΦXΦXXΦXXΦ	
	1c-R	ΦXΦXXXΦXXXΦ	
	1d-R	ΦXΦXXXΦXXΦ	

NESen sekuentziak eta CRM1 lotzeko hartu behar duten egitura sakon aztertu bada ere, tesi proiektu honi hasiera eman zitzaionean ez zegoen NES mota ezberdinen eta CRM1en arteko elkarrekintza testuinguru zelular batean ikertzen zuen ikerketarik. Eta hori ezinbestekoa da NESen esportazioa nola ematen den osotasunean ulertzeko.

1.2. CRM1en egitura eta NESak lotzeko ezaugarri gakoak

CRM1 proteina helikoidal malgua da, non N- eta C-muturrak bata bestearengandik hurbil dauden (4A irudia). RanGTPa alde ahurrean lotzen da, NESak, ordea, alde ganbilean dagoen poltsiko hidrofobiko batera. NESak CRM1era lotu ahal izateko, CRM1en poltsikoa zabalik egon behar da, eta hori, C-helize eta H9 begizta izeneko egituren kokapen eta konformazioaren araberakoa da (Dong et al., 2009b; Monecke et al., 2009, 2014; Güttler et al., 2010; Koyama eta Matsuura, 2012; Fung eta Chook, 2014). NESak lotzeko poltsiko hidrofobikoa, alde zabal eta estuago bana ditu; zabalena *plus* erako NESen N-muturra kokatzen den aldea da, estua, aldiz, C-muturra kokatzen den aldea (4B irudia). Gainera, poltsikoan barna bost gune hidrofobiko daude, eta gune horiek dira, hain zuzen ere, NES bakoitzak hartzen duen egitura zehaztuko dutenak. Izan ere, NESen aminoazido hidrofobikoek poltsikoko aminoazido hidrofobikoekin (I521, L525, F561 eta F572) elkarreginez beteko dituzte gune horiek (4C irudia) (Kosugi et al., 2008; Dong et al., 2009b; Monecke et al., 2009; Güttler et al., 2010; Fung et al., 2017). Badira CRM1en aktibitate eta erregulazioarekin erlazionatuta dauden bestelako aminoazido ez hidrofobikoak ere (4C irudia), bereziki, C528, K568 eta E571 aminoazidoak. C528 aminoazidoa LMB zein SINE konposatuen itua da. CRM1en inhibitzaile horiek C528 aminoazidoa kobalenteki lotzen dute, poltsiko hidrofobikoa betez, eta beraz, kargoen esportazioa inhibituz (4D irudia). Bestalde, K568 aminoazidoak NESen kate nagusiarekin hidrogeno-loturak ezartzen ditu NESak CRM1i ondo lotu daitezen. Gainera, NESen antzekoak diren baina NES aktiboak ez diren peptidoetarako galbahe ere badela proposatu da (Fung et al., 2017). Horretaz gain, K568 aminoazidoak, CRM1en funtzionamendu fisiologikorako garrantzitsua den E571 aminoazidoarekin elkarrekintza elektrostatikoa ere ezartzen du. E571 aminoazidoa, geroago sakonago azalduko den bezala, zenbait minbizitan mutaturik agertzen da (Puente et al., 2011), eta mutazio horrek efektu onkogenikoa ere baduela behatu da (Taylor et al., 2019).



4. irudia: CRM1 proteina eta haren poltsiko hidrofobikoaren ezaugarri nagusiak eta CRM1en inhibizioa minbiziari aurre egiteko terapia bezala. A. CRM1 proteinaren egituraren irudi eskematikoa. NESak lotzen dituen poltsiko hidrofobikoa, eta poltsiko horren konformazioa erregulatzen duten C-helizea eta H9 begizta adierazten dira. B. UCSFko Chimera package (Pettersen et al., 2004) erabiliz eta CRM1en 3GJX estruktura (Monecke et al., 2009) erabiliz egindako poltsiko hidrofobiko hutsaren (ezkerrean) eta *plus* erako NESa (arrosa) loturik duen poltsikoaren (eskuman) irudiak. C. NCBIko iCn3D bisorearekin eta 3GJX estrukturarekin egindako poltsiko hidrofobiko hutsaren irudiak. Erdialdeko irudian, NESen loturarako gako diren aminoazido hidrofobikoak eta eskuinaldean, hidrofobikoak ez direnak baina NESen loturan edo CRM1en fisiopatologian garrantzitsuak diren aminoazidoak ageri dira. D. LMBk (edo SINE konposatuek) CRM1en poltsiko hidrofobikoa bete eta konplexu trimerikoaren eraketa oztopatzen dute. Ondorioz, kargoak ezin zaizkio CRM1i lotu eta horien esportazioa inhibiturik geratzen da.

1.3. CRM1en kargo eta NESen identifikaziorako hurbilketak

CRM1ek milatik gora kargo izan ditzakeela uste da, izan ere, egun, CRM1en 400 inguru kargo egiaztatu badira ere (http://prodata.swmed.edu/ LRNes/index.php; Xu et al., 2012; Fung et al., 2021), ikerketa proteomikoetan identifikatutako hainbat ustezko kargo konfirmatzeke daude oraindik ere (Thakar et al., 2013; Kirli et al., 2015). Guzti horietaz gain, kargo izateko inolako zantzurik ez dagoen beste horrenbeste proteina ere izan badirela uste da. Aipatu beharra dago, egiaztatu diren kargoen artean badirela NESa ezagutzen ez zaien hainbat proteina. Kargo eta motibo horien identifikazio eta karakterizazioan sakontzea ezinbestekoa da CRM1 fisiopatologia osotasunean ulertuko bada. Hori dela eta, tesi honetan CRM1en kargo berriak bilatu, eta kargo berri zein egiaztatutakoen NESak aztertu dira. Horretarako erabili diren hurbilketa esperimentalen (CRM1en inhibizioa, bioinformatika analisiak, esportazio-entseguak, ituratutako mutagenesia eta proteomika analisiak) funtsa deskribatuko da jarraian.

1.3.1. CRM1en inhibizioan oinarritutako esperimentuak

CRM1en kargoak identifikatzeko ohiko esperimentuetan zelulak LMBrekin tratatzen dira. Horrela, CRM1 inhibitu egiten da eta horren ondoriozko intereseko proteinen (endogenoak zein ektopikoki gainadierazitakoak) kokapen aldaketa azter daiteke.

Tipikoki, CRM1en kargo diren proteinek kokapen nuklearragoa agertuko dute CRM1 inhibitzean egoera basalean baino. Normalean, jokaera hori agertzen duten proteinak CRM1en kargo lez onartzen dira, eta agertzen ez dutenak baztertu. Hala ere, badira kasu jakin batzuk, zeintzuetan jokaera hori betetzeak ez duen proteina bat CRM1en kargo dela baieztatuko, eta ez betetzeak, ez duen ezeztatuko. Esaterako, CRM1en kargo den proteina batek kargo ez den beste proteina bat aldean eraman dezake (ingelesez *piggyback* mekanismoa bezala ezagutzen dena), eta ondorioz, kargo ez den proteinak kokapen nuklearragoa erakutsi zelulak LMBrekin tratatzean (Olazabal-Herrero et al., 2019). CRM1 inhibitzean kargo bat mekanismo ezberdinen bidez zitoplasman bahituta geratzea ere gerta daiteke, edota konstitutiboki nukleoan kokatzea. Lehenengoak aztertzeko zitoplasman bahituta geratzea eragiten duen mekanismo jakin hori zein den argitu eta inhibitu beharko da. Bigarrenak aztertzeko berriz, CRM1 gainadieraz daiteke, horrek konstitutiboki nukleoan kokatzen diren kargoen esportazioa nabarmenduko baitu kasu askotan (García-Santisteban et al., 2016, Taylor et al., 2019; Sendino et al., 2020a).

1.3.2. Analisi-bioinformatikoa: NES-iragarleak

NES-iragarleak proteinen aminoazido sekuentziak arakatu eta NESak izan daitezkeen sekuentziak, hau da, NES kandidatuak (*candidate NES*, cNES) bilatzeko gai diren tresna informatikoak dira. Badira cNESak bilatzeko NES-iragarle ezberdinak, esaterako, NetNES (la Cour et al., 2004), ELM (Gould et al., 2010), NESsential (Fu et al., 2011), NESmapper (Kosugi et al., 2014) edota Wregex (Prieto et al., 2014). NES-iragarle batek peptido-sekuentzia bat cNES gisara identifikatzeak ez du sekuentzia hori funtzionala izango denaren inolako ziurtasunik ematen. Izan ere, NES adostasun-sekuentzia betetzen duten aminoazido errenkadak asko badira ere, gehiengoa, ez da NES aktiboa. Beraz, NES-iragarleen bidez aurkitutako cNESak esperimentalki frogatu behar dira. Aktiboak direnetz jakiteko nahikoa izango da esportazio-entsegu baten bidez sekuentzia horien esportazio-aktibitatea aztertzea. cNESa proteina osoaren nukleotiko esportazioaren eragile dela baieztatzeko, aldiz, ituratutako mutagenesi esperimentuak egin beharko dira.

1.3.3. Esportazio-entseguak

Esportazio-entsegu gehienak cNESak bertan klonatzea ahalbidetuko duten plasmido erreportarietan oinarritzen dira. Erreportari mota ezberdinak daude, esaterako, $EYFP_2$-$SV40^{NLS}$ erreportaria (Fu et al., 2018), tesi honetan maiz erabili den Rev(1.4)-GFP erreportaria (Henderson eta Eleftheriou, 2000) edota tesi honetan SRV100 erreportarian (García-Santisteban et al., 2016) oinarrituz garatutako $SRV_{B/A}$ erreportaria (Taylor et al., 2019; Sendino et al., 2020a).

Erreportari horien kokapena era erraz batean aztertu ahal izateko, erreportariek, eskuarki, proteina fluoreszente bat edo antigorputzen bidez detektagarria den etiketa bat izango dute. Aipatutako erreportarien kasuan proteina fluoreszente edo etiketak, YFP, GFP eta Flag epitopoak dira hurrenez hurren. Etiketa horretaz gain, NES aktiborik izan ezean erreportaria nukleoan kokarazten duen seinaleren bat, NLSren bat (edo hainbat), ere izango dute. Horrela, erreportari batean cNES ez-aktibo bat klonatuz gero erreportaria nukleoan bahituta geratuko da (5. irudia). Kontrara, klonatutako cNESa aktiboa baldin bada, erreportariak zitoplasmaranzko kokapen aldaketa jasango du. Kontuan izan behar da, NES aktibo guztiek ez dutela aktibitate maila bera erakusten (Henderson eta Eleftheriou, 2000), eta beraz, zitoplasmaranzko lekualdaketa klonatutako cNES bakoitzaren aktibitatearen araberakoa izango da: cNESa zenbat eta aktiboagoa izan, erreportariak orduan eta kokapen zitoplasmatikoagoa agertuko du.



5. irudia: Esportazio-entseguetako emaitza posibleen adibidea. Esportazio-entseguetan erabili ohi diren erreportari hutsak nukleoan kokatzen dira NLSak direla eta. cNES bat erreportari horietako batean klonatzean, kodetutako proteinak kokapen zelular ezberdina agertuko du klonatutako cNESaren aktibitatearen arabera. Horrela, klonatutako cNESa aktiboa ez baldin bada, erreportaria nukleoan geratuko da, cNESa aktiboa bada ordea, erreportariak cNESaren aktibitatearen araberako zitoplasmaranzko lekualdaketa jasango du.

1.3.4. Ituratutako mutagenesia

NES sekuentzia batek proteina osoaren esportazioa eragiten duela baieztatu nahi baldin bada, proteinaren NESaren aminoazido hidrofobikoak (normalean Φ^3 eta Φ^4) mutatu eta horrek proteina osoaren testuinguruan duen eragina aztertu behar da (6. irudia) (Olazabal-Herrero et al., 2019; Sendino et al., 2020b). Proteina mutanteak proteina basatiaren kokapen bera mantentzen badu, identifikatutako NESak ez du proteina osoaren esportazioa bideratzen, aldiz, kokapen nuklearragoa erakusten badu, NES horrek badu zerikusia proteina osoaren esportazioan.



6. irudia: NES jakin batek proteina osoaren esportazioan duen eragina aztertzeko esperimentuaren adibidea. Identifikatutako NESaren aminoazido hidrofobikoak, normalean ϕ^3 eta ϕ^4, alaninaz ordezkatzen dira. Ikergai den NESak proteina osoaren esportazioan eragina badu, NES mutantedun proteinak proteina basatiak baino kokapen nuklearragoa erakutsiko du.

1.3.5. Analisi proteomikoak

Proteina jakin baten funtzioa osotasunean ulertzeko berarekin elkarri eragiten duen proteina multzoa, hots, bere interaktoma, ezagutu behar da. Hori, tandem masa-espektrometrian (MS/MS) oinarritutako proteomika erabiliz iker daiteke (Aebersold eta Mann, 2003).

Esan bezala, egun CRM1en kargo ugari ezagunak badira ere, ez da oraindik CRM1en esportazio-kargo bilduma osoa, CRM1en esportoma, ezagutzen. Era berean ez da ezagutzen CRM1en inhibizioak edota mutazioek CRM1en esportoman duten eragina ere. Guzti horrek, CRM1 proteomikarako aztergai oso interesgarria bilakatzen du.

CRM1en esportoma karakterizatzeko proteomikan oinarritutako hiru lan baino ez dira argitaratu. Horietako bik, Thakar eta Kirliren taldeek argitaratutakoek, CRM1 basatiaren esportoma dute ikergai (Thakar et al., 2013; Kirli et al., 2015), hirugarrenak berriz, Taylorren taldeak argitaratutakoak, minbizian maiz agertzen den CRM1en E571K mutazioak esportoman duen eragina (Taylor et al., 2019). Aipaturiko hiru ikerketetan, proteomika-laginak prestatzerako orduan oso ohikoak diren bi prozedura erabili dira: frakzionamendu zelularra eta afinitate-purifikazioa. Azken aldian garatu diren beste prozedura batzuk ere badira, esaterako proteinen gertuko markaketa. Prozedura berriok ez dira oraindik CRM1en esportoma ikertzeko erabili, hala ere, proteinen gertuko markaketa helburu horretarako prozedura interesgarria izan daitekeelakoan tesi honetan aukera hori ikertu da.

1.3.5.1. Frakzionamendu zelularra

CRM1en esportoma aztertzen duten ikerketetatik bik (Thakar et al., 2013; Taylor et al., 2019) frakzionamendu zelularra erabiltzen dute. Prozedura hori zelula edo ehunak bere barne konpartimenduak (esaterako, nukleoa eta zitoplasma) bere baitan mantenduz hautsi eta osagai horiek banatzean datza. Zelula edo ehunen hausturarako metodoak mekanikoak edo kimikoak izan daitezke, esaterako lagina sonikatzea edo medio hipotonikoan inkubatzea hurrenez hurren. Osagaien banaketarako metodo klasiko eta sinpleenak lagina hainbat zentrifugazio urratsetan banatzean edo lagina dentsitate gradiente batean zehar pasaraztean daude oinarrituta (7. irudia) (Lee et al., 2010-n berrikusia).



7. irudia: Frakzionamendu zelularrerako metodo klasikoak. Ezkerreko irudian laginean dauden osagaiak zentrifugazio diferentziala erabilita, hau da, ondoz ondoko zentrifugazio urratsetan nola banatzen diren irudikatzen da. Zentrifugazio bakoitzaren ostean gainjalkina jaso eta bertan geratu diren osagaiak banatzeko berriz ere zentrifugatu egiten da. Eskumako irudian dentsitate gradientearen arabera lagineko osagaiak nola banatzen diren ageri da. Tutuan dentsitate gradiente bat prestatzen da, eta lagina dentsitate gradiente horretan zehar pasarazten da. Horrela, osagai bakoitza bere dentsitate bera duen gradientearen zonaldean geratuko da.

Frakzionamendu zelularrak duen mugarik nabariena, konpartimentuen arteko kutsatzeak ekiditeko laginak prestatzerako orduan trebezia handia behar izaten dela da (Bosch et al., 2021-n berrikusia).

1.3.5.2. Afinitate-purifikazioa

CRM1en esportoma afinitate-purifikazioan oinarrituz ere ikertu izan da (Kirli eta al., 2015). Afinitate-purifikazio terminoak, orokorrean euskarri fisiko batean immobilizaturik dagoen estekatzaile espezifiko bat erabiliz laginetako intereseko materiala isolatzeari egiten dio erreferentzia (8. irudia). Euskarri fisikoak agarosazko bihitxoak edo bihitxo magnetikoak izaten dira gehienetan. Estekatzaileak askotarikoak izan daitezke, erabilienak baina, antigorputzak dira. Proteina endogenoen kontrako antigorputzak erabiltzea egoera fisiologikoaren azterketa ahalbidetuko du, askotan, ordea, ez da posible izaten intereseko proteinaren aurkako antigorputz espezifikorik aurkitzea. Beraz, nahiz eta proteina ektopikoen bidez berezkoa ez den egoera bat sortu, askotan probetxugarriago izaten da intereseko proteinari GFP edo Flag bezalako epitopo bat gehitzea eta epitopo horren kontrako antigorputz espezifikoak erabiltzea (Dunham et al., 2012-en berrikusia).



8. irudia: Afinitate-purifikazio metodoaren adibide eskematikoa. Zelula lisatuen erauzkinera interesezko proteinaren aurkako antigorputz-bihitxoak gehitzen dira. Nahasketa hori inkubatu egiten da bihitxoetako antigorputzek intereseko proteina lotu dezaten. Behin antigorputz-proteina elkarrekintza eman dela, bestelako proteinak laginetik baztertzen dira hainbat garbiketa urrats eginez. Garbiketa urrats horien baldintzak erabakigarriak dira intereseko proteina purutasun altuaz isolatu ahal izateko. Bukatzeko, bihitxoetako antigorputzen eta intereseko proteinaren elkarrekintza hautsi egingo da, adibidez, lagina irakinez. Horrela, bihitxoak baztertu eta intereseko proteina isolatu ahal izango da.

CRM1en esportoma ikertzeko, Kirli eta lankideek (2015) CRM1 bera immobilizaturik zuten agarosazko bihitxoak erabili zituzten. Bihitxo horiek erabilita, eta mediora RanGTP gehituta edo gehitu gabe, CRM1ekin elkarrekiten zuten proteinak aztertu zituzten. Behin garraio nukleozitoplasmatikoaren makineriaren osagaiak baztertuta, CRM1en esportoma RanGTPa gehitutako laginean aberastuta ageri ziren CRM1en interaktoreen bilduma bezala definitu zuten.

Tesi honetan, afinitate-purifikazioa bi hurbilketa ezberdinetan erabili da. Lehenengo hurbilketan, CRM1 basatia eta minbizi mutantea den E571K mutantea YFPrekin fusionatu eta epitopo hori ezagutzen duten GFParen aurkako antigorputz-bihitxoak erabili dira CRM1en aldaeron interaktomak isolatzeko helburuz. Interaktoma horien erkaketaz E571K mutazioak esportoman eragindako aldaketak azter daitezke. GFParen aurkako antigorputz-bihitxoak erabiliz emaitza onik ez da jaso eta bestelako hurbilketa bat erabiltzea erabaki da. Bigarren hurbilketa horretan, neutrabidina estekatzailea duen afinitate-purifikazioa CRM1en inhibizioarekin eta APEX2 peroxidasan oinarritutako proteinen gertuko biotinilazioarekin uztartu da. Horrela, CRM1 aktibo edo inhibiturik dagoela nukleo eta zitoplasmako proteomak era bereizian markatu eta isolatu dira (Sendino et al., 2021).

Agerikoa da beraz, afinitate-purifikazioak proteomikaren bidez aztertuko diren laginen prestaketarako aukera zabala eskaintzen duela. Hala ere, kontuan izan behar da ohikoa dela ahulak diren interakzioak galtzea (Bosch et al., 2021). Arazo horrek CRM1en esportoma aztertzerako orduan zuzeneko eragina du, izan ere, CRM1 eta bere kargoen arteko lotura oso ahula izaten da (Kutay eta Güttinger, 2005), eta beraz, prozesuan zehar CRM1en interaktoreen galera gerta daiteke.

1.3.5.3. Proteinen gertuko markaketa

Proteinen gertuko markaketa entzima-markatzaileen erabileran oinarritzen da. Substratu egokiaren presentzian, entzima horiek, inguruko proteinak kobalenteki markatzeko gai izango diren erradikal askeak eratuko dituzte. Erradikal askeak ugariagoak dira entzima markatzailetik gertu, eta ondorioz, entzimaren gertuko proteinek urrunekoek baino marka kobalente gehiago jasoko dute (Gingras et al., 2019). Markatutako proteinak gainontzeko proteinetatik afinitate-purifikazioz isolatuko dira. Jarraian, isolatutako proteina bilduma MS/MS bidez analizatuko da lagineko proteinak identifikatu ahal izateko (9. irudia).



9. irudia: Proteinen gertuko markaketa bidezko proteinen identifikazioa. Entzima-markatzaileak, beharrezko substratuaren presentzian, inguruko proteinetan marka kobalenteak ezarriko ditu. Marka horiei esker, entzimatik gertu zeuden proteinak afinitate-purifikazioaren bidez isolatu ahal izango dira. Azkenik, purifikatutako proteinak MS/MS bidez identifikatuko dira.

Egun, gertuko markaketa egiteko gehien erabiltzen diren entzima-markatzaileak proteinen biotinilazioa eragiten dutenak dira, bereziki BirA motatako biotina-ligasak eta APX familiako peroxidasak (Bosch et al., 2021-en, eta Zhou eta Zou, 2021-en berrikusia).

1.3.5.3.1. BirA motako biotina-ligasak

Biotina-ligasek biotina eta ATPren presentzian lisinak erasoko dituen biotinil-5'-AMP erradikal-askea eratzen dute. Biotina-ligasetan oinarritutako proteinen gertuko markaketa metodologia 2012. urtean hasi zen garatzen, Roux eta lankideek BioID (*Biotin identification*) izena eman zioten markaketa sistema erabiliz lamina nuklearraren proteoma aztertu zutenean. BioID sisteman *Escherichia coli* bakterioaren BirA* izenaz ezaguna den BirA entzimaren R118G mutante promiskuoa (Kwon eta Beckett, 2000; Choi-Rhee et al., 2004; Cronan, 2005) interesezko kokapenera ituratzen da. Behin BirA* intereseko kokapenean dagoela, medioan biotina gehitzen da 15-24 orduko epean proteinen gertuko biotinilazioa (PGB) eman dadin (10. irudia) (Bosch et al., 2021-en berrikusia).



10. irudia: BirA* biotina-ligasak eragindako proteinen gertuko biotinilazioa. BirA* ligasa biotina mediora gehitu bezain pronto gertuko proteinak biotinilatuko dituzten erradikal askeak sortzen hasten da. Lagineko nahikoa proteinek biotina marka jasotzeko biotinilazio prozesua 15-24 orduz luzatu ohi da.

BioID sistema erabiliz lamina nuklearraren proteomaz gain, beste proteoma eta interaktoma asko ikertu dira, adibidez, nukleoko poro konplexuaren (Kim et al., 2014) edo mRNArekin erlazionatutako granuluen proteomak (Youn et al., 2018), eta, ugaztunon erribosomen kalitate kontroleko konplexuaren (Zuzow et al., 2018) edota NSD2 histona metiltransferasaren

interaktomak (Huang et al., 2019). Oso hedaturik dagoen arren, BioID sistemak baditu hainbat muga. Alde batetik, BirA* proteina oso handia ez bada ere, 35 kDa, proteina jakin batzuen interaktoma aztertzean elkarrekintza jakinak oztopa ditzakeela ikusi da (Kim et al., 2016a). Bestetik, BioID bidezko biotinilazioa prozesu nahiko geldoa da, eta beraz, nukleotiko esportazioa bezalako prozesu oso dinamiko edo momentu iragankorrak metodologia horren bitartez aztertzea ez da posible izaten.

Oztopo horiei aurre egiteko biotina-ligasetan oinarritutako beste metodologia batzuk garatu dira. BioID2 sisteman, adibidez, BirA* baino nabari txikiagoa den (27 kDa), *Aquifex aeolicus* bakterioaren BirA entzimaren R40G mutante promiskuoa erabiltzen da (Kim et al., 2016a). BioID2 bidez, kardiomiozito primarioen N-kaderinaren (Li et al., 2019), mitokondrio barneko PKAren (Ould-Amer eta Hebert-Chatelain, 2020) edota p38α MAP kinasaren (Prikas et al., 2020) interaktomak aztertu dira. Erreakzio denbora murrizten duten irtenbideak ere topatu dira. 2018an 10 minutuko epean inguruko proteinak biotinila ditzaketen bi sistema garatu ziren, TurboID eta MiniTurbo (Branon et al., 2018). Biotina-ligasetan oinarrituta proteinen gertuko markaketarako garatutako azken metodoa AirID sistema da (Kido et al., 2020), zeinetan markaketa-erradioa murriztuz analisi proteomikoetan faltsu positibo gutxiago gertatzea lortu den.

1.3.5.3.2. APX motako peroxidasak

Peroxidasei dagokienez, egun gehien erabiltzen direnak ilar edo sojaren APX askorbato peroxidasan dute oinarria. APXn oinarritutako lehen entzima-markatzailea APEX peroxidasa izan zen. APEX 28 kDa-etako entzima monomerikoa da, eta APX entzima homodimerikoan K14D/W41F/E112K mutazioak eraginez sortu zen (Martell et al., 2012). Hasiera batean, APEX mikroskopio elektronikorako laginen prestaketarako zitoplasma bezalako inguru erreduzitzaileetan aktibitatea mantentzen duen entzima baten beharra asetzeko sortu zen, gerora ordea, mikroskopio elektronikorako laginak prestatzeko aproposa izateaz gain, MS/MSrako laginak prestatzeko ere aproposa dela ikusi zen (Rhee et al., 2013). Izan ere, APEX entzimak biotin-fenola substratutzat hartuta, eta H_2O_2-rekin aktibatzen bada, biotin-fenoxil erradikalak sortzen ditu (Rhee et al., 2013). Erradikal aske horiek gertuko proteinen tirosina, triptofano, histidina eta zisteina aminoazidoak eraso ditzakete. Horrela, minutu bateko epean entzimatik gertu dauden proteinak biotinaz kobalenteki markatuta geratuko dira (11. irudia). APEX entzima erabiliz, giza mitokondrioen matrizeko (Rhee et al, 2013), mintz mitokondrialen arteko espazioa (Hung et al., 2014) edo zilio primarioen proteomak (Mick et al., 2015) ikertu dira adibidez.



11. irudia: APEX peroxidasak eragindako proteinen gertuko biotinilazioa. APEX (edo APEX2) gainadierazten duten zelulak biotin-fenolarekin (substratuarekin) inkubatu behar dira ordu erdiz zelulek substratua barnera dezaten. Jarraian, H_2O_2-a gehituz APEX peroxidasa aktibatu egiten da eta minutu bateko epean inguruko proteinen biotinilazioa ematen da.

APEX peroxidasa proteoma zein interaktomak aztertzeko oso erabilia izan bada ere, aktibitate biotinilatzailea hobetu zitekeenaren usteaz Lam eta lankideek, APEX peroxidasatik abiatuz hainbat mutazio frogatu zituzten. Azkenik, A134P mutaziodun APEX entzimak, APEX2 izenaz ezagutzen dena, jatorrizko APEX entzimak baino aktibitate nabarmen altuagoa duela ikusi zuten (Lam et al., 2015). APEX2 peroxidasak gertuko proteinak markatzeko beharrezko prozedura, APEX peroxidasarena berdina da (ikusi 11. Irudia). APEX2 peroxidasa erabiliz, esaterako, lamina nuklearrareko lamin-B1 proteinaren (Tran et al., 2021), FGF1en (Zhen et al., 2018), ugaztunon erribosomen kalitate konplexuaren (Zuzow et al., 2018) eta STK38 kinasaren (Martin et al., 2019) interaktomak edota tantaka lipidikoen (Bersuker eta Olzmann, 2019) proteomak aztertu dira.

Proteinen gertuko markaketa proteoma eta interaktoma aunitz aztertzeko erabili bada ere, gaur egun arte ez da CRM1en esportoma aztertzeko erabili, ezta, jakina, CRM1en inhibizioak eragindako kargoen kokapen aldaketak aztertzeko ere. Hori dela eta, tesi honetan, metodologia horretan oinarriturik hurbilketa berri bat sortu da azterketa horiek aurrera eraman ahal izateko (Sendino et al., 2021).

1.4. CRM1en inhibizioa minbiziaren aurkako hurbilketa terapeutiko bezala

Atal honetan CRM1ek minbiziarekin duen erlazioa eta haren inhibizioa minbizia tratatzeko estrategia bezala erabiltzen duten ikerketetan jasotako emaitzak deskribatuko dira. Lehenik eta behin, tumore ezberdinak aztertzean CRM1 kodetzen duen genean (*XPO1*) aurkitu diren mutazio eta gainadierazpen erako asaldurak azalduko dira. Jarraian, CRM1en inhibitzaile diren SINEak, bereziki selinexor, minbiziari aurre egiteko erabiltzen duten ikerketa prekliniko eta klinikoetan jasotako emaitzak berrikusi eta azalduko dira.

Aipatu beharra dago, SINEak gehien bat minbizia tratatzeko terapia bezala ikertu badira ere, mielinaren degradazioa eragiten duten gaixotasunak (Haines et al., 2015) edo infekzio birikoak (Pickens eta Tripp, 2018; Kashyap et al., 2021) tratatzeko ere erabilgarriak izan daitezkeela. Ildo horretan, selinexor farmakoa COVID-19 tratatzeko erabiltzen duten bi entsegu kliniko (NCT04349098 eta NCT04534725) daude ClinicalTrials webgunean (https://clinicaltrials.gov/). Lehenengo entseguan selinexor COVID-19 akutua duten gaixoak tratatzeko erabiltzen da. Bigarrenean aldiz, COVID-19 arina duten baina paziente onkologikoak direnak tratatzeko.

1.4.1. Proteinen kokapen nukleozitoplasmatikoaren asaldura minbizian

Proteina zelular jakinen kokapen egokia mantendu ezean, gaixotasun larriak sor daitezke. Hain da horrela, non, minbiziarekin erlazionatutako proteinen kokapen nukleozitoplasmatikoaren asaldura ohiko gertakaria den tumore zeluletan. Esaterako, egoera fisiologikoetan nukleoan kokatzen diren p53 edo BRCA2 bezalako tumore ezabatzaileak zitoplasman kokatzen badira, euren aktibitatea galdu eta tumoregenesia bultza dezakete (Hung eta Link, 2011; Hill et al., 2014; Wang eta Li, 2014; Dickmanns et al., 2015).

Minbizi zeluletan proteinen kokapen nukleozitoplasmatikoa asalda dezaketen mekanismoak hainbat dira. Batetik, proteina jakin baten garraio normala eragozten duten mutazioak gerta daitezke, mutazio horiek proteina basatiak duen NES edo NLS baten aktibitatea murritz dezakete, edota seinale berri bat sortu. Adibidez, BRCA2 tumore ezabatzailearen mutazio jakinak normalean eskuragarri ez dagoen NES seinale bat eskuragarri egin eta proteina horren kokapen zitoplasmatiko aberrantea eragin dezake (Jeyasekharan et al., 2013). Modu bertsuan, NPM1 onkoproteinan irakurtarauaren aldaketa eragiten duten mutazioak deskribatu dira. Mutazio horien ondorioz, NES seinale berri bat sortu, eta NPM1ek kokapen zitoplasmatiko aberrantea erakusten du (Mariano et al., 2006). Bestetik, akatsa garraio makinerian bertan egon daiteke (Mor et al., 2014), bai makineria horren pieza bat mutaturik dagoelako,

esaterako, minbizi hematologikoetan maiz gertatzen diren eta CRM1en mendeko esportazioa asaldatzen duten NUP98 eta NUP214 nukleoporinei eragiten dieten translokazio kromosomikoak (Takeda et al., 2010; Takeda eta Yaseen, 2014; Saito et al., 2016), bai piezaren baten adierazpena asaldatuta dagoelako, adibidez, β-inportina hartzailearen gainadierazpena (Wang eta Li, 2014). Garraio makineriaren akatsek proteina askoren, eta maiz RNAren, kokapenean aldaketak eragingo dituzte.

CRM1en kasuan, hartzailearen funtzio normalari eragin diezaioketen mutazioak zein adierazpen aberrantea behatu izan dira minbizi mota ezberdinetan. Asaldura horiek CRM1en kargo diren proteina askoren kokapen nukleozitoplasmatiko ezohikoa eragin dezakete.

1.4.1.1. CRM1en mutazioak minbizian: E571 aminoazidoaren mutazio errepikakorra tumore hematologikoetan

Tumore hematologiko ezberdinetan CRM1en E571 azido glutamikoari eragiten dioten ordezkapen mutazioak (gehienbat E571K) aurkitu dira maiz (2. taula). Azpimarratzekoa da, orain dela gutxi, mutazio horrek onkogenesi prozesua bultzatzen duela frogatu dela (Taylor et al., 2019).

2. taula: Tumore hematologiko ezberdinetan aurkitutako CRM1 E571 mutazioaren maiztasuna. Taula honen bertsio luzatua 1. taula gehigarrian ikus daiteke.

Minbizi mota	Mutazioaren maiztasuna	Erreferentziak
Leuzemia linfozitiko kronikoa (CLL)	317/6126 (% 5,17)	Puente et al., 2011; Quesada et al., 2011; Balatti et al., 2012; Landau et al., 2013, 2015; Damm et al., 2014; Jeromin et al., 2014; Lawrence et al., 2014; Messina et al., 2014; Guièze et al., 2015; Hernández et al., 2015; Ojha et al., 2015; Sutton et al., 2015; Vollbrecht et al., 2015; Amin et al., 2016; Jain et al., 2016; Cosson et al., 2017; Quijada-Álamo et al., 2017; Takahashi et al., 2018; Hu et al., 2019; Taylor et al., 2019; Gángó et al., 2020; Machnicki et al., 2020
B-zelulen linfoma mediastinal primarioa (PMBL)	36/138 (% 26,09)	Dubois et al., 2016; Jardin et al., 2016; Taylor et al., 2019
Hodgkin linfoma (HL)	69/374 (% 18,45)	Camus et al., 2016, 2021; Jardin et al., 2016; Tiacci et al., 2018; Liang et al., 2019; Wienand et al., 2019; Taylor et al., 2019; Van Slambrouck et al., 2020
B-zelula handien linfoma hedatsua (DLBCL)	25/1187 (% 2,11)	Dubois et al., 2016; Jardin et al., 2016; Taylor et al., 2019
Trikoleuzemia (HCL)	1/24 (% 4,2)	Maitre et al., 2018
B-zelula helduen neoplasma	1/12 (% 8,3)	Taylor et al., 2019
Area marginaleko linfoma (MZL)	1/4 (% 25)	Taylor et al., 2019

CRM1en E571K mutazio errepikakorra orain 10 urte deskribatu zen lehendabizi leuzemia linfozitiko kronikoko (CLL) pazienteetan (Puente et al., 2011). Mutazio hori CLL gaixoen % 5ak agertzen du (ikusi 2. taula) eta IGHV (*immunoglobulin heavy-chain variable*) ez-mutatuarekin erlazionatu izan da maiz (Puente et al., 2011; Jeromin et al., 2014; Jain et al., 2016). IGHV ez-mutatua CLL pazientetan prognosi okerrarekin erlazionatzen bada ere, CRM1en mutazioa ez da pronostiko okerrarekin erlazionatu (Jain et al., 2016). CRM1en E571K mutazioa ohiko gertakaria da Hodgkin linfoma (HL, % 18) eta B-zelulen linfoma mediastinal primario (PMBL, % 26) gaixoen artean ere. CLL gaixoekin gertatzen den bezala, HL gaixoetan ere ez da mutazioaren eta pronostiko okerraren arteko erlaziorik topatu (Camus et al., 2016); PMBL gaixoetan aldiz, mutazioa progresio gabeko biziraupen laburragoarekin korrelazioan dago (Jardin et al., 2016). Gainera, CRM1en E571K mutazioa hondar-gaixotasun minimoaren biomarkatzaile moduan erabiltzea planteatu da HL zein PMBL pazienteetan (Camus et al., 2017). CRM1en E571 mutazioa zenbait tumore solidotan topatu izan bada ere, tumore hematologikoetan baino maiztasun askoz ere baxuagoan aurkitzen da horrelakoetan (Lin et al., 2014, Pitt et al., 2016; Taylor et al., 2019).

E571 aminoazidoa CRM1ek NESak lotzeko duen poltsiko hidrofobikotik hurbil kokatzen da (ikusi 4C irudia). Kokapen horrek, lotura zuzena izan dezake CRM1en E571K mutazioak C-muturra negatiboki kargaturik duten NES batzuen esportazioa emendatzearekin (García-Santisteban et al., 2016).

1.4.1.2. CRM1en adierazpen aberrantea giza minbizietan

CRM1en adierazpen maila, bai mRNA bai proteina mailan, zenbait minbizitan ikertu da, eta salbuespenak badiren arren (Xie et al., 2016), orokorrean minbizi ehunetan gainadierazita dagoela aurkitu da (Noske et al., 2008; Huang et al., 2009; Shen et al., 2009; Yao et al., 2009; Pathria et al., 2012; Akagi et al., 2013; Inoue et al., 2013; Kojima et al., 2013; Schmidt et al., 2013; Zhang et al., 2013; Zhou et al., 2013; Tai et al., 2014; van der Watt et al., 2014; Yang et al., 2014a; Liu et al., 2016; Sun et al., 2016, 2017; Conforti et al., 2017; Saulino et al., 2018; Xia et al., 2018; Yue et al., 2018; Birnbaum et al., 2019; Chen et al., 2019; Cruz-Ramos et al., 2019; Duijvesz et al., 2019; Fan et al., 2020; Jiang et al., 2020; Wu et al., 2020; Zhu et al., 2020). Gainadierazpen hori gainera, pronostiko txarrarekin erlazionatu da hainbat minbizitan, hala nola, leuzemia mieloide akutuan (AML; Kojima et al., 2013), B-zelula handien linfoma hedatsuan (DLBCL; Fan et al., 2020), mieloma anizkoitzean (MM; Tai et al., 2014), glioman (Shen et al., 2009; Liu et al., 2016; Wu et al., 2020), biriketako zelula ez-txikien minbizian (NSCLC; Akagi et al., 2013), timo epitelioko tumoreetan (Conforti et al., 2017), obulutegiko minbizian (Noske et al., 2018), hestegorriko zelula eskatatsuen kartzinoman (van der Watt et

al., 2014; Yang et al., 2014a), pankrea minbizian (Huang et al., 2009; Birnbaum et al., 2019; Zhu et al., 2020), bularreko minbizian (Yue et al., 2018) edota kartzinoma hepatozelularrean (Chen et al., 2019). Badira CRM1en gainadierazpenaren eta pronostiko okerraren artean ezarritako korrelazioa betetzen ez duten salbuespen batzuk. Esaterako, urdaileko minbizian (Zhou et al., 2013; Sun et al., 2017) eta osteosarkoman (Yao et al, 2009; Jiang et al., 2020), zeintzuetan ez dagoen argi gainadierazpenaren eta pronostikoaren artean korrelaziorik ote dagoen. Guzti hori 2. taula gehigarrian dago zehatzago deskribatuta.

CRM1en adierazpen maila altuagoak haren kargo askoren banaketa nukleozitoplasmatikoa asalda lezakeela pentsa badaiteke ere, oraindik ez dira gainadierazpen horren ondorio molekularrak guztiz argitu. CRM1en gainadierazpena eragiten duten mekanismo molekularrak ere ez dira oraindik guztiz argitu. Zenbait linfoma (Jardin et al., 2016) eta leuzemia linfozitiko kronikoan (CLL; Cosson et al., 2017) CRM1en mRNAren gainadierazpena eta *XPO1* genea dagoen 2p eskualde kromosomikoaren anplifikazioarekin korrelazioan dagoela topatu da. Bestalde, CRM1en transkripzioa minbizian maiz asaldaturik aurkitzen diren cMyc eta p53 (van der Watt eta Leaner, 2011; Golomb et al., 2012) proteinek erregulatzen dutela ikusi da ere. Beraz, baliteke, cMyc edo p53 proteinek tumore jakin batzuetan agertzen duten asaldurak CRM1en gainadierazpen aberrantearen erantzuleak izatea.

1.4.1.3. CRM1en inhibizioa minbiziaren aurkako terapian

1.4.1.3.1. Esportazio nuklearraren inhibitzaile hautakorren (SINEen) garapen eta azterketa preklinikoa

CRM1 minbiziaren kontrako itu bezala identifikatu aurretik, LMBk tumoreen aurkako aktibitatea duela aurkitu zen. Horrek, LMB entsegu kliniko batean erabiltzea eragin zuen, lortutako emaitza, ordea, ez zen esperotakoa izan. Izan ere, LMBk toxikotasun altua erakutsi zuen pazienteetan (Newlands et al., 1996), eta beraz, minbiziaren aurkako farmako gisa baztertu zuten.

Pazienteetan erabiltzeko alboratu bazen ere, LMBrekin egindako *in vitro* esperimentuak CRM1en inhibizioa minbiziaren tratamendurako baliagarria izan zitekeenaren kontzeptu-froga izan ziren. Esperimentu horietako adibide bezala, leuzemia mieloide kronikoko (CML) zelulatan egindakoak aipa daitezke.

CRM1 nukleotiko esportazio hartzaile bezala deskribatu eta gutxira, c-ABL kinasa CRM1en kargo zela aurkitu zen. c-ABL kinasaren NESa haren C-muturrean dago, eta BCR-ABL fusio proteinan kontserbaturik dago (Taagepera et al., 1998). Garai hartan, BCR-ABL fusio proteina adierazten zuten pazienteen tratamenduak izugarri egin zuen hobera imatinib kinasa

inhibitzaileari esker (Druker et al., 1996; le Coutre et al., 1999). Guzti hori kontuan izanik, CML zelulak imatinib eta LMB konbinazioarekin tratatu ziren eta BCR-ABL onkoproteina nukleoan bahituta geratzen zela, eta CML zelulen apoptosia eragiten zela frogatu zen (Vigneri eta Wang, 2001). Beranduago egindako esperimentuetan, LMBk imatinibarekiko erresistentzia gainditzea eragin dezakeela ikusi zen (Kancha et al., 2008).

CRM1en inhibizioa minbiziari aurre egiteko estrategia eraginkorra izan daitekeela iradoki zuten *in vitro* egindako zenbait ikerketen emaitzek (Turner eta Sullivan, 2008-en berrikusia). Horrek, klinikan erabilgarriak izan daitezkeen CRM1en inhibitzaileak lortzeko premia sortu zuen. Gerora CRM1 inhibitzeko gai diren hainbat konposatu natural zein sintetiko aurkitu dira (Senapedis et al., 2014-n, eta Tan et al., 2014-n berrikusia). LMBren antzera, konposatu horiek, CRM1en C528 aminoazidora kobalenteki lotzen dira, CRM1en poltsiko hidrofobikoa betez, eta hortaz, bertara NESak lotzea ekidinez. Inhibitzaile horietako batzuk, esaterako CBS9106 edo S109, LMB ez bezala, CRM1 era itzulgarrian inhibitzen dute, eta *in vivo* eginiko ikerketa preklinikoetan LMBk duena baino toxikotasun baxuagoa erakutsi dute (Sakakibara et al., 2011; Liu et al., 2016). Inhibitzaile berriekin eginiko ikerketek CRM1 inhibitzeak minbiziari aurre egiteko izan dezakeen onura are nabariagoa egin dute (Turner et al., 2009).

CRM1en inhibitzaile gehienak *in vitro* edo sagu heteroinjertoetan baino ez dira entseatu. SINE familiako konposatu batzuk ordea, entsegu kliniko aurreratuetan frogatzen ari dira jada (3. taula), eta bada, selinexor delakoa minbizi paziente jakin batzuetan erabiltzeko ere onartua da (Food and Drug Administration, 2019, 2020a, 2020b; European Medicines Agency, 2021).

SINE lehen belaunaldia 2012. urtean garatu zen CRM1/NES elkarrekintzaren egituran oinarrituz (Kalid et al., 2012; Lapalombella et al., 2012). Lehen belaunaldi hori CRM1en inhibizio itzulgarri geldoa eragiten duten hainbat konposatuk (KPT-127, KPT-185, KPT-205, KPT-227, KPT-249, KPT-251, KPT-276, KPT-330 (selinexor)) osatzen dute. 3. taulan beha daitekeenez, SINEak minbizi hematologiko zein minbizi solidoen hainbat modelo preklinikotan erabili dira. Ikerketa horietan, SINEek minbizi zelulen aurkako aktibitate sendoa erakutsi dute, bai *in vitro* zein *in vivo,* zelula hazkuntza inhibituz, apoptosia eraginez eta zelula-zikloa bahituz. Zelula osasuntsuetan, ordea, efektu toxiko minimoa dute. Gainera, hainbat SINEk, bereziki selinexorrek, minbizi zelulek beste farmakoekiko duten sentikortasuna emendatzen dute eta iturratutako terapian erabiltzen diren beste farmako batzuekin sinergia erakusten dute (ikusi 3. eta 4. taula gehigarriak).

SINE horiekin lortutako emaitza itxaropentsuak ikusirik, bigarren belaunaldiko SINE bat ere garatu da: KPT-8602 (eltanexor), zeina ikerketa preklinikoetan erabiltzen hasi diren (3. Taula).

3. taula: SINEekin egindako ikerketa preklinikoen laburpena. ALL: leuzemia linfozitiko akutua; AML: leuzemia mieloide akutua; CLL: leuzemia linfozitiko kronikoa; CML: leuzemia mieloide kronikoa; DLBCL: B-zelula handien linfoma hedatsua; HNSCC: buru eta lepoko zelula eskatatsuen kartzinoma; MCL: mantuko zelulen linfoma; MM: mieloma anizkoitza; NHL: ez-Hodgkin linfoma; NSCLC: Biriketako zelula ez-txikien minbizia; PCNSL: nerbio-sistema zentraleko linfoma primarioa; PMBL: B-zelulen linfoma mediastinal primarioa; TCL: T-zelulen linfoma.

SINEa	Minbizi motak	Erreferentziak
KPT-127	Pankreakoa	Azmi et al., 2013a
KPT-185	ALL, AML, bularrekoa, CLL, giltzurrunekoa, MCL, melanoma, MM, NHL, NSCLC, obulutegikoa, pankreakoa, PMBL, prostatakoa, urdailekoa	Lapalombella et al., 2012; Ranganathan et al., 2012; Azmi et al., 2013a, 2013b; Inoue et al., 2013; Kojima et al., 2013; Salas Fragomeni et al., 2013; Turner et al., 2013; Zhang et al., 2013; Cheng et al., 2014; Gao et al., 2014; Mendonca et al., 2014; Tai et al., 2014; Wang et al., 2014; Han et al., 2015; Miyake et al., 2015; Jardin et al., 2016; Kim et al., 2016b; Chen et al., 2017; Sekihara et al., 2017; Subhash et al., 2018; Sexton et al., 2019; Mendes et al., 2020; Wei et al., 2020
KPT-205	Pankreakoa	Azmi et al., 2013a
KPT-227	Pankreakoa	Azmi et al., 2013a
KPT-249	MM	Turner et al., 2013
KPT-251	AML, bularrekoa, CLL, giltzurrunekoa, glioblastoma, melanoma, mesotelioma, NHL, prostatakoa	Lapalombella et al., 2012; Azmi et al., 2013b; Etchin et al., 2013a; Inoue et al., 2013; Salas Fragomeni et al., 2013; Cheng et al., 2014; Mendonca et al., 2014; Gravina et al., 2014b, 2017; De Cesare et al., 2015; Green et al., 2015; Muqbil et al., 2016
KPT-276	AML, bularrekoa, glioblastoma, MCL, melanoma, mesotelioma, MM, NHL, NSCLC, urdailekoa	Ranganathan et al., 2012; Azmi et al., 2013b; Salas Fragomeni et al., 2013; Schmidt et al., 2013; Turner et al., 2013; Zhang et al., 2013; Cheng et al., 2014; Wang et al., 2014; Yang et al., 2014b; De Cesare et al., 2015; Green et al., 2015; Han et al., 2015; Muqbil et al., 2016
KPT-330 selinexor	AML, ALL, bularrekoa, CLL, DLBCL, fibrosarcoma, gibelekoa, giltzurrunekoa, glioblastoma, glioma pediatrikoa, heste meharreko tumore neuroendokrinoak, HNSCC, kolon eta ondestekoa, liposarkoma, maskurikoa, MCL, melanoma, mesotelioma, mielofibrosia, MM, NHL, NSCLC, obulutegikoa, osteosarkoma, pakreakoa, PCNSL, PMBL, prostatakoa, sarkoma, timo epiteliokoa, tiroidekoa, urdailekoa, heldu zein umeen hainbat minbizia	Etchin et al., 2013b; Salas Fragomeni et al., 2013; Turner et al., 2013, 2016a, 2016b, 2020; Walker et al., 2013; Cheng et al., 2014; Gravina et al., 2014b, 2017; Mendonca et al., 2014; Sun et al., 2014; Tai et al., 2014; Wettersten et al., 2014; Yang et al., 2014b; Zheng et al., 2014; Zhong et al., 2014; De Cesare et al., 2015; Green et al., 2015; Hing et al., 2015; Kazim et al., 2015; Miyake et al., 2015; Ranganathan et al., 2015; Attiyeh et al., 2016; Ferreiro-Neira et al., 2016; Jardin et al., 2016; Kashyap et al., 2016, 2018; Kim et al., 2016b; Muqbil et al., 2016; Nakayama et al., 2016; Rosebeck et al., 2016; Sun et al., 2016; Wrobel et al., 2016; Arango et al., 2017; Azmi et al., 2017, 2020; Burke et al., 2017; Chen et al., 2017; Conforti et al., 2017; Cosson et al., 2017; Garg et al., 2017a, 2017b; Muz et al., 2017; Nair et al., 2017; Aboukameel et al., 2018; Argueta et al., 2018; Baek et al., 2018; Barazeghi et al. 2018; Brunetti et al., 2018; Corno et al., 2018; Luedtke et al., 2018; Marcus et al., 2018; Ming et al., 2018; Saenz-Ponce et al., 2018; Schaffer et al., 2018; Shang et al., 2018; Subhash et al., 2018; Wahba et al., 2018; Zhang et al., 2018; Abeykoon et al., 2019; Aladhraei et al., 2019; Currier et al., 2019; Kapoor et al., 2019; Khan et al., 2019; Kulkoyluoglu-Cotul et al., 2019; Lim et al., 2019; Liu et al., 2019; Sexton et al., 2019; Tarantelli et al., 2019; Yan et al., 2019; Zhu et al., 2019a; Bonolo de Campos et al., 2020; Brinton et al., 2020; DeSisto et al., 2020; Fischer et al., 2020; Jiménez et al., 2020; Martini et al., 2020; Jeitany et al., 2021
KPT-8602 eltanexor	AML, ALL, CLL, DLBCL, gibelekoa, NHL, mielofibrosia, MM, prostatakoa, tiroidekoa, urdailekoa	Aboukameel et al., 2018; Gruffaz et al., 2019; Khan et al., 2019; Liu et al., 2019; Lucas et al., 2019; Sexton et al., 2019; Yan et al., 2019; Fischer et al., 2020; Turner et al., 2020; Verbeke et al., 2020

CRM1en inhibitzaileen mekanismoari dagokionez, efektua kokapen egokia galdu duten tumore ezabatzaile eta hazkuntzaren-erregulatzaile aktibitatea duten proteinak, adibidez, p53, nukleoan birkokatzean oinarritzen dela uste da. Horrela, proteina horiek euren ohiko funtzioa berreskuratuko bailukete. Aipatutakoa hipotesia onargarritzat hartu ohi bada ere, errealitatea haratago doala uste da gaur egun. Batetik, CRM1ek minbizian zerikusia duten kargo asko dituelako. Bestetik, CRM1ek esportazioan aritzeaz gain, zeluletan beste zeregin batzuk ere badituelako. Eta azkenik, tumoregenesia prozesu oso konplexua delako, eta beraz, tumore mota batetik bestera SINEen eraginaren mekanismo molekular eta zelularrak zeharo ezberdinak izan daitezkeelako. 3. eta 4. taula gehigarrietan minbizi jakin batzuen testuinguruan SINEek duten eragin ezberdinaren erantzule izan daitezkeen proteina edo bidezidor espezifikoak daude zerrendatuta; esaterako, aurretik aipatutako BCR-ABL onkoproteina CMLan (Vigneri eta Wang, 2001) edota NF-κB bidezidorra biriketako minbizian (Kim et al., 2016b).

1.4.1.3.2. Selinexor minbizi pazienteetan: entsegu klinikoak eta klinikan erabiltzeko oniritzia

Eraginkortasun zein tolerantziari dagokionez, selinexor farmakoak beste lehen belaunaldiko SINEak baino emaitza hobeak eman ditu ikerketa preklinikoetan. Hori dela eta, selinexor fase klinikoan minbizi pazienteen tratamendu bezala ikertzeko onartu da. 4. taulan 2021eko urtarrilera arte ClinicalTrials.gov webgunean (https://clinicaltrials.gov) aurki zitezkeen selinexorrekin egindako entsegu klinikoak zerrendatu dira. Entsegu kliniko bakoitzean jasotako emaitzen laburpena 5. taula gehigarrian laburbiltzen dira.

4. taula: Selinexor erabiltzen duten ikerketa klinikoak.

Minbizi mota	Erreferentzia eta IDa
Tumore solido aurreratuak	Abdul Razak et al., 2016 (ID: NCT01607905)
Sarkoma	Gounder et al., 2016 (ID: NCT01896505)
Leuzemia pediatriko akutu errefraktarioa	Alexander et al., 2016 (ID: NCT02212561)
NHL	Kuruvilla et al., 2017 (ID: NCT01607892)
AML	Garzon et al., 2017 (ID: NCT01607892); Wang et al., 2018 (ID: NCT02573363); Bhatnagar et al., 2019 (ID: NCT02093403); Fiedler et al., 2020 (ID: NCT02249091); Sweet et al., 2020 (ID: NCT02403310); Taylor et al., 2020 (ID: NCT02228525)
MM	Chen et al., 2018 (ID: NCT01607892); Bahlis et al., 2018 (ID: NCT02343042); Vogl et al., 2018 (NCT02336815); Chari et al., 2019 (ID: NCT02336815); Jakubowiak et al., 2019 (ID: NCT02199665); Grosicki et al., 2020 (ID: NCT03110562)
DLBCL	Kalakonda et al., 2020 (ID: NCT02227251)
Kastrazioarekiko erresistentea den prostata minbizia	Wei et al., 2018 (ID: NCT02215161)
Bular minbizia triple negatibo metastasikoa	Shafique et al., 2019 (ID: NCT02402764)

Minbizi ginekologikoak	Vergote et al., 2020 (ID: NCT02269293)
Obulutegi eta endometrioko minbiziak	Rubinstein et al., 2021 (ID: NCT01607905)
Hodi pankreatikoko adenokartzinoma	Azmi et al., 2020 (ID: NCT02178436)
Ondesteko minbizi metastasikoa	Nilsson et al., 2020 (ID: NCT02384850)
T-zelulen linfoma (TCL) edo natural killer/T-zelulen linfoma (NKTL) errefraktorio edo gaixoberrituak	Tang et al., 2021 (ID: NCT03212937)

Aipatutakoaz gain, bigarren belaunaldikoa den eltanexor farmakoarekin egindako entsegu kliniko bat ere badago jada (NCT02649790). Kasu horretan, eltanexor, dexametasonarekin eta DNA metiltransferasaren inhibitzailea den ASTX727rekin konbinatzen da.

Selinexorren erabilerak emaitza oso positiboak izan ditu aipaturiko entsegu kliniko horietako askotan. Hain da horrela, non, Estatu Batuetako Elikagai eta Sendagaien Administrazioak (FDA; *Food and Drug Administration)* zein Europako Sendagaien Agentziak (EMA; *European Medicines Agency)* selinexor farmakoa, XPOVIO™ merkataritza-izenaz AEBetan eta Nexpovio® izenaz Europan, minbizi paziente jakinak tratatzeko oniritzia eman duten. 2019ko uztailean, MM paziente jakinak selinexor dexametasonarekin batera erabiltzeari onespena eman zitzaion AEBetan (Food and Drug Administration, 2019). Horretarako, MM pazienteek helduak izan behar dute, eta gaixoberritze edo minbizi errefraktarioa pairatu behar dute. Gainera, aurretik beste lau terapia jaso behar izan dituzte eta bi proteasoma inhibitzaile, bi immunomodulatzaile eta anti-CD38 antigorputz monoklonal batekiko gaixotasun errefraktarioa izan behar dute. 2021ko martxoan, EMAk ere, baldintza horiek betetzen dituzten pazienteak selinexor eta dexametasona konbinazioarekin tratatzeko onespena eman zuen. 2020ko abenduan FDAk, gutxienez aurretik beste tratamendu bat jaso duten MM pazienteetan selinexor dexametasona eta proteasomaren inhibitzaile den bortezomibekin batera erabiltzeko oniritzia eman zuen ere (Food and Drug Administration, 2020a). AEBetan gainera, FDAk 2020ko ekainean, selinexor bakarka erabiltzeko onartu zuen aurretik bi terapia sistemikok porrot egin duten eta gaixoberritze edo minbizi errefraktarioa duten DLBCL paziente helduetan (Food and Drug Administration, 2020b).

2. Hipotesi eta helburuak

CRM1 garraio-hartzaileak zelularen homeostasia mantentzeko ezinbestekoa den ehunka kargoren nukleotiko esportazioa egikaritzen du kargo horien NESak ezagutuz eta horiekin elkarreginez. NESen identifikazioa gako da CRM1en kargoen esportazioa nola erregulatzen den ulertu nahi baldin bada. Egun, CRM1ek esportatzen dituen kargo askoren NESak ezagunak dira, beste kargo askoren NESak, ordea, ezezagunak dira. Horretaz gain, CRM1ek NESak non eta nola lotzen dituen estrukturalki eta biokimikoki ikertu bada ere, orain arte ez da mekanismo hori zelularen testuinguruan aztertu. Guzti hori kontuan izanda tesi proiektu honetan ondorengo **hipotesia** planteatu da: nukleotiko esportazio-aktibitatea ikergai duten entsegu zelularrak erabilita, NESek proteina zelular zein birikoen erregulazio eta funtzioan duten papera ezagutu eta CRM1en mendeko NESen esportazioaren inguruko ezagutzan sakon daiteke.

Beste alde batetik, CRM1 minbiziari aurre egiteko itu bezala duen papera gero eta nabariagoa da. Tesi hau aribidean zela, AEBetan zein Europan minbizi paziente jakinak tratatzeko CRM1en inhibitzailea den selinexor farmakoaren erabilera onartu zen. CRM1en inhibizioa klinikan erabiltzen hasi bada ere, selinexor eta beste farmako batzuen konbinazio potentzialen gaineko ezagutza, edota CRM1en inhibizioak haren esportoman eragiten duen asalduraren gainekoa oso mugatua da egun. Hori dela eta, tesi honetan bigarren **hipotesi** bat planteatzen da: CRM1en inhibizioa bestelako itu terapeutiko batzuen inhibizioarekin konbinatzea minbizia tratatzeko estrategia interesgarria izan daiteke; halaber, CRM1en inhibizioak zelula mailan duen eragina aztertzeko, azken aldian garatutako gertuko markaketan oinarritutako hurbilketa proteomikoak aproposak izan daitezke.

Aipatutako bi hipotesiak argitzeko ondorengo helburuak planteatzen dira:

- 1. helburua: NESen ikerketan askotan erabilitako, zein, berriki garatutako nukleotiko esportazio-entseguak erabiliz giza eta birus NES berriak bilatzea eta deskribatzea.
- 2. helburua: Entsegu zelular horiek erabilita CRM1en mendeko NESen esportazioa sakontasunean aztertzea eta minbizi-mutazioek prozesu horretan izan dezaketen eragina ikertzea.
- 3. helburua: Selinexor eta bestelako iturratutako farmakoen konbinazio berriak bilatzea eta *in vitro* ebaluatzea.
- 4. helburua: CRM1en inhibizioa aztergai duen hurbilketa proteomiko berri bat garatu eta ebaluatzea.

3. Material eta metodoak

3.1. Tresna bioinformatikoak

3.1.1. NES-iragarleak

CRM1en mende esportatzen diren kargoetan NES motiboak aurresateko Wregex (Prieto et al., 2014) eta NESmapper (Kosugi et al., 2014) NES-iragarleak erabili dira. NES-iragarle horiek proteina sekuentziak arakatzen dituzte NES seinaleak izan daitezkeen sekuentzien bila. Aurkitutako NES kandidatuek (cNES), NESen adostasun sekuentzietako aminoazido gakoek duten posizioaren arabera puntuazio bat jasotzen dute.

3.1.2. Aminoazido sekuentziak lerrokatzeko tresnak

Sekuentzien antzekotasuna ikertzeko sekuentziak lerrokatzen dituen Clustal Omega (https://www.ebi.ac.uk/Tools/msa/clustalo/; Sievers eta Higgins, 2014) erabili da.

3.1.3. Proteinen 3D irudiak sortzeko tresnak

CRM1 proteinaren poltsiko hidrofobikoaren irudiak sortzeko NCBIko iCn3D (https://www.ncbi.nlm.nih.gov/Structure/icn3d/full.html) eta UCSFko Chimera package (Pettersen et al., 2004) tresnak erabili dira. Erabilitako estruktura PDBko (*Protein Data Bank*) 3GJX (Monecke et al., 2009) izan da.

3.1.4. Gene ezberdinen adierazpena *XPO1* genearen adierazpenarekin korrelazioan dagoen aztertzeko tresnak

CRM1 gainadierazita agertzen den tumoreetan gainadierazita azaltzen diren bestelako itu terapeutikoak aztertzeko, Broad institutuko CGA TARGET (*tumor alterations relevant for genomics-driven therapy)* datu basetik (https://software.broadinstitute.org/cancer/cga/target; v3) TARGET zerrenda lortu da. TARGET zerrendan, minbiziaren diagnostikoarekin, terapiaren erantzunarekin eta pronostikoarekin zuzenean erlazionaturik dauden 135 gene ageri dira.

TARGET zerrendako 135 geneen adierazpena *XPO1*en (CRM1 kodetzen duen genearen) adierazpenarekin erkatzeko CANCERTOOL (Cortazar et al., 2018) eta cBioPortal (Cerami et al., 2012; Gao et al., 2013) tresna bioinformatikoak erabili dira. CANCERTOOL bular, birika, prostata, eta kolon eta ondesteko minbizietako azterketa egiteko erabili da, eta cBioPortal berriz, azterketa leuzemia mieloide akutuan (AML) egiteko. Gene ezberdinak korrelazioan dauden aztertzeko erabilitako CANCERTOOL zein cBioPortal tresnak ezagunak diren ikerketetan oinarritzen dira; 5. taulan azterketa honetarako erabilitako ikerketen zerrenda ikus daiteke.

5. taula: *XPO1* eta TARGET zerrendako geneen arteko korrelaziorik dagoen aztertzeko erabili diren ikerketak. Ikerketa horietako datuak CANCERTOOL (Cortazar et al., 2018) eta cBioPortal (Cerami et al., 2012; Gao eta al., 2013) erabiliz atzitu dira. TCGA eta colonomic ikerketako datuak hurrengo webgunean topa daitezke hurrenez hurren: https://cancergenome.nih.gov/; https://www.colonomics.org/.

Bular minbizia	Birika adenokartzinoma	Prostata minbizia	Kolon eta ondeste minbizia	AML
Pawitan et al., 2005 Wang et al., 2005 Ivshina et al., 2006 Lu et al., 2008 TCGA (RNA-seq)	Chitale et al., 2009 Shedden et al., 2008 Wilkerson et al., 2012 TCGA (RNA-seq)	Lapointe et al., 2004 Glinsky et al., 2004 Varambally et al., 2005 Taylor et al., 2010 Grasso et al., 2012 TCGA (RNA-seq)	Jorissen et al., 2009 Kemper et al., 2012 Laibe et al., 2012 Marisa et al., 2013 Roepman et al., 2014 TCGA (RNA-seq) Colonomics	Tyner et al., 2018 Liu et al., 2018

CANCERTOOL eta cBioPortal erabiliz, 5. taulako ikerketa guztietan *XPO1* eta TARGET zerrendako gene bakoitzaren adierazpena korrelazioan dagoen aztertu da. Korrelazioa adierazten duten -1etik 1era doazen balioak lortu dira; balio negatiboek alderantzizko korrelazioa adierazten dute, positiboek, korrelazio zuzena eta 0 balioak korrelazio eza. Lortutako $> 0,2$ edo $< -0,2$ balio esanguratsuak ($p < 0,05$) hautatu eta tumore mota ezberdinetan, eta orokorrean, *XPO1* eta TARGET zerrendako gene bakoitzarentzako korrelazioaren batez bestekoa kalkulatu da. Adibidez, *XPO1* eta *BRCA1* geneek AMLn korrelazioa agertzen duten ikertzeko, gene bien adierazpenak erkatzean Tyner eta lankideen (2018) ikerketan lortutako balioarekin (0,489) eta Liu eta lankideen (2018) ikerketan lortukoarekin (0,583) batez bestekoa kalkulatu da (0,536). TARGET zerrendako 135 geneek tumore mota ezberdinetan *XPO1*ekin duten korrelazioa kalkulatu eta balio horiekin gene bakoitzerako batez besteko orokor bat kalkulatu da. Adibidez, *BRCA1*en adibidearekin jarraituz, bular, birika, prostata, kolon eta ondeste, eta AML minbizietan *XPO1*ek eta *BRCA1*ek duten korrelazio balioen batez bestekoekin (0,152, 0,403, 0,088, 0,371 eta 0,536 hurrenez hurren) batez besteko orokor bat kalkulatu da (0,310). Korrelazio datu guztiak 6., 7., 8., 9. eta 10. taula gehigarrietan ageri dira tumore motaren arabera xehatuta, eta 11. taula gehigarrian aztertutako tumore guztiak batera hartuz.

3.2. Klonazioak eta mutagenesia

Klonazio eta mutagenesia plasmidoak eratzeko teknikak dira. Klonazioa, metodo ezberdinen bidez eratuko diren intsertoak intereseko bektorean txertatzea da; mutagenesia, ordea, jada erabilgarria den plasmido batean mutazioak eratzea da. Tesi honetan erabili diren, baina espresuki tesi honetarako sortu ez diren plasmidoak 12. taula gehigarrian ageri dira.

3.2.1. Murrizte-entzimetan oinarritutako klonazio metodoak

3.2.1.1. Bektoreen prestaketa

Bektore moduan erabiliko den 1,5-2 μg DNA zirkular (plasmidoa) intereseko murrizte-entzimatan inkubatu da 3 orduz 37 °C-tan. Indargetzaile ezberdina behar duten entzimak erabili diren kasuetan, digestio-sekuentziala egin da, hau da, lehenik eta behin plasmidoa entzima batekin digeritu da, ostean, moztutako DNA QIAquick PCR purifikazio-kita (Qiagen) erabilita purifikatu da, eta bukatzeko, bigarren entzimarekin digeritu da.

QIAquick PCR purifikazio-kitarekin DNA purifikatzeko, lehenik eta behin DNA bolumen bakoitza PB indargetzailearen 5 bolumenekin nahastu da. Jarraian, nahasketa QIAquick zutabe batera transferitu eta minutu batez 13000 bira minututan (rpm-tan) zentrifugatu da. Zutabean zehar iragazitako fluxua baztertu eta zutabea 700 μl PE indargetzailearekin garbitu da 2 x 1 minutuz, 13000 rpm-tan zentrifugatuz. DNA atxikita duen zutabea mikrozentrifuga-tutu garbi batera transferitu, 50 μl H_2O gehitu, 5 minutuz giro tenperaturan inkubatu eta 13000 rpm-tan minutu batez zentrifugatu da DNA eluitzeko. Zentrifugazio guztiak giro tenperaturan egin dira.

Bektoreen berligazioa ekiditeko, digeritutako bektoreak ordu bateko hiru ziklotan desfosforilatu dira DNA kate bakun edo bikoitzetako 5’ muturretako fosfatoak kentzen dituen fosfatasa alkalinoa (Roche) erabiliz. Bukatzeko, desfosforilazio erreakziora 2 μl 0,5 M azido etilendiaminotetraazetikoa (EDTA) gehitu eta 65 °C-tan inkubatu da 10 minutuz fosfatasa alkalinoaren erreakzioa geldiarazteko.

Digeritu eta desfosforilaturiko bektoreak QIAquick PCR purifikazio-kita erabiliz purifikatu dira, eta DNA 30 μl H_2O-tan eluitu da.

3.2.1.2. Intsertoen prestaketa

Intsertoak lau metodo ezberdinen bidez lortu dira: azpiklonazioz, hibridazioz, PCR bidez eta gBlock bidez.

3.2.1.2.1. Azpiklonazioa

Azpiklonazioa, intereseko intsertoa aurretik plasmido batean klonaturik dagoenean eta beste bektore batean txertatu nahi denean erabiltzen da (12. irudia). Azpiklonazioa egiteko ezinbestekoa da intsertoa jatorrizko plasmidotik ateratzeko erabiliko diren murrizte-entzimak eta bektore hartzailea mozteko erabiliko direnak berdinak izatea. Gainera, irakurtaraua ere mantendu beharra dago. Metodo honen bidez eratutako plasmidoak 13. taula gehigarrian ageri dira.



12. irudia: Azpiklonazio prozedura. Jatorrizko plasmidoa (bektore morea eta intserto horia) A eta B murrizte-entzimekin moztean bektorea linearizatu eta intsertoa askatu egiten da. Entzima berdinekin bektore hartzailea (berdea) digerituz gero, bektore hori ere linearizatu egingo da. Horrela, bektore hartzaile linearizatuaren eta intsertoaren muturrak bateragarriak izango dira, eta beraz, plasmido berria (berde eta horia) sortzeko aukera egongo da.

Prozedura zehatza ondorengoa da: jatorrizko plasmidoa murrizte-entzima egokiekin 3 orduz eta 37 °C-tan digeritu da aurretik azaldu bezala. Ostean, digeritutako DNA, bektore eta intsertoa ondo bereizi arte, % 1,5 agarosa (1X TAE etidio bromuroarekin) gel batean banatu da 100 V-tan. Pisu molekularraren markatzailetzat, GeneRuler 1 kb DNA ladder plus (ThermoFisher Scientific) erabili da. Gelean, UV-transiluminazioz, DNA ikusi eta intsertoaren DNA banda geletik moztu da. Banda horretako DNA QIAquick gel-erauzketa kita (Qiagen) erabiliz purifikatu da. Gel-bandako DNA QIAquick gel-erauzketa kitarekin erauzi eta purifikatzeko, lehenik eta behin gel zatia QG indargetzailearen 3 bolumenetan disolbatu da 50 °C-tan 10 minutuz noizbehinka gogor astinduz. Erabili beharreko QG indargetzaile bolumena kalkulatzeko gel zatiaren mg-ak eta indargetzailearen µl-ak pareko hartu dira, horrela, gel zatiak 50 mg pisatzen baditu, 150 µl QG indargetzailetan disolbatu da. Ostean, isopropanol bolumen bat gehitu, nahastura osoa QIAquick zutabe batera transferitu eta 13000 rpm-tan minutu batez zentrifugatu da. Zutabean zehar iragazitako fluxua baztertu, zutabera PE indargetzailearen 750 µl gehitu eta zutabea 13000 rpm-tan minutu batez zentrifugatu da. DNA atxikita duen zutabea mikrozentrifuga-tutu garbi batera transferitu, 50 µl H_2O gehitu, 5 minutuz giro tenperaturan inkubatu eta 13000 rpm-tan minutu batez zentrifugatu da DNA eluitzeko. Zentrifugazio guztiak giro tenperaturan egin dira.

3.2.1.2.2. Hibridazio bidezko intsertoaren prestaketa

Hibridazio bidezko intsertoaren preskaketa partzialki gainjar daitezkeen bi oligonukleotido hibridatzean eta kate bakuneko DNA luzatzean datza (13. irudia). Prozedura honen bidez eratutako plasmidoak 14. taula gehigarrian ageri dira eta prozedurarako erabilitako hasleak 15. taula gehigarrian.



13. irudia: Hibridazio prozedura. Gezi beltzek hibridazioan erabiliko diren hasleak adierazten dituzte eta hasle bakoitzaren laukizuzen berdeak beste haslearekin hibridatuko duen fragmentua. Hasle horiek hibridatu eta luzatzean kate bikoitzeko DNA lortuko da.

Partzialki gainjartzen diren aurreranzko eta atzeranzko hasleak hibridatzeko, hasleok lehenik eta behin indargabetutako soluzioan 100 °C-tan inkubatu dira 5 minutuz eta ostean giro tenperaturan hozten utzi dira ordubetez. Hibridatutako hasleak DNA polimerasaren Klenow zatia erabiliz (Fermentas) luzatu dira 37 °C-tan 2 orduz inkubatuta. Erreakzio entzimatikoa geldiarazteko lagina 75 °C-tan inkubatu da 20 minutuz.

Kate bikoitzeko DNA zatiak murrizte-entzima egokiekin 37 °C-tan eta hiru orduz digeritu dira. Digestioaren produktuetako DNA QIAquick gel-erauzketa kitarekin purifikatu da 3.2.1.2.1. atalean azaldutako prozedura jarraituz.

3.2.1.2.3. PCR bidezko intsertoaren prestaketa

Intsertoak PCR bidez prestatzeko, jatorrizko DNA moldeari ezaugarri jakinak erantsiko dizkioten hasle espezifikoak erabili dira (14. irudia). Ezaugarri jakin horiek, murrizte-entzimek ezagutuko duten sekuentzia, epitopo etiketak edota proteinak zelula eukariotoetan behar bezala adieraztea ahalbidetuko duten sekuentziak, hala nola, Kozak sekuentzia, 5' muturreko hasiera kodona edota 3' muturreko stop kodona izango dira. Metodo honen bidez eratutako plasmidoak 16. taula gehigarrian ageri dira, eta prozedura aurrera eraman ahal izateko hasleen zerrenda 17. taula gehigarrian.



14. irudia: PCR bidezko intsertoen prestaketaren prozedura. Aurreranzko zein atzeranzko hasleak gezi bidez adierazten dira, gezien parte moreak moldearekiko osagarria den sekuentzia adierazten du, parte arrosak eta urdinak ordea, aurreranzko eta atzeranzko hasleetan barneratutako murrizteguneak eta bestelako ezaugarridun sekuentziak.

PCRa gauzatu ahal izateko ondorengo erreakzio eta PCR programa erabili da:

Erreaktiboa	Bolumena
H_2O	40,5 µl
10X Pfu ultra indargetzailea	5 µl
10 mM dNTP	1 µl
10 µM aureranzko haslea	1 µl
10 µM atzeranzko haslea	1 µl
DNA moldea (80 ng/µl)	1 µl
Pfu Ultra	0,5 µl
	Bolumen totala 50 µl

Tenperatura	Denbora	Zikloak
92 °C	2 min	1
92 °C	20 s	30
55 °C	40 s	
68 °C	40 s	
68 °C	3 min	1
4 °C	∞	

Sortutako PCR produktuek agarosa gelen bidez tamaina egokia dutela egiaztatu ondoren, QIAquick PCR purifikazio-kitarekin purifikatu dira. Ostean, intereseko murrizte-entzimekin digeritu, eta digestioaren produktua QIAquick PCR purifikazio-kitarekin purifikatu da. Digestio- eta purifikazio-prozedurak 3.2.1.1. atalean adierazitako prozedura berari jarraituz egin dira.

3.2.1.2.4. gBlock bidezko intsertoen prestaketa

gBlock-ak (Integrated DNA Technologies) neurrira egindako kate bikoitzeko DNA fragmentuak dira. Erabilitako gBlock sekuentziak 1. zerrenda gehigarrian ageri dira. Fragmentuok uretan disolbatu dira 50 °C-tan 20 minutuz inkubatuta. Behin disolbatuta, intereseko murrizte-entzimak erabilita digeritu dira 37 °C-tan 3 orduz. Jarraian, QIAquick PCR purifikazio-kita erabilita, 30 µl H_2O-tan eluituz purifikatu dira. Digestio- eta purifikazio-prozedurak 3.2.1.1. atalean erabilitako prozedura berari jarraituz egin dira. Metodo honen bidez eratutako plasmidoak 18. taula gehigarrian ageri dira.

3.2.1.3. Bektore eta intsertoen arteko ligazioa

Digeritutako bektore eta intsertoak agarosazko gelean banatu dira bakoitzaren tamaina egiaztatzeko eta kontzentrazio aldetik batak bestearekiko duen arrazoia ikuskatzeko. Ligazioak intserto:bektore arrazoia 3:1 dela prestatu dira. Ligaziorako disoluzioa 10X erreakzio-indargetzailea, 10 mM ATP, T4 DNA ligasa (hirurak ThermoFisher Scientific-ekoak), eta 10 µl-rarteko H_2O bolumenarekin prestatu da eta 4 °C-tan gau osoan mantendu da.

3.2.1.4. *E. coli* DH5α bakterioen transformazioa

Escherichia coli DH5α bakterio konpetenteak ligazio-produktuekin transformatu dira. Horretarako, izotzetan desizoztutako bakterioen 60 µl gehitu dira ligazio-tutura. Transformaziorako plasmidoa, aurretiaz sortu eta erabilitakoa bada, eta helburua plasmido gehiago ekoiztea denean, purifikatutako plasmidoaren 1 µl bakterioen 40 µl-rekin nahastu da. Bakterio/DNA nahasketa izotzetan inkubatu da ordubetez. Jarraian, nahasketari 37 °C-tan

30 segundoko txoke-termikoa eragin, eta berriz ere izotzetan mantendu da gutxienez 2 minutuz. Bakterio/DNA nahasketa aurretik berotutako 500 µl LB mediodun 15 ml-tako tutu batera transferitu da eta 37 °C-tan inkubatu da ordu batez eta 220 rpm-ko agitazioan. Inkubazioaren ostean, bakterio suspentsioaren 400 µl (ligazio berriaren kasuan), edo 40 µl (plasmido gehiago sortzeko denean), antibiotiko egokia duen LB plaka batean plakeatu da eta 37 °C-tan inkubatu da gau osoan.

Gau osoko inkubazioaren ostean, ondo bereiz daitezkeen koloniak esterilizatutako zotz batez ukitu dira. Kolonia ukitzeko erabilitako zotza antibiotiko egokia duen 10 ml LBtan sartu eta gau osoan zehar 37 °C-tan inkubatu da 220 rpm-ko agitazioaz.

3.2.2. Gunera zuzenduriko mutagenesia

Gunera zuzenduriko mutazioak eragiteko QuickChange Site-Directed Mutagenesis kita (Agilent Technnologies) erabili da. Oinarrian, gunera zuzenduriko mutagenesia PCR bidez intereseko mutazioa hasleen bidez sortzean datza (15. irudia). Metodo honen bidez eratutako plasmidoak 19. taula gehigarrian ageri dira.



15. irudia: Gunera zuzenduriko mutagenesiaren bidezko plasmidoen eraketa. Gezi berde ilun eta granateak mutazioa (gurutze gorriaz adierazita) sortzeko erabiliko diren hasleak adierazten dituzte. Hasle horiek berde argiz eta laranjaz adierazita dagoen jatorrizko plasmidoa PCR bidez anplifikatzeko erabiliko dira. PCR prozesu horren ondorioz sortutako plasmidoak intereseko puntuan egongo dira mutatuta. Azkenik, PCR-produktua DpnI murrizte-entzimarekin digeritzen da jatorrizko plasmido degradatzeko.

Prozedura honen lehen urratsa, mutatu nahi den sekuentziarekiko osagarriak diren eta intereseko mutazioa eragingo duten hasleen diseinua da (hasleen zerrenda osoa 20. taula gehigarrian ikus daiteke). Hasle horiek diseinatzeko orduan PCRan zehar horien dimerizazioa gutxiagotzeko metodoa erabili da (Zheng et al., 2004). Hasleen urtze-tenperatura (Tm) optimoa 81 °C-tik gora dago eta ondorengo formularekin kalkulatu da:

$$Tm = 81{,}5 + 0{,}41 \times (\%\ GC) - \frac{675}{N} - \%\ base\ parekatze\ oker$$

Non *% GC*, haslearen zein ehuneko den guanina edo zitosina, eta *N*, base kopuru totala adierazten duten.

Diseinatutako hasleekin, eta mutatu nahi den plasmidoa moldetzat hartuta, intereseko mutazioa duen plasmidoa PCR bidez anplifikatu da. PCR erreakzio eta programa ondorengoak izan dira:

Erreaktiboa	Bolumena
H2O	38 µl
10x QuickChange Lightning indargetzailea	5 µl
QuickSolution	1,5 µl
dNTP mixa	1 µl
DNA moldea (≈ 50 ng/µl	1 µl
Aurreranzko haslea (100 ng/µl)	1,25 µl
Atzeranzko haslea (100 ng/µl)	1,25 µl
QuickChange Lightning entzima	1 µl
	Bolumen totala 50 µl

Tenperatura	Denbora	Zikloak
95 °C	2 min	1
95 °C	20 s	18
60 °C	10 s	
68 °C	5 min	
68 °C	5 min	1
4 °C	∞	

Ostean, PCR-produktuari 2 µl DpnI murrizte-entzima gehitu eta 37 °C-tan inkubatu da 5 minutuz. Entzima hori metilatutako DNArekiko espezifikoa den murrizte-endonukleasa bat da, eta beraz, moldetzat erabilitako mutatu gabeko plasmidoa baino ez du digerituko. Horrela PCR-produktuan mutaziodun plasmidoa besterik ez da egongo.

3.2.2.1. Gunera zuzenduriko mutagenesiko PCR produktuarekin XL10-Gold bakterioen transformazioa

Gunera zuzenduriko mutagenesiko PCR-produktuarekin XL10-Gold bakterio ultrakonpetenteak transformatu dira. Horretarako, bakterioak izotzetan desizoztu eta aurretik hotzetan mantendutako 15 ml-ko tutuetara 45 µl bakterio transferitu da. Bakterio tutura 2 µl β-merkaptoetanol gehitu eta suspentsioa izotzetan inkubatu da 2 minutuz. Jarraian, digeritutako PCR-produktuaren 2 µl bakterio suspentsiora gehitu eta nahasketa izotzetan inkubatu da 30 minutuz. Inkubazioa bukatutakoan bakterioei 42 °C-tako txoke-termikoa ezarri zaie 30 segundoz eta izotzetan mantendu dira gutxienez beste 2 minutuz. Bakterio/PCR produktu nahasketa, aurretik berotutako 500 µl LB mediodun 15 ml-tako tutu batera transferitu eta 37 °C-tan inkubatu da ordu betez eta 220 rpm-ko agitazioan. Azkenik, suspentsio horren 450 µl antibiotiko egokia duen LB plaka batean plakeatu da eta plaka gau osoan 37 °C-tan mantendu da. Hazitako bakterioen artean ondo isolatutako koloniak esterilizatutako zotz batekin ikutu eta LB medio likidotan hazi dira 3.2.1.4. atalean azaldu bezala.

3.2.3. Plasmidoen purifikazioa eta DNA sekuentziazioa

Plasmidoak purifikatzeko prozedura ohikoena QIAprep Spin Miniprep kita (Qiagen) erabilita burutu da. Plasmido kopuru handia lortzea beharrezkoa izan den kasuetan Gen Elute HP endotoxin-free plasmid Maxiprep (Sigma-Aldrich) kita erabili da. Ekoiztutako plasmidoen kontzentrazioa eta purutasuna Nanodrop Lite (ThermoFisher Scientific) erabilita neurtu da. Plasmidoen DNA sekuentzia egokia dela baieztatzeko StabVida enpresaren zerbitzuak kontratatu dira. Sekuentziazioan erabilitako hasleak 21. taula gehigarrian erakusten dira.

3.2.3.1. QIAprep Spin Miniprep bidezko plasmidoen purifikazioa

Bakterio-suspentsioak 3500 rpm-tan zentrifugatu dira 10 minutuz. Gainjalkina baztertu eta jalkina P1 indargetzaile hotzaren 250 µl-tan berreseki da. Lagin bakoitza tutu garbi batera transferitu eta P2 indargetzailearen 250 µl gehitu ostean, tutuak emeki irauli dira bakterioak lisatzeko. Jarraian, N3 indargetzailearen 350 µl gehitu eta tutuak berriz ere emeki irauli eta 10 minutuz zentrifugatu dira. Gainjalkina QIAprep spin zutabe batera transferitu eta minutu batez zentrifugatu da. Zutabean zehar iragazitako likidoa baztertu, eta zutabea PB indargetzailearen 500 µl gehituta eta minutu batez zentrifugatuta garbitu da. Zutabea bigarrenez garbitu da, kasu honetan, zutabera etanoldun PE indargetzailearen 750 µl gehituta eta zutabea birritan zentrifugatuz. Azkenik, zutabea tutu garbi batera transferitu da, 70 µl H_2O gehitu zaizkio eta 5 minutuz inkubatu ostean zutabea minutu batez zentrifugatu da DNA eluitzeko. Zentrifugazio guztiak, lehenengoa salbu, mahai gaineko mikrozentrifuga batean egin dira 13000 rpm-tan eta giro tenperaturan.

3.2.3.2. Gen Elute HP Endotoxin-free Plasmid Maxiprep bidezko plasmidoen purifikazioa

Plasmido kopuru handia ekoitzi nahi denean, koloniak medio likidotan hazterako orduan, 3.2.1.4. atalean azaldutako prozedura jarraitu beharrean, zotza antibiotikodun LB 5 ml-tan inkubatu da 6 orduz. Ostean, suspentsio horretatik 1 ml antibiotikodun LB 150 ml-tara transferitu da. Bakterioak 37 °C-tan eta 220 rpm-tan hazi dira gau osoan.

Bakterio-suspentsioa 50 ml-ko hiru tututan banatu eta 3220 g-tan zentrifugatu da 15 minutuz. Zentrifugazio tarte horretan, Gen Elute Maxiprep lotze-zutabeak prestatu dira; horretarako, zutabeak Sigma VM20 vacuum manifold-ean jarri dira, eta zutabeak prestatzeko soluzioaren 12 ml zutabeetan zehar igaroarazi da hutsa eraginez. Zentrifugazioaren osteko bakterio-suspentsioetako gainjalkinak baztertu, eta jalkinak RNAasa A berresekitze-soluzio hotzaren 12 ml-tan berreseki dira. Jarraian, 12 ml lisi-indargetzaile gehitu dira. Bakterioak lisatzeko, lehenik eta behin tutua emeki irauli da eta ostean 5 minutuz geldirik laga da. Tarte horretan, bakterio-lisatuen suspentsioa filtratzeko huts-sistema muntatu da. Horretarako, 50 ml-ko tutu

garbi bat VacCap tapoiaz tapatu da, eta bertara hutsa eragingo duen hodia eta GenElute HP endotoxinarik gabeko Maxiprep iragazkia lotu dira 16. irudian azaldu bezala. Lisatua neutralizazio-indargetzaile hotzaren 12 ml gehituta eta nahasketa iraulita neutralizatu da. Neutralizatuko soluzioa GenElute HP Maxiprep iragazkira transferitu eta hutsa eraginez iragazi da. Iragazitako soluziora lotze-indargetzailearen 9 ml gehitu dira, eta ondo nahastu ondoren, aurretiaz prestatutako lotze-zutabera transferitu da nahastea, hutsa eraginez zutabean zehar pasarazteko. Jarraian, lotze-zutabea 1 eta 2 garbiketa-indargetzaileen 12na ml hutsa eraginez zutabean zehar igaroarazita garbitu da. Bigarren garbiketaren ostean hutsa gutxienez 10 minutuz mantendu da zutabea sikatu dadin. Azkenik, lotze-zutabea 50 ml-ko tutu garbi batera transferitu da, 3 ml endotoxinarik gabeko H_2O gehitu, eta zutabea 3000 g-tan zentrifugatu da 10 minutuz.



16. irudia: Bakterio-suspentsioa iragazteko muntaia. Tutu horiak hutsa eragingo du tapa gorriko tutuan eta horrek, bertara atxikitutako iragazkidun tutura isuritako bakterio-suspentsioa iragaztea eragingo du.

Nanodrop Lite-an purifikatutako DNAren kontzentrazioa neurtu da. Kontzentrazioa txikiegia izan denean, DNA kontzentratu egin da. Horretarako, eluitutako soluziora 300 µl sodio azetato 3 M eta 2,1 ml isopropanol gehitu dira, eta soluzioa 15 ml-ko tutu batera transferitu da. Tutua 15000 g-tan zentrifugatu da 30 minutuz eta 4 °C-tan. Jalkina 1,5 ml % 70 etanoletan berreseki da, eta beste 10 minutuz zentrifugatu da baldintza berdinetan. Jalkinaren gainean 100 µl endotoxinarik gabeko H_2O gehitu da eta gau osoan 4 °C-tan laga da DNA bertan disolbatzeko.

3.3. Zelula-hazkuntza

3.3.1. Zelula-lerroak eta hazkuntza baldintzak

Zelulak Dulbecco's modified Eagle's medioan (DMEM) edo Roswell Park Memorial Institute (RPMI) 1640 medioan hazi dira: giza zerbixeko adenokartzinomako HeLa zelulak eta giza enbrioien giltzurruneko 293T (HEK293T) zelulak idi-umeki serumaren (FBS) % 10 eta penizilina/estreptomizinaren % 1 duen DMEM mediotan hazi dira; mCherry etiketa duten giza hezur-muineko estromako HS5 zelulak % 10 FBS duen DMEM mediotan eta eGFP etiketadun

leuzemia mieloide akutuko MV4-11 zelulak berriz, % 10 FBS duen RPMI mediotan hazi dira. Guztiak 37 °C-an, % 5eko CO_2-dun atmosfera hezean. Hazkuntzan erabilitako medioak, FBS eta antibiotikoak Life-Technologieskoak dira.

Zelulak hazkuntzan mantendu ahal izateko, konfluentziara heldutakoan jaso eta diluituago erein dira berriro ere. Prozesu hori astean birritan egin da normalean. Zelula-lerroaren arabera prozesuak aldaketa txikiak izan ditu:

HeLa, HEK293T eta mCherry-HS5 zelulen kasuan, medio zaharra kendu, zelulak PBStan (fosfatoarekin indargabetutako gatz soluzioa) garbitu eta tripsinatan (Life-Technologies) 37 °C-an 2 minutu inguruz inkubatu ostean altxatu dira. HeLa eta HEK293T zelulen kasuan tripsinarekin inkubatzearen ondorioz altxatutako zelulak zuzenean medio berrian berreseki eta erein dira. mCherry-HS5 zelulen kasuan altxatutako zelulak 10 ml medio berritan berreseki eta 1500 rpm-tan zentrifugatu dira 5 minutuz. Jalkitako zelulak medio berritan berreseki eta erein dira.

eGFP-MV4-11 zelulak suspentsioan hazten den zelula-lerroa izanik, zelulak hazitako medioa jaso eta 1500 rpm-tan zentrifugatu da 5 minutuz. Jalkitako zelulak medio berritan berreseki eta erein dira.

3.3.2. Zelulen ereintza

Esperimentuetarako aurretik azaldu bezala jaso dira zelulak, eta esperimentu mota eta zelula-lerroaren arabera, zelula kopuru ezberdina erein da hazkuntza plaketan (6. taula).

6. taula: Esperimentu motaren arabera erabilitako zelula-lerroa eta hazkuntza baldintzak.

Esperimentu mota	Zelula-lerroa	Denbora	Hazkuntza plaka mota	Putzu edo plakako zelula kopurua
Immunofluoreszentzia	HEK293T eta HeLa	3 egun	12 putzutakoa estalkiarekin	% 60-80ko konfluentzian
Western plapaketa	HEK293T	3 egun	6 putzutakoa	% 60-80ko konfluentzian
GFP-Trap immunoprezipitazioa	HEK293T	3 egun	10 cm-ko plaka	$6,5 \times 10^6$
Neutrabidina afinitate-purifikazioa	HEK293T	3 egun	10 cm-ko plaka	$6,5 \times 10^6$
Ko-hazkuntzan eginiko farmako sinergia	mCherry-HS5	5 egun	96 putzutakoa	10^4
	eGFP-MV4-11	4 egun		4×10^4

Immunofluoreszentzia eta Western plapaketa esperimentuetarako zelulak % 60-80ko konfluentzian erein dira beirazko estalki esterildun (RS France) 12 putzutako hazkuntza plaketan (Sarstedt) edo 6 putzutako hazkuntza plaketan (Costar) hurrenez hurren.

Beste esperimentuetan, zelulak jasotakoan, suspentsioko zelula kopurua Neubauer ganbara erabiliz zehaztu da. Zelula-suspentsio bakoitza bi aldiz kargatu da Neubauer ganbaran eta aldi bakoitzean bi karratutan dauden zelulak zenbatu dira, guztira lau karraturen batez bestekoa kalkulatzeko. Zelulak zenbatzerakoan, karratuko goiko eta eskumako lerroak ukitzen dituzten zelulak ez dira zenbatu, zelulok birritan zenbatzea ekiditeko. Zenbatutako zelulen batez bestekoa 10^4-z biderkatu da jatorrizko suspentsioko ml-ko zelula kopurua ezagutzeko.

eGFP-MV4-11 zelulen kasuan izan ezik, beste zelula guztien kasuan zelulak esperimentuaren lehen egunean erein dira. eGFP-MV4-11 zelulak ordea, esperimentuaren bigarren egunean. eGFP-MV4-11 zelulak ko-hazkuntzan eginiko farmakoen sinergia esperimentuetan erabili dira mCherry-HS5 zelulekin batera. Esperimentu mota horietan, lehenengo egunean mCherry-HS5 zelulak erein dira, eta 24 ordura, mCherry-HS5 zelulak plakari ondo atxikita daudela, medio zaharra kendu eta eGFP-MV4-11 zelulak mCherry-HS5 zelulen gainean erein dira.

3.3.3. DNAren transfekzioa

Zelulak erein eta 24 ordura DNA transfekzioak egin dira X-tremeGENE 9 (XTG9) transfekzio-agentea (Roche Diagnostics) erabilita. Transfekzio-agentea antibiotiko eta FBS gabeko DMEMarekin nahastu, eta tantaka DNA plasmido jakina duen tutura gehitu da 1:2 DNA:XTG9 arrazoian. DMEM-XTG9-DNA tutua emeki nahastu eta 25 minutuz inkubatu da giro tenperaturan. Inkubazio denbora igaro bitartean zelulei medioa aldatu zaie, medio zaharra kenduz eta zuzenean berria gehituz. Jarraian, tutuko edukia zeluletara gehitu da tantaka eta plaka mugimendu zirkularretan emeki mugituz.

Erabilitako plakaren arabera DNA, DMEM/XTG9, eta hazkuntza medioaren bolumen ezberdinak erabili dira (7. taula).

7. taula: DNAren transfekziorako plaka motaren araberako DNA, XTG9 eta hazkuntza medio kopuruak.

Plaka mota	DNA ng	DMEM/XTG9 µl	Hazkuntza medio µl
12 putzutakoa	600	37,5	750
6 putzutakoa	1200	75	1500
10 cm	7200	450	9000

3.3.4. Tratamendu farmakologikoak

Zelulak tratatzeko, farmakoaren kontzentrazio handiagoa duen medioa zelulen ohiko hazkuntza mediora gehitu da (8. taula).

8. taula: Tesi honetan erabilitako farmakoen zehaztasunak. Farmakoaren izena, merkataritza-etxea eta bertan duen erreferentzia, biltegiratze kontzentrazioa, amaierako kontzentrazioa eta putzuan egiten den diluzioa adierazten dira.

Farmakoa	Merkataritza-etxea	Erreferentzia	Biltegiratze kontzentrazioa	Amaierako kontzentrazioa	Putzuko diluzioa
Zikloheximida (CHX)	Sigma-Aldrich	01810	10 mg/ml	10 μg/ml	1:4
Aktinomizina D (ActD)	Sigma-Aldrich	A9415	5 mg/ml	5 μg/ml	1:4
Leptomizina B (LMB)	Apollo-Scientific	BIL2101	6 μg/ml	6 ng/ml	1:4
Selinexor (SEL)	Selleckchem	S7252	100 μM	25 nM, 50 nM, 100 nM, 200 nM	1:2
Alisertib (ALS)	Selleckchem	S1133	100 μM	1 μM, 2 μM, 3 μM, 4,5 μM	1:2
Tazemetostat (TAZ)	Selleckchem	S7128	1 mM	250 nM, 1,25 μM, 2,5 μM 3,75 μM, 5 μM	1:2

8. taulako farmakoek ondorengo funtzioak dituzte:

- Zikloheximida (CHX), proteinen sintesia geldiarazteko erabili da pRev(1.4)-GFP bektorean oinarritutako esportazio entseguetan (3.6.1. atala). Proteinen sintesia geldiaraziz, esportazio-entseguan zitoplasman antzemandako GFP seinalea esportazio nuklearraren ondorioa baino ez dela ziurtatzen da.
- Aktinomizina D (ActD), Rev proteinaren NLSak gidatutako nukleoranzko inportazioa oztopatzeko erabili da. Inportazioa oztopatzeak, pRev(1.4)-GFP bektorean oinarritutako esportazio-entseguetan (3.6.1. atala) NES ahulen aktibitatea sumatzea ahalbidetzen du.
- Leptomizina B (LMB) CRM1 proteinaren poltsiko hidrofobikora lotzen da, poltsikoa betez eta bertara kargoak lotzea ekidinez. Beraz, LMB CRM1en mendeko esportazioaren inhibitzaile da. Tesi honetan, zitoplasman kokatzen diren proteinak edo NES aktibo bat duten proteinak CRM1en mende esportatzen diren baieztatzeko erabili da, baita, analisi proteomikoen bidez CRM1en inhibizioak proteina endogenoen banaketa azpizelularrean asaldurarik eragiten duen aztertzeko ere.
- Selinexor (SEL) ere, CRM1 proteinaren poltsiko hidrofobikora lotzen da eta LMBren moduan, CRM1en mendeko esportazioa inhibitzen du. Selinexor, klinikan erabiltzeko onartuta dago bai AEBetan bai Europan (Food and Drug Administration, 2019, 2020a, 2020b, European Medicines Agency, 2021). Tesi honetan farmakoen sinergia esperimentuetan erabili da.
- Alisertib (ALS), aurora kinasa Aren inhibitzailea da. Farmako honek pazienteetan erabiltzeko oniritzik jaso ez badu ere, entsegu klinikoen hirugarren fasera heldu da

(O'Connor et al., 2019). Alisertib, farmakoen sinergia esperimentuetan erabili da selinexor farmakoarekin batera.

– Tazemetostat (TAZ), S-adenosil metioninakin lehiatzen da EZH2 histona-metiltransferasara lotzeko. EZH2ra lotzean haren aktibitatea inhibitu egiten du. TAZ klinikan erabiltzeko onartua izan da AEBetan (Food and Drug Administration, 2020c, 2020d). Tesi honetan farmakoen sinergia esperimentuetan erabili da selinexor farmakoarekin batera.

3.4. Farmakoen sinergia ko-hazkuntzan neurtzeko entseguak

Farmakoen arteko sinergia Ramasamy eta lankideek (2012) garatutako modelo sistema batean neurtu da. Sistema horretan, minbizi hematologikoko zelulak hezur muineko estromako zelulen gainean hazten dira. Kasu honetan eGFP etiketa fluoreszentearekin markatutako MV4-11 leuzemia mieloide akutuko (AML) zelulak eta mCherry etiketa fluoreszenteaz markatutako HS5 hezur muineko estromako zelulak erabili dira. Etiketa ezberdinak izateak, batera hazten diren zelulak era bereizian eta erraz batean aztertzea ahalbidetuko du.

mCherry-HS5 zelulak 96 putzutako plaketako 48 putzutan (7. zutabetik 12. zutabera) erein dira 10^4 zelula/putzuko kontzentrazioan. Ereintzatik 24 ordura, zelulen medioa kendu eta plaketako putzu guztietan (A1-A3 eta A7-A9 putzuak salbu) 100 µl eGFP-MV4-11 zelula-suspentsio gehitu da $4x10^5$ zelula/ml-ko kontzentrazioan. Jarraian, intereseko farmakoaren amaierako kontzentrazioaren bikoitza duen 100 µl RPMI medio gehitu da. Baldintza bakoitza hiruna putzutan errepikatu da, bai eGFP-MV4-11 bakarrik ereindako putzuetan, zein mCherry-HS5 zelulekin batera ereindakoetan. Erabilitako farmakoak selinexor (SEL), alisertib (ALS) eta tazemetostat (TAZ) izan dira, bai banaka zein SEL/ALS edo SEL/TAZ konbinazioetan 8. taulan aipatutako kontzentrazioetan. Kontrol laginei 100 µl RPMI medio gehitu zaie eta eGFP-MV4-11 zelularik gehitu ez den putzuetan (A1-A3 eta A7-A9) RPMI medioaren 200 µl gehitu da.

3.4.1. Zelulen ugaritze analisia

Tratamendu farmakologikoa gehitu eta segituan zein 72 ordura, plakako putzu bakoitzeko fluoreszentzia-intentsitatea (FI) neurtu da. Neurketak, FLx800 plaka irakurlean (BioTek Instruments) egin dira. eGFP-MV4-11 zelulen ugaritzea neurtzeko, laginak 488 nm-tan kitzikatu dira eta emisioa 528 nm-tan jaso da, mCherry-HS5 zelulena neurtzeko ordea, laginak 584 nm-tan kitzikatu dira eta emisioa 607 nm-tan jaso da.

eGFP-MV4-11 zelulen ugaritze-arrazoia (UA) neurtzeko, lehenik eta behin, zelulak bakarrik edo ko-hazkuntzan hazitakoan esperimentuak duen atzeko-seinalea (*background*) kalkulatu da; bakarrik hazitako eGFP-MV4-11 zelulentzako atzeko-seinalea A1-A3 putzuetan jasotako

fluoreszentzia intentsitatearen batez bestekoa izango da, mCherry-HS5 zelulekin hazitako eGFP-MV4-11 zelulena ordea, A7-A9 putzuetakoa. Behin atzeko-seinalea kenduta, zelulak tratatu eta 72 ordura putzu bakoitzean jasotako fluoreszentzia seinalea, zelulak tratatu eta segituan jasotakoarekin zatitu da. Hau da:

$$UA = \frac{FI_{72\,h} - background_{72h}}{FI_0 - background_0}$$

Ugaritze-arrazoiak erabiliz kaltetutako-frakzioak (KF) kalkulatu dira:

$$KF = \frac{UA_{kontrol} - UA_{lagina}}{UA_{kontrol}}$$

KF balioekin, farmako eta farmako konbinazio bakoitzaren esperimentu guztien KF batez bestekoak eta desbiderapen estandarrak adierazten dituzten grafikoak egin dira. Gainera, batez besteko balio horietan oinarrituta eta Calcusyn softwarea erabilita (Biosoft), farmakoen konbinazioen sinergia-efektua kalkulatu da.

mCherry-HS5 zelulen kasuan, UA kalkulatzerakoan arazoak izan dira, t_0 denboretan neurketa zentzugabeak lortu baitira. Beraz, t_{72} denborak baino ez dira kontuan hartu. Kasu horietan KFak neurtzeko UA erabili beharrean t_{72} denborako FI datuak erabili dira atzeko-seinalea kenduta.

3.4.2. Apoptosi-analisia

eGFP-MV4-11 zelulak fixatzeko plakako putzu bakoitzera 60 µl % 4 paraformaldehido PBStan gehitu eta ondo berreseki da. Fixatutako zelulen plakak 4 °C-tan mantendu dira fluxu-zitometria analisiak burutu arte. Analisi horiek Accuri™ C6plus fluxu zitometroan (Becton Dickinson) egin dira eta lortutako datuak, BD CSampler softwarearekin (v.1.0.264.21) prozesatu dira.

Emaitzok, baldintza bakoitzean kontrolarekiko dagoen zelula apoptotiko kopurua kalkulatzeko erabili dira, horretarako, lagineko apoptosi balioari kontroleko apoptosi balioa kendu zaio. Balioen batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazi dira grafikoetan.

3.4.3. Efektu sinergistikoaren analisia

Zelulak farmako birekin tratatzean farmako horien elkarrekintzak zer nolako efektua duen aztertzeko Calcusyn softwarea (Biosoft) erabili da. Software hori Chou eta Talalayk 1984an konbinazio indizea (CI) zehazteko garatutako metodoan oinarritzen da. CIak bi farmakoren arteko elkarrekintza kuantitatiboki neurtzen du, horrela, CI ≥ 1,1 bada, efektua antagonikoa dela adierazten du, 0,9 < CI < 1,1 bada, efektu batukorra eta CI ≤ 0,9 bada, efektu sinergistikoa.

Efektu antagonikoak, bi farmakoren konbinazioaren efektua, farmako biek banaka duten efektuaren batuketaz espero zitekeen efektua baino baxuagoa dela adierazten du. Efektu batukorrak, bi farmakoen konbinazioaren efektua, farmako biek banaka dutenaren batuketaren baliokidea dela adierazten du. Eta efektu sinergistikoak, farmako bien konbinazioaren efektua, farmako biek banaka duten efektuaren batuketaz espero zitekeen efektua baino altuagoa dela adierazten du (Chou, 2006).

3.5. Fluoreszentziako mikroskopia teknikak

3.5.1. Mikroskopiarako laginen prestaketa

Fluoreszentziako mikroskopiaren bidez aztertutako lagin guztiak % 3,7 formaldehido (Sigma-Aldrich) PBStan fixatu dira ordu erdiz. Fixaketa bukatzean, laginak berezko fluoreszentzia badu (gainadierazitako proteinek YFP, GFP, sinGFP4a edo mRFP etiketa dutelako), lagina birritan PBStan garbitu eta portetan muntatu da DNA (nukleoak) ikustea ahalbidetzen duen 4',6-diamidino-2-fenilindoldun (DAPI) Vectashield muntaketa medio akuosoa (Vector Laboratories) erabilita.

Gainadierazitako proteinek berezko fluoreszentzia ez badute ordea, zelulen fixaketa eta laginaren muntaketa pausuen artean gainadierazitako proteinak antigorputzen bidez tindatu dira. Horretarako, zelulak fixatu ostean, PBStan garbitu eta % 0,2 Triton X-100 (Sigma-Aldrich) PBStan iragazkortu dira 10 minutuz. Iragazkortze-prozesuaren ostean lagina birritan PBStan garbitu da eta ordubetez blokeo-soluziotan (% 3 behi albumina seriko (BSA; Millipore) PBStan) inkubatu da. Jarraian, zelulak blokleo-soluziotan diluitutako antigorputz primarioan (anti-Myc edo anti-Flag) inkubatu dira ordubetez, eta inkubazio denbora igarotakoan, zelulak birritan PBSarekin garbitu eta minutu batez blokeo-soluziotan mantendu dira. Bukatzeko, zelulak blokeo-soluziotan diluitutako antigorputz sekundarioan inkubatu dira beste ordubetez eta ilunpetan. Azken inkubazio hori bukatzean lagina prest dago aurretik azaldu bezala mikroskopiarako portetan muntatzeko. Immunofluoreszentziarako erabilitako antigorputzak 9. taulan ageri dira.

9. taula: Immunofluoreszentziarako erabilitako antigorputzak.

Antigorputza	Merkataritza-etxea	Erreferentzia	Animalia	Diluzioa
Myc-Tag	Cell Signaling Technology	9B11	Sagua	1:300
Flag M2	Sigma-Aldrich	SLBK1346V	Sagua	1:400
Sagu AF488	ThermoFisher Scientific	A-10680	Ahuntza	1:400
Sagu AF633	ThermoFisher Scientific	A-21050	Ahuntza	1:400
Sagu AF594	ThermoFisher Scientific	A-11005	Ahuntza	1:400

3.5.2. Mikroskopia

Laginak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikerkuntzarako zerbitzu orokorretako (SGIker) Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuan (UPV/EHU) aztertu dira. Laginak modu orokorrean behatzeko eta zelulen kontaketetarako fluoreszentziako Zeiss Axioskop mikroskopioa erabili da, eta zenbait argazki mikroskopio hori, Nikon DS-Qi1Mc kamara eta NIS-Elements softwarea erabiliz hartu dira. Kasu gehienetan baina, argazkiak Zeiss Apotome2 fluoreszentziako mikroskopioan hartu dira Zen2.6 Blue edition softwarea erabiliz. Emaitzen atalean erakusten diren argazkiak Axioskop mikroskopioan egindakoak badira, argazkien oinetan adieraziko da, eta ezer ez adieraztekotan Apotome2 mikroskopioan hartu direla esan nahi du.

3.5.3. Irudi-analisia

Irudi-analisia, Fiji softwarerako (Schindelin et al., 2012) Ignacio Arganda-Carreras doktorearekin batera eta MorphoLibJ bilduma (Legland et al., 2016) erabilita garatutako script batekin (Olazabal-Herrero et al., 2019) egin da. Script horren bidez, proteina jakin batek nukleo eta zitoplasmaren artean duen banaketa era semi-kuantitatiboan aztertu da. Analisiarekin hasi aurretik irudi-konposatuak osatu dira. Irudi horietan kanal ezberdinak gainezartzen dira kanal bakoitzaren jatorrizko ezaugarriak galdu gabe. Irudi-konposatuak eratzeko, Zeiss Apotome2 mikroskopioan eremu berdinen sekzio optikoko eta ohiko fluoreszentziako argazkiak hartu dira. Argazki horiekin eta Fiji softwarea erabilita (i) ikertzeke dagoen kanaleko sekzio optikoko argazkia, (ii) maskara-zitoplasmatikoa (ikertuko den eremua) mugatuko duen kanalaren sekzio optikoko argazkia, eta (iii) nukleoen ohiko fluoreszentziazko argazkiak konbinatu dira. Ikertzeke dagoen kanala eta maskara-zitoplasmatikoa mugatuko duen kanala entseguaren arabera berdina izan daiteke: ezberdinak izango dira ikertu nahi den proteinaren kokapena gainadierazitako beste proteina baten mendekoa baldin bada, eta berdinak horrelako mendekotasunik agertzen ez baldin bada (17. irudia).

Mendekotasun eza:



Mendekotasuna dago:



17. irudia: Irudi-analisirako erabili diren irudi-konposatuen kanal bakoitza nolakoa den eta zertarako erabili den adierazten duen irudi eskematikoa. Goiko panelean proteina baten kokapena beste baten mendekoa ez denean erabili diren irudi-konposatuen adibidea agertzen da. 1. kanala sekzio optikoan eginiko argazkia da eta maskara-zitoplasmatikoaren eremua mugatzeko eta fluoreszentziaren intentsitatea neurtzeko erabiltzen da. 2. kanala ohiko fluoreszentziako argazkia da eta 1. kanala erabiliz mugatutako eremuaren barruan nukleoak bilatzeko erabiltzen da. Beheko panelean proteina baten kokapena beste bat adieraztearen mendekoa denean erabili diren irudi-konposatuen adibidea agertzen da. 1. kanala sekzio optikoan eginiko argazkia da eta maskara-zitoplasmatikoaren eremua mugatzeko erabiltzen da. 2. kanala sekzio optikoan eginiko argazkia da eta fluoreszentziaren intentsitatea neurtzeko erabiltzen da. 3. kanala ohiko fluoreszentziako argazkia da eta 1. kanala erabiliz mugatutako eremuaren barruan nukleoak bilatzeko erabiltzen da.

Eratutako irudi-konposatu horiekin eta garatutako scripta erabiliz proteina jakinari dagokion fluoreszentzia intentsitatearen batez bestekoa nukleoan eta nukleoaren inguruan birtualki eratzen den eraztun zitoplasmatikoan neurtuko da. Horretarako, ezinbestekoa da scriptari kanal bakoitza zertarako erabili behar duen, nukleoak banatzeko tolerantzia zein den, eta non eta nolako eraztuna eratu behar duen adieraztea (10. taula).

10. taula: Irudi-analisiaren bidez proteina fluoreszenteen kokapena aztertzeko scripterako parametroak. Proteinen arteko mendekotasuna ez dagoenean eta mendekotasuna dagoenean erabili diren parametroak adierazten dira.

	Mendekotasunik gabe	Mendekotasunarekin
Nukleoen kanala	2	3
Neurketen eremua mugatzeko kanala	1	1
Neurketen kanala	1	2
Tolerantzia	1	1
Eraztun zitoplasmatikoaren lodiera	2	2
Nukleoaren ertzetik eraztun zitoplasmatikorako distantzia	4	4

Analisirako parametroak ezarri direla, scriptak irudi-konposatua hartu eta maskara-zitoplasmatikoa eratzen du, hau da, neurketetarako eremua zehazten du (18. irudia). Jarraian, maskara hori hartuta, nukleoen kanalera doa eta maskara-zitoplasmatikoa nukleoen kanalarekin gainezartzean maskara-zitoplasmatikoaz estalita geratzen diren nukleoak hautatzen ditu. Nukleoak hautatuta, irudi-konposatura bueltatu eta neurketak egingo diren kanalean nukleo horiei dagozkien eremuetan eta horien inguruan ezartzen diren eraztunetan fluoreszentzia intentsitatea neurtzen da. Bukatzeko, eremu bakoitzean neurtutako fluoreszentzia intentsitatearen batez bestekoak kalkulatzen ditu. Fluoreszentziaren intentsitatearen batez bestekoa neurtzeaz gain, scriptak nukleoen zirkulartasuna, perimetroa, eta proteina baten banaketa nukleozitoplasmatikoa nolakoa den zehazteko erabili daitezkeen beste hainbat parametro ere neur ditzake.



	Label	Area	Perimeter	Circularity	Elong	Mean (nucleus)	Mean (cytoplasm)	StdDev (nucleus)	StdDev (cytoplasr
1	1	9.933	15.964	0.490	2.042	66.139	59.319	14.239	38.049
2	2	156.451	53.467	0.688	1.454	44.339	57.123	13.644	33.794
3	3	22.127	25.291	0.435	2.300	100.148	85.450	40.928	77.160
4	4	59.154	31.450	0.752	1.331	120.269	141.917	26.942	46.564
5	5	56.475	31.935	0.696	1.437	114.529	117.034	30.646	71.225
6	6	111.391	42.358	0.780	1.282	66.773	100.953	25.681	47.527

18. irudia: Irudi-analisirako sortutako scriptak egiten dituen urratsen eskema. Irudi-konposatutik hasita eta 10. taulan aipatutako parametroak ezarri ostean, lehenengo pausua (1) maskara-zitoplasmatikoak eratzea da. Maskara horrek neurketa zein eremuren barruan egingo den mugatzen du. Jarraian, (2) maskara-zitoplasmatikoarekin irudi-konposatura bueltatu eta nukleoen kanalean maskara-zitoplasmatikoaren barne dauden nukleoak hautatzen dira. Bukatzeko, (3) irudi-konposatura bueltatu eta neurketak egingo diren kanalean hautatutako nukleoen (horiz) eta horien inguruan sortzen dituen eraztunetan (urdinez) egiten dira neurketak. Emaitza (4) zelula bakoitzari dagozkion hainbat neurketa dira, urdin argiz tesi honetan proteina jakinen banaketa nukleozitoplasmatikoa aztertzeko kontuan izan diren neurketak markatu dira.

Scripta erabiliz ikertzeko eremuak ondo ezarri direla ziurtatzeko, lortutako emaitzak zelulaz zelula berraztertu dira eskuz. Gainera, eskuz ere, zelularik gabeko eremua mugatu da atzealdeko fluoreszentzia neurtzeko. Zelula bakoitzaren nukleo eta zitoplasmaren fluoreszentzia balioari zelula hori agertu den argazkiko atzealdeko fluoreszentzia balioa kendu zaio.

Behin analizatuko diren zelula guztien nukleo eta zitoplasmako fluoreszentzia balioak zuzenduta (atzealdeko fluoreszentzia kenduta), zelula bakoitzean analizatzeke dagoen proteinak duen banaketa nukleozitoplasmatikoa kalkulatu da:

$$Banaketa\ nukleozitoplasmatikoa = log_2\left(\frac{nukleoko\ fluoreszentzia}{zitoplasmako\ fluoreszentzia}\right)$$

Formula horretatik erauzitako datuekin, eta GraphPad Prism softwarea erabiliz, zelula bakoitzaren banaketa nukleozitoplasmatikoaren balioa, laginaren batez bestekoa balioa eta desbiderapen estandarrak erakusten duten grafikoak irudikatu dira. Lagin ezberdinak Mann-Whitney U testaren bidez konparatu dira eta $p < 0,05$ balioak esanguratsu kontsideratu dira.

3.6. Esportazio-entseguak

Tesi lan honetan bi esportazio-entsegu mota erabili dira: Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutakoa (Henderson eta Eleftheriou, 2000) eta $SRV_{B/A}$ erreportarian oinarritutakoa (Taylor et al., 2019; Sendino et al., 2020a). Lehen esportazio-entseguaren erabilera oso zabalduta dago, Scopus datu basearen arabera 345 aldiz aipatu da (2022ko urtarrilean kontsultatuta); bigarren entsegua ordea, lan honen garapenaren emaitza da. Atal honetan metodologiari dagozkion zehaztasunak baino ez dira azalduko, oinarrizko arrazoia emaitzekin batera azalduko da.

3.6.1. Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutako entseguak

Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutako esportazio-entsegua (Henderson eta Eleftheriou, 2000), NES kandidatuen (cNES) edo NES ezagunen baina esportazio-aktibitate ezezaguna duten motiboen esportazio-aktibitatea neurtzeko erabili da. Aztertzeke dauden sekuentziak pRev(1.4)-GFP bektorean klonatu dira BamHI eta AgeI murrizteguneen artean (19. irudia).



19. irudia: pRev(1.4)-GFP eta pRev(1.4)-cNES-GFP erreportarien irudi eskematikoa. pRev(1.4)-GFP erreportariak laranjaz adierazitako GIB birusaren Rev proteinaren bertsio mutante bat (1.4) eta berdez adierazitako GFP proteina fluoreszentea adierazten ditu. Rev(1.4) proteinak aktiboa den NLS bat (arrosaz adierazita) eta NES mutatu bat (horiz eta izar gorriaz adierazita) ditu. Rev(1.4) eta GFP proteinen sekuentzia-kodetzaileen artean BamHI eta AgeI murrizteguneak daude, zeintzuek cNESak pRev(1.4)-GFP erreportarian klonatzea ahalbidetuko duten pRev(1.4)-cNES-GFP erreportaria lortuz. cNESek erreportarian hartzen duten kokapena urdinez adierazi da.

Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutako entseguak HeLa zelulatan egin dira 12 putzutako plaketan. pRev(1.4)-cNES-GFP bakoitza bi putzutan transfektatu da. Putzu bateko zelulak CHXrekin tratatu dira, bestekoak ordea, CHX eta ActDrekin. Kontrol bezala pRev(1.4)-GFP bektore hutsa transfektatu eta tratatu da.

Laginok mikroskopiarako prestatu dira eta Axioskop fluoreszentziako mikroskopioa erabilita gutxienez 200 zelula nuklear, nukleozitoplasmatiko edo zitoplasmatiko kategoriatan sailkatu dira. Sailkapen horrekin ehunekoak kalkulatu eta 11. taula erabiliz cNESen esportazio-aktibitatea neurtu da. Aktiboak diren motiboei 1 eta 9 arteko balioak eman zaizkie 1 aktiboetan ahulena delarik eta 9 aktiboena.

11. taula: Henderson eta Eleftheriouk (2000) deskribatutako NESen aktibitatea mailakatzeko sistema. Ikertutako NES aktibo bakoitzaren aktibitate mailari 1 eta 9 arteko balioa eman zaio fusio-proteinak erakutsitako kokapen nukleozitoplasmatikoaren arabera.

NESaren aktibitate maila	GFPa partzialki metatzen da zitoplasman (zelulen %)		GFPa guztiz metatzen da zitoplasman (zelulen %)	
	-ActD	+ActD (3 h)	-ActD	+ActD (3 h)
1	<20	20-50	0	0
2	<50	51-80	0	0
3	<50	>80	-	<20
4			<20	20-50
5			<20	51-80
6			<20	>80
7			20-50	>80
8			51-80	>80
9			>80	>80

3.6.2. $SRV_{B/A}$ erreportarian oinarritutako entseguak

$SRV_{B/A}$ entseguak HEK293T zelulatan egin dira 12 putzutako plaketan. Ikergaia den NESa bere baitan duen $SRV_{B/A}$ erreportaria (SRV-NES) bera bakarrik zein YFP-CRM1en aldaera ezberdinekin batera transfektatu da. Transfekzioa eta 24 ordura laginak mikroskopiarako prestatu dira anti-Flag eta AF594 antigorputzekin tindatuz.

Entsegu honen emaitzak hiru metodo ezberdin erabiliz analizatu dira:

Lehenengo metodoa: erreportariak hartzen duen kokapen nukleozitoplasmatiko orokorra begiz klasifikatu da bost kategoriatan: guztiz nuklearra (N), gehienbat nuklearra (N > Z), nuklear eta zitoplasmatikoa neurri berean (NZ), gehienbat zitoplasmatikoa (Z > N) eta guztiz zitoplasmatikoa (Z).

Bigarren metodoa: pRev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutako esportazio-entseguan egin bezala erreportariaren kokapena nuklear (N), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatu da gutxienez lagineko 200 zelulatan. Kategoria bakoitzean sailkatutako zelulen ehunekoak kalkulatu dira. Ehuneko horiekin NES/CRM1 aldaera konbinazio ezberdinen esportazioa konparatzea errazteko 0tik 100era doan SRV esportazio-aktibitate maila (SRV balio bezala izendatuko dena) kalkulatu da hurrengo formula erabiliz.

$$SRV\ balioa = 0 \times (\%\ N) + 0{,}5 \times (\%\ NZ) + 1 \times (\%\ Z)$$

Hirugarren metodoa: 3.5.3. atalean azaldutako Fiji softwarearen bidezko irudi-analisia erabili da. Funtsean, erreportariaren kontrako antigorputzek sortutako fluoreszentzia nukleoan eta zitoplasman semi-kuantitatiboki neurtzean eta konpartimendu bietan jasotako fluoreszentziaren arteko arrazoia kalkulatzean datza.

Hiru metodo horiek egoera ezberdinetan edo zehaztasun maila ezberdina duten emaitzak lortzeko helburuarekin aplikatu dira. Lehen metodoaren bidez lortutako emaitzek erreportariaren kokapen orokorraren informazioa ematen dute. Bigarren metodoak, lehenengo metodoa baino informazio zehatzagoa ematen du, eta nahiz eta erreportariak zelularen barne hartzen duen kokapena kategoria orokorretan sailkatu, emaitza kuantifikagarriak lortzeko bidea eman du. Bigarren metodologia hori García-Santisteban eta lankideek (2016) erabilitakoan oinarritu da. Hirugarren metodoari dakionez, erabilitako metodologien artean emaitza zehatzenak ematen dituena da. Metodo horrekin lortutako emaitzek, erreportariak zelula bakoitzean duen kokapena zein orokorrean lagin osoan duena islatzen dute.

3.7. Proteinen analisirako teknikak

3.7.1. Proteinen gertuko biotinilazioa

APEX2 peroxidasarekin fusionatutako proteina gainadierazten duten zelulak 500 µM biotin-fenoldun (BP) hazkuntza mediotan inkubatu dira 30 minutuz eta 37 °C-tan. Inkubazioa bukatzean, zelulen mediora APEX2 peroxidasa aktibatuko duen H_2O_2-a gehitu da 10 mM-eko amaierako kontzentrazioan. Zelulak minutu batez mantendu dira H_2O_2-dun mediotan eta jarraian *Quencher* soluziotan (10 mM sodio askorbato, 5 mM Trolox, 10 mM azida sodikoa PBStan) garbitu dira hiru aldiz. Hirugarren garbiketan *Quencher* soluzioa segituan kendu ordez, zelulak 5 minutuz inkubatu dira ilunpetan. Azkenik, zelulak PBStan garbitu dira (Hung et al., 2016-etik moldatutako protokoloa).

3.7.2. Proteina erauzketa

6 putzutako plaketako zelulak jasotzeko, zelulak PBStan garbitu eta putzu bakoitzean Laemmli lisi-indargetzailearen 100 µl gehitu da. Laginak putzuetatik mikrozentrifuga tutuetara transferitu dira. Lagin horiek 95 °C-tan irakin dira 5-10 minutuz.

Proteomika analisietarako proteina-erauzkinak lortzeko erabilitako metodoa proteomikarako laginak prestatzeko prozedura biak azaltzen diren atalean azalduko dira (3.7.6.2. eta 3.7.7.2. atalak).

3.7.3. Proteinen kuantifikazioa: Lowry metodoa

Proteinen erauzkinetako proteina-kontzentrazioa zehazteko, Bio-Rad Protein Assay kitaren bidezko Lowry metodo eraldatua erabili da. Behi-albumina serikoa (BSA) estandar gisa erabili da. Laburbilduz, A erreaktiboa eta S erreaktiboa 50:1 proportzioan nahastu dira. Nahasketa horretatik 25 µl gehitu zaizkie aztertzeko dauden lagin diluituei eta BSA estandarrei. Ondoren, B erreaktiboaren 200 µl gehitu dira eta nahasketa 15 minutuz inkubatu da giro-tenperaturan. Inkubazioa bukatzean, putzu bakoitzaren 750 nm-tako xurgapena neurtu da PowerWave340 (BioTek Instruments) mikroplaka-irakurgailua erabilita.

3.7.4. Proteinak gelean ikusarazteko teknikak

3.7.4.1. Sodio dodezil sulfato-poliakrilamida gel elektroforesia (SDS-PAGE)

Poliakrilamidazko gelak behetik eta aldeetatik hermetikoki itxita dauden bi kristalen artean polimerizatu dira. Goiko aldean, laginak kargatzea ahalbidetuko duten putzuak sortzeko orraziak jarri dira. Gel bakoitza bi ataletan dago banaturik; pilatze-gela eta banatze-gela. Pilatze-gela, gelaren goiko aldean kokatzen da eta poliakrilamida kontzentrazio txikia (% 5) dauka. Proteinak bertan kargatzen dira, eta pilatze-gelaren azpian dagoen banatze-gelera

proteina guztiak aldi berean heltzea eragiten du. Esan bezala, banatze-gela pilatze-gelaren azpian dago eta horrek duen poliakrilamida kontzentrazio handiagoari esker (% 12), proteinak euren pisu molekularraren arabera banatzen ditu (Laemmli, 1970).

Proteina laginak (20-40 µg proteina putzuko) Bio-Rad MiniPROTEAN Tetra Cell elektroforesi bertikal sisteman banatu dira, korronte elektrikoaren intentsitate konstantepean eta 1X proteina elektroforesi-indargetzailetan murgilduta. Geletan banatutako proteinen tamainak estimatzeko, PageRuler Plus Stained Protein Ladder (ThermoFisher Scientific) eta Precision Plus Protein™ Dual Color (Bio-Rad) proteina-estandarrak erabili dira.

3.7.4.2. Western plapaketa

Elektroforesiaren bidez banandutako proteinak nitrozelulosazko mintzetara (Bio-Rad) transferitu dira bi orduz, 4 °C eta 100 V-tan, Bio-Rad Mini Trans-Blot® transferentzia-sistema erabiliz. Transferentzia gertatzeko gela eta mintzak 1X transferentzia-indargetzailetan murgildu dira. Transferentzia bukatutakoan mintzak Ponceau S-tan (Sigma) tindatu dira transferentzia ondo eman dela ziurtatzeko. Jarraian, mintzak TTBStan garbitu eta blokeo-soluziotan (% 5 esne gaingabetua TTBStan) inkubatu dira ordubetez agitazio geldoan.

Behin mintzak blokeatuta, mintzak blokeo-soluziotan diluitutako antigorputz primarioarekin inkubatu dira ordubetez giro-tenperaturan edo gau osoan zehar 4 °C-tan agitazio geldoan. Jarraian, 5 minutuko hiru garbiketa egin dira TTBStan. Mintza garbi dagoela, blokeo-soluziotan diluitutako HRPdun (*Horseradish peroxidase;* errefau min peroxidasa) antigorputzak gehitu dira eta beste ordubetez inkubatu dira giro-tenperaturan eta agitazio geldoan. Erabilitako antigorputzak 12. taulan ageri dira. Bukatzeko, mintzak beste 3 aldiz garbitu dira TTBStan eta Pierce ECL Plus detekzio-agentea eta ChemiDoc (Bio-Rad) irudi softwarea erabiliz errebelatu dira.

12. taula: Western plapaketan erabilitako antigorputzak.

Antigorputza	Merkataritza-etxea	Erreferentzia	Animalia	Diluzioa	Inkubazio baldintzak
GFP monoklonala	Chromotek	3H9	Arratoia	1:1000	4 °C gau osoa /1 h giro-tenperatura
GFP poliklonala	Abcam	Ab290	Untxia	1:1000	4 °C gau osoa
Myc-Tag	Cell Signaling technologiy	9B11	Sagua	1:2000	4 °C gau osoa
Biotina-HRP	Cell Signaling technology	7075S	Ahuntza	1:1000	1 h giro-tenperatura
Arratoi-HRP	Santa Cruz	sc-3823	Ahuntza	1:3000	1 h giro-tenperatura
Untxi-HRP	Santa Cruz	sc-2030	Ahuntza	1:3000	1 h giro-tenperatura
Sagu-HRP	Santa Cruz	sc-3697	Ahuntza	1:3000	1 h giro-tenperatura

3.7.4.3. Zilar tindaketa

Proteomikaren bidez aztertuko diren laginetan proteina kopurua zenbatesteko, proteomika zerbitzura bidaliko den lagin bolumenaren % 10 zilar-tindaketaren bidez aztertu da. Tindaketak SilverQuest Kitaren (ThermoFisher Scientific) fabrikatzailearen argibideei jarraituz egin dira. Laburrean azalduta, lehenik eta behin, SDS-PAGE gelak MiliQ uretan garbitu eta % 40 etanol eta % 10 azido azetiko soluzioan fixatu dira ordubetez. Inkubazioa bukatzean, gelak 10 minutuko lau inkubaziotan, etanoletan garbitu (% 30 etanol), sentikortu (% 30 etanol, % 10 SilverQuest kit sensitizer), berriz ere etanoletan garbitu eta MiliQ uretan garbitu dira. Jarraian, tindaketa-soluziotan (% 1 SilverQuest kit stainer) inkubatu dira 15 minutuz, eta gehiegizko zilar ioiak kentzeko 30 segundoz MiliQ uretan garbitu dira. Gelak errebelatzeko, errebelatze-soluziotan (% 10 SilverQuest Kit developer eta 100 ml soluzioko Silverquest kit developer enhancerraren tanta bat) inkubatu dira bandek intentsitate nahikoa lortu arte. Momentu horretan, erreaktibo geldiarazlea gehitu eta 10 minutuz inkubatu da gela tindaketa-erreakzioa gelditzeko. Bukatzeko gelak MiliQ uretan garbitu dira.

3.7.4.4. *Coomassie* tindaketa

SDS-PAGE gelak GelCode Blue Stain (ThermoFisher Scientific) mediotan bi orduz murgilduta eta agitazio leunean mantenduz tindatu dira. Gehiegizko tindagaia kentzeko gelak MiliQ uretan inkubatu dira hiru orduz.

3.7.5. Masa-espektrometria analisiak

GFP-trap bihitxo magnetikoetatik, zein neutrabidina-agarosa bihitxoetatik eluitutako proteinen laginak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikerkuntzarako zerbitzu orokorretako (SGIker) Proteomika zerbitzuan analizatu dira. Horretarako, eluitutako proteinen erauzkinak SDS-PAGE bidez banatu eta proteinen geleango digestio triptikoa egin da. Digestiotik erauzitako peptidoak 3.7.5.3. atalean adierazitakoaren arabera analizatu dira likido-kromatografia-tandem masa-espektrometria (LC-MS/MS) erabiliz. Lortutako masa-espektroak MaxQuant softwarea (Cox eta Mann, 2008) erabiliz analizatu dira.

3.7.5.1. Masa-espektrometriaren oinarriak

Masa-espektrometrian oinarritutako proteomikan, zelula edo ehunetatik erauzitako proteinak SDS-PAGE geletan bana daitezke eta gelean bertan digeritu proteasa espezifikoak, tripsina esaterako, erabiliz. Proteinetatik eratorritako peptidoak kromatografiaren bidez banatu eta masa-espektrometroan analizatzen dira, peptidook ioinizatu eta masa/karga arrazoiaren (m/z) arabera banatuz (Steen eta Mann, 2004). Behin peptidoak euren m/z-ren arabera banatu direla, analizatzailearen barneko kolisio-ganbaran fragmentatuko dira gas inerte baten aurkako

kolisioen ondorioz, horrela, peptido aitzindarien informazioaz gain, peptidoen fragmentuen informazioa ere lortuko da (Aebersold eta Mann, 2003; Steen eta Mann, 2004). Peptido aitzindarien gaineko informazioaz gain, peptidoak kolisio-ganbaran fragmentatu, eta eratorritako fragmentuon informazioa ere analizatzeari tandem MS edota MS/MS deritzo. Ioi aitzindariaren eta horri dagozkion fragmentuen MS/MS datu esperimentalak datu-base bateko proteinei dagozkien peptidoen masa teorikoekin alderatzen dituen softwarea erabiltzen da laginean egon daitezkeen proteinak identifikatzeko.

3.7.5.2. Geleango digestio triptikoa

SDS-PAGE geletako intereseko zatiak ebaki eta geleango proteinen digestio triptikoa egin da Shevchenko et al.,1996-etik moldatutako protokoloa erabiliz. Labur azaltzeko, digestioa hiru urratsetan egin da: lehenengo urratsean eta proteinen disulfuro zubiak apurtzeko, gel zatiak 45 minutuz inkubatu dira 10 mM DTT 50 mM NH_4CO_3-tan eta 56 °C-tan; bigarrenean, eta apurtutako disulfuro zubi horiek berriz ere sortzea ekiditeko, zatiok iluntasunean eta 30 minutuz, 25 mM iodoazetamida NH_4CO_3-tan inkubatu dira giro-tenperaturan, eta hirugarrenean, 50 mM NH_4CO_3-tan 12,5 ng/ml kontzentrazioan diluitutako tripsinatan (Roche Diagnostics) inkubatu dira zatiok 37 °C-tan gau osoan. Azken inkubazio horren gainjalkin likidoa jaso, eta jalkineko gel zatietatik peptidoak birritan erauzi dira: lehenik 25 mM NH_4CO_3 eta azetonitrilotan, eta ostean, % 0,1 azido trifluoroazetiko eta azetonitrilotan. Erauzitako peptidoak aurretik jasotako gainjalkinarekin batu eta SpeedVac (ThermoFisher Scientific) zentrifugan sikatu dira. Bukatzeko, sikatutako peptidoak % 1 azido trifluoroazetikotan berreseki eta etxeko C18 (3M Empore C18) zutabeetan zehar pasarazi dira gatzgabetu, garbitu eta kontzentratzeko. Ostean, laginak berriro ere SpeedVacean sikatu eta % 0,1eko azido formikoan berreseki dira masa espektrometroan kargatu aurretik.

3.7.5.3. Likido-kromatografia-tandem masa-espektrometria (LC-MS/MS) analisiak

MS analisiak nanospray flex ioi iturri baten bidez konektatuta dauden EASY-nLC 1200 likido-kromatografia sistema, eta Q Exactive HF-X masa-espektrometroan (ThermoFisher Scientific) egin dira. Peptido triptikoak Acclaim PepMap RSLC (75 µm x 25 cm, ThermoFisher Scientific) zutabe analitiko batera konektatutako Acclaim PepMap100 (75 µm x 2 cm, ThermoFisher Scientific) aurre-zutabe batean kargatu dira. Peptidoak 300 nl/min-ko fluxuan eluitu dira zutabetik ondorengo azetonitrilo-gradientea erabiliz: % 2,4tik % 24ra 45 minutu, % 24tik % 32ra 2 minutu, % 32tik % 80ra minutu bat eta 12 minutu % 80an; gradiente osoan zehar azido formikoaren kontzentrazioa % 0,1ean mantendu da. Masa-espektrometroa ioi positibo funtzioan erabili da, eta 375-1800 m/z tarteko MS *scan* osoak jaso dira 60000-ko

bereizmenarekin (200 m/z-tan). Intentsitate altueneko 10 ioiak HCD (*Higher-energy C-trap dissociation*) disoziazioz fragmentatu dira 28ko kolisio energia normalizatuarekin, eta MS/MS espektroak 15000-ko bereizmenarekin (200 m/z-tan) jaso dira. Ioien gehienezko injekzio-denbora 50 ms-koa izan da lehen zundaketarako, eta 100 ms-koa MS/MS *scan*-etarako neutrabidina-agarosa bihitxoetatik eluitutako peptidoen kasuan; GFP-trap bihitxoetatik jasotako laginentzako berriz, 100 ms-koa izan da lehen zundaketarako injekzio-denbora, eta 120 ms-koa MS/MS *scan*-etarako. *Automatic Gain Control* (AGC) itu-balioak 3e6 eta 5e5 izan dira lehen zundaketarako eta MS/MS *scan*-etarako hurrenez hurren. Isolatze-leihoa 1,4 m/z-n ezarri da, eta 45 segundoko esklusio-leiho dinamikoa erabili da. Karga bakarreko ioiak, kargarik esleitu gabeko ioiak eta baita >5 kargako ioiak ere baztertu egin dira MS/MS analisietatik. Datuak Xcalibur softwarea (ThermoFisher Scientific) erabiliz jaso dira.

3.7.5.4. Datuen prozesamendua eta analisi bioinformatikoa

Prozesatu gabeko artxiboak MaxQuant (v.1.6.0.16) (Cox eta Mann, 2008) erabiliz prozesatu dira UniProtKB SwissProt Human datu basea erabilita (GFP-trap immunoprezipitazioko laginekin 2017-02ko bertsioa erabili da, neutrabidina-agarosa afinitate-purifikazioko laginekin, ordea, 2017-11koa, zeinetara APEX2dun proteinen sekuentziak eskuz gehitu diren). Bilaketetarako hurrengo parametroak erabili dira: aitzindarien eta fragmentuen tolerantziak 8 ppm eta 20 ppm-koak hurrenez hurren, tripsinak gehien jota bi mozketa egin gabe uztea, oxidazioa eta azetilazioa (proteinen amino-muturra) eraldaketa aldakor gisa hartu dira, eta karbamidometilazioa eraldaketa finko gisa. Peptido eta proteinen *False Discovery Rate*-a (FDR) % 1ean ezarri da.

3.7.6. RanGTPasa aktibitaterik ez duen Ran mutante bat erabiliz CRM1/kargo/RanGTP konplexua egonkortzean oinarritutako hurbilketa esperimentala

3.7.6.1. Laginen prestaketa

Bi esperimentu egin dira (20. irudia), bietan 10 cm-ko 9 plaka erabili dira. Plaka guztietan HEK293T zelulak erein, eta 24 ordura transfekzioak egin dira. Bi esperimentuetako plaka guztietan Myc epitopoarekin fusionatutako RanGTPasa aktibitaterik ez duen Ran proteinaren Q69L mutantea gainadierazi da. Horretaz gain, lehen esperimentuan; hiru plakatan YFP-CRM1 basatia gainadierazi da, beste hiru plakatan YFP-CRM1en E571K minbizi mutantea eta azkeneko 3 plakatan kargoak lotzeko gai ez den eta kontrol gisa erabili den YFP-CRM1^{4x} (Dong et al., 2009a). Bigarren esperimentuan, hiru plakatan YFP-CRM1 basatia, beste hiru plakatan YFP-CRM1^{4x} (Dong et al., 2009a) eta azken hiru plaketan pEYFP-C1 bektore hutsa (Clontech) gainadierazi dira.



20. irudia: CRM1/kargoa/RanGTP konplexua egonkortzean oinarritutako hurbilketa esperimentalean eginiko esperimentuetan erabilitako laginak.

3.7.6.2. Zelulak jasotzea eta lisatzea

Lehenengo esperimentuaren kasuan, zelulak PBStan behin garbitu dira eta jarraian zelulen lisiari ekin zaio. Bigarren esperimentuaren kasuan, zelulak PBStan garbitu, tutuetan jaso eta bederatzi alikuotak -20 °C-tan gorde dira. Gordetako alikuota horietatik hiru (transfekzio egoera bakoitzeko alikuota bana) lisatu eta aztertu egin dira.

Lisia era berean eman da bi esperimentuetan, horretarako, zelulei, plakan (lehen esperimentua) edo tutuetan (bigarren esperimentua) egon, % 1 PMSF (ThermoFisher Scientific) eta % 1 proteasa inhibitzaile nahasketa (Roche) duen Pierce lisi-indargetzailearen (ThermoFisher Scientific) 1 ml gehitu zaie. Lehen esperimentuko plaketako zelulak mikrozentrifuga tutuera transferitu dira. Tutuak, bai lehen zein bigarren esperimentukoak, 30 minutuz eta 4 °C-tan errotazioan inkubatu dira. Inkubazioak iraun bitartean, laginak 5-10 minuturo pipetarekin ondo berreseki dira. Laginak 10 minutuz 13000 rpm-tan zentrifugatu dira 4 °C-tan. Gainjalkin bakoitza bi alikuotatan banatu da, bata 100 µl-ko alikuota txikia, zelula erauzkin osoan dauden proteinak Western plapaketa bidez aztertzeko erabiliko dena, eta bestea 950 µl-ko alikuota, zeina GFP-Trap®_M bihitxoekin nahastuko den. 100 µl-ko alikuotak 20 µl 6X proteina karga-indargetzailerekin nahastu eta 95 °C-tan irakin dira 5 minutuz, -20 °C-tan gorde aurretik.

3.7.6.3. GFP-Trap®_M bihitxo magnetikoak erabilita eginiko immunoprezipitazioa

Aurreko atalean aipatutako 950 µl-ko alikuotak, aurretiaz lisi-indargetzailetan orekatutako 30 µl GFP-Trap®_M bihitxorekin nahastu eta 4 °C eta errotazioan inkubatu dira 3 orduz. Inkubazioa bukatzean, lehen esperimentuko laginek bere baitan jarraitu dute hurrengo

urratsera arte, bigarren esperimentuko lagin bakoitza ordea, hirutan banatu da (A, B eta C azpilaginak). Lehen esperimentuko lagin eta bigarren esperimentuko azpilagin bakoitza birritan garbitu da 500 µl lisi-indargetzailetan; lehen esperimentuko laginen, eta bigarren esperimentuko A azpilaginen garbiketetarako, aurreko pausuetan erabilitako lisi-indargetzaile berbera erabili da, hau da, 150 mM NaCl-dun lisi-indargetzailea. B eta C azpilaginen garbiketetarako lisi-indargetzaileko gatz kontzentrazioa handiagotu egin da, horrela, B azpilaginen garbiketatarako 200 mM NaCl-dun lisi-indargetzailea eta C azpilaginen garbiketetarako 400 mM NaCl-dun lisi-indargetzaileak erabili dira (gainontzeko erreaktiboen kontzentrazioa mantendu egin da). Azkenik, bihitxoak 60 µl 1X proteina karga-indargetzailetan berreseki eta 95 °C-tan irakin dira 5 minutuz, -20 °C-tan gorde aurretik.

3.7.7. APEX2 peroxidasaren bidezko gertuko proteinen biotinilazioan oinarritutako hurbilketa esperimentala

3.7.7.1. Proteomikarako laginen prestaketa

HEK293T zelulak 10 cm-ko 6 plaketan erein eta 24 ordura, 3 plakatako zelulak zitoplasmako proteinen biotinilazioa eragingo duen APEX2zit markatzailearekin eta beste 3 plakatakoak nukleoko proteinena eragingo duen APEX2nuk markatzailearekin transfektatu dira (21. irudia). Transfektatu eta 24 ordura, hirukote bakoitzeko plaka bana LMBrekin tratatu da. Plaka horiekin 3.7.1. atalean azaldutako proteinen gertuko biotinilazio protokoloa jarraitu da. APEX2zit edo APEX2nuk gainadierazten duten, eta LMB tratamendurik ez duten zelulen plaka banatan ez da H_2O_2-rik gehitu; lagin horiek berezko biotinilazioaren kontrolak izango dira. Horrela, markatzaile bakoitzerako ondorengo egoerak lortuko dira: kontrol egoera (-LMB/-H_2O_2), egoera basala (-LMB/+H_2O_2) eta CRM1 inhibitutako egoera (+LMB/+H_2O_2).



21. irudia: APEX2 peroxidasaren bidezko gertuko proteinen biotinilazioan oinarritutako hurbilketa esperimentalean eginiko esperimenturako prestatutako laginak.

3.7.7.2. Zelulak jasotzea eta lisatzea

Aurreko atalean azaldutako sei plaketako zelulak tripsina erabilita altxatu, eta plaka bakoitzeko zelulak 10 ml PBStan jaso dira. 10 ml horiek bi alikuotatan banatu dira: 1 ml-ko alikuota bat biotinilazioa Western plapaketaren bidez aztertzeko eta 9 ml-ko beste alikuota bat

neutrabidina-agarosa afinitate-purifikaziorako. Alikuota guztiak 13000 rpm-tan zentrifugatu dira 5 minutuz. Gainjalkinak baztertu egin dira.

Western plapaketarako gordetako alikuotetako zelulak Laemmli-lisi-indargetzailearen 200 µl gehituta eta 95 °C-tan 10 minutuz inkubatuta lisatu dira.

Proteomikarako gordetako alikuotetako zelulak neutrabidina afinitate-purifikaziorako lisi-indargetzaile eta proteasa inhibitzaile-nahasketaren (Roche) 2,9 ml-tan berreseki da. Lisia gertatzeko, laginak errotazioan inkubatu dira 30 minutuz eta 4 °C-tan. Inkubazioa bukatzean laginak 20 G xiringen zehar pasarazi dira. Bukatzeko, laginak 14000 rpm-tan zentrifugatu dira 5 minutuz eta 4 °C tan. Gainjalkinak hurrengo atalean azalduta dagoen afinitate-purifikaziorako gorde dira.

3.7.7.3. Neutrabidina-agarosa bihitxoak erabilita eginiko afinitate-purifikazioa

Laginak (2,5 ml) aurretik 25 ml lotze-indargetzailetan orekatutako PD10 (Healthcare) zutabeetan kargatu dira. Zutabe horietan lagineko molekula handi eta txikiak banatuko dira, eta beraz, laginean dauden gatzak eta bestelako pisu molekular txikiko molekulak baztertuko dira. Atxikitako proteinak PD10 zutabeetatik eluitzeko 3,5 ml lotze-indargetzaile gehitu dira zutabeetara, eta eluzioa, 250 µl 25X proteasa inhibitzaile-nahasketadun lotze-indargetzailedun tutuetan egin da. Eluitutako laginetik 50 µl Western plapaketaren bidezko azterketarako jaso dira. Gainontzeko 200 µl-tako bolumenera 150 µl Pierce High Capacity NeutrAvidin agarosa-bihitxo (ThermoFisher Scientific) gehitu dira. Laginok 3 orduz inkubatu dira errotazioan, lehen 40 minutuak giro-tenperaturan eta gainerako 120 minutuak 4 °C-tan. Hiru orduko inkubazioa bukatzean eta bihitxoetara lotu ez dena baztertzeko, laginak 1000 rpm-tan zentrifugatu dira 2 minutuz eta 10 °C-tan. Bihitxoetan biotinilatu gabeko ahalik eta proteina gutxien geratzeko, bihitxoak hainbat aldiz garbitu eta zentrifugatu dira: garbiketak PBStan prestatutako sei garbiketa-indargetzaile (GI) ezberdinen 10 ml-tan egin dira 2 minutuz eta giro-tenperaturan, eta zentrifugazioak, 11000 rpm-tan, 2 minutuz eta 10 °C-tan. Indargetzaile bakoitzarekin egindako garbiketa kopurua eta ordena ondorengoa da: GI1 (8 M urea, % 0,25 SDS) bi garbiketa, GI2 (6 M guanidina-HCl) hiru garbiketa, GI3 (6,4 M urea, 1 M NaCl, % 0,2 SDS) garbiketa bakarra, GI4 (4 M urea, 1 M NaCl, % 10 isopropanol, % 10 etanol, % 0,2 SDS) hiru garbiketa, GI1 garbiketa bakarra, GI5 (8 M urea, % 1 SDS) garbiketa bakarra eta GI6 (% 2 SDS) hiru garbiketa. Azken garbiketaren ostean, eta biotinilatutako proteinen eta bihitxoen artean ematen diren interakzioak hausteko, bihitxoak eluzio-indargetzailearen 80 µl-tan (250 mM Tris-HCl pH 7,5, 100 mM DTT, % 40 glizerol, % 4 SDS, % 0,2 bromofenol urdin) inkubatu dira 5 minutuz eta 95 °C-tan. Lotze-indargetzailea eta GI3 indargetzailearen kasuan

izan ezik, zeinak 32 °C-tan erabili diren, beste indargetzaile guztiak giro-tenperaturan erabili dira.

Azkenik, eluitutako materiala bihitxoetatik banatzeko, laginak Vivaclear Mini 0.8 μm PES filtrodun zutabeetan (Sartorious) zehar pasarazi dira 14000 rpm-tan zentrifugatuz minutu batez. Behin bihitxoak kenduta, lagineko proteinak SDS-PAGEz banatu dira eta gelak *Coomassie* erabilita tindatu dira. Gel horietatik APEX2dun proteinei, abidinari eta fronteari dagozkien pisu molekularreko bandak baztertu egin dira laginetan kontzentrazio txikiagoan dauden proteinen identifikazioa oztopatu ez dezaten. Hemendik aurrerako laginen prozesamendua UPV/EHUko SGIker Proteomika zerbitzuan egin da (3.7.5. atala).

3.7.7.4. Identifikatutako proteina-zerrenden kudeaketa

Proteomika zerbitzutik identifikatutako proteinen bi zerrenda multzo jaso dira: APEX2zit proteina erabilita biotinilatutako proteinena eta APEX2nuk proteina erabilita biotinilatutakoena. Zerrenda multzo bakoitzean kontrol laginean (-LMB/-H_2O_2), egoera basalari dagokion laginean (-LMB/+H_2O_2) eta CRM1 inhibitutako egoerari dagokion laginean (+LMB/+H_2O_2) identifikatutako proteinak ageri dira, beraz, aurretik aipatutako multzo bakoitzeko hiruna zerrenda jaso dira. Zerrenda horietan bi modutara identifikaturiko proteina-taldeak daude: MS/MS bidez identifikatutakoak eta *by matching* erara identifikatutakoak. MS/MS bidez identifikatuta egoteak laginean proteina horri dagokion peptido bat behintzat aurkitu dela esan nahi du, *by matching* identifikatuta egoteak aldiz, esperimentu bereko, zerrenda multzo bereko, beste laginetan aurkitu diren peptidoekin konparatuz lagin horretan ere proteina hori egon daitekeela esan nahi du. Laginen azterketarako MS/MS bidez identifikatutako proteinak baino ez dira erabili.

Identifikatutako proteina asko proteina taldeetan ageri dira. Proteina talde berean taldekatutako proteinek, maiz proteina beraren isoformak direnak, peptido berdinak partekatzen dituztelako ageri dira talde berean. Esperimentu batetik bestera, zerrenda multzo batetik bestera, proteina talde horiek ez dute zertan berdinak izan; gauzak horrela eta zerrendetako proteinen konparazioa errazte aldera, talde horietako proteinak banatu eta proteina horietan isoforma nagusia hautatu da.

Horretaz gain, kontrol laginean (-H_2O_2) identifikatutako proteinak, zeluletan berezko biotinilazioa jasaten duten proteinak alegia, gainontzeko laginetan identifikatuz gero ezabatu egin behar dira.

Aipaturiko iragazketa horien osteko zerrendatik fidagarritasun handiaz, hau da, 0 baino intentsitate altuagoarekin eta gutxienez bi peptidorekin, identifikatutako proteinak hautatu dira, eta horrela, identifikatutako proteinen behin betiko zerrenda osatu da.

3.7.7.5. Identifikatutako proteinen analisia

Proteina zerrendetako datuekin bi analisi mota egin dira: batetik laginen arteko erkaketak egin dira eta bestetik egoera basalean aurretiaz zein kokapenetan deskribatu diren aztertu da. Laginen arteko erkaketak egiteko Venn diagramak erabili dira (Bardou et al., 2014; http://jvenn.toulouse.inra.fr/app/index.html). Identifikatutako proteinak aurretiaz non deskribatu diren aztertzeko, UniProt datu-basera (UniProt Consortium, 2019; https://www.uniprot.org/ 2020-10-22an kontsultatuta) jo da eta identifikatutako proteinak *Gene Ontology*-ko *Subcellular location* sailkapenaren arabera aztertu dira.

3.8. Material eta metodo gehigarriak

1X PBS (pH 7,6)

137 mM NaCl
2,7 mM KCl
1,8 mM KH_2PO_4
8,1 mM Na_2HPO_4

TAE (50X)
2 M Tris base
0,05 M EDTA
% 0,05 azido azetiko (v/v)

Agarosa gela
% 1,5 agarosa (w/v)
% 0,01 etidio bromuro (v/v)
1X TAE

DNA karga-indargetzailea
% 0,2 Orange G (w/v)
% 40 sakarosa

Biltze gela (SDS-PAGE)
63 mM Tris-HCl pH 6,8
% 0,1 SDS (v/v)
% 5 akrilamida
% 0,1 TEMED
% 0,1 APS

Banatze gela (SDS-PAGE)
376 mM Tris HCl-pH 8.8
% 0,1 SDS (v/v)
% 12 Akrilamida
% 0,04 TEMED
% 0,1 APS

Proteina elektroforesi-indargetzailea
0,25 mM Tris base
1,92 mM glizina
% 1 SDS

Transferentzia-indargetzailea
120 mM Tris base
40 mM glizina
% 20 metanol

Proteina karga-indargetzailea (6X)
375 mM Tris-HCl pH 6,8
% 50 Glizerol (v/v)
% 12 SDS (w/v)
% 15 β-merkaptoetanol (v/v)
% 0,06 bromofenol urdina (w/v)

TTBS (pH 7,6)
20 mM Tris base
137 mM NaCl
% 0,1 Tween 20

Lisi-indargetzailea (GFP-traperako)
Pierce lisi-indargetzailea (ThermoFisher Scientific)
% 0,001 PMSF (v/v)
% 0,001 PIC (Roche) (v/v)

Laemmli lisi-indargetzailea
125 mM Tris-HCl pH 6,8
% 20 glizerol
% 4 SDS

Quencher soluzioa
10 mM sodio askorbato
5 mM Trolox
10 mM azida sodikoa
PBStan

Lisi-indargetzailea (Neutrabidina afinitate-purifikaziorako)
8 M urea
% 1 SDS
50 mM NEM

Lotze-indargetzailea
3 M urea
1 M NaCl
% 0,25 SDS
50 mM NEM

Garbiketa-indargetzailea 1 (GI1)
8 M urea
% 0,25 SDS
PBStan

Garbiketa-indargetzailea 2 (GI2)
6 M guanidina-HCl
PBStan

Garbiketa-indargetzailea 3 (GI3)
6,4 M urea
1M NaCl
% 0,2 SDS
PBStan

Garbiketa-indargetzailea 4 (GI4)
4 M urea
1 M NaCl
% 10 isopropanol
% 10 etanol
% 0,2 SDS
PBStan

Garbiketa-indargetzailea 5 (GI5)
8 M urea
% 1 SDS
PBStan

Garbiketa-indargetzailea 6 (GI6)
% 2 SDS
PBStan

Eluzio-indargetzailea
250 mM Tris-HCl pH 7,5
100 mM DTT
% 40 glizerol
% 4 SDS
% 0,2 bromofenol urdin

4. Emaitzak / Results

4.1. NES identifikazioa eta CRM1en mendeko NESen esportazioaren inguruko azterketa mekanistikoak

Sarreran aipatu bezala, CRM1ek kargoen NES izeneko aminoazido-sekuentzia espezifikoak ezagutu eta lotzen ditu kargook nukleotik zitoplasmara garraiatu ahal izateko. Ezagutzen diren CRM1i lotzen zaizkion NES aktiboen sekuentziak oinarritzat hartuta, ϕ_1-$X_{2\text{-}3}$-ϕ_2-$X_{2\text{-}3}$-ϕ_3-X-ϕ_4 NES adostasun-sekuentzia sortu da, non, aminoazido hidrofobikoak ϕ sinboloaz adierazten diren (Kosugi et al., 2008; Monecke et al., 2009). Adostasun-sekuentzia horrek, eta horretan oinarritutako bestelako ikerketek (Fung eta al., 2015, 2017; Güttler et al., 2010), NES kandidatuak bioinformatikoki bilatzea ahalbidetu dute. Bilaketa horietako emaitzak, ordea, zelularen testuinguruan frogatu behar dira, NES adostasun-sekuentziari doitzen zaion aminoazido segida oro ez baita CRM1i lotu eta esportatuko den NES aktiboa. NESen aktibitatea baliozkotzeko beraz, zelularen testuinguruan egindako esportazio-entseguen beharra dago. Entseguen artean aipatu beharrekoa da tesi honetan maiz erabilitako Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutakoa (Henderson eta Eleftheriou, 2000), eta baita jarraian aurkeztuko den $SRV_{B/A}$ erreportarian oinarritutako esportazio-entsegu berria ere.

Egun, CRM1en mende esportatzen diren 400 inguru kargoren NESak identifikaturik dauden arren (http://prodata.swmed.edu/LRNes/index.php; Xu et al., 2012; Fung et al. 2021), beste horrenbeste balizko kargo badirela proposatu da (Kirli et al., 2015). Balizko kargo askoren NES sekuentziak ezezagunak dira eta horiek zehaztea ezinbestekoa da; izan ere, kargo jakin baten NESaren sekuentzia zehaztuz gero, sekuentzia hori mutatu daiteke, eta modu horretan, proteina horren funtzioetan CRM1en mende esportatua izateak zein eragin duen argitu daiteke (Castro-Piedras et al., 2021). NES sekuentzia beratik haratago, CRM1 eta NESen arteko elkarrekintza estrukturalki zein biokimikoki ere ikertu bada ere (Dong et al., 2009b; Monecke et al., 2009; Güttler et al., 2010; Fung et al., 2015, 2017; Fu et al., 2018), zelularen testuinguruan CRM1en mendeko NESen esportazioa mekanistikoki ez dago sakontasunean azterturik. Ezagutza hori gako izan daiteke adibidez, minbizian maiz agertzen den E571K mutazioak zelula mailan duen eragina ulertzeko. Izan ere, mutazio horrek NES jakinen esportazioa asaldatzen duela (García-Santisteban et al., 2016) eta efektu onkologikoa baduela (Taylor et al., 2019) ezaguna bada ere, ez da orokorrean esportazioan duen eragina ezagutzen.

Gauzak horrela, tesi-atal honetan arlo horiek aztertzerakoan lortutako emaitzak aurkezten dira. Alde batetik, hainbat NES berri identifikatu dira; beste alde batetik, CRM1en mendeko NESen esportazioa mekanistikoki ikertu da, eta azkenik, CRM1 basatiaren esportoma eta E571K mutantearen esportoma aztertu eta erkatzeko estrategia berri bat diseinatu da.

4.1.1. NES berrien peskizan Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua erabiliz

Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutako nukleotiko esportazio-entsegua (Henderson eta Eleftheriou, 2000), hemendik aurrera Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegu bezala izendatuko dena, ezezagunak diren NES motibo berriak bilatzeko edo ezagunak diren NESen aktibitate maila neurtzeko erabilgarria den entsegua da.

pRev(1.4)-GFP bektorea, NES ez-aktiboa duen giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) mutatutako Rev proteinaz, Rev(1.4) izendatzen dena, eta GFP proteina fluoreszenteaz dago osaturik. Rev proteina basatiak, NLS eta NES seinale bana ditu, proteina basatiaren inportazio eta esportazioa bideratzen dutenak. 22. irudian adierazita dagoen bezala, Rev proteina basatiaren nukleoranzko inportazioa, zein nukleotiko esportazioa era erraz batean inhibitu daiteke zelulak aktinomizina D (ActD) edo leptomizina B-rekin (LMB) tratatuz, hurrenez hurren.



22. irudia: GIBaren Rev proteina basatiaren garraio nukleozitoplasmatikoa. Rev proteina basatiaren NLSak eragiten duen proteinaren inportazioa zelulak ActDrekin tratatuz inhibi daiteke, NESak eragindako esportazioa, aldiz, LMBrekin tratatuz (Henderson eta Eleftheriou, 2000-tik moldatutako irudia).

Rev(1.4) proteina mutanteak, ordea, jatorrizko NLSa bere baitan mantentzen duen arren, NES ez-aktiboa du. Hau da, nukleora inportatu daiteke, baina ez nukleotik esportatu (23. irudia). Ondorioz, Rev(1.4) proteina mutanteak kokapen nuklearra hartuko du zeluletan gainadieraztean. Esportazio ahalmen hori, pRev(1.4)-GFP bektorean aktiboa den NES bat barneratuz berreskura daiteke. Eta hori da, hain zuzen ere, esportazio-entsegu honen oinarria.



23. irudia: Rev(1.4) proteina mutantearen garraio nukleozitoplasmatikoa. Rev(1.4) proteina mutanteak Rev proteina basatiaren NLSa bere baitan mantentzen du, eta beraz, proteina aktiboa bezala zitoplasmatik nukleora garraiatzen da. NESa, ordea, mutaturik dauka (NES^m), eta horrek, proteina nukleotik zitoplasmara esportatzea ekiditen du.

NES aktibo guztiek ordea, ez dute Rev(1.4) proteinaren NLSak eragindako kokapen nuklearra gainditzeko behar besteko indarra, eta beraz, NES ahul bat duten Rev(1.4)-[NES]-GFP erreportariek nukleoan metatzeko joera izango dute. Joera hori ActD tratamenduaren bidez alderantzikatu daiteke. Izan ere, ActDk NLSak eragindako inportazioa inhibitzen du. Hortaz, ikergai den NESaren aktibitatea ahula bada ere, Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguak NES hori detektatzeko aukera ematen du. ActD erabiltzeaz gain, entsegu mota honetan zikloheximida (CHX) farmakoa ere erabili ohi da. Zikloheximidak proteinen sintesia inhibitzen du, eta beraz, zitoplasman detektatutako seinale fluoreszentea esportatu diren proteinetatik, eta ez sintetizatu berri diren proteinetatik datorrela, ziurta daiteke (24. irudia).



24. irudia: Rev(1.4)-GFP erreportarian oinarritutako esportazio-entsegua. pRev(1.4)-[NES]-GFP plasmidoak HeLa zelulen bi laginetan transfektatzen dira. 24 ordura, lagin biak CHXrekin tratatzen dira proteinen sintesia eteteko. Horretaz gain, lagin bietako bat ActDrekin tratatzen da Rev(1.4) proteinaren NLSak bultzatutako inportazioa inhibitzeko. Erreportariak HeLa zelulatan agertzen duen kokapen nukleozitoplasmatikoa aztertuz testatzen ari den NESa (urdinez) aktiboa den edo ez den jakin daiteke.

Esportazio-entsegu honek NESak detekta ditzake, baita oso ahulak direnak ere. Gainera, zelulak ActDrekin tratatu diren edo tratatu ez diren arabera, Rev(1.4)-[NES]-GFP erreportariek zelula-populazioan erakusten duten banaketa nukleozitoplasmatikoa aztertuta, ikergai den NES motiboaren esportazio-aktibitatea mailaka daiteke. NES ahulenek “1” aktibitate maila lortuko dute, eta sendoenek “9” (ikusi 11.taula).

Hurrengo ataletan ikusiko den bezala, Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren esportazioaren eragile den NESa aztertzeko, CRM1en mende esportatzen diren eta minbiziarekin erlazionatuta dauden balizko kargoen NESak bilatzeko, eta gizakiak infektatzeko gai diren koronabirusen nukleokapsida proteinetan aurreikusitako NESak aztertzeko erabili da.

4.1.1.1. WDR20 proteinan identifikatutako NES berriak USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren kokapen nukleozitoplasmatikoa zehazten du

Atal honetan aurkeztutako emaitzak Olazabal-Herrero et al., 2019, 2021 eta Sendino et al., 2020b-n argitaratu dira.

CRM1ek proteina askoren garraio nukleozitoplasmatikoa bideratzen du, eta beraz, gako da zelulan gertatzen diren prozesu ugariren erregulazioan. Prozesu horien artean, ubikuitinazio-bidezidorrak daude. Ubikuitinazioa itzulgarria den itzulpen osteko eraldaketa da, eta zeluletako proteina gehientsuenen egonkortasuna, funtzioa edota kokapena zuzentzen ditu (van der Veen eta Ploegh, 2012). Deubikuitinasak (DUB) ubikuitina-unitateak proteinetatik kentzen dituzten entzimak dira, eta funtsezko eginkizuna dute prozesu fisiologiko ugaritan (Komander et al., 2009). Tesi proiektu hau garatu deneko taldeak garraio nukleozitoplasmatikoa ikertzeaz gain, deubikuitinazio prozesua bera, eta garraio nukleozitoplasmatikoarekin duen lotura ere ikertzen du (García-Santisteban et al., 2012; Rodríguez, 2014; Olazabal-Herrero et al., 2019, 2021; Sendino et al., 2020b). Ikerketa horien lerroan, tesi atal honetan, CRM1ek, USP12 deubikuitinasak, UAF1 (*USP1 associated factor 1*) eta WDR20 (*WD repeat-containing protein 20*) kofaktoreekin batera eratzen duen konplexuaren kokapenean duen eragina ikertu da.

USP12 DUBa, tumore-ezabatzaile gisa jarduten duten USP (*ubiquitin-specific protease*) entzimen familiako kide da (Gangula eta Maddika, 2013; Li et al., 2013). USP12k ez du erabateko berezko deubikuitinatze-aktibitaterik. Guztiz aktibatzeko, USP12k, UAF1 (WDR48 (*WD repeat-containing protein 48*) izena ere hartzen duena) eta WDR20 kofaktoreekin batera USP12/UAF1/WDR20 konplexu-trimerikoa osatu behar du. Kofaktore bi horiek sinergistikoki jardungo dute USP12ren aktibitate deubikuitinatzailea nabari emendatuz (Kee et al., 2010).

USP12k zelulen fisiologian duen garrantzia ezaguna bada ere, oraindik ez dago argi non, zein konpartimentutan, kokatzen den zelulan, ezta aipaturiko kofaktoreek zer-nolako eragina izan dezaketen kokapen horretan, eraginik izatekotan. Badira USP12 gehienbat zitoplasmatikoa dela dioten ikerketak (Sowa et al., 2009; Urbé et al., 2012; Burska et al, 2013; Lehoux et al., 2014; Olazabal-Herrero et al., 2015), eta baita batez ere nuklearra dela diotenak (Joo et al., 2011; Jahan et al., 2016). Argi dagoena da, USP12 nukleoaren eta zitoplasmaren artean atzera eta aurrera mugitzen dela eta mugimendu hori CRM1ek bideratzen duela (Kouranti et al., 2010; Jahan et al., 2016). USP12k NES bat duela (^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91}) ere proposatu izan da (Sanyal, 2016). Proposatutako NES hori ordea, zalantzan jar daiteke, alde batetik ez duelako

egun ezagutzen diren NES sekuentziekin antzekotasunik, eta bestetik sekuentzia hori NES aktibo bat dela baieztatzeko ebidentzia nahikorik ez zelako aurkeztu (Rodríguez, 2016).

Bestalde, USP12 aktiboa izateko UAF1 eta WDR20 kofaktoreen beharra duela aipatu da (Kee et al., 2010), baina orain arte ez da kofaktore horiek USP12ren kokapen nukleozitoplasmatikoan izan dezaketen papera ikertu. Beraz, tesi honetan, lehenik eta behin konplexu-trimerikoaren proteina bakoitzaren kokapena ikertu da. Jarraian, USP12 proteinan deskribatutako NESa zalantzan jarri, eta batetik, NES horrek benetan USP12ren esportazioa eragiten duenetz aztertu da; bestetik, UAF1 eta WDR20 proteinak CRM1en bidez esportatuak izatekotan, esportazio hori bidera dezaketen motiboak bilatu dira. Eta bukatzeko, WDR20 proteinak USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren kokapenean duen eginkizuna ere aztertu da. Horretaz gain, WDR20 proteinaren homologoa izanik, USP12 proteinaren interaktorea den DMWD proteinaren esportazioa bidera dezaketen NES motiboak ere bilatu dira.

4.1.1.1.1. USP12 eta WDR20 proteinen kokapena CRM1en mendekoa da, UAF1ena, ordea, ez

USP12ren kokapenaren inguruan dagoen eztabaida dela eta, gainadierazitako USP12 deubikuitinasaren eta haren kofaktore diren UAF1 eta WDR20 proteinen kokapena CRM1en mendekoa denetz aztertu da. Horretarako, CRM1en inhibitzaile den LMB erabili da. 25. irudian beha daitekeen moduan, USP12 eta WDR20 proteinek kokapen nuklearragoa erakusten dute LMBrekin tratatutako zeluletan tratatu gabeko zeluletan baino. UAF1 proteinaren kokapena, aldiz, ez da zelulak LMBrekin tratatzearen arabera aldatzen. Hau da, USP12 eta WDR20 proteinen kokapena CRM1en mendekoa dela baiezta daiteke, UAF1ena, ordea, ez.



<u>25. irudia:</u> USP12 eta bere kofaktore den WDR20ren kokapena CRM1en mendekoa dela baiezta daiteke, UAF1 kofaktorearena, ordea, ez. Goiko aldean YFP-USP12, UAF1-mRFP eta YFP-WDR20 proteinek CRM1 aktibo dagoela (-LMB) edo CRM1 inhibiturik dagoela (+LMB) HeLa zelulatan hartzen duten kokapenaren fluoreszentziako irudi adierazgarriak ageri dira. Beheko aldean, proteina eta egoera bakoitzeko kokapenaren irudi-analisiaren emaitzak ageri dira. Zirkulu bakoitzak zelula bakar baten nukleoan antzematen den fluoreszentziaren eta zitoplasman antzematen denaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan, $\log_2$(N/Z arrazoia), adierazten du. Lagin bakoitzaren $\log_2$(N/Z arrazoia)-ren batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira, baita Mann-Whitney U estatistikoa erabiltzean lortutako p balioa ere (ee: ez-esanguratsua).

Azpimarratzekoa da, CRM1 inhibitzean USP12 zein WDR20 proteinen banaketa nukleozitoplasmatikoa aldatzen den arren, ez direla nukleoan guztiz metatzen. Horrek, proteina horien nukleoranzko sarrera modu ez oso eraginkorrean ematen dela iradokitzen du. Eraginkortasun baxu hori, proteina horiek zitoplasman bahituta geratzearen edo NLS indartsurik ez izatearen ondorio izan daiteke. Aukera horiek USP12 proteinaren kasuan aztertzeko, YFP-USP12$^{[2NLS]}$ izeneko proteina sortu da, zeinak, SV40 birusaren T antigeno luzearen bi NLS (Kalderon et al., 1984a, 1984b) kopia dituen. YFP-USP12$^{[2NLS]}$ HEK293T zelulatan gainadierazitakoan nukleoan metatzen dela behatu da (26. irudia). Emaitza horrek, YFP-USP12 proteinaren nukleorantzako garraio ez eraginkorra NLS indartsurik ez duelako, eta ez proteina zitoplasman bahitzen duen mekanismoren bat dagoelako gertatzen dela adierazten du.



26. irudia: YFP-USP12[2NLS] proteinak HEK293T zelulatan kokapen gehienbat nuklearra agertzen du. YFP-USP12 proteina basatiak (WT) kokapen zitoplasmatikoa erakusten du; bi NLSdun bertsioak ([2NLS]), ordea, kokapen nuklearra. YFP-USP12[2NLS] gainadierazten duten zelula batzuek seinale fluoreszente ahula erakusten dute mintz plasmatikoan (ez erakutsia).

4.1.1.1.2. USP12 proteinarako aurretik proposatutako NESa ez da aktiboa

USP12 proteinaren ^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91} aminoazido motiboa NEStzat proposatu da (Sanyal, 2016). Motibo horren sekuentzia, ordea, ez dator bat NESen gainean egun dagoen ezagutzarekin. Gainera, motibo horren esportazio-aktibitatea ez da esperimentalki frogatu, eta ondorioz, bere benetakotasuna zalantzan jarri da (Rodriguez, 2016). Gauzak horrela, ustezko NES horren sekuentzia (^{75}RKKESLLTCLADLFHSIAT^{93}) pRev(1.4)-GFP bektorean (Henderson eta Eleftheriou, 2000) klonatu eta esportazio-entsegu bat egin da. Entseguaren emaitza ezagutzeko, erreportariaren kokapena nuklear (N), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatu da gutxienez 200 zelulatan, bai ActDrekin tratatutako zeluletan zein tratatu gabekoetan. 27. irudian beha daitekeenez, Rev(1.4)-[USP12^{NES}]-GFP erreportariak ez du Rev(1.4)-GFP kontrol negatiboak baino kokapen zitoplasmatikoagoa, ezta ActDren presentzian ere. Emaitza horrek, USP12 proteinarako NEStzat proposaturiko ^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91} sekuentziak aktibitate esportatzailerik ez duela erakusten du.



27. irudia: USP12 proteinarako proposaturiko NESak (^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91}) ez-aktibo bezala jokatzen du esportazio-entseguan. Motibo hori aztertzeko erabilitako Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren emaitzak. Ezkerraldean Rev(1.4)-GFP bektore hutsarekin edo proposaturiko NESa duen Rev(1.4)-[USP12^{NES}]-GFP bektorearekin transfektatutako HeLa zelulatan eginiko Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren irudi adierazgarriak ageri dira, eskuinaldean, erreportariaren kokapena gutxienez 200 zelulatan nuklear (N), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatuz lortutako emaitza semi-kuantitatiboa. Rev(1.4)-GFP kontrol negatiboak eta USP12 proteinarako proposatutako NESa adierazten duen erreportariak kokapen nuklearra agertzen dute bai ActDrekin tratatu gabeko zeluletan zein tratatutakoetan. Hau da, ikertutako motiboa ez da NES aktiboa.

Beste alde batetik, proposaturiko NESak proteina osoaren testuinguruan izan dezakeen funtzionaltasuna aztertu nahi izan da. Horretarako, YFP proteina fluoreszenteari fusionatutako USP12 proteinaren NEStzat hartutako ^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91} sekuentziako aminoazido hidrofobikoak alaninara mutatu dira. Mutagenesi horren emaitza YFP-USP12^{NESmut} proteina da, zeinak 77 eta 91 aminoazidoen artean sekuentzia basatiaren ordez ondorengo sekuentzia duen: ^{77}KESAATCAADAAHSA^{91}.

YFP-USP12^{NESmut} proteina HeLa zelulatan gainadieraztean kokapen zitoplasmatikoa erakusten du; proteina basatiak erakusten zuenaren berdina (28. irudia). Horrek, Sanyal eta lankideek (Jahan et al., 2016; Sanyal, 2016) USP12 proteinarako proposaturiko NES sekuentziak haren esportazioa gidatzen ez duela iradokitzen du.



28. irudia: USP12 proteina osoaren testuinguruan USP12 proteinarako proposaturiko NESak ez du kokapen nukleozitoplasmatikoan eraginik. Ezkerraldean, YFP-USP12 basatirako (wt) proposaturiko NES sekuentziaren, eta aminoazido hidrofobikoak alaninaz mutaturik (gorriz) dituen sekuentziaren (^{NESmut}) adierazpen eskematikoak ageri dira. Erdialdean, YFP-USP12wt eta YFP-USP12^{NESmut} gainadierazten duten HeLa zelulen irudi adierazgarriak, eta eskuinaldean proteina horiek hartzen duten kokapenaren irudi-analisiaren emaitzak. Zirkulu bakoitzak zelula bakar baten nukleoan antzematen den fluoreszentziaren eta zitoplasman antzematen denaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan (log_2(N/Z arrazoia)) adierazten du. Lagin bakoitzaren log_2(N/Z arrazoia)-ren batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira, ee: ez-esanguratsu (Mann-Whitney U estatistikoa). Fluoreszentziako irudien behaketaz, zein irudi-analisiaren bidez laginak aztertzean, YFP-USP12wt zein YFP-USP12^{NESmut} proteinek kokapen bera (gehienbat zitoplasmatikoa) agertzen dutela antzematen da.

4.1.1.1.3. WDR20 proteinak NES aktibo bat du

USP12 proteinarako proposaturiko NESa ezereztuta (ikusi 28. irudia), eta WDR20 proteinaren kokapena CRM1en mendekoa dela baieztatuta (ikusi 25. irudia), azken horrek NES aktibo bat ote duen ikertu da.

Horretarako, lehendabizi, 2016an Li eta lankideek USP12/UAF1/WDR20 konplexua X izpien difrakzioa erabiliz egindako modeloa erabilita, WDR20 proteinaren egitura aztertu da. WDR20k konplexuan duen egitura gehien bat β-harizpi erakoa da, egun dagoen NESen egituraren inguruko ezagutzarekin bat ez datorrena. Izan ere, NES seinale aktibo ohikoenek α-helize erako egitura izaten dute partzialki bada ere (Kosugi et al., 2008; Dong et al., 2009b; Fung et al., 2015, 2017). Alabaina, Li eta lankideen modeloan (2016), WDR20ren 394 eta 509 aminoazidoen arteko egitura ez dago deskribaturik, eta egun ere horrela jarraitzen du (Zhu et al., 2019b). Beraz, alde horretan NES sekuentziadun α-helizeren bat egotea gerta daiteke. Hori horrela, YFP-WDR20ren zati ezberdinen kokapena aztertzea erabaki da. Horretarako, hiru delezio-mutante egin dira; 1-390, 390-510 eta 510-569 aminoazidoen arteko zatiak hain zuzen ere (29A irudia). WDR20 proteina osoarekin egin bezala, zati horien kokapen zelularra CRM1 aktibo (-LMB) edo inhibiturik egon (+LMB) aztertu da (29B irudia). YFP-WDR20(1-390) eta YFP-WDR20(510-569) zatiek kokapen nukleozitoplasmatikoa hartzen dute CRM1 aktibo zein inhibiturik egon. YFP-WDR20(390-510) zatiak aldiz, proteina osoak duen kokapen berdina

erakusten du. Hau da, CRM1 aktibo dagoenean guztiz zitoplasmatikoa da, eta CRM1 inhibitzean, ordea, kokapen nukleozitoplasmatikoa hartzen du. Emaitza horrek WDR20 proteinaren 390 eta 510 aminoazidoen artean NES aktibo bat egon daitekeela iradokitzen du.



29. irudia: WDR20 proteinaren NESaren zonaldea mugatzeko esperimentua. A. YFP-WDR20 proteinaren delezio-mutanteen irudi eskematikoa. B. YFP-WDR20 osoa zein fragmentuak HeLa zelulatan erakusten duten kokapena, CRM1 aktibo (-LMB) edo inhibiturik dagoela (+LMB). WDR20 proteina osoak kokapen zitoplasmatikoa du CRM1 aktibo dagoenean, LMBrekin tratatzean aldiz, kokapen nukleozitoplasmatikoa hartzen du. Fragmentuei erreparatuz, proteina osoaren kokapen bera erakusten duen bakarra YFP-WDR20(390-510) fragmentua da.

Behin, WDR20 proteinak NESik izatekotan, zein zonaldetan izango duen zehaztuta, Wregex NES-iragarlea (Prieto et al., 2014) *relaxed* moduan erabili da proteina sekuentzia osoan NES sekuentzia kandidatuak bilatzeko (30. irudia) (hemendik aurrera, aktibitate-esportatzailerik dutela konfirmatu gabeko eta NES adostasun-sekuentziarekin bat egiten duten sekuentziak NES kandidatu edo cNES (*candidate* NES) bezala izendatuko dira; esperimentalki aktiboak direla konfirmatutakoak berriz, NES bezala). Iragarlearen arabera, motibo bakarra topatu da 390 eta 510 aminoazidoen artean, ^{454}IASGVSKFATL^{464} sekuentzia hain zuzen ere.

#	Entry	Start	End	Sequence	"!"	Score
1	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	109	118	L-TAT-A-ES-V-S-L	4	63.1
2	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	380	389	L-WD-L-TED-I-L-F	1	50.1
3	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	454	464	I-ASG-V-SKF-A-T-L	3	43.3
4	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	218	228	V-GEG-A-LNE-F-A-F	1	43.3
5	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	246	254	V-FN-F-DS-V-E-L	1	35.9
6	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	65	75	L-CFN-V-GRE-L-Y-F	4	35.1
7	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	258	268	M-KSY-F-GGL-L-C-V	3	35.1
8	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	532	542	A-HER-L-TVL-I-F-L	2	35.1
9	sp|Q8TBZ3|WDR20_HUMAN	288	298	V-WSF-V-DCR-V-I-A	2	23.1

30. irudia: Wregex NES-iragarleak *relaxed* moduan WDR20 proteinan aurkitutako cNESak. Aurkitutako bederatzi motiboetatik bakar bat (gorriz adierazita) dago 390-510 aminoazidoen artean.

WDR20 proteinaren 390 eta 510 aminoazidoen artean iragarleak aurkitutako cNESa eta haren alde banatako 4 aminoazido ere (hau da, ^{450}MDGAIASGVSKFATLSLHD^{468} sekuentzia) pRev(1.4)-GFP bektorean klonatu da (Rev(1.4)-[WDR20^{NES}]-GFP). Sekuentzia horren aktibitate esportatzailea Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua (Henderson eta Eleftheriou, 2000) erabiliz aztertzean aktiboa dela ikusi da (31. irudia). Rev(1.4)-[WDR20^{NES}]-GFP erreportariak tratatu gabeko (-ActD) zeluletan kokapen nukleozitoplasmatikoa hartzen du gehienbat. Zelulak ActDrekin tratatzean, ordea, kokapen askoz ere zitoplasmatikoagoa agertu du. Hori horrela, WDR20ren entseatutako motiboa NES aktiboa dela eta 6ko aktibitate esportatzailea duela zehaztu da.



31. irudia: WDR20ren ^{450}MDGAIASGVSKFATLSLHD^{468} cNES motiboa aktiboa denetz aztertzeko eginiko esportazio-entseguaren emaitzak. Ezkerraldean, HeLa zelulatan eginiko Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren irudi adierazgarriak ageri dira. Zelulak pRev(1.4)-GFP bektore hutsarekin eta aipatutako cNES motiboa duen erreportariaren bektorearekin transfektatu dira. Erreportarien kokapena zelulak ActDrekin tratatuta (+ActD), zein tratatu gabe (-ActD) aztertu da. WDR20ren NESak erreportariaren kokapen zitoplasmatikoa eragiten du. Eskuinaldean, entseguaren emaitza semi-kuantitatiboen grafikoa ageri da. Egoera bakoitzean gutxienez 200 zelula nuklear (N), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatu dira. Lortutako emaitzaren arabera WDR20 proteinaren cNESaren aktibitate esportatzaileari 6ko balioa eman zaio (ikusi 11. taula).

4.1.1.1.4. Identifikatutako NES berriak WDR20 proteinaren CRM1en mendeko esportazioa gidatzen du

Identifikatutako NES berriak WDR20 proteina osoaren testuinguruan duen eragina aztertu da. Horretarako, NES motiboaren parte diren L464 eta L466 leuzina aminoazidoak mutatu eta alaninaz ordezkatu dira (32. irudia). Jarraian, WDR20^{NESmut} proteinaren kokapena aztertu da (32. irudia). ^{454}IASGVSKFATLSLHD^{468} motibo basatia proteina osoaren kokapenaren arduradun izatekotan, WDR20^{NESmut} proteinak WDR20 proteina basatiak (wt) LMBrekin tratatutako zeluletan agertzen duen antzeko kokapena agertu beharko luke, hau da, kokapen nukleozitoplasmatikoa. Eta hori da, hain zuzen ere, mutatutako proteinak agertu duen kokapena. Hortaz, WDR20 basatian deskribatu berri den NES motiboa haren nukleotiko esportazioaren eragilea dela baiezta daiteke.



32. irudia: WDR20 proteinan deskribatutako NES berriak proteina osoaren CRM1en mendeko esportazioa gidatzen du. Ezkerraldean, WDR20 basati (wt) eta NES mutantedun (^{NESmut}) proteinen adierazpen eskematikoa ageri da. Jatorrizko 464 eta 466 leuzinak (L) alaninaz (A) ordezkatu dira mutantean (gorriz adierazita). Erdialdean, YFP-WDR20wt eta YFP-WDR20^{NESmut} gainadierazten duten HeLa zelulen irudi adierazgarriak, eta eskuinaldean proteinok hartzen duten kokapenaren irudi-analisiaren emaitza ageri da. Zirkulu bakoitzak zelula bakar baten nukleoan antzematen den fluoreszentziaren eta zitoplasman antzematen denaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan (log_2(N/Z arrazoia)) adierazten du. Lagin bakoitzaren log_2(N/Z arrazoia)-ren batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira, baita Mann-Whitney U estatistikoa erabiltzean lortutako p balioa ere.

4.1.1.1.5. Identifikatutako NES berria WDR20ren homologoa den DMWD proteinan funtzionalki kontserbatuta dago

USP12 proteinak UAF1 eta WDR20 proteinekin elkarrekiteaz gain beste hainbat interaktore ere badituela deskribatu da, tartean oso gutxi ikertu den DMWD (*dystrophia myotonica WD repeat-containing protein*) (Sowa et al., 2009). DMWD proteinaren aminoazido sekuentziak WDR20 proteinarenarekiko antzekotasun handia agertzen du. Gainera, WDR20 proteinan deskribatutako NES motiboaren sekuentzia DMWD proteinan partzialki kontserbatuta dago, batez ere, sekuentziaren C-muturrean (33. irudia).

```
WDR20 MAT------EG---GGKEMNEIKTQFTTREGLYKLLPHSEYSRPNRV-----PFN----- 41
DMWD  MAAGGAEGGSGPGAAMGDCAEIKSQFRTREGFYKLLPGDGAARRSGPASAQTPVPPQPPQ 60
      **:      .*   .  :  ***:** ****:***** .  :* .       *.

WDR20 ---------------------------SQGSNPVRVSFVNLND---------------QS 59
DMWD  PPPGPASASGPGAAGPASSPPPAGPGPGPALPAVRLSLVRLGEPDSAGAGEPPATPAGLG 120
                                . .   **:*:*.*.:                .

WDR20 GNGDRLCFNVGRELYFYI---YKGVRKAADLSKPIDKRIYKGTQPTCHDFNHLTATAESV 116
DMWD  SGGDRVCFNLGRELYFYPGCCRRGSQRSIDLNKPIDKRIYKGTQPTCHDFNQFTAATETI 180
      ..***:***:*******     :* ::: **.*******************::**::*::

WDR20 SLLVGFSAGQVQLIDPIKKETSKLFNEERLIDKSRVTCVKWVPGSESLFLVAHSSGNMYL 176
DMWD  SLLVGFSAGQVQYLDLIKKDTSKLFNEERLIDKTKVTYLKWLPESESLFLASHASGHLYL 240
      ************ :* ***:*************::** :**:* ******.:*:**::**

WDR20 YNVEHTCGTTAPHYQLLKQGESFAVHTCKSKSTRNPLLKWTVGEGALNEFAFSPDGKFLA 236
DMWD  YNVSHPCASAPPQYSLLKQGEGFSVYAAKSKAPRNPLAKWAVGEGPLNEFAFSPDGRHLA 300
      ***.* *.:: *:*.******.*:*::.***: **** **:**** **********:.**

WDR20 CVSQDGFLRVFNFDSVELHGTMKSYFGGLLCVCWSPDGKYIVTGGEDDLVTVWSFVDCRV 296
DMWD  CVSQDGCLRVFHFDSMLLRGLMKSYFGGLLCVCWSPDGRYVVTGGEDDLVTVWSFTEGRV 360
      ****** ****:***: *:* *****************:*:**************.: **

WDR20 IARGHGHKSWVSVVAFDPYTTSVEEGDPMEFSGSDEDFQDLLHFGRDRANSTQSRLSKRN 356
DMWD  VARGHGHKSWVNAVAFDPYTTRAEEAATAAGADGE--RSGEEEEEEPEAAGTGSAGGAPL 418
      :**********..******** .**.     :..:   ..  .  . .* .* *  .

WDR20 STDSRPVSVTYRFGSVGQDTQLCLWDLTEDILFPHQPLSRARTHTNVMNATSPPAGSNGN 416
DMWD  SPLPKAGSITYRFGSAGQDTQFCLWDLTEDVLYPHPPLARTRTLPGTPGTTPPAASSSRG 478
      *   :  *:******.*****:********:*:** **:*:**  .. .:* * *.*. .

WDR20 SVTTPGNSVPPPLPRSNSLPHSAVSNA-GSKSSVMDGAIASGVSKFATLSLHDRKERHHE 475
DMWD  GE-PGPGPLPRSLSRSNSLPHPAGGGKAGGPGVAAEPGTPFSIGRFATLTLQERRDRGAE 537
      .     . :*  * ******* * ..  *. . . : .   .:.:****:*::*::*  *

WDR20 KDHKRNHSMGHISSKSSD--------KLNLVTKTKTDPAKTLGTPLCPRMEDVPLLEPLI 527
DMWD  KEHKRYHSLGNISRGGSGGSGSGGEKPSGPVPRSRLDPAKVLGTALCPRIHEVPLLEPLV 597
      *:*** **:*:**  .*.          . * ::: ****.*** ****:.:*******:

WDR20 CKKIAHERLTVLIFLEDCIVTACQEGFICTWGRPGKVVSFNP----------------- 569
DMWD  CKKIAQERLTVLLFLEDCIITACQEGLICTWARPGKAFTDEETEAQTGEGSWPRSPSKSV 657
      *****:******:******:******:****.****..: :

WDR20 -----------------    569
DMWD  VEGISSQPGNSPSGTVV    674
```

<u>33. irudia:</u> WDR20 (Q8TBZ3) eta DMWD (Q09019) proteinen aminoazidoen lerrokatzea CLUSTAL-OMEGA erabiliz. Letren kolorea aminoazidoen propietate fisikoen araberakoa da, eta beheko lerroko sinboloek posizio bakoitzeko aminoazidoa zenbateraino kontserbatzen den adierazten dute; "*" sinboloak sekuentzia bietan aminoazido berdina ageri dela adierazten du, ":" sinboloak sekuentzia bietako aminoazidoak berdinak izan ez arren oso antzeko ezaugarri fisikokimikoak dituztela, eta bukatzeko, "." sinboloak sekuentzia bietako aminoazidoek duten antzekotasuna baxua dela adierazten du. WDR20 proteinaren sekuentzian proteina horretan aurkitutako NESa karratu arrosa batez dago adierazirik. Sekuentzia hori, DMWD proteinan partzialki kontserbaturik dago, batez ere sekuentziaren C-muturrean.

WDR20 proteinan deskribatutako NESa, partzialki bada ere, DMWD proteinan kontserbatuta dagoenez, CRM1ek DMWDren kokapena ere gidatzen duenetz ikertu da. Horretarako lehen urratsa, Myc-DMWD gainadierazten duten zelulak LMBrekin tratatzea izan da. 34. irudian ikus daitekeen moduan, DMWD CRM1 aktibo dagoenean (-LMB), inhibiturik dagoenean (+LMB) baino kokapen zitoplasmatikoagoa hartzen du. Kokapen aldaketa hori WDR20 proteinarako baino nabarmen ahulagoa bada ere, agerikoa da DMWDren kokapena ere CRM1en mendekoa dela.



34. irudia: DMWDren kokapena CRM1en mendekoa da. Ezkerraldean, CRM1 aktibo (-LMB) edo inhibiturik egon (+LMB) gainadierazitako Myc-WDR20 eta Myc-DMWD proteinek hartzen duten kokapenaren irudi adierazgarriak erakusten dira. Eskuinaldean, proteina horiek zelula-populazioan hartzen duten kokapena adierazten duen grafikoa ageri da. Gutxienez 200 zelula nuklear (N), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatu dira. CRM1 aktibo dagoenean Myc-WDR20 zein Myc-DMWD proteinek kokapen zitoplasmatikoa hartzen dute zelulen gehiengo handi batean. CRM1 inhibitzean, nukleoranzko lekualdaketa gertatzen da proteina bien kasuan, lekualdaketa WDR20 proteinaren kasuan nabariagoa da.

DMWDren kokapena CRM1en mendekoa dela ikusita, WDR20ren NESaren sekuentziaren homologoa den DMWDren sekuentzia ere NES aktiboa ote den ikertu da. Horretarako, ^{512}AEPGTPFSIGRFATLTLQE^{530} sekuentzia (ikusi 33. irudia) pRev(1.4)-GFP bektorean klonatu eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegu bat egin da (35. irudia). ActDrekin tratatu gabeko (-ActD) zeluletan Rev(1.4)-[DMWD^{NES}]-GFP erreportariak kokapen gehienbat nuklearra erakusten du, zelulak ActDrekin tratatzean aldiz, kokapen ia erabat nukleozitoplasmatikoa. Kokapen horrek, WDR20ren NESaren homologoa den DMWDren sekuentzia NES aktiboa dela eta 3ko aktibitate esportatzailea duela erakusten du. Hau da, WDR20ren NESaren homologoa den DMWDren sekuentzia ere, ahulagoa bada ere, NES aktiboa da.



35. irudia: DMWD proteinaren (^{512}AEPGTPFSIGRFATLTLQE^{530}) NES kandidatua aktiboa da. Ezkerraldean Rev(1.4)-GFP bektore hutsarekin edo Rev(1.4)-[DMWD^{NES}]-GFP bektorearekin transfektatutako HeLa zeluletan eginiko Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren irudi adierazgarriak ageri dira, eskuinaldean, erreportariaren kokapena gutxienez 200 zelulatan nuklear (N), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatuz lortutako emaitza semi-kuantitatiboa. Zenbaketa horren arabera, eta Henderson eta Eleftheriouk (2000) argitaratutakoaren arabera, ikertutako NESak 3ko esportazio-aktibitatea du.

4.1.1.1.6. WDR20 proteinan identifikatutako NESak USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren kokapena erregulatzen du

Tesi hau aurrera eramandako taldearen aurretiko esperimentuetan (Olazabal-Herrero et al., 2019) YFP-USP12 eta Myc-WDR20 proteinak bereizita gainadieraztean zitoplasmatikoak diren arren, proteina biak batera gainadieraztean (36A irudia), mintz plasmatikoranzko lekualdaketa jasaten dutela ikusi da. Lekualdaketa hori, nabariagoa da YFP-USP12 basatiaren ordez bi NLS seinaledun bertsioa erabiltzean (36B irudia).



36. irudia: WDR20 proteinak USP12 proteina mintz plasmatikoan kokatzea eragiten du. YFP-USP12 basatia (A) edo YFP-USP12$^{[2NLS]}$ (B) HEK293T zelulatan bakarrik edo Myc-WDR20 proteinarekin batera gainadieraztean erakusten duten kokapenaren irudi adierazgarriak. Myc-WDR20 proteinak YFP-USP12 proteina mintz plasmatikoan kokatzea eragiten du (A panela). Kokapen aldaketa hori are nabariagoa da 2 NLSdun YFP-USP12 fusio proteina erabiltzean (B panela).

WDR20 proteinak USP12ren kokapena erabat aldatzen duela ikusita, WDR20 proteinan aurkitutako NES berriak USP12ren kokapenean eraginik duenetz ikertu da. Horretarako, berezko kokapen nuklearra duen YFP-USP12$^{[2NLS]}$, NESa mutaturik duen Myc-WDR20^{NESmut} proteinarekin batera gainadierazi da. 37. irudian beha daitekeenez, YFP-USP12$^{[2NLS]}$, Myc-WDR20 basatiarekin batera gainadieraztean gertatzen zenaren kontrara, YFP-USP12$^{[2NLS]}$, Myc-WDR20^{NESmut} proteinarekin batera gainadieraztean USP12 eta WDR20 proteinek kokapen gehienbat nuklearra erakusten dute. Emaitza horrek, USP12 proteina nukleotik at WDR20ri loturik, *piggyback* izenez ezaguna den mekanismoaren bidez, esportatzen dela iradokitzen du.



37. irudia: USP12ren nukleotiko esportazioa WDR20 proteinan deskribatutako NES berriaren mendekoa da. YFP-USP12[2NLS] eta Myc-WDR20 proteinaren aldaera basatia (WT) edo NES mutatua duena (NESmut) batera gainadierazten duten HEK293T zelulen fluoreszentziako irudi adierazgarriak. WDR20ren NES motiboaren mutazioak, gainadierazitako proteina biek kokapen nuklearragoa hartzea eragiten du.

Berriki identifikatutako WDR20ren NESak WDR20 proteina beraren zein USP12 proteinaren kokapena kontrolatzen duela ikusita, esportazio seinale horrek USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren kokapenean duen eginkizuna ere ikertu da. Horretarako, Myc-WDR20 basatia edo Myc-WDR20^{NESmut}, YFP-USP12[2NLS] eta UAF1-mRFP proteinekin batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. 38. irudian ikus daitekeen bezala, Myc-WDR20 proteina basatia gainadierazten duten zeluletan, batera gainadierazitako hiru proteinak mintz plasmatikoan kokatzen dira. Myc-WDR20^{NESmut} gainadieraztean, ordea, konplexuko hiru proteinek kokapen nabari nuklearragoa erakusten dute.



38. irudia: WDR20 proteinaren NESak USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren CRM1en bidezko esportazioa bideratzen du. YFP-USP12[2NLS], UAF1-mRFP eta Myc-WDR20 proteina basatia (WT) edo NES motiboa mutaturik duena (NESmut) HEK293T zelulatan gainadierazi dira. Myc-WDR20 basatia gainadierazten den egoeran gainadierazitako hiru proteinak mintz-plasmatikoan kokatzen dira. Myc-WDR20^{NESmut} proteina erabiltzean, ordea, konplexuko proteinek kokapen nabarmen nuklearragoa erakusten dute.

Guzti horrek, WDR20 proteina USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren esportazioaren arduraduna dela, eta hemen deskribatutako NES berriak esportazio horretan aparteko garrantzia duela iradokitzen du.

4.1.1.2. CRM1en minbizi-esportomako NESen peskizan

Atal honetan aurkeztutako emaitzak Sendino et al., 2020a-n argitaratu dira.

2015ean Kirli eta lankideek afinitate-purifikazioa eta masa-espektrometria uztartuz, HeLa zeluletako CRM1en balizko kargoen bilduma argitaratu zuten. CRM1en benetako kargo izateko probabilitatearen arabera identifikatutako proteinak 5 kategoriatan sailkatu zituzten: A kargoak, B kargoak, C (*low abundancy)* kargoak, *ambiguous* kargoak eta *non-binder* (kargoak ez diren proteinak). Balizko kargoen bilduma horri CRM1en mendeko esportoma izena eman zioten, eta 1000 balizko kargo (A, B, C, edo *ambiguous* kategorietakoak) baino gehiago biltzen ditu. Balizko kargo horien gehiengo zabala esperimentalki konfirmatzeke dago oraindik. Gainera, CRM1en kargotzat egiaztatuta dauden proteina askoren NESak ezezagunak dira.

CRM1ek minbiziaren garapen eta pronostikoarekin erlazio estua duela aurretik ere aipatu da. Hori horrela, CRM1en mendeko esportomako hainbat proteina minbiziarekin erlazionatuta egotea aurreikus daiteke. Aurreikuspen hori buruan, Kirli eta lankideek 2015ean zehaztutako esportomako proteinak, *The Human Protein Atlas*-ean (HPA; https://www.proteinatlas.org/; 18. bertsioa) minbiziarekin erlazionatutako proteina gisa sailkaturiko proteinekin erkatu dira. Erkaketa horretan komunak diren 136 proteina aurkitu dira eta "CRM1en minbizi-esportoma" delakoa osatzen dute (Sendino et al., 2018) (39. irudia). CRM1en minbizi-esportoma osatzen duten proteinen zerrenda xehatua 22. taula gehigarrian ageri da.



39. irudia: "CRM1en minbizi-esportoma". CRM1en mendeko esportoma (Kirli et al., 2015) eta *The Human Protein Atlas*-aren (18. bertsioa) arabera minbiziarekin erlazionaturik dauden proteinak erkatzen dira Venn diagraman. Erkaketa horretan talde bietarako komunak diren 136 proteina aurkitu dira. Proteinok "CRM1en minbizi-esportoma" osatzen dute (Sendino et al., 2018).

CRM1en minbizi-esportomako proteina asko ez dago oraindik CRM1en kargo bezala konfirmatuta, eta kargo baieztatuak direnen artean badira NES ezezagunak dituzten asko ere. Hori horrela, tesi honetan CRM1en minbizi-esportomako NESen bilaketari ekin zaio. Sekuentzia horiek ezagutzea, kargoak baieztatzeko bidea izateaz gain, analisi funtzionalak egiteko aukera ere zabaltzen dute.

4.1.1.2.1. NES-iragarleen bidezko cNESen bilaketa CRM1en minbizi-esportoman

CRM1en minbizi-esportomako NESak bilatzeko, 2015ean Kirli eta lankideek HeLa zeluletako CRM1en esportoma definitzean A eta B kargo bezala izendatu zituzten kargoak soilik hartu dira kontuan, hau da, 39. irudian aipatutako 136 proteinetatik 112 proteina (ikusi 22. taula gehigarria). 112 CRM1en balizko kargo horien sekuentzietan NES kandidatuak (cNESak) bilatzeko, Wregex (Prieto et al., 2014) eta NESmapper (Kosugi et al., 2014) NES-iragarleak erabili dira. Bilaketak ohiko noranzkoan (*plus*) zein orain gutxi Fung eta lankideek (2015) deskribatutako kontrako noranzkoan (*reverse* edo *minus*) (ikusi 1. taula) egin dira. Guztira 988 cNES iragarri dira; 507 *plus* erakoak eta 481 *minus* erakoak (23. eta 24. taula gehigarriak).

cNES guzti horiek Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren bidez aztertzea ez da bideragarria. Beraz, noranzko bietako cNESak iragarle bakoitzarekin lortutako puntuazioaren araberako kuartiletan (Q) oinarrituta lau kategoriatan sailkatu dira. 13. taulan mailaketa sistema, eta maila bakoitzeko cNES kopurura laburbiltzen da.

13. taula: NES-iragarleetan oinarritutako cNESen sailkapena. Bi noranzkoetako cNESak Wregex (Prieto et al., 2014) eta NESmapper (Kosugi et al., 2014) iragarleek cNES bakoitza iragarritako kuartilaren (Q) arabera lau mailatan sailkatu dira. Maila bakoitzean aurkitutako cNES kopurua adierazten da.

Sailkapena	1 iragarlea	2 iragarlea	cNES kopurua
Lehen mailako *plus* cNES	Q1	Q1	7
Bigarren mailako *plus* cNES	Q2	Q1 edo Q2	19
Hirugarren mailako *plus* cNES	Q1	Q3, Q4 edo ez aurkitua	109
Laugarren mailako *plus* cNES	Q2, Q3 edo Q4	Q3, Q4 edo ez aurkitua	372
Lehen mailako *minus* cNES	Q1	Q1	10
Bigarren mailako *minus* cNES	Q2	Q1 edo Q2	12
Hirugarren mailako *minus* cNES	Q1	Q3, Q4 edo ez aurkitua	104
Laugarren mailako *minus* cNES	Q2, Q3 edo Q4	Q3, Q4 edo ez aurkitua	355

Sailkapen horretan oinarrituta, lehen eta bigarren mailako *plus* cNESak eta lehen mailako *minus* cNESak, hau da, 36 cNES hautatu eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren bidez aztertu dira (14. taula).

14. taula: Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua erabiliz testatutako CRM1en minbizi-esportomako cNESak. Taulan cNES bakoitzaren identifikazio-kodea (ID), cNES bakoitzaren jatorrizko proteinak UniProtKB datu-basean duen sarrera, Kirli eta lankideen (2015) arabera A kargo edo B kargo kategoriakoa den, aztertutako cNES motiboak proteinan duen kokapena eta aminoazido sekuentzia, eta cNES bakoitza zein mailatan sailkatzen den adierazten da. WN (Wregex-NESmapper) IDa dutenak *plus* cNESak dira, Rev IDa (*reverse*) dutenak aldiz, *minus* cNESak.

cNES ID	UniProt sarrera	Kargo mota	cNES kokapena	cNES sekuentzia	Maila
WN1	sp|P36507|MP2K2_HUMAN	B	33-51	NLVDLQKKLEELELDEQQK	1
WN2	sp|Q9NZQ3|SPN90_HUMAN	A	282-300	SASDDLEALGTLSLGTTEE	1
WN3	sp|P19532|TFE3_HUMAN	A	418-436	QANRSLQLRIQELELQAQI	1
WN4	sp|Q8IXJ6|SIR2_HUMAN	A	37-55	DMDFLRNLFSQTLSLGSQK	1
WN5	sp|O15234|CASC3_HUMAN	B	457-475	SSTSGLEQDVAQLNIAEQN	1
WN6	sp|O15357|SHIP2_HUMAN	B	256-274	TGEQELESLVLKLSVLKDF	1
WN7	sp|O15534|PER1_HUMAN	B	483-501	DTDIQELSEQIHRLLLQPV	1
WN8	sp|O15357|SHIP2_HUMAN	B	625-643	RKEFEPLLRVDQLNLEREK	2
WN9	sp|O15534|PER1_HUMAN	B	1215-1233	PDDPLFSELDGLGLEPMEE	2
WN10	sp|Q14141-2|SEPT6_HUMAN	A	155-174	IAPTGHSLKSLDLVTMKKLD	2
WN11	sp|Q8IXJ6|SIR2_HUMAN	A	244-267	FSCMQSDFLKVDLLLVMGTSLQVQ	2
WN12	sp|O95071-2|UBR5_HUMAN	A	2206-2224	AEPGSILTELGGFEVKESK	2
WN13	sp|P42345|MTOR_HUMAN	A	1274-1292	RVSKDDWLEWLRRLSLELL	2
WN14	sp|P14635|CCNB1_HUMAN	A	138-156	AEEDLCQAFSDVILAVNDV	2
WN15	sp|O95684|FR1OP_HUMAN	A	352-370	EISIGEEIEEDLSVEIDDI	2
WN16	sp|P63010|AP2B1_HUMAN	A	256-274	VLSAVKVLMKFLELLPKDS	2
WN17	sp|P20042|IF2B_HUMAN	A	89-107	FDIDEAEEGVKDLKIESDV	2
WN18	sp|P42345|MTOR_HUMAN	A	649-668	VQVVADVLSKLLVVGITDPD	2
WN19	sp|P11274|BCR_HUMAN	A	1091-1111	VSGVATDIQALKAAFDVNNKD	2
WN20	sp|Q14145|KEAP1_HUMAN	A	272-290	RCHSLTPNFLQMQLQKCEI	2
WN21	sp|Q6UUV9-3|CRTC1_HUMAN	A	329-347	LSPLSPITQAVAMDALSLE	2
WN22	sp|P15923|TFE2_HUMAN	A	566-584	NEAFKELGRMCQLHLNSEK	2
WN23	sp|Q99081|HTF4_HUMAN	A	594-612	NEAFKELGRMCQLHLKSEK	2
WN24	sp|Q12778|FOXO1_HUMAN	B	62-80	SAAAVSADFMSNLSLLEES	2
WN25	sp|Q13492-2|PICAL_HUMAN	A	212-230	NEGIINLLEKYFDMKKNQC	2
WN26	sp|P35869|AHR_HUMAN	B	114-132	EGEFLLQALNGFVLVVTTD	2
Rev1	sp|P25963|IKBA_HUMAN	A	267-285	QQLGQLTLENLQMLPESED	1
Rev2	sp|Q16204|CCDC6_HUMAN	A	297-315	MREENLRLQRKLQREMERR	1
Rev3	sp|P19484|TFEB_HUMAN	A	431-449	KDLDLMLLDDSLLPLASDP	1
Rev4	sp|O95071-2|UBR5_HUMAN	A	209-227	LQRTNLDVNLAVNNLLSRD	1
Rev5	sp|O15357|SHIP2_HUMAN	B	261-279	LESLVLKLSVLKDFLSGIQ	1
Rev6	sp|P30260|CDC27_HUMAN	A	545-563	HLQKDVALSVLSKDLTDMD	1
Rev7	sp|O95071-2|UBR5_HUMAN	A	1607-1625	EDGSDMELDLLAAAETESD	1
Rev8	sp|Q9UDY2-3|ZO2_HUMAN	A	715-733	PIADIAMEKLANELPDWFQ	1
Rev9	sp|Q92997-2|DVL3_HUMAN	A	24-42	PAERVTLADFKGVLQRPSY	1
Rev10	sp|O95684|FR1OP_HUMAN	A	379-397	LTQDLTVSQLSDVADYLED	1

4.1.1.2.2. Iragarritako cNESen esportazio-aktibitatearen azterketa

14. taulako cNESak pRev(1.4)-GFP bektorean klonatu eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan erakusten duten esportazio aktibitatearen arabera 0 (ez aktibo) eta 9 arteko mailatan sailkatu dira. Guztira, 36 cNESetatik 25 dira aktiboak (40. irudia).



<u>40. irudia:</u> CRM1en minbizi-esportomako cNESekin egindako Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguetako emaitzen grafikoak. 36 cNESetatik 25 dira aktiboak. Entseatutako motibo bakoitzak erakutsitako esportazio-aktibitatearen maila (0-9 artekoa) grafikoaren goialdean ageri da.

40. irudiari erreparatuz CRM1en minbizi-esportomako NES aktiboen artean aktibitate maila oso ezberdina duten NESak daudela beha daiteke. Orokorrean, *plus* eta *minus* NES aktiboak konparatuz gero, *plus* NESek esportazio-aktibitate altuagoa erakusten dute; *plus* NESek 3,84ko aktibitatea dute batez bestean, *minus*ek ordea, 1,5ekoa (41.irudia).



41. irudia: ***Plus* eta *minus* NESen aktibitatea konparatzen dituen grafikoa.** *Plus* NESek Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan lortutako batez besteko esportazio-aktibitatea 3,84koa da, *minus*ek lortutakoa ordea, 1,5ekoa. Grafikoko zirkulu bakoitzak Rev(1.4)-NES-GFP erreportari bat adierazten du. *Plus* eta *minus* NESen batez besteko balioak eta desbiderapen estandarrak adierazten dira. p balioa (Mann-Whitney U test) grafikoan adierazten da.

Iragarleen arabera lehen edo bigarren mailakoak diren *plus* NESak aztertzean ere ezberdintasun nabariak ageri dira. Aztertutako lehen mailako cNES guztiak aktiboak izan dira 5,57ko esportazio-aktibitate maila erakutsi dutelarik batez beste. Bigarren mailako *plus* cNESetan, ordea, 19 cNESetatik 7 ez dira aktiboak eta aktiboak diren gainontzekoen batez besteko aktibitate maila 3,09koa da, lehen mailako NESena baino baxuagoa (42. irudia).



42. irudia: ***In silico* eginiko cNESen analisiaren arabera lehen (1) edo bigarren mailakoak (2) diren *plus* NESen aktibitatearen grafikoa.** Lehen mailako *plus* NESek Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan erakutsitako batez besteko esportazio-aktibitatea 5,57koa da, bigarren mailako *plus* NESek erakutsitakoa, ordea, 3,09koa. Grafikoko zirkulu bakoitzak Rev(1.4)-NES-GFP erreportari bat adierazten du. *Plus* NES talde bakoitzeko batez besteko balioak eta desbiderapen estandarrak adierazten dira. p balioa (Mann-Whitney U test) grafikoan adierazi da.

Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan aktibo diren 25 NES horietatik, WN1 (Fukuda et al., 1996), WN4 (North eta Verdin, 2007), WN5 (Macchi et al., 2003), WN7 (Vielhaber et al., 2001), WN13 (Bachmann et al., 2006) eta WN14 (Toyoshima et al., 1998) NES ezagunak dira. Gainontzeko 19ak, tesi honetan deskribatutako NES berriak dira. Deskribatutako NES berri horiek NESdb datu basearen (http://prodata.swmed.edu/LRNes/index.php; Xu et al., 2012; Fung et al., 2021) azken bertsioan erregistraturik daude jada.

4.1.2. Tresna berri baten sorrera: $SRV_{B/A}$ erreportarian oinarritutako esportazio-entsegua

Atal honetan aurkeztutako emaitzak Taylor et al., 2019 eta Sendino et al., 2020a-n argitaratu dira.

4.1.2.1. Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren mugak eta $SRV_{B/A}$ erreportariaren sorrera

Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua NES berriak detektatzeko eta horien aktibitate maila neurtzeko baliabide oso aproposa bada ere, mugak ere baditu. Muga nagusia, CRM1en aldaera ezberdinek NESak esportatzeko duten gaitasuna era erraz batean neurtzeko aukerarik ematen ez duela da. Muga horri aurre egiteko, tesi proiektu honetan $SRV_{B/A}$ erreportaria sortu da.

$SRV_{B/A}$ erreportaria, García-Santisteban eta lankideek 2016an garatutako SRV100 biosentsoretik abiatuz sortu da. SRV100 biosentsoreak, surbibinaren lehen 100 aminoazidoak, NESa barne, SV40 birusaren T antigeno luzearen 2 NLS eta 3xFlag epitopoa adierazten ditu (43A irudia), eta CRM1en aldaera ezberdinek duten esportazio-ahalmena aztertzeko da aproposa. Horrela, SRV100 bera bakarrik HEK293T zelulatan gainadieraztean, NESaren eta NLSen arteko norgehiagokak biosentsorea nukleoan metatzea eragiten du (43B irudia). Biosentsorea, CRM1 basatiarekin (CRM1wt) edo kargoak esportatzeko gai den CRM1en mutante batekin gainadieraziz gero, zitoplasman metatuko da (García-Santisteban et al., 2016). Aldiz, kargoak esportatzeko ahalmenik ez duen CRM1en mutante batekin, esaterako, I521A/L525A/F561A/F572A mutantearekin (4X izenaz ezagunagoa; Dong et al., 2009a) batera gainadieraziz gero, biosentsorea nukleoan metatuko da.



43. irudia: SRV100 biosentsorearen eskema eta HEK293T zelulatan erakusten duen kokapenaren irudi eskematikoa. A. SRV100 biosentsorearen eskema. Urdin argiaz surbibina proteinaren lehen 100 aminoazidoak, marra urdin ilun diagonalekin surbibinaren NESa, arrosaz SV40 birusaren T antigenoaren 2 NLS eta horiz 3xFlag epitopoa adierazten dira. B. SRV100 biosentsoreak HEK293T zelulatan gainadieraztean erakusten duen kokapena. Bakarrik gainadieraztean bi NLSek SRV100 nukleoan metatzea eragiten dute. CRM1 basatiarekin (wt) gainadieraztean surbibinaren NESak proteina zitoplasman metatzea eragiten du. Esportazio-ahalmenik ez duen CRM1en mutante batekin gainadieraztean, adibidez CRM1 4X mutantearekin (Dong et al., 2009a), bakarrik gainadieraztean gertatzen den era berean, SRV100 nukleoan metatzen da.

García-Santisteban eta lankideek (2016) SRV100 biosentsorea CRM1en aldaera ezberdinek zelulatan duten esportazio ahalmena aztertzeko baliagarria dela erakutsi zuten. SRV100 biosentsorea CRM1en aldaera ezberdinen esportazio ahalmena ebaluatzeko baliagarria bada ere, ez du NES ezberdinen aktibitate esportatzailea aztertzeko aukerarik ematen. Ezaugarri bi horiek esportazio-entsegu berean ebaluatzeko helburuarekin, tesi honetan, SRV100 biosentsoretik abiatuta $SRV_{B/A}$ erreportaria garatu da (Taylor et al., 2019; Sendino et al., 2020a). Gainera, sortutako erreportari berria, Rev(1.4)-GFP erreportariarekin bateragarria izatea bilatu da. Bateragarritasun horrek aztergai diren NESak erreportari baten plasmido kodetzailetik abiatuz bestean era errazean azpiklonatzea ahalbidetuko baitu. pRev(1.4)-GFP bektorean NESak BamHI eta AgeI murriztegunеak erabiliz klonatzen direnez, $SRV_{B/A}$ plasmidoan ere egoera hori sortu behar da. Horretaz gain, sortuko den bektore berriak ezin du surbibinaren NESa kodetu. Puntu bi horiek kontuan izanik, SRV100 plasmidoaren surbibinaren NES sekuentzia kodetzailearen alde banatan BamHI eta AgeI murriztegunеak eratu dira. Horrek, aldi berean surbibinaren NESa kanporatzea eta beste NES bat barneratzea ahalbidetuko du. Kontuan izan behar da, SRV100 plasmidoaren jatorrizko sekuentziak $SRV_{B/A}$ bertsiorako interesgarriak ez diren berezko BamHI eta AgeI murriztegunеak dituela (44. irudia), eta beraz, $SRV_{B/A}$ sortzeko NES sekuentziaren alde banatan BamHI eta AgeI guneak sortzeaz gain, bestelako BamHI eta AgeI guneak ezabatu behar dira.

Guzti hori kontuan izanik, $SRV_{B/A}$ erreportaria eratzeko modurik aproposena SRV100 plasmidotik SRV100 biosentsorearen sekuentzia kodetzaile osoa kanporatzea eta bertan $SRV_{B/A}$ erreportariaren sekuentzia kodetzailea barneratzea dela erabaki da. Hori egiteko, SRV100 erreportariaren sekuentzia kodetzailea BglII eta NotI murriztegunеak erabiliz kanporatu eta murriztegune berdinak erabiliz $SRV_{B/A}$ erreportariaren sekuentzia kodetzailea osoa barneratu da (44. irudia).



44. irudia: SRV$_{B/A}$ plasmidoaren sorrera SRV100 plasmidotik abiatuta. BglII eta NotI murrizteguneak erabilita SRV100 plasmidoaren sekuentzia kodetzailea kanporatu da. Bertan, proteina berdina kodetzen duen baina BamHI eta AgeI murrizteguneak kokapen ezberdinean dituen cDNA barneratu da. SRV$_{B/A}$ plasmidoan BamHI eta AgeI murrizteguneak surbibinaren NESaren alde banatan daude, surbibinaren NESaren ordez beste edozein cNES barneratzea ahalbidetuz.

SRV100 eta SRV$_{B/A}$ bektoreek proteina berdinerako kodetzen badute ere, bektoreko murrizteguneak aldatzeak, eta ondorioz, jatorrizko NESa beste edozein cNES motiborengatik ordezkatu ahal izateak, NES ezberdinen esportazio-aktibitatea eta CRM1en aldaera ezberdinen esportazio-ahalmena ikertzeko aukera asko zabaltzen du. Gainera, pRev(1.4)-GFP bektorearekin bateragarria denez, cNES berberak sistema bietan era errazean aztertzea ahalbidetzen du (45. irudia).



45. irudia: pRev(1.4)-GFP eta SRV$_{B/A}$ plasmidoak bateragarriak dira. pRev(1.4)-GFP zein SRV$_{B/A}$ plasmidoan ikertzeke dauden cNESak BamHI eta AgeI murrizteguneak erabilita klonatzen dira, beraz, cNES horiek plasmido batean klonaturik izanez gero, era errazean azpiklonatu daitezke bestean.

4.1.2.2. $SRV_{B/A}$ plasmidoan oinarritutako esportazio-entseguak

$SRV_{B/A}$ plasmidoan oinarritutako esportazio-entseguak, hemendik aurrera $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegu bezala izendatuko direnak, NES kandidatu ezberdinen esportazio-aktibitatea eta CRM1en aldaera ezberdinen esportazio-ahalmena ikertzeko dira baliagarriak (46. irudia). $SRV_{B/A}$ erreportarian barneratutako cNESa aktiboa baldin bada, SRV100 erreportariarekin lortzen zen emaitza bera lortuko da, hau da, erreportaria bakarrik gainadieraztean nukleoan metatuko da, eta CRM1en mutante aktibo batekin batera gainadieraztean ordea, zitoplasman. Aldiz, barneratutako cNESa ez-aktiboa baldin bada, CRM1ek ez du ezagutuko, beraz, nahiz eta CRM1en aldaera aktibo batekin batera gainadierazi, nukleoan geratuko da.



46. irudia: SRV-cNES erreportariaren barneratutako cNESaren aktibitatearen araberako, eta gainadierazitako CRM1 aldaeraren esportazio-ahalmenaren araberako $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguaren emaitza azaltzen duen irudi eskematikoa. SRV-cNES erreportariaren cNESa aktiboa denean, erreportaria bakarrik gainadieraztean nukleoan metatuko da, CRM1en aldaera aktibo batekin batera gainadieraztean ordea, zitoplasman. Kontrara, barneratutako cNESa ez-aktiboa baldin bada, bakarrik zein edozein CRM1en aldaerarekin batera gainadieraztean erreportaria nukleoan metatuko da, CRM1ek ez baitu inolaz ere ezagutu eta esportatuko.

3.6.2. atalean azaldu den moduan, $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguaren emaitza hiru metodo ezberdinekin aztertu da. Laburbilduz (47. irudia), lehenengo metodoan SRV-cNES proteinak laginean orokorrean hartzen duen kokapena guztiz nuklearretik guztiz zitoplasmatikora doazen bost kategoria ezberdinetan sailkatu da. Bigarren metodoan, SRV-cNES erreportariaren kokapenaren arabera, 200 zelula gutxienez zitoplasmatiko (Z), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo nuklear (N) kategorietan sailkatu dira. Kontaketa horretan oinarrituta gainera, NES/CRM1 konbinazio ezberdinak konparatu ahal izateko esportazio-aktibitate mailari 0 eta 100 bitarteko balioa (SRV balioa bezala izendatu dena) eman zaio. Hirugarren metodoan berriz, FiJi softwarearen bidezko irudi-analisi semi-kuantitatiboa erabili da. Irudian aipaturiko hiru metodo horiekin aztertutako bi lagin ikus daitezke. Agerikoa den moduan, lagin berbera metodologia ezberdinekin aztertzean lortzen den funtsezko informazioa berdina da. Hala ere,

lortutako emaitzek zehaztasun maila ezberdina ematen dute, eta beraz, esperimentu bakoitzean lortu nahi den zehaztasun mailaren arabera metodo bat edo bestea aukeratuko da.



47. irudia: $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguak analizatzeko hiru metodoak eta adibideak. Fluoreszentziako argazkiek bi SRV-cNES erreportari ezberdin erabiliz eginiko esportazio-entseguen adibideak erakusten dituzte. Laginaren argazki orokorra, zein argazki orokor horretako zelula bakar baten argazkiak daude erakusgai. Zelula bakarra erakusten den irudian, nukleoa marratxo zuriz inguratu da. Argazkien azpian $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguak analizatzeko hiru metodoen nondik norako orokorrak eta lagin biak hiru metodoekin aztertzean lortutako emaitzak ageri dira. A lagina lehen metodoa erabiliz nuklear (N) bezala sailkatu da, bigarren metodoa erabiliz 4 balioko SRV balioa lortu du eta hirugarren metodoa erabiliz 0,9ko log_2(N/Z arrazoia) balioa. B laginari dagokionez, lehen metodoa erabilita gehienbat zitoplasmatiko (Z>N) bezala sailkatu da, bigarren metodoa erabilita 70eko SRV balioa lortu du eta hirugarren metodoa erabilita -0,3ko log_2(N/Z arrazoia) balioa.

4.1.2.2.1. $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua CRM1en minbizi-esportomako cNESen esportazio-aktibitatea aztertzeko

$SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua balioztatzeko, eta baita $SRV_{B/A}$ eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguetan lortzen diren emaitzak bateragarriak diren ikertzeko ere, aurretik Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan aztertutako (ikusi 40. irudia) eta aktibitate maila ezberdina erakutsi duten 22 cNES (15. taula) $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua erabiliz aztertu dira.

15. taula: $SRV_{B/A}$ erreportarian azpiklonatutako cNESak eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan lortu duten emaitza.

Azpiklonatutako cNESa	Rev(1.4)-GFP emaitza	Azpiklonatutako cNESa	Rev(1.4)-GFP emaitza
WN1	9	WN16	1
WN2	3	WN17	3
WN3	2	WN18	9
WN4	9	WN19	0
WN5	4	WN20	0
WN6	3	Rev1	0
WN7	9	Rev4	2
WN9	1	Rev5	3
WN13	4	Rev6	1
WN14	5	Rev7	0
WN15	1	Rev9	0

15. taulako cNESak $SRV_{B/A}$ plasmidoan azpiklonatu, eta eratorritako SRV-cNES erreportariak bakarrik zein YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. Esportazio-entsegu horiek lehen azterketa metodoa erabiliz ebaluatu dira. Hau da, lagin bakoitza SRV-cNES erreportariak erakusten duen kokapen orokorraren arabera guztiz nuklear (N), gehienbat nuklear (N>Z), nukleozitoplasmatiko (NZ), gehienbat zitoplasmatiko (Z>N) edo guztiz zitoplasmatiko (Z) kategorietan sailkatu da (48. irudia).



48. irudia: CRM1en minbizi-esportomako cNESak aztertzeko $SRV_{B/A}$ entsegua. Ezkerraldean hiru $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegutan SRV-cNES erreportariek bakarrik zein YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean erakutsitako kokapenaren fluoreszentziako argazki adierazgarriak ageri dira. Argazkiei eskuinaldean atxikitako etiketan, lagineko SRV-cNES erreportariaren kokapen orokorra zein den adierazten da. Eskuinaldeko panelean, $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan aztertutako cNES guztien emaitzak ageri dira bai bakarrik (-) zein YFP-CRM1 basatiarekin batera (+) gainadieraztean. Eskuinaldean azpian, etiketen koloreak eta kokapen zelularrak lotzen dituen legenda ageri da.

48. irudian beha daitekeenez, SRV-cNES erreportari gehienek bakarrik gainadieraztean kokapen guztiz nuklearra erakusten dute. Kokapen nuklearra erakutsi ez duten bakarrak WN4 eta WN7 izan dira, zeintzuek kokapen nukleozitoplasmatikoa eta kokapen gehienbat nuklearra erakutsi duten hurrenez hurren. YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean *plus* erako cNESak (WN) dituzten erreportari gehienek zitoplasmaranzko lekualdaketa erakutsi dute, ez ordea *minus* (Rev) erakoek. *Minus* erako NESen kasuan zitoplasmaranzko aldaketa txiki bat jasan duen erreportari bakarra SRV-Rev5 izan da.

Emaitza horiek, Rev(1.4)-GFP entseguan lortutako emaitzekin konparatzean (49. irudia), hainbat antzekotasun behatu dira, baita ezberdintasun nabari batzuk ere. Alde batetik, entsegu bietan *plus* NESak (WN) *minus* (Rev) NESak baino nabari aktiboagoak dira. Gainera, Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan gutxienez 3ko esportazio-aktibitatea izan duen NES oro $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean, zitoplasmaranzko lekualdaketa partzial edo oso bat jasan du; lekualdaketa horiek ordea, ez dira berdinak izan Rev(1.4)-GFP entseguan emaitza berdina lortu duten NESen kasuan. Adibidez, WN5 eta WN13 NES motiboek 4ko esportazio-aktibitate maila erakutsi dute Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan, $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan aldiz, WN5 guztiz nuklear (N) izatetik gehienbat zitoplasmatikoa (Z>N) izatera igaro da CRM1ekin batera gainadieraztean, eta WN13, guztiz nuklear (N) izatetik nukleozitoplasmatiko (NZ) izatera. Bestalde, Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan 3 baino esportazio-aktibitate maila baxuagoa erakutsi duten cNESek, WN16 salbu, $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan aktibitate-esportatzailerik ez dutela nabarmendu beharra dago.



<u>49. irudia:</u> $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan aztertutako CRM1en minbizi-esportomako 22 cNESek lortutako emaitza Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan lortutako emaitzaren arabera antolatuta. Goiko partean eta parentesi artean cNES bakoitzak Rev(1.4)-GFP entseguan lortutako emaitza ageri da. Beheko partean, cNES bakoitzak $SRV_{B/A}$ entseguan bakarrik (-) zein YFP-CRM1 basatiarekin (+) batera gainadieraztean erakutsitako kokapen orokorra. Eskuinaldean azpian, etiketen koloreak eta kokapen zelularrak lotzen dituen legenda ageri da.

49. irudiko emaitzak ikusita Rev(1.4)-GFP eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguetan lortutako emaitzak korrelazioan dauden aztertu nahi izan da. Helburu horrekin, 49. irudian erakutsitako 22 cNESek Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean jasotako emaitzak kontrajarri dira (50. irudia). $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguko emaitzak kualitatiboak direnez gero, kategoria bakoitzari balio bat eman zaio. Horrela, kokapen guztiz nuklearrak 0 balioa hartzen du (N = 0), gehienbat nuklearra den kokapenak 1 balioa (N>Z = 1), kokapen nukleozitoplasmatikoak 2 balioa (NZ = 2), gehienbat zitoplasmatikoa den kokapenak 3 balioa (Z>N = 3) eta kokapen guztiz zitoplasmatikoak 4 balioa (Z = 4).



50. irudia: Rev(1.4)-GFP eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguetan aztertutako 22 cNESen emaitzak kontrajartzen dituen grafikoa. Zirkulu bakoitzak aztertutako cNES bat irudikatzen du, eta hirukiek, Rev(1.4)-GFP esportazio-aktibitate maila bereko NESek batez bestean $SRV_{B/A}$ entseguan YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean erakutsitako kokapena. Pearson korrelazioa (R) eta p balioak grafikoan adierazten dira.

50. irudiko grafikoan agerikoa da Rev(1.4)-GFP eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguetako emaitzak korrelazioan daudela. Horrek, $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguari bermea ematen dio. Gainera, entsegu biak erabilita osagarriak diren emaitzak lor daitezke. Izan ere, $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua NES motibo berriak bilatzeko erabilgarria dela esan badaiteke ere, baliteke, $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguak aztertze lehen metodoaren bidez ebaluatzean Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren bidez detekta daitezkeen esportazio-aktibitate baxua duten hainbat NES detektatzeko gai ez izatea. Aitzitik, Rev(1.4)-GFP entseguan aktibitate-maila ertain edo altua erakutsi duten NESen arteko ezberdintasunak aurkitzeko Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua baino aproposagoa izan daiteke $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua. Adibidez, aurretik aipatutako WN5 eta WN13 kasua, edota WN1, WN4, WN7 eta WN18 NESen aktibitatearen kasua da. Azken lau NES horiek Rev(1.4)-GFP esportazio-aktibitate maila gorena lortu dute, hau da, 9. SRV-WN1 eta SRV-WN18 erreportariak HEK293T zelulatan bakarrik gainadieraztean kokapen nuklearra erakusten dute, SRV-WN4 eta SRV-WN7 erreportariek, ordea, guztiz nuklearra ez den kokapena. Horrek, aipaturiko lau NESek Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan emaitza bera lortu arren, WN4 eta WN7 NESek WN1 eta WN18 NESek baino esportazio-aktibitate altuagoa dutela iradokitzen du.

4.1.2.2.2. $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua mikropeptidoetan NES berriak identifikatzeko

Azkenaldiko ikerketa proteogenomikoen hobekuntzek argi uzten dute, litekeena, zelulen proteomaren tamaina eta konplexutasuna gutxietsi izana dela. Bada, orain gutxi arte RNA ez-kodetzaile bezala sailkatutako hainbat RNA molekula 100 aminoazido baino laburragoak diren proteinetara, mikropeptidoetara, itzultzen direla ikusi da (Yeasmin et al., 2018). Mikropeptido horien funtzio biologikoen gaineko ezagutza nahiko murritza da oraindik ere (Hartford eta Lal, 2020). Esaterako, euren kokapen nukleozitoplasmatikoa ikertzeke dago. Mikropeptidoak hain dira txikiak, non posible den nukleoko poro konplexua difusio pasiboz zeharkatzea, eta nukleo eta zitoplasmaren artean aurrera eta atzera mugitzen egotea. Hala ere, izan ditzaketen funtzioek mikropeptido batzuek kokapen nukleozitoplasmatiko jakin bat behar izatea eragin dezakete, eta beraz, zitoplasma eta nukleoaren arteko garraio aktiboa jasatea. Horretarako, mikropeptidoek garraio nukleozitoplasmatikoaren makineriarekin elkarregiteko gai diren NLS edo NES seinaleak izango lituzkete.

Hori horrela eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua NESak bilatzeko tresna baliagarria dela berretsita, entsegu hori giza mikropeptidoetako NESak bilatzeko erabili da. Giza mikropeptidoak SmProt datu-basetik (Hao et al., 2018) lortu dira, eta CRM1en minbizi-esportomarekin egin bezala, Wregex (Prieto et al., 2014) eta NESmapper (Kosugi et al., 2014) NES-iragarleekin analizatu dira NES motibo kandidatuak bilatzeko asmoz. Mikropeptidoen kasuan, *plus* erako cNESak baino ez dira bilatu. Bilaketa horretan aurkitutako cNES guztiak 25. taula gehigarrian ageri dira.

Oraingoan ere, aurkitutako cNES kopurua oso altua izan da, eta beraz, bilatzaile bietan lehen kuartilean aurkitzen diren 10 cNES aukeratu dira mikropeptidoetan NES seinaleak bilatzeko lehen ahaleginerako (16. taula).

16. taula: Esperimentalki aztertzeko aukeratutako mikropeptidoen cNESak. Taulan mikropeptidoen cNESen identifikazio kodea (ID), SmProt datu-basean mikropeptidoek duten IDa, mikropeptidoaren aminoazido kopurua, cNESak mikropeptidoan hartzen duen kokapena eta cNESaren aminoazido sekuentziak adierazten dira.

cNES ID	SmProt ID	Aminoazido kopurua	cNES kokapena	cNES sekuentzia
MICROP-1	SPROHSA011142	96	13-31	KKEELLKQLDDLKVELSQL
	SPROHSA011145	47	13-31	
MICROP-2	SPROHSA018908	84	57-75	RDRLPVNVRELSLDDPEV
MICROP-3	SPROHSA012652	70	29-47	GLDDLDVALSNLEVKLEGS
MICROP-4	SPROHSA141226	78	40-58	DGTSDLPLKLEALSVKEDA
	SPROHSA141826	85	47-65	
MICROP-5	SPROHSA141543	68	5-23	ASASALQRLVEQLKLEAGV
MICROP-6	SPROHSA011811	57	30-48	SHYHETLGEALQGVELEFS
MICROP-7	SPROHSA010409	85	16-34	EESPENLFLELEKLVLEHS
MICROP-8	SPROHSA009911	99	78-96	RMSKEELRAKLSEFKLETR
MICROP-9	SPROHSA020870	100	46-64	LSKCGEELGRLKLVLLELN
MICROP-10	SPROHSA180177	93	49-67	AKIKLLTKELSVLKDLFLE
	SPROHSA180747	93	49-67	
	SPROHSA181614	93	49-67	

16. taulako hiru cNES, MICROP-3, MICROP-4 eta MICROP-8 izenekoak, ezin izan dira $SRV_{B/A}$ plasmidoan klonatu. Gainontzeko zazpiekin $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua egin da SRV-cNESak bakarrik zein YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraziz (51. irudia). Esportazio-entsegu horren emaitza lehen analisi metodoarekin ikertu da (sailkapen orokorra). Bakarrik gainadieraztean, SRV-MICROP-2 erreportariak izan ezik, zeinak kokapen gehien bat nuklearra (N>Z) erakutsi duen, beste SRV-cNES guztiek kokapen guztiz nuklearra (N) erakutsi dute. YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean, SRV-MICROP-1 eta SRV-MICROP-10 erreportariek zitoplasmaranzko lekualdaketa partziala erakutsi dute (N>Z), eta SRV-MICROP-5 eta SRV-MICROP-7 erabatekoa (Z). Esperotakoaren aurka, SRV-MICROP-2 erreportaria YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadierazterakoan ez da erreportariaren zitoplasmaranzko lekualdaketarik behatu, eta horrek, MICROP-2 cNESaren esportazioa CRM1en mendekoa ez dela iradokitzen du. Oro har, ikertutako zazpi mikropeptidoen cNES motiboetatik lau aktiboak direla topatu da, eta horietako bi, MICROP-5 eta MICROP-7 alegia, esportazio-aktibitate altukoak.



51. irudia: $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguaren bidez giza mikropeptidoetan aurkitutako cNESen azterketa. Entseatutako SRV-cNES erreportari bakoitzaren argazki adierazgarriak erakusten dira, bai bakarrik (ezkerreko zutabea), zein YFP-CRM1 basatiarekin batera (eskumako zutabea) HEK293T zelulatan gainadieraztean. Eskumako beheko partean, $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua analisirako lehen metodoarekin aztertzean jasotako emaitzak ageri dira. SRV-MICROP-2 erreportariak izan ezik, zeina neurri txiki batean bada ere, partzialki zitoplasman kokatzen den (N>Z), beste guztiek kokapen erabat nuklearra erakusten dute HEK293T zelulatan bakarrik gainadieraztean. YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean SRV-MICROP-2, SRV-MICROP-6 eta SRV-MICROP-9 erreportariek bakarrik gainadieraztean erakusten zuten kokapen berbera erakusten dute, SRV-MICROP-1 eta SRV-MICROP-10 erreportariek kokapen gehienbat nuklearra (N>Z) eta SRV-MICROP-5 eta SRV-MICROP-7 erreportariek kokapen erabat zitoplasmatikoa (Z). Karratu zuriek analisi bioinformatikoan aukeratutako baina $SRV_{B/A}$ plasmidoan klonatu ezin izan diren cNESak adierazten dituzte.

CRM1ek MICROP-5 eta MICROP-7 NESak esportatzen dituela ziurtasun handiagoz baieztatzeko, SRV-MICROP-5 edo SRV-MICROP-7 erreportariak YFP-CRM1ekin batera gainadierazten duten HEK293T zelulak LMBrekin tratatu dira. 52. irudian beha daitekeenez, erreportari biak YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean erreportariok kokapen zitoplasmatikoa agertzen dute, CRM1 inhibitzean (+LMB) berriz, SRV-MICROP-5 erreportariak kokapen gehienbat nuklearra (N>Z) agertzen du, eta SRV-MICROP-7 erreportariak kokapen nuklearra (N). Emaitzok, MICROP-5 eta MICROP-7 NESak CRM1en bidez esportatzen direla berresten dute.



52. irudia: MICROP-5 eta MICROP-7 CRM1en mende esportatzen diren NESak dira. HEK293T zelulatan CRM1 inhibitzeak SRV-MICROP-5 eta SRV-MICROP-7 erreportarien kokapenean duen eraginaren argazki adierazgarriak erakusten dira. Erreportari biek kokapen nuklearra erakusten dute bakarrik gainadieraztean, eta kokapen zitoplasmatikoa YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean. Zelulak LMBrekin tratatzean, SRV-MICROP-5 erreportariak kokapen gehienbat nuklearra erakusten du (N>Z), SRV-MICROP-7 erreportariak, ordea, kokapen erabat nuklearra (N).

MICROP-5 eta MICROP-7 NESak CRM1en mende esportatzen direla egiaztatuta, NES horiek dituzten mikropeptido osoak CRM1en mende esportatzen direnetz ikertu da. Horretarako, YFP proteinarekin fusionatutako SPROHSA141543 (MICROP-5 hartzen du barne) eta SPROHSA010409 (MICROP-7 hartzen du barne) mikropeptidoak (ikusi 16. taula) HEK293T zein HeLa zelulatan gainadierazi dira eta zelulotan LMB tratamenduak duen eragina ikertu da (53. irudia). Tratatu gabeko zeluletan fusio-proteina bien kokapen zitoplasmatikoa gailentzen

da. CRM1 inhibitzean, YFP-SPROHSA141543ren kokapena gehienbat zitoplasmatikoa izaten jarraitzen du, YFP-SPROHSA010409ren kokapena berriz, gehienbat nuklearra da. Hori horrela, SPROHSA010409 gaineztadura nuklearrean zehar aurrera eta atzera era aktiboan mugitzen den deskribatutako lehen mikropeptidoa da.



53. irudia: SPROHSA010409 kokapena CRM1en mendekoa da. A. MICROP-5 eta MICROP-7 NESek, hurrenez hurren, SPROHSA141543 eta SPROHSA010409 mikropeptidoetan duten kokapenaren irudi eskematikoak. NES bakoitzaren sekuentzia erakusten da, eta bertan, berdez eta azpimarratuta NESetan gako diren aminoazidoak. B. SPROHSA142543 eta SPROHSA010409 mikropeptidoak YFP proteinarekin fusionatu eta HEK293T zein HeLa zelulatan gainadieraztean eta CRM1 aktiboa (-LMB) edo ez aktiboa (+LMB) denean erakusten duten kokapenaren irudi adierazgarriak.

4.1.2.2.3. $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua CRM1en mendeko NESen esportazioa ikuspuntu mekanistiko batetik aztertzeko

CRM1en mendeko NESen esportazioaren hainbat aspektu biokimika eta biologia estrukturalaren alorretatik ikertu dira (Dong et al., 2009a; Monecke et al., 2009; Güttler et al., 2010; Fung et al., 2015, 2017; Fu et al., 2018). Analisi estrukturalek NESek CRM1en poltsiko hidrofobikoari heldu ahal izateko nolako egiturak dituzten erakutsi dute. Ezagutza hori, CRM1en poltsiko hidrofobikoko aminoazidoak mutatu, eta lortutako CRM1en aldaera horiekin *pull-down* entseguak eginez asko aberastu da. Adibidez, CRM1en poltsiko hidrofobikoko A541 alanina aminoazidoa, bera baino anitzez handiagoa den lisina batez ordezkatzean (A541K), CRM1 eta NESen arteko interakzioa neurri handi batean eragozten da (Güttler et al., 2010). Antzeko egoera ematen da CRM1en poltsiko hidrofobikoan dauden eta NESekin zuzenean elkarrekiten duten aminoazido hidrofobikoak (I521, L525, F561, F572) aldi berean alaninara mutatzean (I521A/L525A/F561A/F572A, 4X mutazioa; Dong et al., 2009a). Testuinguru zelular batean ere, SRV100 esportazio-entsegua erabilita, CRM1en A541K zein 4X mutazioek surbibinaren NESaren esportazioa eragozten dutela egiaztatu da (García-Santisteban et al., 2016).

NESekin elkarrekiten duten aminoazido ikertuenak aipaturiko aminoazido hidrofobikoak dira, baina badira, hidrofobikoak ez diren eta NESen loturan garrantzia handia dutenak ere, esaterako K568. Lisina horrek, NESen loturan parte hartzeaz gain, NESen antzekoak diren motibo ez-aktiboak CRM1era lotzea ekiditen du neurri handi batean, hau da, galbahe erara aritzen da (Fung et al., 2017). Gainera, K568 aminoazidoak minbizian maiz mutaturik ageri den E571 aminoazidoarekin ere elkarrekiten du (Fung et al., 2017). E571 aminoazidoa CRM1en poltsiko hidrofobikotik oso gertu dago, eta ez da harritzekoa aminoazido horren mutazioek NES batzuen esportazioan eragina izatea (García-Santisteban et al., 2016; Taylor et al., 2019; Baumhardt et al., 2020). Bada, aminoazido horren lisinaranzko mutazioak (E571K) efektu onkogenikoa duela ere behatu izan da (Taylor et al., 2019).

CRM1 eta NESen arteko loturan aipatutako aminoazido horiek duten funtzioa asko ikertu bada ere, testuinguru zelularrean NES ezberdinak lotzeko duten eginkizuna ez dago ondo zehazturik. Hori ikertzeko, ezagunak diren hainbat NES aukeratu dira eta CRM1 basatia zein CRM1en hainbat mutante erabiliz $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguak egin dira. Horretaz gain, E571K eta K568A mutazioen efektua ere erkatu nahi izan da, bai NESen antzekoak diren motiboen esportazioan galbahe bezala aritzeko gaitasunean, zein CRM1en minbizi-esportomako NESak esportatzeko gaitasunean ere.

4.1.2.2.3.1. Poltsiko hidrofobikoko aminoazidoek CRM1en mendeko NESen esportazioan duten rolaren azterketa

CRM1en poltsiko hidrofobikoan kokatzen diren A541, I521, L525, F561, F572 eta K568 aipaturiko sei aminoazidoek (54. irudia), NES ezberdinen esportazioan duten papera aztertzeko, aminoazido horiek mutaturik dituzten YFP-CRM1en aldaerak eta SRV-NES erreportariak batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. Mutazioak ondorengoak izan dira: aminoazido hidrofobikoak alaninaz ordezkatu dira elkarrekintza hidrofobikoak apur daitezen (I521A, L525A, F561A eta F572A), alanina aminoazido txikia lisina aminoazido handiaz ordezkatu da (A541K) eragozpen esterikoa gerta dadin, eta NESekin elkarrekintza elektrostatikoak eratzen dituen karga positibodun lisina alaninaz ordezkatu da (K568A) elkarrekintza elektrostatiko horiek gertatzea eragozteko.



54. irudia: CRM1en poltsiko hidrofobikoan aztertuko diren aminoazidoen kokapena erakusten duen irudia. A541 aminoazidoa, berdez adierazita, aminoazido hidrofobikoak (I521, L525, F561, F572) urdinez eta NESekin elkarrekintza elektrostatikoa eratzen duen K568 arrosaz. Irudia NCBIko iCn3D tresna bioinformatikoa erabiliz eratu da PDBko 3GJX estruktura (Monecke et al., 2009) erabilita.

Sei mutante horien aktibitatea aztertzeko, jada ikerketa biokimiko eta estrukturaletan (Fung et al., 2017) zein esportazio-entseguetan (Fu et al., 2018) erabilitako 14 NES erabili dira: PKI, superPKI, PAX, HDAC5, FMRP, FMRP-1, SNUPN, Rev, SMAD4, mDia2, CDC7, X11L2, CBEP4 eta hRio2 (17. taula). Ikerketa horietan lortutako datuek bereziki interesgarri egiten dituzte aipatutako NESak hemen planteatutako $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegurako. Izan ere, ikerketa horietan aukeratutako NESak CRM1en poltsikora nola lotzen diren, hau da, zein motakoak diren (1, 2, 3, 4 edo 1R) eta baita CRM1ekiko duten afinitatea ere (Fung et al., 2017) argitu da.

17. taula: CRM1en poltsiko hidrofobikoko aminoazidoek NESen esportazioan duten papera ikertzeko erabili diren NESen mota, sekuentzia eta CRM1 basatiarekiko afinitatea.

NES ID	Mota	Sekuentzia	Afinitatea (Kd)
superPKI	1	GNLNELALKLAGLDINKTE	4 nM
PKI	1	GNSNELALKLAGLDINKTE	34 nM
PAX	1	TRELDELMASLSDFKIQGL	700 nM
HDAC5	1	ETEEAETVSAMALLSVGAE	1600 nM
FMRP-1	1	LNYLKEVDQLRALERLQIDE	3000 nM
SNUPN	1	MEELSQALASSFSVSQDLNS	12500 nM
Rev	2	EPVPLQLPPLERLTLDCNE	1180 nM
FMRP	2	LNYLKEVDQLRLERLQIDE	2000 nM
SMAD4	2	HYERVVSPGIDLSGLTLQS	4600 nM
mDia2	3	SKNESVPEVEALLARLRAL	1600 nM
CDC7	3	AQDLRKLCERLRGMDSSTP	2000 nM
X11L2	4	ESSLQELVQQFEALPGDLV	1500 nM
CBEP4	1R	RPRTFDMHSLESSLIDIMR	800 nM
hRio2	1R	ARSFEMTEFNQALEEIKGQ	2800 nM

Aipaturiko 14 NESak, $SRV_{B/A}$ plasmidoan klonatu dira eta SRV-NES bakoitza bere aldetik edo YFP-CRM1en poltsiko hidrofobikoko 6 mutante ezberdinekin (I521A, L525A, F561A, F572A, A571K eta K568A), eta kontrol moduan erabili diren YFP-CRM1 basati eta YFP-$CRM1^{4X}$ mutante laukoitzarekin batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. Esportazio-entsegu horiek bigarren analisi metodoarekin analizatu dira. Hau da, prestatutako 126 egoerak lagin bakoitzean 200 zelula gutxienez zitoplasmatiko (Z), nukleozitoplasmatiko (NZ) edo nuklear (N) kategorietan sailkatuz analizatu dira (55. irudia).



55. irudia: SRV-NES erreportariek bakarrik edo CRM1en aldaera ezberdinekin duten esportazio-aktibitatea erakusten duten grafikoak. SRV-NES erreportariak NES motaren arabera daude ordenaturik. Egoera bakoitzean 200 zelula gutxienez zitoplasmatiko (berdez), nukleozitoplasmatiko (zuriz eta puntu grisekin) edo nuklear (arrosaz) kategorietan sailkatu dira.

55. irudiko grafikoetan adierazitako ehunekoetatik abiatuz, egoera bakoitzaren esportazio-aktibitate maila konparatu ahal izateko SRV balio bat kalkulatu da. SRV balioak [0 x (% N) + 0,5 x (% NZ) + 1 x (% Z)] formulatik eratorri dira, beraz, 0tik 100ra doaz, non 0 balioak erreportariak kokapen erabat nuklearra erakusten duela adierazten duen, eta 100 balioak erreportariak kokapen guztiz zitoplasmatikoa erakusten duela. SRV balio horiek aipaturiko 126 egoerak erakusten dituen bero-mapa bat egiteko erabili dira (56. irudia).



56. irudia: Entseatutako SRV-NES erreportari bakoitzak bere aldetik (bakarrik zutabea), zein CRM1en aldaera ezberdinekin batera gainadieraztean erakusten duen esportazio-aktibitate maila (SRV balioak) laburbiltzen duen bero-mapa. Balio altuak (berdez) esportazio eraginkorraren seinale dira, balio baxuak (arrosaz) esportazio efizientzia baxuaren seinale. Ezkerreko zutabean entseatutako NES bakoitza zein motakoa den adierazten da.

Bero-mapa horretan argi ikusten da SRV-NES erreportari gehienak bakarrik gainadieraziz gero kokapen oso nuklearra dutela: SRV-superPKI, SRV-PKIwt eta SRV-CPEB4 erreportariek izan ezik, beste guztiek 10 baino SRV balio baxuagoa lortu dute. YFP-CRM1 basatiarekin (wt) batera gainadieraztean, erreportari guztiek, SRV-CDC7 salbu, bakarrik gainadierazi direnean baino SRV balio nabari altuagoak lortu dituzte, hau da, efizienteki esportatuak dira. Espero zen moduan, kontrol bezala erabilitako 4X mutanteak erreportarien esportazioa kasik erabat ezabatzen du. Aminoazido hidrofobikoen mutazioen banakako eragina aldiz, 4X mutazioaren efektua baino nabari ahulagoa da. Banakako mutazio horiek eragin ezberdina dute: I521A eta L525A mutazioek eragin ahulena dutenak dira, hau da, esportazioa neurri txiki batean inhibitu dute kasu gehienetan, F572A mutazioak ordea, 4X mutazioaren eragin inhibitzailera heldu gabe, inhibizio maila altua erakutsi du. Aminoazido horiek SRV-NES erreportarien esportazioan duten eragina beraz, honela adieraz daiteke; L521 = L525 < F561 < F572. Gainera, ez da NES motaren araberako efekturik antzeman mutatutako aminoazido hidrofobikoaren arabera.

Hidrofobikoak ez diren ikertutako aminoazidoei dagokienez, K568 aminoazidoa alaninaz mutatzearen (K568A) eragina, F572A mutazioaren eraginaren oso antzekoa da, nahiz eta mutazioaren ondorioz hautsitako indarrak zeharo ezberdinak izan; elkarrekintza hidrofobikoa F572A mutazioaren kasuan eta elkarrekintza elektrostatikoa K568A mutazioaren kasuan. Azkenik, argi ikus daiteke A541K mutazioak erreportari guztien, SRV-X11L2 erreportaria salbu (4. motako NESa duen bakarra), esportazioa nabari murriztu duela.

4.1.2.2.3.2. E571K eta K568A mutazioen efektuaren erkaketa

Aipatu bezala, minbiziaren pronostiko eta garapenean gako den CRM1en E571 aminoazidoa CRM1en poltsiko hidrofobikotik gertu dago (57. irudia), eta bertan dagoen K568 aminoazidoarekin elkarrekintza elektrostatikoak sortzen ditu.



57. irudia: E571 eta K568 aminoazidoek CRM1 proteinan duten kokapena erakusten duen irudia. E571 aminoazidoa gorriz adierazita, K568 arrosaz. Irudia NCBIko iCn3D tresna bioinformatikoa erabiliz eratu da PDBko 3GJX estruktura (Monecke et al., 2009) erabilita.

E571 aminoazidoaren mutazioek NES jakin batzuen esportazioa asaldatu (García-Santisteban et al., 2016) eta CRM1 onkogeniko bilakatu dezakete (Taylor et al., 2019). Bestalde, K568 aminoazidoaren mutazioek (K568A edo K568M) NESen antzekoak diren motibo ez-aktiboak CRM1era lotzea ahalbidetzen dutela ikusi da *in vitro*. Izan ere, K568 aminoazidoa galbahe modura aritzen da egitura egokia ez duten NESen antzeko motiboak CRM1era lotu ez daitezen (Fung et al., 2017). Galbahe horrek NESen esportaziorako testuinguru zelular batean duen rola ez da aztertu oraindik, ezta minbiziarekin erlazionatutako E571 aminoazidoaren mutazioek galbahe horren eragina ezereztu dezaketen ere. Hori horrela, $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua E571K eta K568A mutazioen eragina konparatzeko erabili da: batetik, COMMD1, Hxk2 eta DEAF1 NESen antzeko motibo ez-aktiboen (Fung et al., 2017) nukleotiko esportazioan mutaziook duten eragina aztertu da, eta bestetik, CRM1en minbizi-esportomako lehen mailako *plus* NESen esportazioaren gaineko eragina aztertu da. Esportazio-entsegu guzti horiek hirugarren metodoaren bidez aztertu dira, hau da, Fiji softwareaz baliatuz irudi-analisiaren

bidez erreportari bakoitza gainadierazi den zelulen nukleoan agertzen duen fluoreszentzia intentsitatea eta zitoplasman agertzen duena neurtu da eta intentsitateon arteko arrazoia kalkulatu da.

Lehenik eta behin, E571K eta K568A mutazioek, COMMD1, Hxk2 eta DEAF1 NES antzeko motibo ez-aktiboen (Fung et al., 2017) esportazioan eraginik dutenetz aztertu da. Horretarako, motibo horiek $SRV_{B/A}$ plasmidoan klonatu dira, eta bakarrik zein YFP-CRM1 basati edo E571K eta K568A mutanteekin batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. Kontrol bezala, surbibinaren NESa mutaturik duen SRV100 ($SRV100^{NESm}$) erreportaria (García-Santisteban et al., 2016) erabili da. 58. irudian beha daitekeenez, entseatutako SRV erreportarien zein $SRV100^{NESm}$ kontrolaren kokapena gehienbat nuklearra da (log_2(N/Z arrazoia)> 0) egoera guztietan. YFP-CRM1 basatiarekin (wt) batera gainadieraztean SRV-COMMD1, SRV-Hxk2 eta SRV-DEAF1 erreportariek zitoplasmaranzko aldaketa ahul baina esanguratsua jasan dute, beraz, baliteke motibo horiek esportazio-aktibitate oso baxua duten NES aktiboak izatea. YFP-$CRM1^{K568A}$ mutantearen aktibitate esportatzailea YFP-CRM1 basatiak duenarekin alderatzean, SRV-COMMD1 erreportariaren esportazioa murriztu egiten dela behatzen da, SRV-DEAF1ena, ordea, handiagotu. SRV-Hxk2rena ere handiagotu dela beha daiteke, kasu horretan ordea, aldaketa ez da esanguratsua. Emaitza horiek aurretik *in vitro* lortutako emaitzekin bat datoz, izan ere, Fung eta lankideek (2017) ere Hxk2 eta DEAF1 motiboak, COMMD1 motiboa ez bezala, CRM1en K568A mutanteari basatiari baino gehiago lotzen zaizkiola topatu zuten. YFP-$CRM1^{E571K}$ mutanteak eragindako esportazioa YFP-CRM1 basatiak eragindakoarekin alderatzean, K568A mutantearekin gertatzen zen bezala, SRV-COMMD1 erreportariaren esportazioa murriztu egin dela ikusten da, SRV-Hxk2 eta SRV-DEAF1 erreportariei dagokienez, E571K mutazioak erreportarion esportazioa zerbait emendatu badu ere ez da emendapen esanguratsua izan. YFP-CRM1en K568A eta E571K mutazioen eragina zuzenean konparatzean, ezberdintasun esanguratsu bakarra SRV-COMMD1 erreportariaren kasuan agertzen da, izan ere, E571K mutazioak K568A mutazioak baino nabarmen gehiago murrizten baitu bere esportazioa.



58. irudia: $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua YFP-CRM1en E571K eta K568A mutazioek NESen antzeko motibo ez-aktiboen esportazioan duten eragina konparatzeko. SRV-COMMD1, SRV-Hxk2 eta SRV-DEAF1 gehi kontrol bezala erabili den $SRV100^{NESm}$ erreportariak bakarrik, zein YFP-CRM1 basati (wt) edo K568A edo E571K mutanteekin batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. Irudi-analisiko zirkulu bakoitzak zelula bakar baten nukleoan antzematen den fluoreszentziaren eta zitoplasman antzematen denaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan (log_2(N/Z arrazoia)) adierazten du. Lagin bakoitzaren log_2(N/Z arrazoia)-ren batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira. Mutante ezberdinen arteko esportazio gaitasunaren aldea p balioaren (Mann-Whitney U test) bidez adierazten dira grafikoan: (*) p<0,05; (***) p<0,001; (****) p<0,0001; ee, ez-esanguratsu.

Bestetik, NESen antzeko motibo ez-aktiboekin egindakoaren pareko analisia egin da CRM1en minbizi-esportomako lehen mailako *plus* NESak (WN1-WN7) erabiliz. 59. irudian beha daitekeen moduan, SRV-NES erreportari horiekin 4.1.2.2.1. atalean egindako analisian ikusitakoa konfirmatuz, erreportari guztiek, SRV-WN3 izan ezik, YFP-CRM1 basatiarekin batera gainadieraztean, bakarrik gainadieraztean baino kokapen nabari zitoplasmatikoagoa erakutsi dute. YFP-CRM1 basatiarekin alderatuta, K568A mutanteak aztertutako erreportari guztien esportazioa murrizten du, murrizketa hori, SRV-WN1, SRV-WN2, SRV-WN5 eta SRV-WN7 erreportarien kasuan da esanguratsua. YFP-CRM1 basatia E571K minbizi mutantearekin alderatzean, K568A mutantearekin alderatzean lortutakoaren antzeko emaitza lortzen da, E571K mutazioak ere era esanguratsuan murrizten baitu SRV-WN1, SRV-WN5 eta SRV-WN7 erreportarien esportazioa. Hau da, mutante biek SRV-WN1, SRV-WN5 eta SRV-WN7 erreportarien esportazioa nabarmen murrizten dute. Alabaina, E571K mutanteak erreportari horien esportazioa murrizteko duen ahalmena K568A mutanteak duena baino ahulagoa da.



59. irudia: $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua YFP-CRM1en E571K eta K568A mutazioek CRM1en minbizi-esportomako lehen mailako *plus* NESen esportazioan duten eragina konparatzeko. CRM1en minbizi-esportomako lehen mailako *plus* NESak adierazten dituzten $SRV_{B/A}$ erreportariak bakarrik zein YFP-CRM1 basati (wt) edo K568A edo E571K mutanteekin batera gainadierazi dira HEK293T zelulatan. Irudi-analisiko zirkulu bakoitzak zelula bakar baten nukleoan antzematen den fluoreszentziaren eta zitoplasman antzematen denaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan (log_2(N/Z arrazoia) adierazten du. Lagin bakoitzaren log_2(N/Z arrazoia)-ren batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira. Mutante ezberdinen arteko esportazio gaitasunaren aldea p balioaren (Mann-Whitney U test) bidez adierazten dira grafikoan: (*) p<0,05; (**); p<0,01; (***) p<0,001; (****) p<0,0001; ee, ez-esanguratsu. Grafikoaren behealdean 49. irudian erakutsitako emaitzen zati bat ageri da, analisirako hirugarren metodoarekin eta lehen metodoarekin lortutako emaitzen erkaketa modu errazagoan egitea ahalbidetzeko.

4.1.3. CRM1 basatiaren eta E571K minbizi mutantearen esportomak erkatzeko afinitate-purifikazioan oinarritutako estrategia berri baten diseinua eta balioztatzea

CRM1en E571K mutazioak efektu onkogenikoa duela behatu da (Taylor et al., 2019). Gainera, mutazio horrek CRM1ek zenbait NES ezagutu eta esportatzeko duen gaitasuna asaldatzen duela ere ikusi da SRV100 eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguen bidez (García-Santisteban et al., 2016; Sendino et al., 2020a). Beraz, baliteke, kargo jakinen esportazioan eragiten duen asaldura horrek mutazioaren efektu onkogenikoan zerikusia izatea. Hala ere, esportazioa asaldatuta duen kargo bilduma zein den ez da oraindik ezagutzen. Tesi honetan, bilduma horretako kargoak bilatu nahian, CRM1 basatiaren eta mutantearen esportazioa erkatzeko afinitate-purifikazioan oinarritutako estrategia berri bat garatzeko saiakera egin da.

4.1.3.1. Estrategia berriaren oinarrizko arrazoia eta diseinua: CRM1/kargo/RanGTP konplexuaren egonkortzea RanGTPasa aktibitaterik ez duen Ran mutante bat erabiliz

CRM1 basatiaren eta E571K minbizi mutantearen esportomak erkatzeko estrategiaren oinarria, CRM1ek kargoen esportaziorako beharrezkoa duen konplexu-trimerikoa ezin banatzean datza. Sarreran aipatu den bezala, CRM1ek kargoak nukleotik zitoplasmara garraiatu ahal izateko CRM1/kargo/RanGTP konplexua eratu behar da nukleoan. Konplexua zitoplasmara heltzean RanGAP1 proteinak Ran proteinaren RanGTPasa aktibitatea estimulatu, eta RanGTPa RanGDPra hidrolizatuko da, eta ondorioz, CRM1ek kargoa askatuko du (60. irudia goiko panela) (Bischoff et al., 1994; Bischoff eta Görlich, 1997; Fornerod et al., 1997; Kutay et al., 1997). Hori horrela, hurbilketa honetan, konbertsio hori jasan ezin duen Ran proteinaren Q69L mutantea erabili da (Bischoff et al., 1994; Klebe et al., 1995). Horrela, Ran^{Q69L} mutantearekin eratutako konplexu-trimerikoak zitoplasmara heltzen ezin izango dira desmuntatu (60. irudia beheko panela) eta afinitate-purifikazioa erabiliz CRM1i lotutako proteinak, haren kargoak barne, isolatu ahal izango dira.



60. irudia: Esportazio konplexu-trimerikoen egonkortzean oinarritutako hurbilketa. Goialdean, CRM1ek kargoak zitoplasmara garraiatu ahal izateko ematen den egoera, ohiko egoera, ageri da. Nukleoan, CRM1ek kargoarekin eta RanGTParekin batera CRM1/kargo/RanGTP konplexuak eratzen ditu. Konplexu-trimeriko horiek zitoplasmara heltzean RanGAP1 proteinak Ran proteinaren GTPasa aktibitatea estimulatu eta RanGTPtik RanGDPrako hidrolisia ematen da. Hidrolisi horrek CRM1 eta kargoaren arteko lotura haustea, eta beraz, kargoa zitoplasman askatzea dakar. Behealdean, Ran^{Q69L} mutantea gainadieraztean emango den egoera. Ran^{Q69L} mutantea RanGAP1en estimulazioarekiko soraioa denez, konplexu-trimerikoa zitoplasmara heltzean ez da GTParen hidrolisirik emango eta CRM1ek ez ditu bere kargoak askatuko.

Konplexu-trimerikoak egonkortzea xede, Ran^{Q69L} mutanteaz baliatzen den sistema esperimental bat jarri da martxan. Sistema horretan, CRM1 (basati edo E571K mutantea) YFP proteinarekin fusionatu eta Myc-Ran^{Q69L}rekin batera gainadieraziko da zeluletan. Horrela, konplexu-trimeriko egonkorrak eratuko dira, eta YFParen kontrako afinitate-purifikazioaren bidez konplexu horiek erauzkinetatik isolatzeko aukera egongo da (61. irudia). Konplexuak erauzkinetatik isolatzeko GFP-Trap bihitxo magnetikoak erabili dira. Bihitxo horien gainazala GFPa zein horren hainbat eratorri, YFPa barne (Rothbauer et al., 2008), lotzeko gai den GBP proteinaz (*GFP binding protein*) estalita dago. Hortaz, CRM1ek fusionaturik duen YFP etiketari esker, YFP-CRM1/kargo/Myc-Ran^{Q69L}GTP konplexu-trimerikoak bihitxoetara lotuko dira eta iman batez era errazean isolatuko dira erauzkinetatik. Behin konplexu horiek isolatuta, CRM1 basatiaren zein mutantearen kargoak MS/MS bidez identifikatu ahal izango dira.



61. irudia: GFP-Trapean oinarritutako afinitate-purifikazioaren bidez CRM1en kargoak isolatzeko metodologiaren irudikapen eskematikoa. Zelulak jaso eta lisatu ostean erauzkinetara GFP-Trap®_M bihitxoak gehitzen dira. Bihitxo horiek gainazalean GBPak (*GFP binding protein*) dituzte barreiaturik GFPa edo horren eratorriak (YFPa adibidez) lotu ahal izateko. Hortaz, bihitxoak erauzkinetara gehitzean YFP-CRM1 horietara lotuko da. Bihitxoen izaera magnetikoari esker, eta iman batez baliatuz, YFP-CRM1 eta horrekin konplexua eratzen duten proteinak isolatu daitezke. Bukatzeko, isolatutako materiala MS/MS bidez aztertuko da CRM1en kargoak identifikatu ahal izateko.

CRM1 basatiaren esportoma eta minbizian maiz agertzen den E571K mutantearen esportomak erkatzeko 62. irudian adierazitako egoerak sortuko dira: zeluletan Myc-Ran^{Q69L} proteinarekin batera, YFP-CRM1 basatia, YFP-CRM1^{E571K}, eta kargoak lotzeko gai ez den eta kontrol bezala erabiliko den YFP-CRM1^{4X} mutantea (Dong et al., 2009a) gainadieraziko dira.



62. irudia: E571K mutazioak CRM1en esportoman eragindako aldaketak aztertzeko esperimentuaren diseinua. Egoera bakoitzean Myc-Ran^{Q69L} YFPari fusionatutako CRM1en aldaera ezberdin batekin batera gainadierazi da; aldaerak CRM1wt (basatia), CRM1^{E571K} minbizi mutantea, eta kargoak lotzeko gaitasun oso murriztua duen eta kontrol bezala erabiliko den CRM1^{4X} dira (Dong et al., 2009a).

4.1.3.2. Metodologiaren balioztatzea

Planteatutako estrategia baliagarria dela baieztatzeko lehen pausoa Myc-Ran^{Q69L} proteina YFP-CRM1 proteinaren aldaera ezberdinekin batera zeluletan gainadieraztean proteina biek agertzen duten kokapena aztertzea da (63. irudia). Ran^{Q69L} mutantea GTParen hidrolisirik eragiteko gai ez denez konplexu-trimerikoak ez askatzea espero da, eta beraz, Myc-Ran^{Q69L} eta YFP-CRM1ek kokapen bera agertzea. Kokapenaren azterketa HeLa zein HEK293T zelula-lerroetan egin da. 63. irudian beha daitekeenez, bai HeLa eta bai HEK293T zeluletan Myc-Ran^{Q69L} eta YFP-CRM1en aldaera ezberdinek kokapen bera agertzen badute ere, bategite hori nabariagoa da HEK293T zeluletan. Beraz, hurrengo analisietarako HEK293T zelula-lerroa hautatu da.



63. irudia: Myc-Ran^{Q69L} YFP proteinarekin fusionatutako CRM1en wt, E571K eta 4X aldaerek HeLa eta HEK293T zelula-lerroetan erakusten duten kokapenaren argazki adierazgarriak. Myc-Ran^{Q69L} proteinak eta YFP-CRM1en aldaerek kokapen bera agertu dute bi zelula-lerroetan, hala ere, kokapenean ematen den bategite hori nabariagoa da HEK293T zeluletan. Proteina bien kokapena HeLa zeluletan gehienbat nuklearra da, HEK293T zeluletan aldiz, kokapen zitoplasmatikoa gailentzen da. Argazkiak Axioskop fluoreszentzia mikroskopioarekin hartu dira.

Analisi proteomikorako bederatzi lagin prestatu dira: hiru laginetan Myc-Ran^{Q69L} eta YFP-CRM1 basatia (wt) gainadierazi dira, beste hiru laginetan Myc-Ran^{Q69L} eta YFP-CRM1^{E571K}, eta azken hiru laginetan Myc-Ran^{Q69L} eta YFP-CRM1^{4X}. Laginok UPV/EHUko SGIker Proteomika zerbitzura bidali aurretik, eta isolatzea lortu den proteina bilduma aurreikusteko, GFP-Trap

immunoprezipitazioan jasotako erauzkina SDS-PAGEz banatu eta gela zilarrez tindatu da. Gel horretan YFPri fusionaturiko CRM1en aldaera ezberdinen banda (150 kDa) oso nabaria da eta bestelako proteinen orbanak intentsitate baxuagoz ageri dira (64. irudia).



64. irudia: Konplexu-trimerikoak egonkortzean oinarritutako hurbilketa proteomikoan erabili diren proteina erauzkinen zilarrezko tindaketa. Lagin bakoitzaren hiru erreplikak SDS-PAGEz banatu dira. Ez da ez errepliken artean ez lagin batetik besterako ezberdintasun nabaririk ageri. Lagin guztietan YFP-CRM1en aldaera ezberdinei dagokion banda oso nabari bat, eta intentsitate baxuagoko hainbat banda ageri dira.

Laginak proteomika zerbitzuan aztertzean egondako arazo teknikoak direla eta, ezin izan ziren lagin guztiak aztertu. Egoera bakoitzeko lagin bateko emaitzak jasotzea lortu zen, hala ere, laginen artean esperotako alderik ez zen behatu, hiruretan identifikatutako proteina gehientsuenak berdinak dira eta. Horrek planteatutako estrategiak ez duela uste bezala funtzionatzen iradokitzen du.

Sistemak ondo funtzionatu ez duela ikusita, akatsa non egon daitekeen ikertu da. Horretarako, lehenik eta behin, Myc-Ran^{Q69L}, YFP bektore hutsarekin, YFP-CRM1 basatiarekin eta YFP-CRM1^{4X} mutantearekin HEK293T zelulatan transfektatu da (65. irudia). Espero bezala, Myc-Ran^{Q69L} YFP-CRM1 basatiarekin zein mutantearekin batera gainadieraztean, proteina biek kokapen bera agertu dute. YFP proteinarekin ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Horrek, Myc-Ran^{Q69L} proteinaren eta YFP-CRM1en aldaera ezberdinen artean elkarrekintza gertatu gertatzen dela iradokitzen du.



65. irudia: YFP, YFP-CRM1 basatia (wt) eta YFP-CRM1^{4X} Myc-Ran^{Q69L}rekin batera HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duten kokapenaren argazki adierazgarriak. YFP-CRM1en aldaera biek eta Myc-Ran^{Q69L} proteinak kokapen bera agertzen dute, YFP eta Myc-Ran^{Q69L} proteinek, ordea, ez.

Behin gainadierazitako proteinek kokapen egokia agertzen dutela baieztatuta, GFP-Trap immunoprezipitazioa egin da. Kasu honetan, immunoprezipitazioan egiten den bihitxoen garbiketa gatz kontzentrazio ezberdina duten hiru indargetzaile ezberdinekin egin da. 66. irudian egoera eta garbiketa indargetzaile bakoitzarekin (A, B eta C) jasotako erauzkinak aztertzeko eginiko zilarrezko tindaketa, eta YFParen zein Myc epitopoaren aurkako Western plapaketak ageri dira. Egoera guztietan oso proteina gutxi detektatu dira zilarrezko tindaketaren bidez, nahiz eta teknika oso sentikorra izan. Gainera, Myc epitopoaren aurka egindako Western plapaketan ez da Myc-Ran^{Q60L} proteinari legokion banda ageri. Hortaz, Myc-Ran^{Q69L} eta YFP-CRM1 proteinek kokapen bera hartzen dutela immunofluoreszentziaz ikusi bada ere, Ran proteinaren Q69L mutanteak konplexu-trimerikoak afinitate-purifikazioz isolatzeko bezain beste egonkortzen ez dituela erakutsi dute zilarrezko tindaketak zein Western plapaketek. Emaitzok, konplexu-trimerikoa egonkortzean oinarritutako hurbilketa esperimentala baztertzea ekarri dute.



66. irudia: Zilarrezko tindaketa eta GFP eta Myc epitopoen aurkako Western plapaketak. Gainadierazitako proteinen masa molekularra: YFP: 26 kDa; YFP-CRM1: 150 kDa; Myc-Ran^{Q69L}: 25 kDa. Ezkerreko panelean GFP-Trap immunoprezipitazioan jasotako laginen zilarrezko tindaketa ageri da, bertan proteina kopuru baxua ageri da eta ez da bihitxoen garbiketetan erabilitako gatz-kontzentrazioaren mendeko alderik antzematen. Erdiko panelean YFParen aurkako Western plapaketa ageri da (GFParen aurkako antigorputza YFP proteina ere detektatzeko gai da). YFP-CRM1wt gainadierazi den laginen erauzkinetan ez da konplexu-trimerikoei legokiekeen banda multzo erako seinalerik antzeman. Eskumako panelean Myc epitopoaren aurkako Western plapaketa ageri da. Ez da Myc-Ran^{Q69L} proteinari legokiokeen bandarik antzeman. (Asterisko horiak YFParen aurkako plapaketaren ondoriozko kutsatzea adierazten du, izan ere, plapaketa horretarako TTBStan garbitatutako YFParen aurkako plapaketa egiteko erabilitako mintz bera erabili da.)

4.1.4. Giza koronabirusen nukleokapsida proteinetan proposaturiko NES motiboen azterketa

Atal honetan aurkeztutako emaitzak Sendino et al., 2020c-n argitaratu dira aurreargitalpen bezala.

2020ko martxoan COVID-19ari aurre egiteko gertatutako itxialdiaren ondorioz, tesi proiektu hau hainbat astez eten behar izan zen. Laborategian lanean berriz hasteko unea iritsi zenean, COVID-19 gaixotasuna eragiten duen SARS-CoV-2 koronabirusaren ezagutzan sakontzeko nork bere harri-koskorra ekarri nahi izan zuen, eta mundu osoko zientzialari askok koronabirusen ezaugarriak ikertzeari ekin genion. Kapitulu honetan, gizakiak infektatzeko gai diren koronabirus ezberdinen nukleokapsida (N) proteinan NESak karakterizatzeko tesi honetan egin diren ikerketak azaltzen dira. Izan ere, N proteinetan aurreikusitako garraio seinaleek koronabirusen patogenotasunarekin zerikusia badutela proposatu da (Gussow et al., 2020).

Gizakiak infektatzen dituzten koronabirusak zazpi dira, SARS-CoV, MERS-CoV, SARS-CoV-2, HCoV-NL63, HCoV-229E, HCoV-HKU1 eta HCoV-OC43, eta horietatik gaixotasun larria eragiteko gai, SARS-CoV, MERS-CoV eta SARS-CoV-2 baino ez. Patogenotasunean duten ezberdintasun horren eragile molekularrak ezagutzea garrantzitsua da gaixotasun larriei aurre egin ahal izateko. Ildo horretan, Gussow eta lankideek (2020) ikasketa automatikoko (*machine learning)* teknikak eta genomika konparatiboa erabiliz, patogenotasun altuko anduien eta patogenotasun baxuko anduien hainbat ezaugarri genomiko identifikatu dituzte.

In silico egindako analisi horretan, patogenotasun altuak lau proteinatan banatutako hamaika zonalde genomikorekin zerikusia duela proposatu da (Gussow et al., 2020). Lau proteina horietako bat, nukleokapsida (N) izenekoa, kodetzen duen genean patogenotasunarekin erlazionatu diren eta garraio nukleozitoplasmatikorako hainbat seinaletan (hiru NLS eta NES batean) aldaketak eragiten dituzten hainbat insertsio, delezio eta mutazio aurkitu dira. Patogenotasun altuko anduietan seinale horiek karga positibodun aminoazido gehiago dituzte, eta horrek seinale horien aktibitatea emendatzen duela proposatu da (Gussow et al., 2020). Karga positiboaren eta NLSen aktibitate inportatzailearen arteko erlazioa frogatu bada ere (Cokol et al., 2000), NESen kasuan ez da horrelakorik behatu. Are gehiago, NES adostasun-sekuentzia hain da malgua (Kosugi et al., 2008; Monecke et al., 2009; Güttler et al., 2010), non zail izaten den NESen aktibitatea aminoazido sekuentzian soilik oinarrituta iragartzea (Prieto et al., 2014).

Koronabirus anduien artean gertatzen den patogenotasun ezberdintasuna N proteinetan aurreikusitako NESen mendekoa denetz argitzeko, lehenik eta behin, NES motibo horiek CRM1en mende esportatzen direnetz aztertu beharko litzakete. Bigarrenik, NES horiek

aktiboak izatekotan, euren aktibitatea anduiaren patogenotasunarekin erlazioan dagoen aztertu beharko litzateke. Hirugarrenik, N proteina osoen kokapena NES horien mendekoa den aztertu beharko litzateke. Eta bukatzeko, koronabirus andui ezberdinen patogenotasuna N proteina osoen kokapen nukleozitoplasmatikoarekin korrelazioan dagoen aztertu beharko litzateke. Tesi honetan, lehen bi puntuak argitzeko, SARS-CoV-2, MERS-CoV, HCoV-NL63, HCoV-229E, HCoV-HKU1 eta HCoV-OC43 koronabirusen N proteinetan aurreikusitako NES motiboen aktibitatea esperimentalki ikertu da. Eta hirugarren puntua argitze aldera, YFP proteinarekin fusionatutako SARS-CoV-2 eta HCoV-NL63 birusen N proteina osoen kokapen nukleozitoplasmatikoa aztertu da.

4.1.4.1. Giza koronabirusen patogenotasuna ez dago N proteinen NES motiboen esportazio-aktibitatearekin korrelazioan

Gussow eta lankideek (2020) proposaturiko cNESen aktibitatea ikertzeko Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua (Henderson eta Eleftheriou, 2000) erabili da. Entsegu horretarako 18. taulan adierazten diren sekuentziak, SARS-CoV sekuentzia izan ezik, pRev(1.4)-GFP bektorean klonatu dira. SARS-CoV sekuentzia ez da aztertu SARS-CoV-2 sekuentziarekin duen antzekotasun altuarengatik.

18. taula: Giza koronabirusen N proteinetan aurreikusitako cNESen kokapen eta aminoazido sekuentzia. pRev(1.4)-GFP bektorean klonatutako sekuentzia osoa erakusten da, azpimarraturik dauden sekuentzien zatiak Gussow eta lankideek (2020) proposaturiko cNESak dira. e.e.: ez-entseatua.

Birusa	Iragarritako cNES motiboa
SARS-CoV-2	^{224}ALALLLLDRLNQLESKMSG^{230}
SARS-CoV (e.e.)	^{225}ALALLLLDRLNQLESKVSG^{231}
MERS-CoV	^{216}GGDLLYLDLLNRLQALESG^{222}
HCoV-HKU1	^{237}MADEIANLVLAKLGKDSKP^{243}
HCoV-OC43	^{238}MADQIASLVLAKLGKDATK^{244}
HCoV-NL63	^{187}SSSDLVAAVTLALKNLGFD^{193}
HCoV-229E	^{184}SQDDIMKAVAAALKSLGFD^{190}

67. irudian ikus daitekeenez, iragarritako cNES guztiak aktiboak dira. Aktibitate mailari dagokionez, ezberdintasun nabariak aurkitu dira. Esaterako, HCoV-HKU koronabirusaren N proteinaren NESak 1eko aktibitate maila du, HCoV-NL63renak, aldiz, 8koa.



67. irudia: Giza koronabirusetan iragarritako cNESekin egindako Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua. Argazki paneletan giza koronabirusetan iragarritako cNESak txertaturik dituzten Rev(1.4)-GFP erreportariek HeLa zelulatan gainadierazita, eta ActDrekin tratatuta (+ActD) eta tratatu gabe (-ActD) erakusten duten kokapenaren irudi adierazgarriak ageri dira. Grafikoan proteina horiek erakusten duten kokapenaren kuantifikazioa eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan lortutako puntuazioa.

67. irudiari erreparatuta agerikoa da, koronabirus ezberdinen N proteinan aurreikusitako NESen aktibitatea jatorrizko birusaren patogenotasunarekin korrelazioan ez dagoela. Izan ere, gaixotasun arinak eragiten dituzten HCoV-HKU1, HCoV-OC43, HCoV-229E eta HCoV-NL63 koronabirusen NESek, 1, 2, 4 eta 8ko esportazio-aktibitate maila erakutsi dute, hurrenez hurren, esportazio-entseguan eta gaixotasun larriak eragiten dituzten SARS-CoV-2 eta MERS-CoV koronabirusenek, ordea, 2 eta 3koa.

4.1.4.2. CRM1en inhibizioak ez du SARS-CoV-2 ezta HCoV-NL63 koronabirusen nukleokapsida proteinen kokapen nukleozitoplasmatikoa aldatzen

Koronabirusetan aurreikusitako NESek esportazio-aktibitate maila oso ezberdinak dituztela ikusita, ezberdintasun horiek N proteina osoaren kokapenean eraginik dutenetz aztertu da. Horretarako, SARS-CoV-2 (2ko esportazio-aktibitate mailako NESa duena) eta HCoV-NL63 (8ko esportazio-aktibitate mailako NESa duena) koronabirusen N proteina osoak YFP proteinarekin fusionatu eta HEK293T zelulatan gainadierazi dira.

68. irudian antzeman daitekeenez, SARS-CoV-2 eta HCoV-NL63 koronabirusen N proteinek kokapen zitoplasmatikoa erakusten dute, bai CRM1 aktibo zein inhibiturik egon. Hau da, iragarritako NESen esportazio-aktibitate ezberdintasuna ez da proteina osoaren kokapenean islatzen. Beraz, badirudi CRM1ek ez duela eragin handirik SARS-CoV-2 eta HCoV-NL63 koronabirusen N proteinen kokapenean.



68. irudia: CRM1en mendeko esportazioak ez du paper erabakigarririk HCoV-NL63 eta SARS-CoV-2 koronabirusen N proteinen kokapen nukleozitoplasmatikoan. HCoV-NL63 eta SARS-CoV-2 koronabirusen nukleokapsida proteinek YFP proteinarekin fusionaturik HEK293T zelulatan gainadieraztean agertzen duten kokapenaren argazki adierazgarriak. Bai HCoV-NL63 bai SARS-CoV-2 birusaren N proteinek kokapen zitoplasmatikoa erakusten dute CRM1 aktibo (-LMB) zein inhibiturik (+LMB) egon.

4.2. CRM1 itu terapeutiko bezala erabiltzearen inguruko ikerketak

CRM1 minbiziaren garapen eta pronostikoarekin estuki erlazionaturik dago, eta bada, proteina hori inhibitzen duten farmakoak minbizia tratatzeko ere erabiltzen hasi dira. Gaur egunera arte, selinexor klinikan onartutako CRM1en inhibitzaile bakarra da. Farmako hori, bakarka edo beste farmakoekin konbinazioan, mieloma anizkoitza (MM, *multiple myeloma*) zein B-zelula handien linfoma hedatsua (DLBCL, *diffuse large B cell lymphoma*) pairatzen duten gaixo batzuen tratamenduan erabiltzeko onartua izan da (Food and Drug Administration, 2019, 2020a, 2020b, European Medicines Agency, 2021). Gainera, beste minbizi mota batzuetarako ere, fase kliniko aurreratuetan dago selinexor, etorkizun hurbil batean egun duen erabilera nabari hedatuko dela iradokiz. Klinikan etorkizun itxaropentsua ikusten bazaio ere, CRM1en inhibizioak zelula mailan duen eragin zehatza ez da oraindik ezagutzen. Inhibizioak CRM1en kargoen banaketa azpizelularra asaldatuko duela aurreikusten da. Kargo batzuen kasuan, asaldura hori jada baieztaturik dago (Brunetti et al., 2018), beste kasu askotan aldiz, asaldura hori nolakoa eta zenbatekoa den zehazteke dago.

Selinexor farmakoaren erabilera klinikoaren inguruko ezagutza zabaltze aldera, atal honetan bi ikerketa planteatzen dira. Batetik, minbizi ezberdinetan erabilgarriak izan daitezkeen selinexorren eta beste farmako batzuen konbinazio berriak aztertu dira. Bestetik, CRM1en inhibizioak zelula mailan duen eragina ikertzeko baliagarria den konpartimentu-espezifikoko proteinen markaketa eta proteomika uztartzen dituen sistema berri bat jarri da martxan. Hurbilketa berri horrek, selinexorrek eragindako kargoen banaketaren asaldurak aztertzeko aukera emango du.

4.2.1. Selection and *in vitro* evaluation of potential anticancer treatments combining selinexor with a second targeted drug

As described in the Introduction, the SINE compound selinexor has been recently approved for the treatment of specific subsets of cancer patients. Selinexor has been extensively tested *in vitro* in combination with other chemotherapy drugs, with encouraging results. For example, the combination of selinexor with daunorubicin or idarubicin, two inhibitors of topoisomerase II (TOP2A), shows synergistic effects on AML cells (Ranganathan et al., 2016). Importantly, *in vitro* studies suggest that selinexor, alone or in combination with other drugs, could also be useful in patients with solid tumours, and is currently undergoing clinical testing in this setting (www.clinicaltrials.gov).

Given that selinexor appears to be particularly effective when administered together with other therapeutic agents, potential new combinations of selinexor with other targeted drugs were explored in this thesis. In order to select drug candidates for testing, it was reasoned that co-(over)expression of CRM1 with the protein targeted by these agents could make tumour cells particularly susceptible to a combination therapy simultaneously inhibiting both targets. Thus, an *in silico* analysis was first carried out to evaluate how the mRNA expression of *XPO1* (the gene encoding CRM1) correlates with the expression of other relevant cancer genes in different tumour types. Afterwards, the combination of selinexor with drugs directed against two of these targets was tested *in vitro* using an experimental model of acute myeloid leukaemia (AML) cells co-cultured with cytoprotective bone marrow (BM) stromal cells (Ramasamy et al., 2012).

4.2.1.1. Correlation of *XPO1* gene expression with the expression of other cancer-target genes in different tumour types

The first step was to analyse the correlation of *XPO1* gene expression with the expression of a set of 135 cancer-related genes included in the CGA TARGET (tumour alterations relevant for genomics-driven therapy) database of the Broad Institute (v3). This database, available at (https://software.broadinstitute.org/cancer/cga/target, contains genes (hereafter referred to as TARGET genes) whose alteration in cancer is directly linked to a clinical action (i.e. genes with diagnostic, prognostic or predictive utility), and includes genes that encode the molecular targets of well-established and novel therapeutic agents. Correlation analyses were carried out using publicly available datasets from several cancer types, summarised in Table 19.

Table 19: Summary of studies used for the correlation analysis classified according to cancer type. Table shows each study reference, cohort size and ID number at GEO (ncbi.nlm.nih.gov/geo/) or dbGap (ncbi.nlm.nih.gov/gap/). Data for studies without this ID numbers are available at; TCGA: cancer.gov/about-nci/organisation/ccg/research/structural-genomics/tcga, Chitale et al.: cbio.mskcc.org/public/lung_array_data/, Colonomics: colonomics.org/ and Liu et al.: gdc-portal.nci.nih.gov/legacy-archive/. Data from the Glinsky et al. study were provided by MSKCC.

Cancer type	Study/Reference	Cohort size	ID
Breast cancer	Lu et al., 2008	131	GEO: GSE5460
	Ivshina et al., 2016	249	GEO: GSE4922
	TCGA	522	
	Pawitan et al., 2005	159	GEO: GSE1456
	Wang et al., 2005	286	GEO: GSE2034
Lung cancer	Chitale et al., 2009	128	
	Sheeden et al., 2008	442	GEO: GSE68465
	TCGA	514	
	Wilkerson et al., 2012	116	GEO: GSE26939
Prostate cancer	Glinsky et al., 2004	79	
	Grasso et al., 2012	88	GEO: GSE35988
	Lapointe et al., 2004	26	GEO: GSE3933
	Taylor et al., 2010	179	GEO: GSE21034
	TCGA	496	
	Varambally et al., 2005	19	GEO: GSE3325
Colorectal cancer	Colonomics	246	GEO: GSE44076
	Jorissen et al., 2009	290	GEO: GSE14333
	Kemper et al., 2012	90	GEO: GSE33113
	Laibe et al., 2012	130	GEO: GSE37892
	Marisa et al., 2013	585	GEO: GSE39582
	Roepman et al., 2014	188	GEO: GSE42284
	TCGA	374	
Acute myeloid leukaemia (AML)	Tyner et al., 2018	672	dbGaP: 30641
	Liu et al., 2018	200	

In the case of breast, lung, prostate, and colorectal cancer, correlation analysis was performed using CANCERTOOL (Cortazar et al., 2018), while the cBioPortal analysis suite (Cerami et al., 2012; Gao et al., 2013) was used to analyse AML data. An example of the results obtained using CANCERTOOL in the seven colorectal cancer datasets is shown in Figure 69. As illustrated in the figure, the expression of some TARGET genes was consistently correlated with the expression of *XPO1* across the different datasets, in either a positive (e.g. *EZH2*) or negative (e.g. *RARA*) manner.



Figure 69: Example of the results of correlation analysis using CANCERTOOL. A. The heatmap shows how *XPO1* expression correlates with the expression of TARGET genes *EZH2* and *RARA* in seven datasets of colorectal cancer patients. Blue colour indicates inverse correlation, and red colour indicates direct correlation, with colour intensity representing the Pearson's correlation value (R), as indicated by the scale on the upper left corner. The R and p values are indicated inside each heatmap cell. B. The scatter plots show detailed correlation results between *XPO1* and *EZH2* or *RARA* genes across the seven colorectal cancer datasets. In every dataset analysed, the expression of *XPO1* was directly correlated with the expression of *EZH2*, and negatively correlated with the expression of *RARA*. Each dot in the graphs represents a tumour sample.

The pair wise correlation between the expression of *XPO1* and the expression of each of the 135 TARGET genes was determined in all datasets. Using only those statistically significant ($p \leq 0.05$) correlations with $R > 0.2$ or $R < -0.2$, the average correlation value of each *XPO1*-TARGET gene pair in every cancer type was calculated (Supplementary Tables 6-10). Finally, the average correlation (mean R value) across the five tumour types was calculated (Supplementary Table 11). As shown in Figure 70, the expression of 8 TARGET genes (*MSH2*, *ATR*, *MSH6*, *BRCA1*, *EZH2*, *BRCA2*, *AURKA* and *NPM1*) was positively correlated with *XPO1* expression with R > 0.2. These eight genes were therefore considered in order to select drugs that may be potentially combined with selinexor.



Figure 70: Graph showing the correlation between the expression of *XPO1* and TARGET genes mRNA. Only those correlations with a mean R value > 0.2 are shown.

4.2.1.2. Selection of potential targets and drugs for selinexor-based combination therapies

Table 20 shows the cytogenetic location of *XPO1* and the selected eight TARGET genes.

Table 20: Cytogenetic location of *XPO1* and eight TARGET genes whose mRNA expression is positively correlated (R > 0.2) with *XPO1* mRNA expression in human tumors.

Gene symbol	Gene name	Cytogenetic location
XPO1	Exportin 1	2p15
MSH2	MutS homolog 2	2p21-16.3
MSH6	MutS homolog 6	2p16.3
BRCA1	BRCA1 DNA repair associated	17q21.31
BRCA2	BRCA2 DNA repair associated	13q13.1
NPM1	Nucleophosmin 1	5q35.1
ATR	ATR serine/threonine kinase	3q23
AURKA	Aurora kinase A	20q13.2
EZH2	Enhancer of zeste homolog 2	7q36.1

A survey of the literature on the proteins encoded by these eight genes was carried out. Interestingly, seven of them (MSH2, MSH6, ATR, BRCA1, BRCA2, AURKA and NPM1) have roles in the DNA damage response (DDR), and some of them may be functionally related.

MSH2 and ***MSH6*** are tumour suppressor genes that code for the DNA mismatch repair (MMR) proteins MSH2 and MSH6. Loss-of-function mutations in *MSH2* and *MSH6* contribute to the development of various cancer types. In fact, germ line mutations affecting these genes cause hereditary nonpolyposis colorectal cancer (HNPCC) syndrome, also known as Lynch syndrome. HNPCC syndrome confers a nearly 80 % lifetime risk of developing cancer, especially colorectal and endometrial cancer (Gupta et al., 2019; Cerretelli et al., 2020). The MSH2 and MSH6 proteins show similar tissue-specific expression, and they usually heterodimerise to form the MutSα DNA MMR complex (Acharya et al., 1996). This complex is responsible for recognising single nucleotide mismatches, as well as insertion or deletion of one or two nucleotides (Stojic et al., 2004; Jiricny, 2006; Li, 2008). Importantly, *XPO1*, *MSH2* and *MSH6* are located in the same chromosome arm (2p), and relatively close one to each other (see Table 20). This physical proximity may, at least in part, explain why the expression of these genes is positively correlated in human tumours: their expression level may be commonly affected by the same structural chromosomal aberrations.

Germ line mutations in the tumour suppressor genes ***BRCA1*** and ***BRCA2*** cause a clinical condition known as hereditary breast and ovarian cancer syndrome (HBOC), which leads to the development of breast and ovarian cancer, and to a lesser extent of prostatic, pancreatic and colorectal cancer (Morris and Chan, 2015; McAlarnen et al., 2021; Yoshida, 2021). The best-characterised function of BRCA1 protein is in double strand break repair by homologous recombination, a process in which BRCA2 is also involved (Ciccia and Elledge, 2010; Roy et al., 2011; O'Kane et al., 2017; Wright et al., 2018). However, BRCA1 participates in several other DNA repair pathways, including MMR (Wang et al., 2001).

Nucleophosmin (NPM1), the protein encoded by the ***NPM1*** gene, is a multifunctional protein, mainly located in nucleoli, that plays a crucial role in ribosome biogenesis. It is also involved in centrosome duplication, DNA replication, recombination and repair, and may regulate the localisation and stability of several tumour suppressor proteins, including p53 (Lindström, 2011; Federici and Falini, 2013; López et al., 2020). NPM1 is frequently deregulated in cancer, and mutations in *NPM1* gene characterise a subset of AML patients (Falini et al., 2007).

The protein encoded by the ***ATR*** gene, is a serine/threonine kinase that becomes activated in response to single-strand DNA damage or replication stress (Zou et al., 2003). When activated, ATR protein phosphorylates and activates several downstream effectors in DNA repair, including BRCA1 (Tibbetts et al., 2000). The main ATR effector is the kinase CHK1 (Checkpoint kinase 1) (Yarden et al., 2002). CHK1 activation leads to repression of the phosphatase CDC25C, and ultimately provokes a G2/M cell cycle arrest (Karnitz and Zou, 2015; Liu et al.,

2020; Gorecki et al., 2021). Besides CDC25C, several other downstream targets can be regulated by CHK1, including Aurora kinase A (AURKA) (Krystyniak et al., 2006), the product of the *AURKA* gene.

AURKA plays an important role in the DDR process known as checkpoint recovery. DNA damage usually leads to cell cycle arrest due to activation of different checkpoints. If the damage is successfully repaired, the process of checkpoint recovery allows the cell cycle to resume. In the case of the G2/M checkpoint, this process depends crucially on the activation of PLK1 (Polo like kinase 1) (Gorecki et al., 2021), which is stimulated by AURKA (Macůrek et al., 2008). In addition to playing an essential role in the G2/M checkpoint, AURKA also functions in centrosome maturation and integrity, and bipolar spindle assembly (Magnaghi-Jaulin et al., 2019). *AURKA* is overexpressed in several tumour types, and its aberrant expression has been linked to drug resistance (Yan et al., 2016). Although overexpression of *AURKA* is linked to an adverse prognosis, and there are indeed studies indicating that it may have oncogenic effect (Wang et al., 2006), it has also been reported to function as a tumour suppressor protein (Damodaran et al., 2017).

Finally, ***EZH2*** encodes the protein enhancer of zeste homolog 2 (EZH2), a histone methyltransferase that plays an important role in global transcriptional regulation (Cao et al., 2002; Kuzmichev et al., 2002). EZH2 is the catalytic subunit of the polycomb repressive complex 2 (PRC2), which is able to silence gene expression by catalysing the trimethylation of histone H3 lysine 27, a repressive chromatin mark. Overexpression of *EZH2* or overactivation of EZH2, leading to increased transcriptional repression of tumour suppressor genes, is commonly found in solid tumours (Varambally et al., 2002; Kleer et al., 2003; Raaphorst et al., 2003; Sudo et al., 2005). In haematological cancers, however, both overexpression and loss-of-function mutation of *EZH2* have been found (Morin et al., 2010; Guglielmelli et al., 2011; Herrera-Merchan et al., 2012), suggesting that EZH2 could be functioning as either an oncoprotein or a tumour suppressor protein in a context-dependent manner (Kim and Roberts, 2016; Gan et al., 2018; Safaei et al., 2018; Eich et al., 2020).

Although the expression of these eight genes was found to correlate positively with the expression of *XPO1* in human tumours, it must be noted that not all of them encode suitable potential targets for selinexor-based combination therapies. Thus, *MSH2*, *MSH6*, *BRCA1* and *BRCA2* encode tumour suppressor proteins whose inhibition is not regarded as a valid therapeutic approach in cancer. On the other hand, while the protein products of *NPM1*, *ATR*, *EZH2* and *AURKA*, are considered druggable targets in cancer therapy, no reliable inhibitors of NPM1 are yet commercially available.

At the time when the drug selection was made in this thesis (in 2018), evidence was mounting on the importance of AURKA and EZH2 as targets for cancer therapy (Damodaran et al., 2017; Lee et al., 2017; Mohammad et al., 2017; Cheng and Xu, 2018; Dawei et al., 2018; Dimopoulos et al., 2018; Felgenhauer et al., 2018; Fioravanti et al., 2018; Herviou et al., 2018; Hou et al., 2018; Huang et al., 2018; Italiano et al., 2018; Kogiso et al., 2018; Li et al., 2018; Mochizuki et al., 2018; Payton et al., 2018; Serresi et al., 2018; Shaikh et al., 2018; Tremblay-LeMay et al., 2018; Tsai et al., 2018; Wen et al., 2018; Wu et al., 2018; Yang et al., 2018; Zheng et al., 2018), and specific inhibitors, such as alisertib (targeting AURKA) and tazemetostat (targeting EZH2) were commercially available.

Alisertib (MLN8237), the most clinically advanced AURKA inhibitor, is being tested in clinical trials, but is not yet approved for cancer treatment. Although alisertib did not perform well in the first phase 3 clinical trial in relapsed/refractory peripheral T-cell lymphoma patients (O'Connor et al., 2019; NCT01482962), it has obtained favourable results in several phase 1 and phase 2 trials in a number of cancers (Du et al., 2021).

Tazemetostat (Tazverik®, EPZ-6438, E-7438) has been the most successful EZH2 inhibitor in clinical trials, and it has recently received FDA approval for specific subsets of sarcoma and lymphoma patients (Food and Drug Administration, 2020c, 2020d).

Therefore, alisertib and tazemetostat were finally selected to be tested in combination with selinexor.

4.2.1.3. Description of the *in vitro* experimental setting: a cancer/stromal cell co-culture model

The effect of combining selinexor with alisertib or tazemetostat was experimentally tested in AML cells. These experiments were carried out between May and July 2019, during a 3 month research stage at the Department of Life Sciences of the University of Roehampton (London) under the supervision of Dr. Yolanda Calle. The group of Dr. Calle has previously developed, and extensively used, cancer/stromal cell co-culture models (Ramasamy et al., 2012) that allow evaluating the effect of drug treatments in a setting more closely resembling tumour conditions than cancer cell line monocultures.

Specifically, the analyses were carried out on MV4-11 AML cells seeded in co-culture with HS5 BM stromal cells (Figure 71). The two cell types stably express different fluorescent proteins: eGFP (green) in the case of MV4-11 cells, and mCherry (red) in the case of HS5 cells. This differential labelling allows independent, but concomitant, assessment of the effect of the

different drug treatments in both cancer and stromal cells. Importantly, by comparing the effect of treatments in co-cultured AML/stromal cells with their effect on AML cells growing alone, this experimental system allows to gauge how the presence of stromal cells influences drug response in cancer cells (Ramasamy et al., 2012).



Figure 71: Scheme of the experimental AML setting. MV4-11 AML cells, expressing eGFP (green), grow in suspension in contact with BM HS5 cells expressing mCherry (red).

4.2.1.4. *In vitro* effect of selinexor/alisertib and selinexor/tazemetostat combination treatments on co-cultured AML/stromal cells

To evaluate the effect of the different drug combinations, cell proliferation and apoptosis were analysed in MV4-11 AML cells, either cultured alone or co-cultured with HS5 BM stromal cells. Additionally, the proliferation of the stromal cells in the co-culture setting was also assessed. Cell proliferation was determined by comparing the intensity of eGFP and mCherry fluorescent tags at time 0 and 72 h, while apoptosis of eGFP-MV4-11 cells was determined using flow cytometry.

The first step was to establish the range of drug concentrations to be used in these *in vitro* assays. As a general reference, the maximum concentration values (C_{max}) for each drug previously reported in the plasma of treated patients were initially considered: 1000 ng/ml (2.5 µM) for selinexor (Abdul Razak et al., 2016; Garzon et al., 2017), 4000 ng/ml (9 µM) for alisertib (Cervantes et al., 2012; Dees et al., 2012), and 3200 ng/ml (5 µM) for tazemetostat (Italiano et al., 2018). However, a series of preliminary experiments (not shown) revealed that in this *in vitro* experimental setting, the plasma C_{max} concentration of selinexor and alisertib caused extensive cell death as single agents and could, therefore, not be used for the combination studies. From these preliminary experiments, the following ranges of drug concentration were selected: 25 nM to 200 nM for selinexor, 1 µM to 4.5 µM for alisertib and 250 nM to 5 µM for tazemetostat. In all cases, the duration of the treatment was 72h.

4.2.1.4.1. Effect of selinexor, alisertib and tazemetostat as single agents

As single agents, selinexor and alisertib showed a dose-dependent antiproliferative effect on MV4-11 AML cells (Figure 72A). This decrease in AML cell proliferation, especially when treated with selinexor, was less pronounced when co-cultured with HS5 cells than when cultured alone, suggesting a partial protective effect of the stromal cells. Of note, an

antiproliferative effect of selinexor and alisertib on HS5 cells was also observed (Figure 72B), albeit less pronounced than the effect on AML cells. In contrast to selinexor and alisertib, tazemetostat did not decrease proliferation capacity in either condition or cell type (Figures 72A and 72B).



Figure 72: Antiproliferative effect of selinexor, alisertib and tazemetostat as single agents. Antiproliferative effect is shown in terms of cell proliferation inhibition of MV4-11 cells cultured alone or in co-culture with HS5 (panel A), and HS5 in co-culture with MV4-11 (panel B). Cells were treated with selinexor (SEL), alisertib (ALS) or tazemetostat (TAZ) for 72 h. Graphs shows the mean value and the standard deviation of eight experiments for selinexor and four experiments for both alisertib and tazemetostat. Three replicates of each condition were seeded per experiment. * represents $p < 0.05$ in ANOVA test for MV4-11 cells alone versus MV4-11 cells co-cultured with HS5 with the same treatment.

The pro-apoptotic effect of selinexor, alisertib and tazemetostat as single agents on AML cells was also evaluated (Figure 73). Selinexor showed a dose-dependent pro-apoptotic effect in AML cells grown alone or in co-culture. This increase in apoptosis was less pronounced in the co-culture setting, especially at the highest concentrations tested. In the case of alisertib, no

dose-dependent effect was observed neither in AML cells cultured alone nor in co-culture with BM stromal cells, suggesting that its maximum pro-apoptotic effect was reached at even the lowest dose used in these experiments. However, it cannot be ruled out that alisertib might have a dose-dependent pro-apoptotic effect when applied at lower concentrations. Of note, BM stromal cells do have a clear cytoprotective effect on AML cells when treated with alisertib in this cellular context. Finally, tazemetostat did not show any pro-apoptotic effect at the concentrations used.



Figure 73: Pro-apoptotic effect of selinexor, alisertib and tazemetostat as single agents. Pro-apoptotic effect is shown in terms of affected fraction of MV4-11 alone or in co-culture with HS5 treated with selinexor (SEL), alisertib (ALS) or tazemetostat (TAZ) for 72 hours. Graph shows the mean value and the standard deviation of eight experiments for selinexor and four experiments both for alisertib and tazemetostat. Three replicates of each condition were seeded per experiment. * represents $p < 0.05$ in ANOVA test for MV4-11 cells alone versus MV4-11 cells co-cultured with HS5 with the same treatment.

4.2.1.4.2. Effect of the selinexor/alisertib combination treatment

The effect of selinexor/alisertib combination treatment was evaluated by calculating the combination index (CI), according to the method established by Chou and Talalay (1984). To this end, cells were treated with selinexor and alisertib as single agents or in combination at the indicated concentrations for 72 hours and both proliferation (Figure 74) and apoptosis (Figure 75) were measured.

The combination of selinexor and alisertib efficiently reduced MV4-11 AML and HS5 stromal cell proliferation (Figures 74A and 74B). As shown in Figure 74C, the effect of the combination was mostly additive ($1.1 > CI > 0.9$) when MV4-11 cells were cultured alone, and synergistic

(CI < 0.9) when they were co-cultured with HS5 stromal cells. Additionally, the proliferation of stromal cells was also inhibited in a synergistic manner by the selinexor/alisertib combination.



Figure 74: Antiproliferative effect of the selinexor/alisertib combination. A.B. Graphs showing the antiproliferative effect in terms of cell proliferation inhibition of MV4-11 cells cultured alone and in co-culture with HS5 cells (panel A) and of HS5 in co-culture (panel B) treated with selinexor (SEL) and alisertib (ALS) as

single agents (shaded in grey) or in combination (shaded in orange) for 72 h. The mean value and standard deviation of four independent combination experiments are shown. 3 replicates of each condition were seeded per experiment. * represents $p < 0.05$ in ANOVA test for MV4-11 cells alone versus MV4-11 cells co-cultured with HS5 with the same selinexor/alisertib combination, while # represents $p < 0.05$ in ANOVA test for single drug versus selinexor/alisertib combination. C. Graph showing the combination index (CI) for each selinexor and alisertib combination in the three cellular conditions tested. CI values below 0.9 indicate that the drug combination shows a synergistic effect. CI values between 0.9 and 1.1 indicate additive effect, and CI values above 1.1 indicate that the combination results in an antagonistic effect.

On the other hand, the selinexor/alisertib combination was also effective in promoting apoptosis both in MV4-11 AML cells cultured alone and co-cultured with HS5 BM cells (Figure 75A). It is noteworthy that the combination index (Figure 75B) revealed either antagonistic (CI > 1.1) or synergistic (CI < 0.9) effect of the combination at different affected fraction values (corresponding to the different drug doses used). The strongest synergistic effect was detected when MV4-11 cells were cultured alone. Similarly, a strong synergistic effect was determined in co-culture when the two highest doses of selinexor and alisertib were combined. However, the antagonist effect on the pro-apoptotic capacity of the two drugs when used in combination at the lowest concentrations on monocultures of MV4-11 cells suggests a complex interaction between these drugs in terms of pro-apoptotic effect in this experimental setting.



Figure 75: Pro-apoptotic effect of the selinexor/alisertib combination. A. Graph showing the pro-apoptotic effect in terms of affected fraction of MV4-11 AML cells alone and in co-culture treated with selinexor (SEL) and alisertib (ALS) as single agents (shaded in grey) or in combination (shaded in orange) for 72 h. The mean value and standard deviation of four independent combination experiments are shown. 3 replicates of each condition were seeded for experiment. * represents $p < 0.05$ in ANOVA test for MV4-11 cells alone versus MV4-11 cells co-cultured with HS5 with the same selinexor/alisertib combination, while # represents $p < 0.05$

in ANOVA test for single drug versus selinexor/alisertib combination. B. Graph showing the combination index (CI) for each selinexor and alisertib combination in the two cellular conditions tested. CI values below 0.9 indicate that the drug combination shows a synergistic effect. CI values between 0.9 and 1.1 indicate additive effect, and CI values above 1.1 indicate that the combination results in an antagonistic effect.

In summary, the combination of selinexor with alisertib shows synergistic antiproliferative effect on MV4-11 leukaemia cells, even in the presence of cytoprotective BM stromal cells by increasing the levels of apoptosis in AML cells. This is important, as the data show that the presence of BM stromal cells promotes otherwise a more cytostatic rather than cytotoxic effect of selinexor as a single agent. This increase in the pro-apoptotic effect of the combination on MV4-11 cells in co-culture correlates with the synergistic effect on the reduction of the proliferation of BM stromal cells. Inhibition of the proliferation and activity of the cytoprotective stroma by the drug combination may positively contribute to the enhanced efficacy to induce apoptosis in AML cells in the presence of stromal cells. However, at lower suboptimal concentrations of the two drugs, the effect of the combination on leukaemia cell apoptosis may be antagonistic, an effect that may be further supported by the presence of BM cytoprotective stroma. These *in vitro* results suggest that combination of selinexor with alisertib could result interesting, although it may be challenging to implement.

4.2.1.4.3. Effect of the selinexor/tazemetostat combination treatment

To evaluate the effect of the selinexor/tazemetostat combination treatment, cells were treated with both drugs, either alone or in combination, at the indicated concentrations for 72 hours and both proliferation (Figure 76) and apoptosis (Figure 77) were measured.

The antiproliferative effect of the selinexor/tazemetostat combination was not significantly different from the effect of selinexor as a single agent on MV4-11 AML cells (Figure 76A) or HS5 stromal cells (Figure 76B). The combination index (Figure 76C) revealed that the interaction between selinexor and tazemetostat was generally additive or antagonistic at the lowest affected fraction values, but some synergistic interactions were noted at higher affected fraction values (corresponding to higher drug doses). In particular, the proliferation of MV4-11 cells in co-culture was consistently reduced in a synergistic manner by the selinexor/tazemetostat combination at the highest affected fraction values.



Figure 76: Antiproliferative effect of the selinexor/tazemetostat combination. A.B. Graphs showing the antiproliferative effect in terms of cell proliferation inhibition of MV4-11 alone and in co-culture (panel A) and of HS5 in co-culture (panel B) treated with selinexor (SEL) and tazemetostat (TAZ) as single agents (shaded in grey) or in combination (shaded in green) for 72 h. The mean value and standard deviation of four experiments are shown. 3 replicates of each condition were seeded per experiment. * represents $p < 0.05$ in ANOVA test for MV4-11 cells alone versus MV4-11 cells co-cultured with HS5 with the same selinexor/tazemetostat combination, while # represents $p < 0.05$ in ANOVA test for single drug versus selinexor/tazemetostat combination. C. Graph showing the combination index (CI) for each selinexor and

tazemetostat combination in the three cellular conditions tested. CI values below 0.9 indicate that the drug combination shows a synergistic effect. CI values between 0.9 and 1.1 indicate additive effect, and CI values above 1.1 indicate that the combination results in an antagonistic effect.

On the other hand, tazemetostat did not enhance the pro-apoptotic effect of selinexor on MV4-11 cells cultured alone or co-cultured with stromal cells (Figure 77A). In fact, the combination index (Figure 77B) reveals a mostly antagonistic effect of the combination.



Figure 77: Pro-apoptotic effect of selinexor/tazemetostat combination. A. Graph showing the pro-apoptotic effect in terms of affected fraction of MV4-11 alone and in co-culture treated with selinexor (SEL) and tazemetostat (TAZ) as single agents (shaded in grey) or in combination (shaded in green) for 72 h. The mean

value and standard deviation of four experiments are shown. 3 replicates of each condition were seeded per experiment. * represents $p < 0.05$ in ANOVA test for MV4-11 cells alone versus MV4-11 cells co-cultured with HS5 with the same selinexor/tazemetostat combination, while # represents $p < 0.05$ in ANOVA test for single drug versus selinexor/tazemetostat combination. B. Graph showing the combination index (CI) for each selinexor and alisertib combination in the two tested cellular conditions. CI values below 0.9 indicate that the drug combination shows a synergistic effect. CI values between 0.9 and 1.1 indicate additive effect, and CI values above 1.1 indicate that the combination results in an antagonistic effect.

In summary, these *in vitro* results do not support the selinexor/tazemetostat combination as a promising treatment strategy. While some synergistic antiproliferative effects on AML cells were noted at the highest doses tested, antagonistic effects were observed at lower doses. More importantly, an antagonistic interaction between the two drugs in terms of pro-apoptotic effects was observed in most of the conditions tested. These results point to a cytostatic, rather than cytotoxic, effect of the drug combination.

4.2.2. Konpartimentu-espezifikoko gertuko biotinilazioa: CRM1en inhibizioaren eragina eta esportazio-kargoak identifikatzeko hurbilketa berria

Atal honetan aurkeztutako emaitzak Sendino et al., 2021-en argitaratu dira.

Selinexor eta beste SINE farmakoen erabilera klinikoaren testuinguruan, CRM1en inhibizioak zelula mailan duen eragina sakon ulertzea garrantzitsua da oso. CRM1 inhibitzean, haren kargo diren proteinen zitoplasmatik nukleoranzko lekualdaketa espero da. Aldaketa horiek ikertzeko ezinbestekoa da zitoplasma eta nukleoko proteomak era bereizian ikertu ahal izatea. Horretarako, frakzionamendu zelularra erabil daiteke. Metodologia hori, jada, CRM1en inhibizioarekin konbinatu izan da CRM1en kargo berriak bilatzeko (Thakar et al., 2013). Halere, frakzionamendu zelularraren bidez ez da erraza izaten purutasun handiko frakzioak lortzea, eta konpartimentu batetik besterako kutsatzeak ohikoak izaten dira (Bosch et al., 2021). Muga hori buruan, zitoplasma eta nukleoko proteomak era bereizian ikertzeko hurbilketa berri bat garatu da tesi honetan: konpartimentu-espezifikoko proteinen gertuko biotinilazioa, hemendik aurrera PGB moduan adieraziko dena.

PGBa (Roux et al., 2012) entzima-markatzaileen erabileran oinarritzen da. Entzima horiek, substratu egokiaren presentzian, inguruko proteinetan biotina marka kobalentea ezartzeko gai dira. Tesi honetan garatutako hurbilketaren kasuan, APEX2 peroxidasa erabili da (Lam et al., 2015). Entzima horrek, behin H_2O_2-rekin aktibatuta, minutu bat baino ez du behar markaketa eraginkorra gauzatzeko (Lam et al. 2015). Entzima hori, zitoplasma eta nukleora modu espezifikoan eta CRM1en mendekotasunik gabe ituratu da. Modu horretan, entzimaren ituraketa espezifikoak eragindako PGBa eta CRM1en inhibizioa konbinatu ahal izan da. Horrek, CRM1en inhibizioak eragindako aldaketak antzemateko, eta balizko kargo berriak identifikatzeko aukera ematen du. Atal honetan, guzti hori frogatzen duen kontzeptu-froga analisia aurkezten da.

4.2.2.1. Zitoplasmako eta nukleoko proteinen gertuko biotinilazioa eragingo duten APEX2an oinarritutako markatzaileen diseinu eta baliozkotzea

Zitoplasmako edo nukleoko proteinak era bereizian biotinaz markatu ahal izateko, lehen urratsa APEX2 peroxidasa (Lam et al., 2015) zitoplasman eta nukleoan espezifikoki kokatu araztea da (78. irudia). Gainera, APEX2 markatzaileen kokapena CRM1 aktibo edo inhibiturik dagoela egonkor mantendu behar da.



78. irudia: PGBaren bidez konpartimentu-espezifikoko proteinak identifikatzeko APEX2 peroxidasa zitoplasmara eta nukleora ituratuko da. APEX2 zitoplasmara ituratzean zitoplasman dauden proteinak biotinilatzea espero da, eta APEX2 nukleora ituratzean, aldiz, nukleoan daudenak.

APEX2 zitoplasmara edo nukleora ituratzeko helburuarekin, hainbat plasmido ezberdin sortu eta aztertu dira, betiere proteina fluoreszente bat (adibidez, YFP) eta APEX2 adierazten dutelarik.

4.2.2.1.1. APEX2 zitoplasmara ituratzeko plasmidoa: diseinua eta sortutako markatzaileen kokapena eta aktibitatearen baliozkotzea

APEX2 zitoplasmara ituratzeko, difusioz nukleora sartu ezingo den fusio-proteina handi bat eratzea izan da lehen saiakera. Horretarako, NPCaren difusio muga (~ 30 kDa) baino handiagoak diren bi proteina kodetzen dituzten bi plasmido eratu dira: pEYFP(2X)-APEX2 eta pEYFP(3X)-APEX2. Plasmido horiek APEX2rekin fusionatutako bi edo hiru YFP proteinaren kopia kodetzen dituzte, hurrenez hurren (79A irudia). HEK293T zelulatan gainadieraztean (79B irudia), fusio-proteina horiek kokapen gehien bat zitoplasmatikoa erakusten dute. CRM1 inhibitzean, YFP(3X)-APEX2 zitoplasman geratzen da, YFP(2x)-APEX2 proteinak, aldiz, nukleoranzko lekualdaketa nabaria jasaten du. Hori horrela, YFP(2X)-APEX2 proteina baztertu, eta YFP(3X)-APEX2 proteinarekin aurrera egitea erabaki da.



79. irudia: YFP(2X)-APEX2 eta YFP(3X)-APEX2 proteinen eskema eta kokapenaren azterketa. A. YFP(2X)-APEX2 eta YFP(3X)-APEX2 proteinen eskema. B. YFP(2X)-APEX2 eta YFP(3X)-APEX2 proteinak HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duten kokapenaren irudi adierazgarriak. Egoera basalean (-LMB), proteina biek kokapen gehienbat zitoplasmatikoa erakusten dute. CRM1 inhibitzean (+LMB), YFP(3X)-APEX2 proteinak kokapen zitoplasmatikoa mantentzen du, YFP(2X)-APEX2 proteinak, ordea, nukleoranzko lekualdaketa nabaria jasaten du.

YFP(3X)-APEX2 proteina PGBa eragiteko gai den aztertzeko, biotinaren aurkako Western plapaketa egin da (80. irudia). APEX2 aktibatutako laginean (+H_2O_2), tamaina ezberdinetako banda ugari ageri dira, proteina bilduma zabala biotinilatu dela adieraziz. Emaitza horrek, YFP(3X)-APEX2 markatzailea PGBa eragiteko gai dela frogatzen du. Halere, YFParen aurkako plapaketan ere banda ugari antzematen dira, YFP(3X)-APEX2 proteina degradatu egin dela iradokiz. Beraz, pEYFP(3X)-APEX2 plasmidoa ere analisi proteomikoetarako baztertu egin da.



80. irudia: YFP(3X)-APEX2 markatzailearen aktibitatearen azterketa. YFP(3X)-APEX2 HEK293T zelulatan gainadierazi, PGBa eragiteko protokoloa jarraitu eta jasotako proteina erauzkinekin Western plapaketak egin dira. Biotinaren aurkako plapaketan, APEX2ren peroxidasa aktibitatea aktibatzean (+H_2O_2) tamaina ezberdineko banda ugari antzematen dira. Hau da, proteina bilduma zabala biotinaz markatu da. APEX2 peroxidasa aktibatu gabeko kontrol laginean (-H_2O_2) ordea, YFP(3X)-APEX2 proteinaren autobiotinilazioari dagokion banda (~ 110 kDa) baino ez da ageri. YFParen aurkako plapaketan (GFParen aurkako antigorputza erabili da, zeinak YFP proteina ere ezagutzen duen) banda multzo zabala ageri da egoera bietan. Kasu horretan, banda multzoak proteina markatzailea degradatu egin dela erakusten du.

Emaitza horiek ikusita, estrategiaz aldatzea erabaki da: APEX2dun proteina nukleora sartzea ekidin ordez, proteina hori era aktiboan zitoplasman kokatzea erabaki da. Hori, NES seinaleen bidez lortuko da. Gogoratu beharra dago ezinbestekoa dela CRM1 inhibitzean ere APEX2zit zitoplasman kokatzea. Beraz, erabiliko den NES seinalea ezin da CRM1en bidez esportatua izan. CRM1ekiko mendekotasunik ez duten bi NES seinale aukeratu dira zitoplasman kokatuko den plasmido bat sortzeko helburuaz, pUL69 (Lischka et al., 2001) eta RIP3 (Yang et al., 2004) proteinenak hain zuzen ere (81A irudia). Bi NES horiek CRM1ekiko mendekotasunik ez duen esportazioa eragiten dutela berresteko, YFP proteinarekin bakarka zein tandemean fusionatu dira (81B irudia) eta HEK293T zelulatan gainadierazi dira (81C irudia). YFP-pUL69^{NES} zein YFP-(2X)pUL69^{NES} proteinek kokapen nukleozitoplasmatikoa agertzen dute, YFP-RIP3^{NES} proteinak kokapen zitoplasmatikoa eta YFP-(2X)RIP3^{NES} proteinak agregatu ugariko kokapen zitoplasmatikoa. Lau proteina horien kokapena ez da CRM1 inhibitzean aldatu, eta beraz, NES seinale horiek CRM1ekiko mendekotasunik ez dutela berretsi da.

A

```
pUL69 NES: APPAQPPSQPQQHYSEGELEEDEDSDDA
RIP3 NES: GLLQSQCPRPWPLLCRLLKEVVLGMFYLHDQNPVLLHRD
```

B



C



<u>81. irudia</u>: pUL69 eta RIP3 proteinen NESen azterketa. A. pUL69 eta RIP3 proteinen NES seinaleen sekuentziak. B. pUL69 eta RIP3 proteinen NESak bakarka zein tandemean YFP proteinarekin fusionatzean lortzen diren fusio-proteinen eskemak. C. B irudiko YFP-NES proteinek HEK293T zelulatan erakusten duten kokapenaren argazki adierazgarriak. Proteina guztiek CRM1en mendekoa ez den kokapena erakusten dute. pUL69 NESaren kopia bakarra edo bi dituzten proteinek kokapen nukleozitoplasmatikoa erakutsi dute, RIP3 proteinaren NES bakarra duen proteinak kokapen zitoplasmatikoa eta RIP3 proteinaren NES tandema duen proteinak agregatu ugariko kokapen zitoplasmatikoa.

81. irudian aztertutako proteinen kokapenari erreparatuz, hurrengo urratserako YFP-RIP3^{NES} proteina aproposena dela erabaki da. Izan ere, kokapen zitoplasmatiko esklusiboa erakusten du CRM1 aktibo edo inhibiturik egon, eta ez du inolako agregaturik eratzen. Beraz, YFP-RIP3^{NES} APEX2 entzimarekin fusionatu da YFP-RIP3^{NES}-APEX2 proteina sortzeko (82A irudia). Proteina hori HEK293T zelulatan gainadieraztean (82B irudia), proteinaren kokapen zitoplasmatiko argia antzematen da egoera basalean, LMBrekin tratatzean aldiz, nukleoranzko kokapen aldaketa nabaria gertatzen da.



<u>82. irudia:</u> YFP-RIP3^{NES}-APEX2 proteinaren eskema eta kokapenaren azterketa. A. YFP-RIP3^{NES}-APEX2 proteinaren eskema. B. YFP-RIP3^{NES}-APEX2 HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duen kokapen nukleozitoplasmatikoaren irudi adierazgarriak. Egoera basalean (-LMB) kokapen zitoplasmatiko argia erakusten du, zelulak LMBrekin tratatzean ordea, proteinaren nukleoranzko lekualdaketa nabaria dago.

Nukleoranzko lekualdaketa hori gutxitzeko asmoz, Frey eta lankideek (2018) deskribatutako sinGFP4a proteina fluoreszentea erabiltzea erabaki da. GFP proteinaren aldaera hori YFP proteina baino nabarmen astiroago translokatzen da NPCetan zehar (Frey et al., 2018). Horrela, YFP-RIP3^{NES}-APEX2 proteinatik abiatuz, sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 proteina sortu da (83A irudia). HEK293T zelulatan gainadieraztean (83B irudia), sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 proteinak kokapen guztiz zitoplasmatikoa agertzen du CRM1 aktibo zein inhibiturik egon.



83. irudia: sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 proteinaren eskema eta kokapenaren azterketa. A. sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 proteinaren eskema. B. sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duen kokapen nukleozitoplasmatikoaren irudi adierazgarriak. Egoera basalean (-LMB) zein CRM1 inhibitutako egoeran (+LMB) kokapen zitoplasmatiko argia erakusten du.

Azken emaitza horrek, sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 proteinak zitoplasmako PGBa eragiteko kokapen egokia duela erakusten du. Beraz, hurrengo urratsa, proteina hori egonkorra dela eta PGBa eragiteko gai dela baieztatzea da. Horretarako, biotina eta GFParen aurkako Western plapaketak egin dira (84. irudia). Plapaketa horiek, sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 markatzailea biotinilazioa eragiteko gai dela, eta degradatzen ez dela frogatzen dute. Beraz, sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 markatzaile zitoplasmatiko moduan onartu da, eta hemendik aurrera, **APEX2zit** bezala izendatuko da.



84. irudia: sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 proteinaren bidezko biotinilazioa. sinGFP4a-RIP3^{NES}-APEX2 HEK293T zelulatan gainadierazi, PGBa eragiteko protokoloa jarraitu, eta jasotako proteina erauzkinekin biotina zein GFParen aurkako Western plapaketak egin dira. Biotinaren aurkako plapaketan APEX2ren peroxidasa aktibitatea aktibatzean (+H_2O_2) tamaina ezberdinetako proteina bilduma zabala biotinilatu dela adierazten duen banda multzoa detektatu da. GFParen aurkako plapaketan aldiz, gainadierazitako proteinari dagokion banda nabarmena (~ 55 kDa) baino ez da agertu.

4.2.2.1.2. APEX2 nukleora ituratzeko plasmidoa: diseinua eta sortutako markatzaileen kokapena eta aktibitatearen baliozkotzea

APEX2 proteina nukleoan kokatzeko estrategia, APEX2 SV40 birusaren T antigeno luzearen NLSaren (Kalderon et al., 1984a, 1984b) zenbait kopiarekin fusionatzea izan da. Lehen saiakera batean, bi NLS, YFP eta APEX2 entzima dituen fusio-proteina eratu da (85A irudia). HEK293T zelulatan gainadieraztean (85B irudia), proteina horrek kokapen nukleozitoplasmatikoa erakutsi du.



85. irudia: YFP(2NLS)-APEX2 proteinaren eskema eta kokapenaren azterketa. A. YFP(2NLS)-APEX2 proteinaren eskema. B. YFP(2NLS)-APEX2 HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duen kokapen nukleozitoplasmatikoaren irudi adierazgarriak. Proteina horrek kokapen gehienbat nuklearra erakusten badu ere, gainadierazitako proteinaren frakzio handi bat zitoplasman geratzen da. Argazkiak Axioskop mikroskopioarekin egin dira.

Bigarren saiakera batean, lau NLS kopiadun YFP(4NLS)-APEX2 fusio-proteina sortu da (86A irudia). Proteina hori HEK293T zelulatan gainadieraztean (86B irudia), proteina guztiz nuklearra dela baieztatu da.



86. irudia: YFP(4NLS)-APEX2 proteinaren eskema eta kokapenaren azterketa. A. YFP(4NLS)-APEX2 proteinaren eskema. B. YFP(4NLS)-APEX2 HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duen kokapen nukleozitoplasmatikoaren irudi adierazgarriak. YFP(4NLS)-APEX2 proteinak kokapen guztiz nuklearra erakusten du.

YFP(4NLS)-APEX2 proteinaren PGBa eragiteko gaitasuna biotinaren aurkako Western plapaketaren bidez aztertu da (87. irudia). APEX2 entzimaren peroxidasa aktibitatea aktibatutako laginean, proteina endogeno bilduma zabala biotinilatu dela behatzen da. Gainera, YFParen aurkako plapaketan YFP(4NLS)-APEX2 egonkorra dela ikusten da. Hori horrela, YFP(4NLS)-APEX2 markatzailea erabiltzea erabaki da, eta hemendik aurrera **APEX2nuk** bezala izendatuko da.



87. irudia: YFP(4NLS)-APEX2 proteinaren bidezko biotinilazioa. YFP(4NLS)-APEX2 HEK293T zelulatan gainadierazi, PGBa eragiteko protokoloa jarraitu eta jasotako proteina erauzkinekin Western plapaketak egin dira. Biotinaren aurkako plapaketan APEX2ren peroxidasa aktibitatea aktibatu ez denean ($-H_2O_2$), gainadierazitako proteinari dagokion banda bakarra ageri da (~ 65 kDa), aktibatutako egoeran ($+H_2O_2$) berriz, tamaina ezberdineko proteinei dagozkien hainbat banda ikus daitezke. Bestalde, YFParen aurkako plapaketan (GFParen aurkako antigorputza erabili da, zeinak YFPa ere ezagutzen duen), APEX2aren peroxidasa aktibitatea aktibatu edo ez, gainadierazitako proteinari dagokion banda nabarmena ageri da bakarrik.

4.2.2.2. Hurbilketa baliozkotzeko kontzeptu-froga erako esperimentua

CRM1en inhibizioak zitoplasma eta nukleoko proteometan eragiten dituen aldaketak ikertzeko, APEX2an oinarritutako konpartimentu-espezifikoko PGBa eta CRM1en inhibizioa konbinatu dira. Horretarako, HEK293T zelulak APEX2zit edo APEX2nuk plasmidoekin transfektatu dira. Markatzaile bakoitza hiru egoera ezberdinetan erabili da (88A irudia): (i) markaketaren kontrol negatibo bezala erabili den lagin bat, non, CRM1 aktiboa den eta APEX2 ez den aktibatu (-LMB/-H_2O_2), (ii) "egoera basala" izena eman zaion lagin bat, non, bai CRM1 eta bai APEX2 aktiboak diren (-LMB/+H_2O_2), eta (iii) "CRM1 inhibitutako egoera" izena eman zaion lagin bat, non, CRM1 inhibiturik dagoen eta APEX2 aktibo (+LMB/+H_2O_2).

Sei egoera esperimental horietako laginak prestatu dira, eta egoera bakoitzean biotinilatutako proteinak neutrabidina-agarosa bihitxoekin isolatu dira. Biotinaren kontrako Western plapaketa erabiliz (88B irudia), APEX2 aktibatutako laginetan proteinen biotinilazioa eman dela, eta biotinilatutako proteinak modu eraginkorrean isolatu direla egiaztatu da.



88. irudia: Proteomika analisirako erabiliko diren laginen egokitasuna berrestea. A. Proteomika analisirako erabiliko diren egoerak. Egoera bakoitza HEK293T zelulekin ereindako 10 cm-ko plaka banatan prestatu da. B. APEX2zit zein APEX2nuk adierazten duten proteina erauzkin osoekin (PEO) eta immunoprezipitazioan isolatutako proteinekin (IP) eginiko biotinaren aurkako Western plapaketak. PEO paneletan proteinen biotinilazio eraginkorra eman dela beha daiteke, IP paneletan aldiz, neutrabidina-agarosa bihitxoekin biotinaz markatutako proteinak isolatzeko prozesua eraginkorra izan dela. IP paneletan kaleak puntukako marraz banaturik daude, mintza moztu egin dela adierazteko.

Immunoprezipitazioan jasotako laginen egokitasuna berretsita, horiek kontzentratu eta SDS-PAGE bidez banatu dira. Gelak *Coomassie-z* tindatu, eta bestelako proteinen identifikazioa oztopa ez dezaten, APEX2dun fusio-proteinei, abidinari eta fronteari dagozkien bandak baztertu dira (89. irudia). Lagin bakoitzetik lortutako hiru zatiak UPV/EHU SGIker Proteomika zerbitzuan likido-kromatografia tandem masa-espektrometria (LC-MS/MS) erabiliz analizatu dira.



89. irudia: APEX2zit eta APEX2nuk laginen MS/MS analisirako prestaketa. Neutrabidinarekin afinitatez purifikatutako proteinak SDS-PAGE bidez banatu dira. Gelak *Coomassie* tindaketaren bidez tindatu, eta frontea (gezi beltza), abidinaren banda (gezi urdina), eta gainadierazitako APEX2dun markatzaileen bandak (gezi gorria) baztertu ostean, laukizuzen horiz adierazitako gel zatiak moztu dira. Laginok UPV/EHUko SGIker Proteomika zerbitzuan masa-espektrometriaz analizatu dira.

4.2.2.2.1. MS/MS analisien emaitzak (i): kontsiderazio orokorrak

MS/MS analisian guztira 2503 proteina ezberdin identifikatu dira. Horietatik, 1489 zorroztasun irizpideak kontuan hartuta identifikatu dira, hau da, gutxienez bi peptidorekin eta 0 baino intentsitate altuagoaz (21. taula). Markatzaile bakoitzarekin identifikatutako proteina kopurua antzekoa izan da: 1248 proteina APEX2zit markatzailearekin, eta 1318 APEX2nuk markatzailearekin. Identifikaziorako zorroztasun irizpideak aplikatuz gero, kopuru horiek 876 eta 952 izan dira hurrenez hurren. Era berean, egoera basalean (-LMB), zein CRM1 inhibitutako egoeran (+LMB), identifikatutako proteina kopurua ere antzekoa izan da: 1884 (zorroztasun irizpideak aplikatuz gero, 1451) egoera basalean, eta 1757 (zorroztasun irizpideak aplikatuta 1362) CRM1 inhibitutako egoeran.

21. taula: MS/MS analisiaren laburpena. Guztira identifikatutako proteinen kopurua, eta parentesi artean, zorroztasun irizpideak aplikatutakoan identifikatutakoena erakusten da. "Orotara" izeneko zutabe eta lerroan, identifikatutako proteinen batura ez erredundantea erakusten da.

	APEX2zit	APEX2nuk	Orotara
-LMB	1157 (842)	1195 (931)	1884 (1451)
+LMB	995 (767)	1156 (882)	1757 (1362)
Orotara	1248 (876)	1318 (952)	2503 (1489)

Egoera ezberdinetan identifikatutako proteina kopurua antzekoa izateak markatzaile bien aktibitate biotinilatzailea antzekoa dela, eta LMB tratamenduak ez duela aktibitate hori nabarmen eraldatzen iradokitzen du. Horrez gain, emaitza horiek lagin guztien prozesamendua antzekoa izan dela, eta arazo tekniko larririk egon ez dela bermatzen dute.

4.2.2.2.2. MS/MS analisien emaitzak (ii): konpartimentu-espezifikoko proteinen identifikazioa egoera basalean (-LMB)

APEX2zit markatzaileak biotinilatutako proteinak zitoplasmakoak direnetz, eta APEX2nuk markatzaileak biotinilatutakoak nukleokoak direnetz aztertu da. Lehenik eta behin, egoera basalean (-LMB) markatzaile bakoitzarekin eta zorroztasun irizpideak kontuan hartuta identifikatutako proteinak erkatu dira (90A irudia). Proteina gehienak, proteina erauzkin bakarrean identifikatu dira, 520 proteina APEX2zit erauzkinean eta 609 proteina APEX2nuk erauzkinean. Aurreikusi bezala, badaude markatzaile biekin identifikatu diren eta zelulan kokapen nukleozitoplasmatikoa izatea espero den hainbat proteina, 322 proteina hain zuzen ere. Emaitza horrek, APEX2zit eta APEX2nuk markatzaileek duten kokapen nukleozitoplasmatiko ezberdinari esker, proteina bilduma ezberdina biotinilatzeko gai direla erakusten du.

Jarraian, eta UniProtKB datu-basea erabilita, analisi honetan identifikatutako proteinak aurretik zein kokapenetan deskribatu diren aztertu da (90B irudia). APEX2zit erauzkinean identifikatutako proteinen % 65 zitoplasmatiko (edo zitoplasmatiko eta nuklear) gisara dago deskribatuta UniProtKBn; APEX2nuk erauzkinari dagokionez, identifikatutako proteinen % 71 nuklear (edo zitoplasmatiko eta nuklear) gisara.

Lortutako emaitzek beraz, agerian uzten dute APEX2zit eta APEX2nuk markatzaileak konpartimentu-espezifikoko proteinen biotinilaziorako markatzaile baliagarriak direla.



90. irudia: APEX2zit eta APEX2nuk markatzaileak konpartimentu-espezifikoko PGBrako baliagarriak dira. A. Egoera basalean APEX2zit eta APEX2nuk markatzaileak erabiliz identifikatutako proteinen Venn diagrama. B. Ikerketa honetan identifikatutako proteinek UniProtKB datu-basearen arabera duten kokapena erakusten duten sektore-diagramak. Lan honetan egindako analisiaren araberako kokapenek eta UniProtKBren araberakoek bat egiten dute ehuneko handi batean (marra horizontalek adierazita).

4.2.2.2.3. MS/MS analisien emaitzak (iii): CRM1en inhibizioak nukleo eta zitoplasmako proteometan duen eragina eta balizko kargoen identifikazioa

CRM1en inhibizioaren ondorioz, CRM1en kargoek zitoplasmatik nukleoranzko kokapen aldaketa oso edo partzial bat jasatea espero da. Jasaten duten lekualdaketaren arabera, eta analisia errazteko helburuz, tesi honetan kargoak hiru kategoriatan sailkatu dira (91. irudia). *Kargo prototipikoak* egoera basalean kokapen guztiz zitoplasmatikoa eta CRM1 inhibitzean kokapen guztiz nuklearra duten proteinak dira. *Muturreko kargo ez-prototipikoak*, egoera basalean kokapen guztiz zitoplasmatikoa eta CRM1 inhibitzean kokapen nukleozitoplasmatikoa, edo egoera basalean kokapen nukleozitoplasmatikoa eta CRM1 inhibitzean kokapen guztiz nuklearra dutenak dira. Azkenik, *tarteko kargo ez-prototipikoak* egoera basal zein CRM1 inhibitutako egoeran kokapen nukleozitoplasmatikoa duten proteinak dira, zeintzuetan CRM1en inhibizioak kokapen nuklearragoa eragiten duen.



91. irudia: Tesi honetan analisi proteomikoen emaitzak aztertzeko definitutako CRM1en kargoen sailkapena. Egoera basalean erakusten duten kokapenaren eta LMB tratamenduak (geziez adierazita) eragindako nukleoranzko lekualdaketaren arabera CRM1en kargoak hiru kategoria ezberdinetan sailkatu dira. *Kargo prototipikoak,* egoera basalean guztiz zitoplasmatikoak eta CRM1 inhibitzean (+LMB) guztiz nuklearrak diren proteinak dira. *Muturreko kargo ez-prototipikoak,* egoera basalean kokapen guztiz zitoplasmatikoa agertzen duten eta CRM1 inhibitzean (+LMB) nukleo zein zitoplasman agertzen diren, edo egoera basalean nukleo zein zitoplasman agertzen diren eta CRM1 inhibitzean (+LMB) kokapen guztiz nuklearra agertzen duten proteinak dira. Eta azkenik, *tarteko kargo ez-prototipikoak* bai egoera basalean, bai CRM1 inhibitutako egoeran (+LMB), kokapen nukleozitoplasmatikoa agertzen dutenak dira, betiere, nukleoranzko lekualdaketa gertatzen bada.

Sailkapen hori bereziki da garrantzitsua hemen planteatutako lanean. Izan ere, aurkeztutako kontzeptu-froga erako esperimentuan egoera bakoitzeko lagin bana erabili da, eta beraz, ezin da proteomika kuantitatiboko analisirik egin. Ondorioz, atal honetan kargo prototipikoak eta muturreko kargo ez-prototipikoak baino ez dira bilatuko.

Kargo prototipikoak bilatzeko, 92. irudiko estrategia jarraitu da. Hau da, egoera basalean (-LMB) soilik APEX2zit markatzailea erabilita biotinilatzen diren proteinak, eta CRM1 inhibitzean (+LMB) soilik APEX2nuk markatzailea erabilita biotinilatzen diren proteinak bilatu dira.



92. irudia: CRM1en kargo prototipikoak konpartimentu-espezifikoko PGBaren bidez identifikatzeko estrategia.

93. irudian ikus daitekeenez APEX2zit markatzailearekin egoera basalean esklusiboki 253 proteina identifikatu dira, eta APEX2nuk markatzailearekin CRM1 inhibitutako egoeran 123 dira esklusiboki identifikatutakoak. Proteina multzo horietan komunak diren proteinak lau dira: LIMD1 (*LIM domain containing protein 1*), TUBAL3 (*tubulin alpha chain-like 3*), SBSN (*suprabasin*) proteinaren bigarren isoforma eta CK2α' (*casein kinase II subunit alpha'*). Lau proteina horiek beraz, analisi honetan CRM1en balizko kargo prototipiko gisa identifikatu dira.



93. irudia: CRM1en balizko kargo prototipikoen identifikazioa. Egoera basalean (-LMB) eta CRM1 inhibitutako egoeran (+LMB) APEX2zit eta APEX2nuk markatzaileak erabiliz identifikatutako proteinak erkatzen dituzten Venn diagramak. Soilik APEX2zit markatzailearekin egoera basalean, eta soilik APEX2nuk markatzailearekin CRM1 inhibitutako egoeran identifikatutako proteinak erkatzean (beheko aldea) CRM1en lau balizko kargo aurkitzen dira: LIMD1, TUBAL3, SBSN eta CK2α'.

Kargo prototipikoez gain, balizko muturreko kargo ez-prototipikoak ere bilatu dira (94. irudia). Horretarako, batetik, egoera basalean soilik zitoplasman eta CRM1 inhibitutako egoeran nukleoan eta zitoplasman aurkitzen diren proteinak bilatu dira, eta bestetik, egoera basalean nukleoan eta zitoplasman, eta CRM1 inhibitutako egoeran soilik nukleoan agertzen direnak bilatu dira. Era horretan, 89 proteina identifikatu dira (26. taula gehigarria).



94. irudia: CRM1en balizko muturreko kargo ez-prototipikoen identifikazioa. Ezkerraldean, egoera basalean (-LMB) soilik APEX2zit markatzailearekin identifikatu diren proteinen bilduma, eta CRM1 inhibitzean (+LMB) APEX2zit zein APEX2nuk markatzaileekin identifikatu diren proteinen bilduma erkatu eta 26 proteina komun aurkitu dira. Eskuinaldean, egoera basalean (-LMB) APEX2zit zein APEX2nuk markatzaileekin identifikatu diren proteina bilduma, eta CRM1 inhibitzean (+LMB) APEX2nuk markatzailearekin bakarrik identifikatu diren proteinen bilduma erkatu eta 63 proteina identifikatu dira. Erkaketa bi horietan identifikatutako proteinak batuz analisi honetan identifikatutako kargo ez-prototipikoen bilduma lortzen da, 89 proteina alegia.

Guztira, kargo prototipikoak (ikusi 93. irudia) eta muturreko kargo ez-prototipikoak (ikusi 94. irudia) kontuan hartuta, 93 balizko kargo identifikatu dira. Kargo horietako zenbait CRM1en kargo gisa deskribatuta daude jada, esaterako, LIMD1 (Sharp et al., 2004;), TUBAL3 (Schwarzerová et al., 2019), SNUPN (*snurportin 1*) (Paraskeva et al., 1999), HDAC1 (*Histone deacetylase 1*) (Kim et al., 2010), edota RanGAP1 (*Ran GTPase-activating protein 1*) (Cha et al., 2015). Balizko kargoetako zenbait jada kargo lez identifikatuta egoteak, erabilitako prozedura eta estrategiaren baliozkotasuna bermatzen dute.

4.2.2.2.4. Balizko kargo berriak berresteko analisiak

Aurkeztutako analisi honetan balizko kargo prototipiko gisa identifikatutako SBSN eta CK2α' proteinak CRM1en kargoak direnik ez dago frogatuta. Hori ikertzeko SBSN eta CK2α' proteinak Myc epitopoarekin fusionatu, HEK293T zelulatan gainadierazi eta euren kokapena CRM1 aktibo edo inhibiturik dagoenean aztertu da. Myc-SBSN proteinaren kokapenak ez du CRM1en mendekotasunik agertzen (95. irudia); Myc-SBSN zitoplasman eta jariatze-besikulak izan daitezkeen egituretan metatzen da egoera basalean zein CRM1 inhibiturik dagoenean. Behatutako kokapen hori literaturan deskribatutakoarekin bat dator, SBSN jariatze-proteina legez deskribatuta baitago (Matsui et al., 2004; Moffatt et al., 2004).



95. irudia: Myc-SBSN LMBrekin tratatu (+LMB) edo tratatu gabeko (-LMB) HEK293T zelulatan gainadieraztean hartzen duen kokapenaren irudi adierazgarriak.

Myc-CK2α'ri dagokionez, egoera basalean (-LMB) zein CRM1 inhibiturik dagoenean (+LMB) kokapen nukleozitoplasmatikoa agertzen du (96. irudia). Alabaina, laginak behatzean LMB tratamenduak nukleoranzko nolabaiteko lekualdaketa txikia eragin dezakeela antzematen da. Kokapen aldaketa hori irudi-analisi semi-kuantitatiboa eginez egiaztatu da. Gauzak horrela, CK2α' proteina CRM1en kargo berri lez proposatzen da hemen.



96. irudia: Gainadierazitako Myc-CK2α' proteinaren kokapen nukleozitoplasmatikoaren analisi semi-kuantitatiboaren emaitza erakusten duen grafikoa. Myc-CK2α' proteina HEK293T zelulatan gainadieraztean erakusten duen kokapen nukleozitoplasmatikoa irudi-analisiaren bidez aztertu da. Zirkulu bakoitzak zelula bakar baten nukleoan antzematen den fluoreszentziaren eta zitoplasman antzematen denaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan $\log_2$(N/Z arrazoia) adierazten du. Lagin bakoitzaren $\log_2$(N/Z arrazoia)-ren batez bestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira. Bi laginetako zeluletan Myc-CK2α' proteinak kokapen gehienbat nuklearra [$\log_2$(N/Z arrazoia)> 0] erakusten badu ere, CRM1en inhibizioak CK2α' nukleoan egoera basalean baino gehiago metatzea eragiten du (*p=0,0228; Mann-Whitney U test).

Laburbilduz, aurkeztutako kontzeptu-froga esperimentuan lortutako emaitzek, tesi honetan garatutako konpartimentu-espezifikoko PGB hurbilketa CRM1en inhibizioaren efektua eta haren kargoak bilatzeko erabilgarria dela iradokitzen dute.

5. Eztabaida

Eztabaida hau bi atal nagusitan banatu da. Lehen atalean, CRM1en funtzionamenduaren aspektu fisiologikoak jorratu dira, hala nola, CRM1en mendeko NES berriak bilatu eta karakterizatzean eginiko aurkikuntzak, zein CRM1en mendeko NESen esportazioaren ingurukoak. Bigarren atala, aldiz, patologian ardaztutako ikerketetan jasotako emaitzen inguruko eztabaidari dagokio. Kasu honetan, CRM1 minbiziari aurre egiteko itu gisa duen papera aztertu da, selinexor eta beste farmako batzuen konbinazio berriak ezbaian jarri dira, eta CRM1en inhibizioak haren esportoman eragiten duen efektua aztertzeko konpartimentu espezifikoko proteinen biotinilazioaren erabilgarritasuna ere eztabaidatu da.

5.1. CRM1en mendeko NES motiboen eta horiek CRM1ekin eratzen duten elkarrekintzaren inguruko ikerketak

5.1.1. NES berrien identifikazioa Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua erabiliz

Orain arte, USP12 deubikuitinasaren kokapen nukleozitoplasmatikoa ikergai duten hainbat lan argitaratu dira. Batzuetan USP12 gehienbat zitoplasmatikoa dela baieztatzen da (Sowa et al., 2009; Urbé et al., 2012; Burska et al, 2013; Lehoux et al., 2014; Olazabal-Herrero et al., 2015), beste batzuetan, ordea, gehienbat nuklearra dela (Joo et al., 2011). Kontrajarritako emaitza horiek bateragarriak direla ikusi izan da ikerketa berriagoetan. Izan ere, giza zein legami USP12 proteinak gaineztadura nuklearrean zehar aurrera eta atzera mugitzen diren CRM1en kargoak direla ikusi da (Kouranti et al., 2010; Jahan et al., 2016). Tesi honetan lortutako emaitzek, USP12ren kokapena, eta haren kofaktore diren WDR20 eta DMWD proteinen kokapena ere, CRM1en mendekoa dela egiaztatu dute. Aipatu beharra dago, CRM1en inhibizioak ez duela ez USP12 ez bere kofaktoreak esklusiboki nukleoan metatzea eragiten. Hori, proteina horiek nukleora eramango lituzkeen NLS indartsurik ez izateagatik gerta daiteke. USP12ren kasuan, NLS aktiborik ez ote duen egiaztatzeko, SV40 birusaren T antigeno luzearen bi NLS kopiarekin fusionatu da (YFP-USP12$^{[2NLS]}$), eta proteina hori nukleoan metatzen dela behatu da. DMWDren kasuan, NLS indartsuaren gabeziaz gain, zitoplasman bahiturik geratzen dela dirudi, izan ere, bere kasuan, CRM1 inhibitzean ematen den nukleoranzko lekualdaketa bereziki ahula da.

Emaitza horiek ikusita, USP12, eta harekin konplexua eratzen duten bestelako proteinak nukleora difusioz edo beste proteina baten NLSaz baliatuz, ingelesez *piggyback* izenez ezagutzen den mekanismoaren bidez, inportatzen direla planteatzen da hemen. Bada, aurretik ere, USP12ren inportazioa giza papilomabirusaren E1 proteinak bultza dezakeela deskribatu da (Lehoux et al., 2014). Argitaratutako informazio hori guztiz argitzeko, giza papilomabirusak

infektatu gabeko zeluletan USP12ren inportazioa bultza dezaketen proteinak bilatzeko esperimentu gehiago egin beharko lirateke.

Behin USP12 barne duten konplexuak nukleo eta zitoplasmaren artean garraiatzen direla baieztatuta, nukleotik zitoplasmaranzko esportazioa egikaritzen duten NES motiboak bilatu dira. Aipatu beharra dago, tesi honetan Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren eta iturratutako mutagenesiaren bidez lortutako emaitzek, Sanyal eta lankideek proposaturiko NES motiboa (Jahan et al., 2016; Sanyal, 2016) aktiboa ez dela eta USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren esportazioa WDR20 proteinan aurkitutako NES berriaren bidez ematen dela erakutsi dutela. NES berri horrek WDR20ren homologoa den DMWD proteinan aurkitu denarekin antzekotasun nabaria du, batez ere C-muturrean. Hala ere, WDR20 proteinaren NESa, CRM1 inhibitzean ikusitakoarekin bat eginez, DMWDrena baino nabarmen aktiboagoa da. WDR20 proteinak DMWDk baino NES aktiboagoa izatea, WDR20 zitoplasman bahituta ez geratzearen, eta beraz, zelulak berau esportatzeko behar altuagoa izatearen ondorio izan daiteke.

Tesi hau burututako taldean jasotako beste emaitza batzuek WDR20 proteinak USP12ren eta UAF1en mintz plasmatikoko kokapena erregulatzen duela erakutsi dute (Olazabal-Herrero et al., 2019). Emaitza hori eta tesi honetan aurkeztutako emaitzak konbinatuta, ondorengo eredua sortu da (97. irudia). Eredu horretan USP12/UAF1/WDR20 konplexua mintz plasmatiko, zitoplasma eta nukleoaren artean dinamikoki mugitzeko ahalmena duela erakusten da. Ahalmen hori ezinbestekoa izan daiteke konplexu deubikuitinatzaileak kokapen zelular ezberdina duten substratuetara hel daitezen.



97. irudia: USP12/UAF1/WDR20 konplexuaren kokapen dinamikoa proposatzen duen eredua. USP12/UAF1/WDR20 konplexua mintz plasmatiko, zitoplasma eta nukleoaren artean lekualdatzen da. Nukleoranzko sarrera ez da prozesu oso efizientea, eta badirudi difusioz edo beste proteina baten NLSaz lagunduta gertatzen dela. Bestetik, esportazioa zein mintz plasmatikorako translokazioa, prozesu askoz ere efizienteagoak dira. Bi prozesu horiek WDR20 proteinak gidaturik daude. Tesi honetan esportazioa izan da sakontasunean ikertu den prozesua (karratu gorriaz adierazita), eta hori, WDR20 proteinan zehaztasunez karakterizatu den CRM1en mendeko NES batean (berde ilunaz adierazita) dago oinarriturik.

Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua USP12, WDR20 eta DMWD proteinen NES motibo kandidatuen esportazio-ahalmena aztertzeko erabiltzeaz gain, minbizi-esportomako NES kandidatuak (cNES) bilatzeko ere erabili da. Bilaketa horren lehen urratsa *in silico* egin da NES-iragarleen bidez. Aipatu beharra dago, modu honetan cNESak bilatzen direnean, ohikoena, *plus* erakoak bakarrik bilatzea izaten dela, kasu honetan, ordea, *plus* zein *minus* erakoak (Fung et al., 2015) bilatu dira. Noranzko bietako cNES kopuru antzekoa topatu da, 507 *plus* erakoak eta 481 *minus* erakoak. Iragarritako 988 cNES horietatik 36 hautatu dira (26 *plus* erakoak eta 10 *minus* erakoak) eta Rev(1.4)-GFP esportazio-entsegua erabiliz aktiboak direnetz ikertu da. Guztira, 25 dira NES aktiboak (19 *plus* erakoak eta 6 *minus* erakoak), eta horietatik 19 (13 *plus* eta 6 *minus* erakoak) NES berriak. 19 NES berri horiek, 14 proteina ezberdinetan (SPN90, TFE3, SHIP2, PER1, SEPT6, SIR2, UBR5, FR1OP, AP2B1, IF2B, mTOR, CRTC1, CDC27 eta ZO2) kokatzen dira (98. irudia), eta jada, NESdb datu basearen azken bertsiora (Xu et al., 2012; Fu et al., 2021; http://prodata.swmed.edu/LRNes/index.php) gehitu dira.



98. irudia: CRM1en minbizi-esportomako proteinetan aurkitutako NES berrien kokapenaren irudi eskematikoa. Guztira 19 NES berri aurkitu dira 14 proteina ezberdinetan; 13 *plus* motakoak, berdez adierazita, eta 6 *minus* motakoak, morez adierazita.

Kirli eta lankideek (2015) eginiko analisi proteomikoan, 14 proteina horiek CRM1en kargo gisara proposatu ziren. Proteina horiek NES aktiboak edukitzeak, CRM1en kargo direlako aukera indartzen du. Halere, aurkitutako NES berriek proteina osoaren testuinguruan duten eginkizuna sakonago ikertu beharko litzateke. Izan ere, baliteke aurkitutako NES horietako batzuek proteina osoren esportaziorik ez eragitea NESa CRM1ekiko eskuragarri ez egoteagatik. CRM1en minbizi-esportomaren azterketan lortutako emaitzen artean, SHIP2 proteinarena da

deigarria oso. Proteina horrek hiru NES motibo aktibo ditu, eta horietatik bi gainjarri egiten dira. Gainjartzen diren motiboak, bata *plus* erakoa (WN6: ^{256}TGEQELESLVLKLSVLKDF^{274}) da, eta bestea, *minus* erakoa (REV5: ^{261}LESLVLKLSVLKDFLSGIQ^{279}). Hori ikusirik, interesgarria izan liteke SHIP2 proteinak CRM1 lotzeko zein egitura hartzen duen aztertzea, eta CRM1ekin duen elkarrekintza 256-279 aminoazido errenkadaren bidez ematen bada, elkarrekintza hori zein noranzkotan ematen den jakitea.

Azpimarratzekoa da, *plus* zein *minus* NESak bilatu izanak, mota bietako NESen aktibitatea lehen aldiz erkatzeko aukera eman duela. Lortutako emaitzen arabera, *plus* NESek esportazio aktibitate altuagoa dute oro har, *minus* erakoak ahulagoak izateko joera dutela iradokiz.

5.1.2. $SRV_{B/A}$ erreportaria: NESak identifikatzeko eta CRM1en mendeko NESen esportazioari buruzko informazio mekanistikoa lortzeko tresna berria

NES berriak identifikatzeko edota CRM1en inhibitzaileen efektua aztertzeko erreportarien kokapenean oinarritutako entsegu zelularrak erabili dira maiz (Henderson eta Eleftheriou, 2000; Fetz et al., 2009; Kehlenbach eta Port, 2016). Bestalde, CRM1en mendeko NESen esportazioaren gainean dagoen ezagutza mekanistiko gehiena *in vitro* eginiko analisi biokimikoetatik eta estrukturaletatik eratorri da (Dong et al., 2009a, 2009b; Monecke et al., 2009, 2013; Güttler et al., 2010; Fox et al., 2011; Dian et al., 2013; Saito et Matsuura, 2013; Fung et al., 2015; 2017). Tesi honetan, NES berriak bilatzeko zein CRM1en mendeko esportazioaren inguruko ezagutza zabaltzeko aukera ematen duen tresna berri bat garatu da, $SRV_{B/A}$ erreportaria alegia (Taylor et al., 2019; Sendino et al., 2020a).

$SRV_{B/A}$ erreportaria, SRV100 erreportarian (García-Santisteban et al., 2016) oinarrituta garatu da. Erreportari berriak, edozein NES kandidatu (cNES) bertan klonatu eta edozein CRM1en aldaerak cNES hori esportatzeko duen gaitasuna ikertzea ahalbidetzen du.

Tesi honetan zehar, CRM1en aldaera/NES konbinazio asko ikertu izan dira, 234 hain zuzen ere. Konbinazio guzti horietan $SRV_{B/A}$ erreportariak erakusten duen kokapen nukleozitoplasmatikoa ebaluatzea lan ikaragarri handia da, are gehiago, kasu honetan bezala, prozesua automatizaturik ez baldin badago. Beraz, eskuz egin beharreko ebaluazio-lan hori errazteko hiru metodo ezberdin erabili dira (ikusi 47.irudia), eta nahiz eta metodook zailtasun maila gero eta handiagoa duten, eta gero eta denbora gehiago eskatzen duten, laginaren deskripzio zehatzagoa eskaintzen dute. Funtsean, metodo guztiekin emaitza bera lortzen da, ezberdintasuna, ordea, metodo bakoitzarekin lortzen den zehaztasun mailan eta emaitza lortzeko behar den denboran dago. $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegu bakoitza aztertzeko metodoa

aukeratzeko irizpidea, erreportari bakoitzaren kokapen nukleozitoplasmatikoaren inguruko beharrezko zehaztasun maila izan da.

$SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua balioztatzeko lehen urratsa, Rev(1.4)-GFP eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguetan jasotako emaitzak konparagarriak direnetz aztertzea izan da. Horretarako, Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan ikertutako minbizi-esportomako zenbait NES kandidatu $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan ikertu dira. $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegu horiek analisi lehen metodoarekin ebaluatu dira, hau da, erreportariak zelula-populazioan duen kokapena guztiz nuklearretik, guztiz zitoplasmatikora doazen bost kategoriatan sailkatuz. Jasotako emaitzek Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguan lortutakoekin emaitzekin korrelazio argia agertzen dute. Hala ere, bategitea ez da erabatekoa, eta badirudi, $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua aproposagoa dela aktibitate altuagoa duten NESak aztertzeko. Batetik, Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguak erakusten ez dituen NES indartsuenen arteko ezberdintasunak ikusgarri egiten dituelako, eta bestetik, $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua erabiltzean Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguarekin detektagarriak diren NES ahul batzuk ez detektatzea gerta daitekeelako.

Bestalde, CRM1en funtzio fisiologikoak osotasunean ulertzeko, analisi estruktural eta biokimikoetako emaitzen esanahi zelularra aztertzea ezinbestekoa da. Tesi hau aribidean zela, Fu eta lankideek (2018) analisi biokimikoen bidez hainbat NESek CRM1ekiko duten afinitatea (K_d) aztertu, entsegu zelularren bidez NES horien esportazio-aktibitatea ikertu, eta balio biak korrelazio linealean daudela topatu zuten. Ikerketa hartan erabilitako NESak tesi honetan $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua erabilita ikertu dira, eta lortutako SRV balioak eta NES horiek CRM1ekiko duten afinitatea (K_d) ere korrelazio linealean daudela topatu da (99. irudia). Emaitza horrek garatutako esportazio-entsegu berriari bermea ematen dio.



99. irudia: $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan ebaluatutako NESek CRM1ekiko duten afinitatea ($\log_{10}(K_d)$ bezala adierazita) eta erreportari bakoitza bakarrik gainadieraztean lortutako SRV balioak kontrajartzen dituen grafikoa. Aztertutako NESek CRM1ekiko duten afinitatea eta $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan erakutsi duten esportazio-aktibitatea korrelazioan dago. Pearson korrelazioa (R) eta p balioak grafikoan adierazten dira.

Fu eta lankideek (2018) lortutako emaitzekin bat eginez, afinitatearen eta esportazio-aktibitatearen arteko korrelazio nabaria aurkitu da. Hala ere, ikerketa bietan lortutako emaitzak alderatuz gero, euren artean ezberdintasunak badaudela nabaria da. Esaterako, Fu eta lankideek (2018) HeLa zelulatan egindako esportazio-entseguan, CRM1ekiko afinitate oso altua duen superPKI NES artifizialak ez zuen esportazio-aktibitaterik erakutsi. $SRV_{B/A}$ entsegua erabiliz aztertzerakoan, ordea, SRV-superPKI erreportariak HEK293T zelulatan kokapen zitoplasmatikoa erakusten du. Ezberdintasun hori bi arrazoi nagusi direla eta izan daiteke: batetik, erreportari bakoitzaren ezaugarri propioak, eta bestetik, zelula-lerro ezberdinak erabili izana. Azken arrazoi posible horrek, zelula-lerroen artean garraio nukleozitoplasmatikoa egikaritzen duen mekanismoan ezberdintasunak egon daitezkeela azpimarratzen du. Beraz, esportazio-aktibitatea entsegu zelularretan neurtzerakoan, ikerketa zein zelula-lerrotan egin den kontuan hartu beharreko aldagaia da.

$SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua, azkenaldian deskribatutako mikropeptidomako (Yeasmin et al., 2018; Hartford et al., 2020) NES aktiboak bilatzeko ere erabili da. Mikropeptidoma 100 aminoazido baino laburragoak diren proteinen bilduma da. Mikropeptidoen gaineko lanak asko ez badira ere, jada mikropeptido batzuek nukleoan funtzioak dituztela topatu da, esaterako, DNAren konponketan (Slavoff et al., 2014) eta RNAren moztu-itsastean (Huang et al., 2017). Funtzio horiek izateak, mikropeptidoen banaketa azpizelularra zorrozki erregulaturik egon

daitekeela iradokitzen du. Ideia hori buruan, mikropeptido batzuk CRM1en kargo izan litezkeela planteatu da lan honetan. Hipotesi hori baieztatzeko, lehendabiziko urratsa SmProt datu basean (Hao et al., 2018), NES-iragarleak erabiliz, NES kandidatuak bilatzea izan da. Aurkitutako cNESetatik 7 $SRV_{B/A}$ esportazio-entseguan testatu dira, eta horietako bik esportazio-aktibitate altua dutela topatu da. Bi NES aktibo horiek SPROHSA010409 eta SPROHSA141543 mikropeptidoetan daude. SPROHSA010409 mikropeptidoak CRM1en mendeko esportazioa jasaten duela ere baieztatu da. Hori horrela, SPROHSA010409 gaineztadura nuklearrean zehar era aktiboan garraiatzen den deskribaturiko lehen mikropeptidoa da.

SPROHSA010409 mikropeptidoaren funtzio biologikoa, mikropeptido gehienen kasuan bezala, ezezaguna da. Edonola ere, SPROHSA010409 mikropeptidoarekin lortutako emaitzak mikropeptidoman CRM1en hainbat kargo egon daitekeenaren aukera zabaltzen du. Azpimarratzekoa da ere, NES motiboak aminoazido errenkada laburrak direnez, mikropeptido txikienetan ere (15-25 aminoazido) NESak egoteko aukerak egon badaudela. Mikropeptido txikienetan NESik egotekotan, horiek, “amu NESak” izan litezke CRM1entzako, eta beraz, CRM1en mendeko esportazioaren erregulaziorako gako izan litezke. Aukera hori zabalik badago ere, hori frogatzeko esperimentu gehiago egin beharko lirateke.

Azkenik, $SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua aurretik eginiko ikerketa estruktural eta biokimikoetan (Dong et al., 2009a, 2009b; Monecke et al., 2009, 2013; Güttler et al., 2010; Fox et al., 2011; Dian et al., 2013; Saito eta Matsuura, 2013; Fung et al., 2015; 2017) jasotako informazioa osatzeko beharrezkoa den CRM1en mendeko NESen esportazioaren inguruko informazio mekanistikoa lortzeko ere erabili da. Helburu horrekin, CRM1en poltsiko hidrofobikoko mutazio bakun bat duten CRM1en hainbat aldaerek zenbait NES esportatzeko duten gaitasuna aztertu da. NES horiek, mota ezberdinetakoak dira, eta beraz, aminoazido hidrofobikoen kokapena ez da guztietan berdina. Gainera, analisi estrukturalen bidez aztertu dira, eta egitura oso ezberdinak agertu dituzte (Dong et al., 2009a; Monecke et al., 2009; Güttler et al., 2010; Fung et al., 2015, 2017). $SRV_{B/A}$ entseguetan lortutako emaitzak aztertzean, ez da NES motaren eta CRM1en aldaera ezberdinek NES horiek esportatzeko gaitasunaren arteko erlazio argirik aurkitu. Behatu dena baina zera izan da: edozein motako NESen esportaziorako CRM1en poltsiko hidrofobikoaren parterik estuenean dauden aminoazidoek (A541, K568 eta F572) parte zabalenean (I521, L525, F61) daudenak baino ekarpen handiagoa dutela. Nabarmentzekoa da gainera, K568 eta F572 aminoazidoen mutazioek antzeko eragina dutela NESen esportazioa murriztean nahiz eta bi aminoazido horiek NESekin elkarrekintza erabat ezberdinak ezarri (NESaren kate nagusiarekin hidrogeno zubia K568 aminoazidoaren kasuan,

eta interakzio hidrofobikoa NESaren albokatearekin F572 aminoazidoaren kasuan) (Dong et al., 2009a; Fung et al., 2017). Emaitza horiek, NESek CRM1en poltsiko hidrofobikoaren parte estuarekin duten elkarrekintza motibo horien esportaziorako bereziki garrantzitsua dela iradokitzen dute.

Aparteko garrantzia duten CRM1en E571 eta K568 aminoazidoen mutazioen eragina ere aztertu da tesi honetan. E571 minbizi hematologikoetan maiz mutaturik ageri den aminoazidoa da (Puente et al., 2011), eta K568 aminoazidoa NESen antzeko motibo ez-aktiboak CRM1i lot ez daitezen galbahe lanak egiten dituela deskribatu da (Fung et al., 2017). Bi aminoazido horiek elkarrengandik oso hurbil daude eta elkarrekintza elektrostatikoa eratzen dute (Fung et al., 2017). Beraz, baliteke minbizi mutazioak elkarrekintza hori apurtzea. Bi aminoazido horien elkarrekintza ikusirik, E571 eta K568 aminoazidoei eragiten dieten mutazioen eragina erkatu da. Lehenik eta behin, E571K eta K568A mutazioak dituzten CRM1en aldaerek, ez-aktibo gisa deskribatutako hiru NES-antzeko motibo (Hxk2, DEAF1 eta COMMD1 proteinetakoak) esportatzeko duten gaitasuna ikertu da. *In vitro* lortutako emaitzekin (Fung et al. 2017) bat eginez, K568A mutaziodun CRM1en aldaerak CRM1 basatiak baino pixka bat hobeto esportatzen ditu Hxk2 eta DEAF1 NES-antzeko motiboak dituzten $SRV_{B/A}$ erreportariak. Hau da, K568 aminoazidoa galbahe gisara funtzionatzen du testuinguru zelularrean ere. E571K mutazioari dagokionez, ez du CRM1ek NES-antzeko motibo horiek esportatzeko duen gaitasuna hobetu, eta horrek, minbizi-mutazioak galbahe hori indargabetzeko gai ez dela iradokitzen du. Azpimarratzekoa da, K568A mutazioak CRM1ek SRV-Hxk2 eta SRV-DEAF1 erreportariak esportatzeko duen gaitasuna emendatzen badu ere, emendapen hori nahiko txikia dela, eta inolaz ere *in vitro* ikusitakoaren (Fung et al., 2017) parekoa. Gainera, K568A mutazioak CRM1ek benetako NESak lotu (Fung et al., 2017) eta esportatzeko gaitasuna murrizten duela ere izan behar da kontuan (ikusi 56. irudia). Hori dela eta, nahiz eta tesi honetan egindako entsegu zelularrek, neurri batean behintzat, aurretik eginiko *in vitro* ikerketekin bat egin, entsegu zelularretan K568 aminoazidoak NESak benetakoak diren, hau da, aktibitate esportatzailerik duten ezartzeko galbahe gisa aritzeko duen gaitasuna sakonago aztertu beharko litzatekeela kontsideratzen da.

Halaber, K568A eta E571K mutazioek minbizi-esportomako hainbat NESen esportazioa murrizten dutela ikusi da. Hala ere, K568A mutazioak E571K minbizi mutanteak baino eragin sendoagoa agertu du. K568A eta E571K mutaziodun CRM1en aldaerak NES-antzeko motiboekin zein minbizi-esportomako NESekin konbinatzean jasotako emaitzek mutazio bi horiek ondorio biologiko ezberdina dutela iradokitzen dute. Aminoazido bien mutazioek ondorio biologiko ezberdina izatea naturalki gertatzen denarekin bat egiten du. Izan ere, E571

aminoazidoaren mutazioak ohikoak dira hainbat minbizi motatan. K568 aminoazidoaren mutazio naturalak, ordea, ez dira inoiz deskribatu. Gainera, baliteke, E571K mutazioak esportazioa inhibitzean duen eragin arinago hori, haren eragin onkogenikoarekin zuzenki erlazionatuta egotea, izan ere, esportazioa modu bortitzagoan inhibitzeak zelularen biziraupena konprometitzea ekar lezake.

5.1.3. CRM1 basatiaren eta minbizi mutantearen esportomak erkatzeko hurbilketa berri baten saiakera

$SRV_{B/A}$ esportazio-entsegua erabiliz, E571K mutazioak NES batzuen esportaziorako CRM1en gaitasuna aldatzen duela berretsi da tesi honetan. Eragin hori CRM1en esportoman zenbateraino islatzen den jakiteak CRM1en mutazio onkogenikoaren eraginaren informazio mekanistiko berria lortzeko interesgarri izan daitekeenez, tesi honetan, CRM1 basatiaren eta minbizi mutantearen esportomak konparatzeko erabilgarria izan daitekeen CRM1/kargo/Ran konplexu egonkorrak isolatzean oinarritzen den hurbilketa proteomiko berri bat planteatu da.

Ran proteinak gauzatu ohi duen GTParen hidrolisia ezinbesteko urratsa da CRM1ek bere kargoak zitoplasman aska ditzan. Lan honetan planteatutako hurbilketa berria GTPa hidrolizatzeko gai ez den Ran proteinaren mutazio batean (Q69L; Bischoff et al., 1994) dago oinarriturik. Ran^{Q69L} mutanteak GTPa hidrolizatu ezin duenez, CRM1/kargo/Ran^{Q69L}GTP konplexu-trimerikoa egonkorra izatea espero da, eta beraz, konplexu osoa YFP-CRM1en aurkako immunoprezipitazioz islotu ahal izatea espero da. Sistema martxan jarri, eta emaitzak jaso eta aztertzean, ordea, konplexu-trimerikoen haustura eman dela ikusi da. Gainadierazitako proteinak (YFP-CRM1 eta Myc-Ran^{Q69L}) zeluletan kokapen berbera izateak (ikusi 65. irudia), CRM1/kargo/Ran^{Q69L} konplexuak eratu eratzen direla iradokitzen du, eta beraz, konplexuen haustura immunoprezipitazio prozeduran zehar ematen dela ondoriozta daiteke.

5.1.4. Giza koronabirusen nukleokapsida (N) proteinaren NESen esportazio-aktibitatea generoarekin dago erlazionaturik, ez patogenotasunarekin

Egungo COVID-19 pandemiaren testuinguruan, koronabirusen patogenotasunean gako diren ezaugarri molekularrak ezagutzea ezinbesteko bilakatu da. Gussow eta lankideek (2020), ikasketa automatikoko teknikak (*machine learning*) eta genomika konparatiboa erabiliz, patogenotasun altuko (MERS-CoV, SARS-CoV eta SARS-CoV-2) eta patogenotasun baxuko (HCoV-NL63, HCoV-229E, HCoV-HKU1 eta HCoV-OC43) koronabirus anduien patogenotasun ezberdintasunaren eragile izan daitezkeen hainbat ezaugarri identifikatu zituzten. *In silico* eginiko lan hartan, nukleokapsida (N) proteinaren hiru NLStan eta NES batean hainbat delezio,

intsertzio eta ordezkapen mutazio gertatzen direla behatu zuten, eta mutazio horiek eragindako karga positibotasun altuagoa proteinaren garraio aktibitate emendatuarekin eta koronabirusen patogenotasun altuagoarekin erlazionatzen dela proposatu zuten. NLSen karga positiboa eta inportazio-aktibitatea korrelazioan daudela ezarri bada ere (Cokol et al., 2000), NESen kasuan ez da horrelakorik deskribatu. Gainera, karga positiboagoa duten NESak aktiboagoak balira ere, NES horiek proteina osoaren eta birusaren testuinguruan duten eragina esperimentalki aztertu beharko litzateke.

Aspektu horietako batzuk argitzeko, lehenik eta behin Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguen bidez, aurreikusitako SARS-CoV-2, MERS-CoV, HCoV-NL63, HCoV-229E, HCoV-HKU1 eta HCoV-OC43 koronabirusen NESak aktiboak ote diren, eta aktiboak izatekotan, zenbateko aktibitate maila duten aztertu da. Esportazio-entseguan, proposatutako NES guztiak aktiboak direla eta aktibitate maila oso ezberdina (1 eta 8 arteko esportazio maila) dutela behatu bada ere, ezin izan da aktibitate mailaren eta patogenotasunaren arteko erlaziorik ezarri (100. irudia). Aitzitik, NES aktibitatearen eta koronabirusen generoaren arteko korrelazioa aurkitu da. Giza koronabirusak bi generotan banatzen dira, alfakoronabirusak eta betakoronabirusak. Alfakoronabirusek (HCoV-229E eta HCoV-NL63) 6ko esportazio-aktibitatea erakutsi dute batez bestean, betakoronabirusek (HCoV-HKU1, HCoV-OC43, SARS-CoV-2 eta MERS-CoV), aldiz, 2ko esportazio-aktibitatea.



100. irudia: Giza koronabirusen N proteinan iragarritako NESen aktibitatea eta patogenotasuna edo generoa erlazionatzen dituen grafikoa. Ezkerraldean, aztertutako NES bakoitzaren esportazio-aktibitatea (Rev(1.4)-GFP esportazio-entseguaren arabera) koronabirusen patogenotasunarekin erlazionatzen da. Eskuinaldean, ordea, koronabirusen generoarekin. Marra horizontalek talde bakoitzeko batez bestekoa adierazten dute.

Gainera, YFPrekin fusionatutako HCoV-NL63 (patogenotasun baxua) eta SARS-CoV-2 (patogenotasun altua) birusen N proteinek kokapen erabat zitoplasmatikoa erakutsi dute bai CRM1 aktibo (-LMB) izan, bai inhibiturik (+LMB) egon. Hau da, aztertutako testuinguru

zelularrean, N proteinen kokapena ez da CRM1en mendekoa. Horrek, Gussow eta lankideek (2020) proposatutakoarekin kontrajarriz, aztertutako NES motiboak koronabirusen patogenotasunean gako ez direla iradokitzen du. Aipatu beharra dago, SARS-CoV birusaren N proteinan CRM1en mendekoa ez den NES bat deskribatuta dagoela (You et al., 2007), eta haren sekuentzia SARS-CoV-2 birusaren N proteinan mantendu egiten dela. Edonola ere, NES horren eta patogenotasunaren arteko erlaziorik ez da deskribatu.

5.2. Minbiziari aurre egiteko hurbilketa terapeutiko gisa CRM1en inhibizioak duen paperaren ikerketa

5.2.1. Selinexor eta beste ituratutako farmakoen konbinazio berrien aukeraketa eta analisia

CRM1en inhibitzaile den selinexor, bakarrik edo beste farmako batzuekin konbinazioan, tumore solido zein hematologikoen zelulekin egindako *in vitro* ikerketetan maiz erabili da (Turner et al., 2013, 2016a, 2016b, 2020; Salas Fragomeni et al., 2013; Mendonca et al., 2014; De Cesare et al., 2015; Hing et al., 2015; Kazim et al., 2015; Miyake et al., 2015; Ranganathan et al., 2015; Kashyap et al., 2016, 2018; Muqbil et al., 2016; Rosebeck et al., 2016; Sun et al., 2016; Wrobel et al., 2016; Arango et al., 2017; Burke et al., 2017; Chen et al., 2017; Garg et al., 2017a; Gravina et al., 2017; Muz et al., 2017; Nair et al., 2017; Aboukameel et al., 2018; Corno et al., 2018; Luedtke et al., 2018; Nie et al., 2018; Saenz-Ponce et al., 2018; Schaffer et al., 2018; Shang et al., 2018; Subhash et al., 2018; Zhang et al., 2018; Azmi et al., 2019; Currier et al., 2019; DeSisto et al., 2019; Khan et al., 2019; Kapoor et al., 2019; Kulkoyluoglu-Cotul et al., 2019; Lim et al., 2019; Sexton et al., 2019; Tarantelli et al., 2019; Yan et al., 2019; Zhu et al., 2019a; Brinton et al., 2020; Fischer et al., 2020; Martini et al., 2020; Jeitany et al., 2021). Ikerketa prekliniko askotan, selinexor dexametasona edota proteasomaren inhibitzaile diren bortezomib eta karfilzomib farmakoekin konbinatu da. Konbinazio horiek, ikerketa preklinikoetan erabiltzeaz gain, entsegu klinikoetan ere erabilgarriak direla ikusi da. Ondorioz, selinexor/dexametasona eta selinexor/dexametasona/bortezomib konbinazioak MM eta DLBCL paziente jakinak tratatzeko onartu dira (Food and Drug Administration, 2019, 2020a, 2020b, European Medicines Agency, 2021).

Aukera terapeutikoak zabaltzeko asmoz, tesi honetan selinexor eta beste ituratutako farmakoen konbinazio berriak bilatu eta *in vitro* ebaluatu dira. Balizko konbinazioak bilatzeko, *XPO1en* eta minbizian zerikusia duten beste 135 generen (TARGET zerrenda; https://software.broadinstitute.org/cancer/cga/target) artean korrelazio positiborik dagoenetz bilatu da AML, eta bular, prostata, birika, eta kolon eta ondeste minbizietan. Bilaketa hori,

hainbat datu basetan (ikusi 19. taula) egin da CANCERTOOL (Cortazar et al., 2018) eta cBioPortal (Cerami et al., 2012; Gao et al., 2013) tresna bioinformatikoak erabilita. *XPO1* gainadierazita topatu da maiz aipatutako minbizietan (Akagi et al., 2013; Kojima et al., 2013; Marisa et al., 2013; Yue et al., 2018; Cruz-Ramos et al., 2019; Duijvesz et al., 2019), beraz, *XPO1*ekin korrelazio positiboa agertzen duten bestelako geneak ere minbizi horietan gainadierazita egongo direla kontsideratu da.

XPO1 beste gene batekin batera gainadierazita bilatzearen arrazoia, batera gainadierazitako proteinak inhibituz gero, farmakoen arteko sinergia gerta daitekeela da. Izan ere, aurretik eginiko beste behaketa batzuek hipotesi hori bermatzen dute. Adibidez, AML zeluletan, non *XPO1* eta *TOP2A* geneak batera gainadierazten diren (101. irudia), CRM1 eta TOP2A inhibitzaileek sinergia erakusten dute *in vitro* eginiko ikerketetan (Ranganathan et al., 2016). Gainera, 101. irudian beha daitekeenez, AML zeluletan ez ezik, aipatutako tumore solidoetan ere *XPO1* eta *TOP2A* geneak korrelazioan daude.



<u>101. irudia:</u> *XPO1* eta *TOP2A* geneen adierazpenaren arteko korrelazioa minbizia mota ezberdinetan. Irudiko bero-mapan leuzemia mieloide akutu (AML), bularreko minbizi (BC), birika adenokartzinoma (LAC), prostata minbizi (PC) eta ondesteko minbizia (CRC) pairatzen duten pazienteen laginekin eginiko ikerketa ezberdinetan *XPO1* eta *TOP2A* geneen adierazpenaren arteko korrelazioa ageri da. Kolore urdinak alderantzizko korrelazioa adierazten du eta gorriak korrelazio zuzena. Koloreen intentsitateak Pearsonen korrelazioaren balioa (R) adierazten du. Ikerketa bakoitzaren izena, R, eta p balioak bero-mapan adierazten dira.

*XPO1*en adierazpena TARGET zerrendako 135 geneen adierazpenarekin bost minbizi mota eta 21 ikerketa ezberdinetan konparatu da. R balioen batez bestekoak kalkulatu ostean, *XPO1*en gainadierazpena eta TARGET zerrendako zortzi generen, *MSH2*, *ATR*, *MSH6*, *BRCA1*, *EZH2*, *BRCA2, AURKA* eta *NPM1*, gainadierazpenen artean korrelazio positiboa dagoela topatu da. Zortzi gene horietatik lauk, *MSH2*, *MSH6*, *BRCA1* eta *BRCA2,* egun, minbiziari aurre egiteko itu

terapeutikotzat jotzen ez diren proteinak kodetzen dituzte, eta beraz, baztertu egin dira. *NPM1* ere alde batera utzi da, NPM1 proteinaren aurkako inhibitzaile fidagarririk ez dagoelako. Beraz, lan honetarako *ATR*, *EZH2* eta *AURKA* geneek kodetutako izen beeko proteinak inhibitzea baino ez da kontsideratu.

Hiru proteina horien artean bi aukeratu dira lehen analisietan inhibitzeko, EZH2 eta AURKA alegia. Horiek inhibitzeko, tazemetostat eta alisertib farmakoak erabili dira hurrenez hurren. Tazemetostat AEBtan minbizi paziente jakinak tratatzeko onartu den EZH2ren inhibitzailea da, eta alisertib, fase klinikora heldu den AURKAren inhibitzailea (Damodaran et al., 2017; Lee et al., 2017; Mohammad et al., 2017; Cheng and Xu, 2018; Dawei et al., 2018; Dimopoulos et al., 2018; Felgenhauer et al., 2018; Fioravanti et al., 2018; Herviou et al., 2018; Hou et al., 2018; Huang et al., 2018; Italiano et al., 2018; Kogiso et al., 2018; Li et al., 2018; Mochizuki et al., 2018; Payton et al., 2018; Serresi et al., 2018; Shaikh et al., 2018; Tremblay-LeMay et al., 2018; Tsai et al., 2018; Wen et al., 2018; Wu et al., 2018; Yang et al., 2018; Zheng et al., 2018; O'Connor et al., 2019; Food and Drug Administration, 2020c, 2020d). Aipatu beharra dago, lehen analisietarako ATR-ren inhibitzailerik aukeratu ez den arren, aukera hori ez dela inoiz baztertu. Izan ere, tesi hau idazten hasi orduko ATR-ren inhibitzaile den AZD-6738 farmakoa selinexorrekin konbinazioan LoVo eta HCT-116 ondesteko minbizi zelulen ugaritzean duen eragina neurtzeko hainbat esperimentu egin ziren. Esperimentu horietan hainbat arazo esperimental gertatu ziren eta ezin izan zen datu nahikorik lortu. Ildo horretan, Inouek eta lankideek (2021) ere ondesteko minbizi zeluletan selinexor/AZD-6738 konbinazioa frogatu dute, eta orain gutxi argitaratutako emaitzen arabera, selinexor eta AZD-6738 farmakoek efektu sinergistikoa dute ondesteko minbizi zeluletan. Aurkikuntza horrek, tesi honetan egindako analisi bioinformatikoaren oinarria sendoa dela erakusten du.

The targeting construct was linearized using AscI prior to electroporation into embryonic stem (ES) cells. After selection with G418 antibiotic, surviving clones were expanded for PCR analysis to identify recombinant ES clones. Secondary confirmation of positive clones identified by PCR was performed by Southern blotting analysis. DNA was digested with XbaI (external long arm) or EcoRV (internal short arm), and electrophoretically separated on a 0.8% agarose gel. After transfer to a nylon membrane, the digested DNA was hybridized with a probe targeted against the 5′ external region. DNA from a normal C57BL/6 (B6) mouse was used as WT control. Positive C57BL/6 FLP ES cells were expanded and microinjected into BALB/c blastocysts. Resulting chimeras with a high percentage black coat color were mated to C57BL/6J mice (The Jackson Laboratory) to remove the FLP transgene, and subsequently to *CD19*-Cre or *CAG*-CreERT transgenic mice. Mice were backcrossed for six generations to C57BL/6 mice, and tamoxifen was administered to 6-week-old mice at 12 μg/g intraperitoneally every other day for 3 doses (as previously described; ref. 49). The XPO1^{E571K} mice are available at The Jackson Laboratory as Stock No. 033957.

Genotyping of Xpo1$^{E571K/WT}$ Conditional Knock-in Mice

Tail DNA samples from positive mice were amplified by PCR using the LOX1 and SDL2 primers. This reaction amplifies a WT product 409 bp in size. The presence of a second PCR product 62 bp greater than the WT product indicates a positive *LoxP* PCR. After a 2-minute hot start at 94°C, the samples were run using the following conditions for 30 cycles: 94°C for 30 seconds, followed by 55°C for 30 seconds, and 72°C for 1 minute. The PCR product was run on a 2% gel with a 100 bp ladder as reference.

Primers for PCR screening:

Forward oligo:

LOX1: 5′-TGG CTA AAC CAG AGG AGG TAC TG-3′

Reverse oligo:

SDL2: 5′-ATG GAG CCT ATT GCC CAA CAC AAC-3′

Cell Lines

NALM-6 cells engineered to express *XPO1*$^{E571K/WT}$ from the endogenous locus were generated by Horizon Discovery using recombinant adeno-associated virus-mediated homologous recombination and cultured in RPMI medium with 10% FCS. MEC1 cells were purchased from DSMZ. SUDHL-5, SUDHL-6, SUDHL-16, L428, and SUP-HD1 cells were a generous gift from Dr. Laura Pasqualucci. All cell lines were tested for *Mycoplasma* with the MycoAlert Mycoplasma Detection Kit (Lonsa) at time of receipt and before preparing stock aliquots for storage in liquid nitrogen. Cells were thawed and passaged no more than 10 times for all experiments performed. Validation of the *XPO1*^{E571K} mutation was performed by next-generation targeted capture sequencing, and serial routine testing was performed by PCR and Sanger sequencing.

Primary Patient Samples

Studies were approved by the Institutional Review Board of MSK and conducted in accordance to the Declaration of Helsinki protocol. We obtained written informed consent from patients before primary

Published OnlineFirst July 8, 2019; DOI: 10.1158/2159-8290.CD-19-0298

human deidentified CLL samples derived from whole peripheral blood or BM mononuclear cells were utilized.

Statistical Analysis

All data are presented as mean ± SD, unless otherwise stated. The replicate for each experiment is stated in the figure legend or indicated in the figure. Statistical significance was determined by a two-sided Student *t* test, and a *P* value of <0.05 was considered statistically significant. For non–normally distributed data, a nonparametric test (Kruskal–Wallis) was used, followed by multiple group comparisons using FDR. For the Kaplan–Meier survival analysis, a Mantel–Cox log-ranked test was used to determine statistical significance. For offspring frequency analysis, a χ^2 test was performed to test the difference between observed and expected frequencies from different genotypes. No blinding or randomization was used. Unless otherwise noted, all immunoblot quantitation and immunofluorescence image quantitation were representative of at least three biological replicates from independent experiments. Data were plotted using GraphPad Prism 7 software.

Disclosure of Potential Conflicts of Interest

A.R. Mato reports receiving commercial research grants from Celgene, Janssen, AstraZeneca, and AbbVie, and is a consultant/advisory board member for TG Therapeutics, Pharmacyclics, AstraZeneca, Loxo, Sunesis, Prime Oncolgy, Pfizer, and AbbVie. A. Dogan is a consultant/advisory board member for Roche, Novartis, Seattle Genetics, Celgene, PER, and Corvus. D. Wang is a member of the Adjunct Faculty at the Medical College of Wisconsin and Fujian Normal University. R.C. Hendrickson has ownership interest (including stock, patents, etc.) in Merck. O. Abdel-Wahab reports receiving commercial research support from H3 Biomedicine Inc., has received honoraria from the speakers bureau of Foundation Medicine Inc., and is a consultant/advisory board member for Foundation Medicine Inc., H3 Biomedicine Inc., Janssen, and Merck. No potential conflicts of interest were disclosed by the other authors.

Authors' Contributions

Conception and design: J. Taylor, D. Wang, B.S. Taylor, O. Abdel-Wahab
Development of methodology: J. Taylor, M. Sendino, C. Stewart, R.C. Hendrickson, G. Prieto, J.A. Rodriguez
Acquisition of data (provided animals, acquired and managed patients, provided facilities, etc.): J. Taylor, M.T. Chang, C. Stewart, E.M. Melnik, F. Herrejon Chavez, L. Bitner, A. Yoshimi, S.C.-W. Lee, D. Inoue, B. Liu, X.J. Zhang, A.R. Mato, Y. Chen, R.K. Soni, R.C. Hendrickson, B.S. Taylor
Analysis and interpretation of data (e.g., statistical analysis, biostatistics, computational analysis): J. Taylor, A.N. Gorelick, A. Pastore, M.T. Chang, A.V. Penson, E.I. Gavrila, C. Stewart, A. Yoshimi, X.J. Zhang, A. Dogan, R.K. Soni, G. Prieto, B.S. Taylor, O. Abdel-Wahab
Writing, review, and/or revision of the manuscript: J. Taylor, E.I. Gavrila, A. Yoshimi, S.C.-W. Lee, A.R. Mato, A. Dogan, D. Wang, R.K. Soni, G. Prieto, B.S. Taylor, O. Abdel-Wahab
Administrative, technical, or material support (i.e., reporting or organizing data, constructing databases): X.J. Zhang, O. Abdel-Wahab
Study supervision: M.G. Kharas, O. Abdel-Wahab

Acknowledgments

J. Taylor is supported by the Conquer Cancer Foundation of the American Society of Clinical Oncology, the American Association for Cancer Research, the American Society of Hematology (ASH), the Robert Wood Johnson Foundation, and the NIH/NCI (1K08CA230319-01). C. Stewart is supported by an ASH HONORS award. A. Yoshimi is supported by grants from the Aplastic Anemia and MDS International Foundation and the Lauri Strauss Leukemia Foundation. A. Yoshimi, S.C.-W. Lee, D. Inoue, and O. Abdel-Wahab are supported by the Leukemia and Lymphoma Society. S.C.-W. Lee is supported by the NIH/NCI (K99 CA218896), the ASH Scholar Award, and the EvansMDS Young Investigator Award. B.S. Taylor is supported by grants from NIH/NCI (R01 CA207244, R01 CA204749, U54 OD020355), the American Cancer Society (RSG-15-067-01-TBG), the Anna Fuller Fund, and the Robertson Foundation. D. Wang is supported by grants from the NIH/NIAID (AI079087) and NIH/NHLBI (R01 HL130724). M. Sendino and J.A. Rodriguez are supported by grants from the Spanish Government MINECO-FEDER (SAF2014-57743-R), the Basque Country Government (IT634-13 grant and a predoctoral fellowship) and the University of the Basque Country (UFI11/20). O. Abdel-Wahab is supported by grants from NIH/NHLBI (R01 HL128239) and NIH/NCI (1 R01 CA201247-01A1), an MSKCC Steven Greenberg Lymphoma Research Award, the Geoffrey Beene Research Center of MSKCC, and the Pershing Square Sohn Cancer Research Alliance. This work was also supported by P30 CA008748. Research supported AACR-Conquer Cancer Foundation of ASCO Young Investigator Award for Translational Cancer Research. Editorial support in the preparation of this manuscript was provided by Hannah Rice, ELS.

Received March 11, 2019; revised June 20, 2019; accepted July 1, 2019; published first July 8, 2019.

REFERENCES

1. Stade K, Ford CS, Guthrie C, Weis K. Exportin 1 (Crm1p) is an essential nuclear export factor. Cell 1997;90:1041–50.
2. Fukuda M, Asano S, Nakamura T, Adachi M, Yoshida M, Yanagida M, et al. CRM1 is responsible for intracellular transport mediated by the nuclear export signal. Nature 1997;390:308–11.
3. Ossareh-Nazari B, Bachelerie F, Dargemont C. Evidence for a role of CRM1 in signal-mediated nuclear protein export. Science 1997;278:141–4.
4. Jeyasekharan AD, Liu Y, Hattori H, Pisupati V, Jonsdottir AB, Rajendra E, et al. A cancer-associated BRCA2 mutation reveals masked nuclear export signals controlling localization. Nat Struct Mol Biol 2013;20:1191–8.
5. Pauty J, Couturier AM, Rodrigue A, Caron MC, Coulombe Y, Dellaire G, et al. Cancer-causing mutations in the tumor suppressor PALB2 reveal a novel cancer mechanism using a hidden nuclear export signal in the WD40 repeat motif. Nucleic Acids Res 2017;45:2644–57.
6. Nakagawa M, Kameoka Y, Suzuki R. Nucleophosmin in acute myelogenous leukemia. N Engl J Med 2005;352:1819–20.
7. Mariano AR, Colombo E, Luzi L, Martinelli P, Volorio S, Bernard L, et al. Cytoplasmic localization of NPM in myeloid leukemias is dictated by gain-of-function mutations that create a functional nuclear export signal. Oncogene 2006;25:4376–80.
8. Stommel JM, Marchenko ND, Jimenez GS, Moll UM, Hope TJ, Wahl GM. A leucine-rich nuclear export signal in the p53 tetramerization domain: regulation of subcellular localization and p53 activity by NES masking. EMBO J 1999;18:1660–72.
9. Falini B, Mecucci C, Tiacci E, Alcalay M, Rosati R, Pasqualucci L, et al. Cytoplasmic nucleophosmin in acute myelogenous leukemia with a normal karyotype. N Engl J Med 2005;352:254–66.
10. Brunetti L, Gundry MC, Sorcini D, Guzman AG, Huang YH, Ramabadran R, et al. Mutant NPM1 maintains the leukemic state through HOX expression. Cancer Cell 2018;34:499–512e9.
11. Rodriguez JA, Henderson BR. Identification of a functional nuclear export sequence in BRCA1. J Biol Chem 2000;275:38589–96.
12. Lee S, Neumann M, Stearman R, Stauber R, Pause A, Pavlakis GN, et al. Transcription-dependent nuclear-cytoplasmic trafficking is required for the function of the von Hippel-Lindau tumor suppressor protein. Mol Cell Biol 1999;19:1486–97.
13. Kojima K, Kornblau SM, Ruvolo V, Dilip A, Duvvuri S, Davis RE, et al. Prognostic impact and targeting of CRM1 in acute myeloid leukemia. Blood 2013;121:4166–74.

Published OnlineFirst July 8, 2019; DOI: 10.1158/2159-8290.CD-19-0298

14. Schmidt J, Braggio E, Kortuem KM, Egan JB, Zhu YX, Xin CS, et al. Genome-wide studies in multiple myeloma identify XPO1/CRM1 as a critical target validated using the selective nuclear export inhibitor KPT-276. Leukemia 2013;27:2357–65.
15. Akagi I, Okayama H, Schetter AJ, Robles AI, Kohno T, Bowman ED, et al. Combination of protein coding and noncoding gene expression as a robust prognostic classifier in stage I lung adenocarcinoma. Cancer Res 2013;73:3821–32.
16. Walker CJ, Oaks JJ, Santhanam R, Neviani P, Harb JG, Ferenchak G, et al. Preclinical and clinical efficacy of XPO1/CRM1 inhibition by the karyopherin inhibitor KPT-330 in Ph+ leukemias. Blood 2013;122:3034–44.
17. Abdul Razak AR, Mau-Soerensen M, Gabrail NY, Gerecitano JF, Shields AF, Unger TJ, et al. First-in-class, first-in-human phase I study of selinexor, a selective inhibitor of nuclear export, in patients with advanced solid tumors. J Clin Oncol 2016;34:4142–50.
18. Gounder MM, Zer A, Tap WD, Salah S, Dickson MA, Gupta AA, et al. Phase IB study of selinexor, a first-in-class inhibitor of nuclear export, in patients with advanced refractory bone or soft tissue sarcoma. J Clin Oncol 2016;34:3166–74.
19. Alexander TB, Lacayo NJ, Choi JK, Ribeiro RC, Pui CH, Rubnitz JE. Phase I study of selinexor, a selective inhibitor of nuclear export, in combination with fludarabine and cytarabine, in pediatric relapsed or refractory acute leukemia. J Clin Oncol 2016;34:4094–101.
20. Garzon R, Savona M, Baz R, Andreeff M, Gabrail N, Gutierrez M, et al. A phase 1 clinical trial of single-agent selinexor in acute myeloid leukemia. Blood 2017;129:3165–74.
21. Kuruvilla J, Savona M, Baz R, Mau-Sorensen PM, Gabrail N, Garzon R, et al. Selective inhibition of nuclear export with selinexor in patients with non-Hodgkin lymphoma. Blood 2017;129: 3175–83.
22. Puente XS, Pinyol M, Quesada V, Conde L, Ordonez GR, Villamor N, et al. Whole-genome sequencing identifies recurrent mutations in chronic lymphocytic leukaemia. Nature 2011;475:101–5.
23. Landau DA, Carter SL, Stojanov P, McKenna A, Stevenson K, Lawrence MS, et al. Evolution and impact of subclonal mutations in chronic lymphocytic leukemia. Cell 2013;152:714–26.
24. Camus V, Stamatoullas A, Mareschal S, Viailly PJ, Sarafan-Vasseur N, Bohers E, et al. Detection and prognostic value of recurrent exportin 1 mutations in tumor and cell-free circulating DNA of patients with classical Hodgkin lymphoma. Haematologica 2016;101: 1094–101.
25. Lin DC, Hao JJ, Nagata Y, Xu L, Shang L, Meng X, et al. Genomic and molecular characterization of esophageal squamous cell carcinoma. Nat Genet 2014;46:467–73.
26. Chang MT, Asthana S, Gao SP, Lee BH, Chapman JS, Kandoth C, et al. Identifying recurrent mutations in cancer reveals widespread lineage diversity and mutational specificity. Nat Biotechnol 2016;34: 155–63.
27. Chang MT, Bhattarai TS, Schram AM, Bielski CM, Donoghue MTA, Jonsson P, et al. Accelerating discovery of functional mutant alleles in cancer. Cancer Discov 2018;8:174–83.
28. Hurwitz R, Hozier J, LeBien T, Minowada J, Gajl-Peczalska K, Kubonishi I, et al. Characterization of a leukemic cell line of the pre-B phenotype. Int J Cancer 1979;23:174–80.
29. Wang T, Birsoy K, Hughes NW, Krupczak KM, Post Y, Wei JJ, et al. Identification and characterization of essential genes in the human genome. Science 2015;350:1096–101.
30. Blomen VA, Majek P, Jae LT, Bigenzahn JW, Nieuwenhuis J, Staring J, et al. Gene essentiality and synthetic lethality in haploid human cells. Science 2015;350:1092–6.
31. Adams JM, Harris AW, Pinkert CA, Corcoran LM, Alexander WS, Cory S, et al. The c-myc oncogene driven by immunoglobulin enhancers induces lymphoid malignancy in transgenic mice. Nature 1985;318:533–8.
32. Ogilvy S, Metcalf D, Print CG, Bath ML, Harris AW, Adams JM. Constitutive Bcl-2 expression throughout the hematopoietic compartment affects multiple lineages and enhances progenitor cell survival. Proc Natl Acad Sci U S A 1999;96:14943–8.
33. Durham BH, Getta B, Dietrich S, Taylor J, Won H, Bogenberger JM, et al. Genomic analysis of hairy cell leukemia identifies novel recurrent genetic alterations. Blood 2017;130:1644–8.
34. Fornerod M, Ohno M, Yoshida M, Mattaj IW. CRM1 is an export receptor for leucine-rich nuclear export signals. Cell 1997;90:1051–60.
35. Monecke T, Guttler T, Neumann P, Dickmanns A, Gorlich D, Ficner R. Crystal structure of the nuclear export receptor CRM1 in complex with Snurportin1 and RanGTP. Science 2009;324:1087–91.
36. Dong X, Biswas A, Suel KE, Jackson LK, Martinez R, Gu H, et al. Structural basis for leucine-rich nuclear export signal recognition by CRM1. Nature 2009;458:1136–41.
37. Guttler T, Madl T, Neumann P, Deichsel D, Corsini L, Monecke T, et al. NES consensus redefined by structures of PKI-type and Rev-type nuclear export signals bound to CRM1. Nat Struct Mol Biol 2010;17:1367–76.
38. Fung HY, Fu SC, Chook YM. Nuclear export receptor CRM1 recognizes diverse conformations in nuclear export signals. Elife 2017;6.
39. Prieto G, Fullaondo A, Rodriguez JA. Prediction of nuclear export signals using weighted regular expressions (Wregex). Bioinformatics 2014;30:1220–7.
40. Garcia-Santisteban I, Arregi I, Alonso-Marino M, Urbaneja MA, Garcia-Vallejo JJ, Banuelos S, et al. A cellular reporter to evaluate CRM1 nuclear export activity: functional analysis of the cancer-related mutant E571K. Cell Mol Life Sci 2016;73:4685–99.
41. Henderson BR, Eleftheriou A. A comparison of the activity, sequence specificity, and CRM1-dependence of different nuclear export signals. Exp Cell Res 2000;256:213–24.
42. Hu B, Patel KP, Chen HC, Wang X, Wang F, Luthra R, et al. Routine sequencing in CLL has prognostic implications and provides new insight into pathogenesis and targeted treatments. Br J Haematol 2019; 185:852–64.
43. Thakar K, Karaca S, Port SA, Urlaub H, Kehlenbach RH. Identification of CRM1-dependent nuclear export cargos using quantitative mass spectrometry. Mol Cell Proteomics: MCP 2013;12:664–78.
44. Kirli K, Karaca S, Dehne HJ, Samwer M, Pan KT, Lenz C, et al. A deep proteomics perspective on CRM1-mediated nuclear export and nucleocytoplasmic partitioning. Elife 2015;4.
45. Wuhr M, Guttler T, Peshkin L, McAlister GC, Sonnett M, Ishihara K, et al. The nuclear proteome of a vertebrate. Curr Biol 2015;25:2663–71.
46. Bahlis NJ, Sutherland H, White D, Sebag M, Lentzsch S, Kotb R, et al. Selinexor plus low-dose bortezomib and dexamethasone for patients with relapsed or refractory multiple myeloma. Blood 2018;132:2546–54.
47. Kuhn R, Schwenk F, Aguet M, Rajewsky K. Inducible gene targeting in mice. Science 1995;269:1427–9.
48. Hayashi S, McMahon AP. Efficient recombination in diverse tissues by a tamoxifen-inducible form of Cre: a tool for temporally regulated gene activation/inactivation in the mouse. Dev Biol 2002;244:305–18.
49. Moran-Crusio K, Reavie L, Shih A, Abdel-Wahab O, Ndiaye-Lobry D, Lobry C, et al. Tet2 loss leads to increased hematopoietic stem cell self-renewal and myeloid transformation. Cancer Cell 2011;20:11–24.
50. Kudo N, Matsumori N, Taoka H, Fujiwara D, Schreiner EP, Wolff B, et al. Leptomycin B inactivates CRM1/exportin 1 by covalent modification at a cysteine residue in the central conserved region. Proc Natl Acad Sci U S A 1999;96:9112–7.

Ekaia, 2020, 37, 221-239
https://doi.org/10.1387/ekaia.20861

ekaia
ZIENTZIA eta TEKNOLOGIA ALDIZKARIA

ISSN 0214-9001 – eISSN 2444-3255

XPO1en bidezko garraio nukleozitoplasmikoa: oinarrizko mekanismoak eta hurbilketa esperimentalak

(XPO1-mediated nucleocytoplasmic transport: basic mechanisms and experimental approaches)

Maria Sendino[1], *Anne Olazabal-Herrero*[1,2], *Jose Antonio Rodriguez*[1], *Miren Josu Omaetxebarria*[3]*

[1] Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila (UPV/EHU)
[2] Department of Pediatrics-Hematology/Oncology. Yale University School of Medicine
[3] Biokimika eta Biologia Molekularra Saila (UPV/EHU)

LABURPENA: Zelula eukariotoen nukleoa inguratzen duen mintzak zelularen bi konpartimentu nagusien (nukleoaren eta zitoplasmaren) arteko banaketa fisikoa ezartzen du. Bi konpartimentu horien arteko komunikazioa, etengabea izateaz gain, ezinbestekoa da zelularen homeostasia mantentzeko. Komunikazio hori, nukleoaren mintzean zehar noranzko bietan izaten den molekula-mugikortasunak egikaritzen du. Komunikazio horretan funtsezkoa den proteina bat dugu mintzagai honako artikuluan: XPO1 izeneko proteina, alegia. Nukleotik zitoplasmarako garraioan jarduten duen esportazio-hartzaile nagusia da XPO1, eta ehunka proteina eta zenbait RNA molekula esportatzen ditu. Artikulu honetan, garraio nukleozitoplasmikoaren mekanismo molekularrak deskribatzeaz gain, XPO1 esportazio-hartzailean zentratu gara, eta haren funtzioa aztertzeko erabili ohi diren hurbilketa esperimentalak jaso ditugu. Azken horien adibide gisa, berriki deskribatutako USP12/WDR20 konplexuaren kasua [1] aztertu dugu.

HITZ GAKOAK: garraio nukleozitoplasmikoa, XPO1, NES, WDR20, USP12.

ABSTRACT: *The nuclear envelope, a double membrane that encloses the nucleus of eukaryotic cells, establishes a physical separation between the two main cellular compartments: the nucleus and the cytoplasm. Continuous communication between these compartments is crucial for the maintenance of cellular homeostasis. This communication relies on the bidirectional transport of macromolecules across the nuclear envelope. We focus here on a protein, called XPO1, which plays a key role in nucleocytoplasmic transport. XPO1 is the main receptor that mediates the export of hundreds of proteins and several RNA molecules from the nucleus to the cytoplasm. In this article we first review the molecular mechanisms that underlie nucleocytoplasmic transport. Next, we focus on XPO1 to describe some of the experimental approaches that are frequently applied to investigate its function. Finally, we illustrate the use of these approaches using the recently described case of the USP12/WDR20 complex [1] as an example.*

KEYWORDS: nucleocytoplasmic transport, XPO1, NES, WDR20, USP12.

**** Harremanetan jartzeko / Corresponding author:*** Miren Josu Omaetxebarria, Biokimika eta Biologia Molekularra Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Sarriena auzoa zg, 48940, Leioa, Bizkaia, Euskal Herria. – mirenjosu.omaetxebarria@ehu.eus – https://orcid.org/0000- .

Nola aipatu / How to cite: Sendino, Maria; Olazabal-Herrero, Anne; Rodriguez, Jose Antonio; Omaetxebarria, Miren Josu (2020). «XPO1en bidezko garraio nukleozitoplasmikoa: oinarrizko mekanismoak eta hurbilketa esperimentalak»; *Ekaia*, 37, 2020, 221-239. (https://doi.org/10.1387/ekaia.20861).

Jasoa: 25 maiatza, 2019; Onartua: 27 abuztua, 2019.

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2020 UPV/EHU

1. SARRERA

1.1. Molekulen nukleoaren eta zitoplasmaren arteko garraioa

Zelula eukariotoen nukleoan zeharreko molekula-garraioa nukleoaren mintzean mihiztatuta dauden kanal batzuetan zehar gertatzen da: nukleoko poro-konplexu deritze kanal horiei (*nuclear pore complexes, NPC*). Tamaina txikiko molekulek, horien artean <30 kDa-eko proteinek ere, NPCetan zehar difusioz zeharkatu ohi dute mintza; alabaina, proteina gehientsuenak (baita oso handiak diren proteina-konplexuak ere) garraio-hartzaileei lotzen zaizkie garraia ditzaten [2, 3]. Energiaren mendeko prozesu aktiboa da proteina gehienak nukleoaren mintzean zehar garraiatzea, eta lan horretan garraio-makineria espezializatuak dihardu. Makineria horrek hiru pieza nagusi ditu: (1) NPCak, (2) garraio-hartzaile disolbagarriak, zeintzuek garraiatuko dituzten kargo-proteinen seinale espezifikoak ezagutuko baitituzte, eta (3) mintz nuklearraren alde bien arteko Ran GTPasa txikiaren gradientea, zeinak garraioaren noranzkoa zehaztuko duen [4-6] (1. irudia).



1. irudia. Nukleoko poro-konplexuetan (NPC) zeharreko proteina-garraio nukleozitoplasmikoa. Proteina txikiak (<30 kDa) nukleoaren eta zitoplasmaren artean difusioz mugi daitezke NPCetan zehar. Proteina handiagoek, berriz, garraio- (inportazio- edo esportazio-) hartzaileen beharra dute konpartimentu batetik bestera mugitu ahal izateko. RanGTP/RanGDP gradienteak (RanGTP-kontzentrazio handia nukleoan, eta RanGDP-kontzentrazio handia zitoplasman) garraioaren noranzkoa finkatzen du.

NPCak 30 proteina biltzen dituen nukleoporina familiako zenbait kidez osaturiko konplexuak dira. Konplexu horien ezaugarri fisiko-kimikoei esker, tamaina jakin batetik gorako proteinak ezin dira era askean mugitu nukleotik zitoplasmara edo zitoplasmatik nukleora [2, 4]. Proteina handi horiek garraio-hartzaileei lotuko zaizkie, eta nukleoporinekiko interakzio bidez, NPCa zeharkatuko dute [7].



2. irudia. Garraio nukleozitoplasmikoaren mekanismo eta seinale nagusiak. A) Inportinen bidezko inportazioa: α-inportina/β-inportina (αInp/βInp) heterodimeroak NLS motako seinalea duten kargo-proteinak zitoplasman ezagutu eta nukleoko poroetan zehar nukleora garraiatzen ditu. Inportina/NLS-kargo konplexuak, behin nukleoan dagoenean, RanGTP-arekiko interakzioan jarduten du, eta eta inportazio-koplexua desmuntatzen da. B) XPO1en bidezko esportazio-kargoen garraioa: XPO1 hartzaileak NESa duten esportazio-kargoak ezagutzen ditu eta RanGTP-arekiko elkarrekintzaz esportatuko den konplexua eratzen da. Konplexu hori, zitoplasmara heltzean, GTParen hidrolisia dela medio desmuntatu, eta XPO1 hartzailea zein esportazio-kargoa askatuko dira. C) Garraio nukleozitoplasmikorako seinale nagusiak: NLS (*Nuclear Localization Signal*) seinale klasikoak bi motatakoak izan daitezke; aminoazido basikozko (urdinez markaturik) errenkada bakarraz osatuak, SV40 T antigeno luzea kasu, edo aminoazido basikozko (urdinez markaturik) errenkada biz osatuak, nukleoplasminarena kasu. Bestetik, XPO1 hartzaileak ezagutu eta lotzen dituen NES (*Nuclear Export Signals*) seinaleak adostasun-sekuentzia batekin bat datoz, zeinean aminoazido hidrofobikoek (ϕ bezala adierazita) posizio jakina betetzen duten errenkadan. Adibide moduan, PKI proteinaren NES seinalea erakusten da.

20 garraio-hartzaile inguru kodetzen ditu giza genomak [8]; horietako zenbaitzuek kargoak mintz nuklearrean zehar noranzko bietan garraia baditzakete ere, gehientsuenak nukleoranzko hartzaile gisa (inportinak) ala nukleotiko hartzaile gisa (esportinak) aritzen dira esklusiboki (2A eta 2B irudiak). Hartzaileok garraiorako seinaleak diren kargo-proteinen pepti-

do-sekuentzia espezifikoak ezagutu eta lotzen dituzte. Seinale horiek bitarikoak izan daitezke: nukleora lokalizatzeko seinaleak, inportinek ezagutzen dituztenak, NLSak (*nuclear localization signal*), eta nukleotik esportatzeko seinaleak, esportinek ezagutzen dituztenak, NESak (*nuclear export signal*). Inportaziorako ondoen karakterizatutako hartzailea α-inportina/β-inportina heterodimeroa da, zeinak NLS «klasikoa» (aminoazido basikozko errenkada batez edo biz osatutako peptido-sekuentzia) duten kargoak nukleorantz garraiatzea bideratzen baitu [9]. Esportinen artean, aldiz, XPO1 da karakterizatu zen lehena, eta baita gaur egun gehien ikertzen dena ere. XPO1ek arreta handia jaso du azken urteetan hainbat gaixotasunen garapenarekin lotura duelakoan. Argitalpen ugaritan adierazi da XPO1en jarduera desegokiak eragile gisara joka dezakeela zenbait minbiziren eta neuroendekapenezko gaixotasunen garapenean [10, 11]. XPO1ek «leuzinatan aberatsak» diren NESdun proteinen esportazioa bideratzen du. Leuzinatan aberatsak diren NES horietan aminoazido hidrofobikoek (leuzina da maiztasun handienean agertu ohi den aminoazidoa, baina isoleuzina, balina, fenilalanina zein metionina ere ager daitezke) «adostasun-sekuentzia» bat osatzen duen kokapen espezifikoa dute [12] (2C irudia). Aminoazidoen adostasun-sekuentzia horretaz gain, NESek konformazio jakina ere izan ohi dute: N muturrean, α helizearen egitura hartu ohi dute, eta C muturrean, berriz, begizta-erakoa [13]. Aipatzekoa da zenbait proteinek bi seinale motak (bai NLSa, bai NESa) dituztela eta, beraz, nukleotik zitoplasmara eta zitoplasmatik nukleora garraiatzen direla [14]. α/β-inportinak eta XPO1ek ehunka proteina desberdin garraiatuko dituzte; zitoplasmatik nukleora, lehenengoak, eta nukleotik zitoplasmara, bigarrenek.

Aipatutako garraio-makineria espezializatu horren azken pieza RanGTPasa txikia da. RanGTPasa GDPri (RanGDP) edo GTPri (RanGTP) lot dakioke garraio-hartzaile eta kargoen arteko elkarrekintza erregulatzeko [4, 5, 15]. RanGDP-aren kontzentrazioa zitoplasman da altua, eta RanGTP-aren kontzentrazioa, berriz, nukleoan da altua (1. irudia). Egoera fisiologikoetan, RanGDP/RanGTP gradiente hori mantentzen da nukleoaren eta zitoplasmaren artean. Gradiente hori Ran-en bi kofaktorek mantenaraziko dute: RanGAP1 (GTPasa aktibatzailea den proteina zitoplasmikoa) eta RCC1 (kromatinari lotutako nukleotidoak trukatzeko faktorea). Nukleoko RanGTPak, inportazio- zein esportazio- konplexuekin elkarreragiten du; batetik inportina/kargo konplexuen desmuntaketa bultzatzen du, horrela inportazio-kargoa nukleoan askatuz, eta bestetik XPO1 esportazio-hartzailearekin eta haren kargoekin bat eginez RanGTP/XPO1/kargo konplexu trimerikoa osatzen du, XPO1 eta haren kargoen arteko interakzioa egonkortzeko. Konplexu hori, zitoplasmara heldutakoan, RanGAP1ek GTPa hidrolizatzearekin batera desmuntatzen da, eta esportazio-kargoa zitoplasman askatzen. Beraz, RanGTP/RanGDP gradienteak, hartzaile/kargo interakzioei eraginez, nukleoaren mintzean zeharreko garraioaren noranzkoa zehaztuko du (2A eta 2B irudiak).

1.2. **XPO1en kargoen peskizan: hurbilketa esperimentalak**

XPO1 esportazio-hartzailearen balizko kargoak zer proteina izan daitezkeen mugatzeko eta kargoak diren horien NESak zehazteko, askotariko prozedurez baliatu gara (3. irudia).



3. irudia. NES seinaleen karakterizaziorako pausoen hurrenkera. 1. Ikergai den proteina (balizko kargoa) gainadierazi eta zelulak leptomizina B-z (LMB) tratatzen dira XPO1ek proteina hori esportatzen duenetz aztertzeko. Behin XPO1ek esportatzen duela ebatzita, proteina horren delezio-mutanteak sortu, eta horiek zelulan hartzen duten kokapena azter daiteke, eta, honela, NES seinalea egon daitekeen zonaldea mugatu. 2. Paraleloan, proteinaren sekuentzia Wregex edo LocNES bezalako NES-iragarleak erabiliz mapatzen da. Iragarle horiek erakusten dute NES seinalea non koka daitekeen proteinaren sekuentzian zehar. 3. Lehen bi pausoen ostean, NES-kandidatuak hautatzen dira, eta horiek Rev(1.4)-GFP bektorean klonatzen dira esportazio-entseguak egiteko [27]. 4. Behin esportazio-entseguan NES aktiboa dela ebatzita, NESa mutatu egiten da proteina osoaren testuinguruan. Identifikatutako NESak kargoaren esportazioa ezartzen badu, NESaren mutazioak kargoaren kokapena aldatzea espero dugu. Horrela, NESaren funtzionaltasun biologikoa berrets daiteke. [WT kargoa: *wild type* kargoa (mutatugabeko NESdun kargoa); MUT kargoa: mutatutako NESdun kargoa].

1.2.1. *Leptomizina B-k (LMB) eragindako XPO1en bidezko esportazioaren inhibizioa*

CRM1 (*chromosome region maintenance factor 1*) proteinak beste proteina batzuk nukleotik esportatzeko hartzaile-lanetan ere jarduten zuela ikusi zuten 1997an, eta, orduz geroztik, exportin 1 (XPO1) izena ere hartu du [16-19]. Garai hartan argitaratutako lanek XPO1 nukleotiko esporta-

zioa inhibitzen duen LMBren itua dela frogatu zuten. *Streptomyces* bakterioak ekoizten duen metabolitoa da LMB; izan ere, aurkitu zutenean, antifungiko eraginkorra zela ikusi zuten [20]. Urte batzuk geroago, baina, ikusi zen LMBk XPO1ek bideratutako nukleotiko-esportazioa oztopatzen zuela [21]. 2009an ezagutarazi zen kargoen NESek XPO1i lotzerakoan okupatzen zuten eskualdearen egitura; hori horrela, NESak XPO1en poltsiko hidrofobiko jakin batera lotzen zirela ondorioztatu zen [13]. Aurkikuntza horrekin batera, ezagutu zen, halaber, LMB ere poltsiko hidrofobiko berberera lotzen dela, eta, honela, LMBk, poltsikoa okupatuz gero, kargoen NESak lotzea eragozten du. Aurkikuntza horrek XPO1en kargoak identifikatzeko lanak asko erraztu ditu; izan ere, LMB erabilitakoan XPO1en zitoplasmako kargoak maiz nukleora birlokalizatzen direla ikusi da zeluletan egindako esperimentuetan. Prozedura horrek badu bestelako abantaila bat; izan ere, LMB, kargo endogenoen portaera aztertzeko baliagarria izateaz gain, ektopikoki gainadierazitako kargoen esportazioa ikertzeko ere aproposa da. Honela, kargo-errepertorio zabala aztertzeko aukera emateaz gain, kargoen sekuentzietan delezio iturratuak eginez, horien NESak mapatzeko ere balia dezakegu LMB tratamendua. Hurbilketa hori, baina, ezin da konstitutiboki nukleora lokalizatzen diren proteinen XPO1 bidezko esportazioa frogatzeko erabili. Kasu horietan, hartzailea ektopikoki gainadieraz daiteke NESdun nukleoko kargoak zitoplasmara esportatzea eraginez [22].

Alabaina, kargo-kandidatuak XPO1en benetako kargoak direla frogatzeko eta, era berean, kargoak diren horien NESak identifikatu eta zehazteko, LMBren erabileran oinarritutako esperimentuez gain, bestelako hurbilketa batzuk beharrezkoak dira. Azken urteetan ikerketa esperimentalarekin batera ezinbesteko bihurtu den bioinformatikaren ekarpena ere aipatzekoa da lan honetan.

1.2.2. *Analisi bioinformatikoa: NES-iragarleak*

Adierazi bezala, leuzinatan aberatsak diren esportazio-seinaleak, NESak, aminoazido-motibo laburrak dira, zeinek kargo-proteinak XPO1 esportazio-hartzaileari lotzea ahalbidetzen duten. NES seinaleak, baina, askotarikoak dira, eta, horiek aurresateko, erreminta informatiko eraginkorrak eskura izatea garrantzitsua da oso. Badira gaur egun eskuragai zenbait NES-iragarle: esaterako, ELM [23], NetNES [24], NESsential [25] edota gure taldeak garatutako Wregex izenekoa [26]. Azken honek kargo-kandidatuen fidagarritasunaren hurrenkera zehazten du, eta modu horretan, lehentasunak markatzen dira esperimentalki ikergai izango diren kargoen artean. Benetako kargoak izateko aukera handienak dituzten aurresandako kandidatuak esperimentalki aztertuko ditugu.



4. irudia. Esportazio-entseguaren nondik norakoak. A) Rev(1.4)-GFP plasmidoak kodetzen duen fusio-proteinaren irudi eskematikoa. Urdinez, Rev(1.4) proteina, non NES inaktiboa (grisez, gurutzea) eta NLS aktiboa (arrosaz) ageri diren. Berdez, GFP proteina. Plasmidoan, Rev(1.4) eta GFP kodetzen dituzten sekuentzien artean, BamHI eta AgeI murrizketa-lekuak daude, zeinak NES-kandidatua klonatzeko erabiliko diren. B) Esportazio-entseguan esperotako emaitzak: bektorea hutsik baldin badago kokapen nuklearra agertzen du; gauza bera gertatzen da klonatutako NES-kandidatua inaktiboa baldin bada. Aldiz, NES-kandidatua aktiboa bada, seinalea zitoplasman agertzen da [27]. ActD eta CHX erabilpenaren zehaztasunak *Material eta Metodoak* atalean daude deskribatuta.

1.2.3. *NES-kandidatuen gaineko esportazio-entseguak*

Henderson eta Eleftheriouk 2000. urtean garatu eta argitaratutako esportazio-entsegua da gure lan-fluxuan erabilitako prozedura baliagarrienetako bat [27]. Entsegu horretako pieza gakoa Rev(1.4)-GFP fusio-proteina da (4A irudia). Fusio-proteina horrek hiru zati ditu: (1) NESa mutatuta duen, hau da, esportatzen ez den GIB birusaren Rev proteina, Rev(1.4)

deritzona, (2) BamHI/AgeI murrizketa-lekuak, non ikergai diren NESak klona daitezkeen, eta (3) GFPa (*green fluorescent protein*). Rev(1.4)-GFP proteina, berez, hau da, hutsik, nukleoan kokatzen da; izan ere, Rev proteinak berezko NLS funtzional bat ere badu, zeinak proteina osoa nukleora inportatzea eragiten duen. Baina BamHI/AgeI arteko leku horretan NES-kandidatu aktibo bat sartuko bagenu, sortutako fusio-proteina berri hori zitoplasmara esportatuko litzateke, baldin eta Rev(1.4)-GFPk berezkoa duen NLSaren «indarra» gaindituko balu. Entseguaren emaitzaren arabera, beraz, NES-kandidatuak baieztatu edo baztertzen ditugu, eta NES aktiboen «indarra» ezagutzen dugu (4B irudia).

1.2.4. *NES aktiboen mutagenesi ituratua: funtzionaltasun biologikoaren berrespena*

Esportazio-entseguaren emaitzaren arabera aktibotzat ebatzi dugun NESa mutatu egingo dugu, honek XPO1en bidezko kargoaren garraioan izan dezakeen funtzionaltasuna berraztertu eta behar den kasuetan berresteko. Jatorrizko NES basatidun (*wild type*, WT) kargoa esportatu egingo litzateke, eta mutatutako NESdun kargoak, berriz, eragindako mutazioak direla eta, ezingo luke XPO1ekin elkarreragin eta, beraz, ezin izango litzateke nukleotik zitoplasmara esportatu. Modu honetan, lan-fluxu osoan zehar aktibotzat jo dugun NES-kandidatu jakin baten funtzionaltasuna berretsiko dugu, hala dagokionean.

LMBren erabilera aitzindaritik hasi eta osteko esportazio-entsegu eta eskala handiko proteomikako lanetaraino, hurbilketa guztien uztarketa ezinbestekoa da XPO1en kargoen errepertorioa (XPO1en «esportoma») osatuz joateko. Azken 15 urteetan, XPO1ek esportatutako 200 kargo inguru identifikatu dira modu fidagarrian [12] eta, berriki, masa espektrometriaren erabilerak XPO1en balizko kargoen bilduma 1.000 proteina baino gehiagotara zabaldu du [28].

1.3. **XPO1en kargoen peskizan: USP12/WDR20 konplexuaren kasua adibide**

Atarian adierazi legez, XPO1ek milaka proteinaren garraio nukleozitoplasmikoa bideratzen du eta, beraz, zelulan gertatzen diren prozesu ugariren erregulazioan gako da. Prozesu ugari horien artean, ubikuitinazio-bidezidorrak ditugu. Ubikuitinazioa itzulgarria den itzulpen osteko eraldaketa da, eta zeluletako proteina gehientsuenen egonkortasuna, funtzioa edota kokapena zuzentzen ditu. Deubikuitinasak (DUBak) ubikuitina-unitateak proteinetatik kentzen dituzten entzimak dira, eta funtsezko eginkizuna dute prozesu fisiologiko ugaritan [29]. Gure taldeak garraio nukleozitoplasmikoaren eta ubikuitinazioaren arteko lotura [30] ikertzen du. Esate baterako, 2012. urtean, DUB familiako zenbait kide-

ren NESak zehazteari ekin genion, eta horien funtzionaltasuna aztertu genuen [31].

100 giza DUB inguru daude 7 familiatan sailkatuta; familiarik handiena USP (*ubiquitin-specific proteases*) izenekoa da. Entzima-familia horretako kide batek, USP12 izenekoak, tumore ezabatzaile gisa jarduten duela ikusi da [32, 33]. Baina USP12k, berez, ez du aktibitate deubikuitinatzailerik, ez bada WDR20 eta UAF1 kofaktoreekin lotzen. Bi proteina horiek sinergistikoki jarduten dute, eta USP12ren aktibitate entzimatikoa handiagotzen. USP12k zelulen fisiologian duen garrantzia ezaguna bada ere, oraindik ez dago argi non, zein konpartimentutan kokatzen den zelulan, ezta aipaturiko bi kofaktoreek zer-nolako eragina izan dezaketen lokalizazio horretan, eraginik izatekotan. Kontu horrek eztabaidagai dirau gaur egun ere: ikerketa-lan batzuek USP12 gehienbat zitoplasmikoa dela diote [34-38], eta beste batzuek, aldiz, batez ere nuklearra dela [39, 40]. Argi dagoena da USP12 atzera eta aurrera mugitzen dela nukleoaren eta zitoplasmaren artean, eta mugimendu hori XPO1ek bideratzen duela [41, 40]. USP12aren NES bat deskribatu dute oraintsu Sanyal eta lankideek [40, 42]. Aurreko atalean azaldutako lan-fluxua erabilita, gure taldeak lortutako emaitzek iradokitzen dute deskribatutako NES hori ez dela modu argi eta nabarmenean esportaziorako seinale gisa aritzen. Bestalde, Kirli eta lankideek 2015. urtean zerrendatutako XPO1en HeLa zelulen mila kargo baino gehiagoren artean, WDR20 ageri da, USP12ren kofaktorea dena [28]. Hori guztia kontuan hartuta, guk honako hipotesia planteatzen dugu: USP12/WDR20 konplexuaren XPO1en bidezko esportazioa USP12k ez baizik WDR20k gidatu dezakeela. Gainera, hipotesi horrekin bat eginez, XPO1en menpekoa den USP12/WDR20 konplexuaren esportazioa bideratzen duen WDR20ren NES funtzional berri bat identifikatu dugu.

2. MATERIAL ETA METODOAK

2.1. Prozedura orokorrak: zelulen hazkuntza, transfekzioa eta mikroskopioan behatzeko laginen prestaketa

HeLa zelulak % 10 idi-umeki serodun (ingelesez *fetal bovine serum, FBS)* eta % 1 penizilina/estreptomizinadun DMEM (*Dulbecco's modified Eagle's medium*) medioan hazi ditugu (dena Invitrogen-ekoa) 37 °C-an, % 5eko CO_2-dun atmosferan. 24 ordu transfekzioa egin aurretik, zelulak 12 putzuko plaketan erein ditugu. Transfekzioak X-tremeGENE 9 transfekzio-agentea (Roche Diagnostics) erabiliz egin ditugu, fabrikatzailearen argibideei jarraituz.

Dagokien tratamendua jaso ostean, zelulak % 3,7 formaldehido PBStan fixatu ditugu 30 minutuz, eta DAPI-dun Vectashield muntaketa-medioa erabilita (Vector Laboratories), portetan muntatu ditugu.

1. pausoa. *Plasmidoen prestaketa, LMB tratamendua eta proteinen kokapenaren azterketa*

Gure intereseko proteinak diren USP12 eta WDR20 proteinen aurkako komertzialki eskuragarri dauden antigorputzak inespezifikoak izan ohi dira. Horrek arazo larria dakar, intereseko proteinez gain bestelako ituak ezagutu ditzaketelako antigorputzok. Hori horrela izanik, intereseko proteinak gainadierazteko helburuz, proteinok sustatzaile beraren pean klonatu ditugu YFP (*yellow fluorescent protein*) izeneko proteina fluoreszentearekin batera, pEYFP-C1 (Clontech) izeneko plasmidoan. Klonatutako intereseko proteina YFPrekin batera adierazten denez fusio-proteina gisara, adierazitako fluoreszentziaren behaketak intereseko proteinaren jarraipena egitea ahalbidetzen digu; hau da, zelulan non kokatzen den ikustea ahalbidetuko digu. Kasu honetan, USP12 eta WDR20 proteina basatien cDNA sekuentzien gBlock-ak (IDT) pEYFP-C1 plasmidoaren BamHI eta HindIII murrizketa-lekuen artean klonatu ditugu; ostean, HeLa zeluletan gainadierazi eta, fluoreszentzia-mikroskopioan aztertu dugu bi proteina horien kokapena. Prozedura berberari jarraitu diogu PCR bidez ekoitzitako WDR20ren delezio-mutanteak pEYFP-C1 plasmidoan klonatu eta gainadierazteko.

USP12, WDR20 eta azken honen delezio-mutanteen kokapena aztertzeko, transfekzioa egin eta 24 ordura HeLa zelulak 6 ng/ml LMB (Apollo Scientific) esportazio-inhibitzailez tratatu ditugu hiru orduz.

2. pausoa. *NES sekuentziaren iragarleen bidezko bilaketa*

WDR20 proteinaren NES seinalea aurresateko, Wregex (http://ehubio.ehu.eus/wregex) [26] erreminta bioinformatikoa erabili dugu.

3. pausoa. *Esportazio-entseguak eta entseguetan erabilitako plasmidoak*

pRev(1.4)-GFP bektorea (4A irudia) Beric Hendersonen (Westmead Institute for Cancer Research, University of Sydney, Australia) eskutik lortu dugu. USP12ren zein WDR20ren NESen cDNA-sekuentziak pRev(1.4)-GFP plasmidoaren BamHI eta AgeI murrizketa-lekuen artean klonatu ditugu. Klonatutako USP12 eta WDR20ren NES sekuentziak honakoak dira: ^{75}RKKESLLTCLADLFHSIAT^{93}, Rev(1.4)-NES^{USP12}-GFPren kasuan eta ^{450}MDGAIASGVSKFATLSLHD^{468}, Rev(1.4)-NES^{WDR20}-GFPren kasuan. Bai bi plasmido horiek eta bai kontrol negatibotzat hartuko dugun Rev(1.4)-GFP hutsa, HeLa zeluletan transfektatu ditugu. Hiru plasmidoetako bakoitza plakako bi putzu transfektatzeko erabili dugu. Zelulen transfekzioa egin eta 24 ordura, bi putzuetako bat 10 μg/ml zikloheximidaz (CHX; Sigma) tratatu dugu 3 orduz; besteari, berriz, 10 μg/ml CHX gehi 5 μg/ml aktimomizina D (ActD, Sigma) gehitu dizkiogu. Zikloheximida proteinen sintesia geldiarazten duen farmakoa da eta, beraz, horrekin tratatutako zeluletan, zitoplasman behatzen den seinale fluoreszentea

nukleotik zitoplasmara esportatu den GFP fusio-proteinaren seinalea da, eta ez zitoplasman sintetizatu berri den proteinarena. Bestetik, ActD farmakoak Rev(1.4) proteinaren NLSak gidatutako nukleoranzko inportazioa oztopatzen du eta, beraz, klonatutako NES ahulagoen aktibitatea ere sumatzea ahalbidetuko digu. Ikergai diren NESen aktibitatea zehazteko, bai kontrol negatiboarekin (Rev(1.4)-GFP hutsa) bai gure intereseko konstruktoekin (Rev(1.4)-NES^{USP12}-GFP ala Rev(1.4)-NES^{WDR20}-GFP) transfektatutako laginetako gutxienez 200 zelula zenbatu ditugu; 200 zelulen artean seinale zitoplasmikoa, seinale nuklearra ala seinale nukleozitoplasmikoa zein proportziotan behatu dugun kalkulatu dugu. Proportzio horien arabera, 0 eta 9ra arteko eskalan sailkatuko dugu aztertzen ari garen NESen aktibitatea edo indarra [27].

4. pausoa. *NESen mutagenesi ituratua*

Azkenik, NESek proteina osoaren testuinguruan duten eragina aztertzeko, proteina basatien (USP12 WT eta WDR20 WT) eta mutatutako NESak dituzten proteinen (USP12 NESmut eta WDR20 NESmut) portaera alderatu dugu. Mutatutako NESak dituzten proteinak ekoizteko, jatorrizko proteinak moldetzat hartu, eta mutagenesi ituratua egin dugu QuikChange Lighting Site-Directed Mutagenesis Kit-a (Stratagene) erabiliz. 1. pausoan USP12 eta WDR20 proteina basatietarako azaldutako prozedura berbera erabilita, YFP-USP12 NESmut eta YFP-WDR20 NESmut proteinek HeLa zeluletan duten kokapena aztertu dugu. Emaitzok proteina basatiekin lortutako emaitzekin alderatu ditugu.

3. EMAITZAK

3.1. USP12k eta WDR20k XPO1 hartzailearen mendeko garraioa jasaten dute

Lehenik eta behin, gainadierazitako USP12 deubikuitinasak eta haren kofaktorea den WDR20 proteinak zeluletan duten berezko kokapena aztertu dugu, eta bi proteinek kokapen zitoplasmikoa dutela ikusi dugu LMBrik gabeko (–LMB) laginetan. Alabaina, YFP-WDR20ren seinalea zitoplasmikoa da nabarmen, eta nukleoetan berriz, ezin beha daiteke seinalerik (6B irudia); YFP-USP12ren kasuan, aldiz, ahula bada ere, nukleoetan beha daiteke nolabaiteko seinalea (5A irudia). LMBren tratamenduaren mendeko (+LMB) XPO1en inhibizioak bi proteinen kokapenean eraginik duenetz ere aztertu dugu, eta bai YFP-WDR20ren kokapena bai YFP-USP12ren kokapena zitoplasmikoa izatetik nukleozitoplasmikoa izatera pasatu dela ikusi dugu; kasu bietan, nukleoetan behatzen den seinalea nabarmenagoa da –LMB laginetakoa baino (5A eta 6B irudiak). Hortaz, USP12 eta WDR20 proteinek XPO1 hartzailearen mendeko garraioa jasaten dute.

3.2. **Aurretiaz proposaturiko USP12ren NESa inaktiboa da**

USP12 proteinaren ^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91} aminoazido-errenkada XPO1en mendeko garraiorako NES gisa proposatu da oraintsu [40, 42]. Proposatutako NES hori ez dator guztiz bat leuzinatan aberatsak diren NESen adostasun-sekuentziarekin (2C irudia); horretaz gain, ustezko NESa berresteko esportazio-entsegurik ez dute burutu egileek. Gauzak horrela, Rev(1.4)-NES^{USP12}-GFP fusio-proteinak zelulan duen kokapena aztertu dugu esportazio-entseguetan [27].



5. irudia. USP12 proteinaren ustezko NES sekuentziaren analisia. A) YFP-USP12 proteina, HeLa zeluletan gainadierazia, LMBz tratatua (+LMB) eta tratatu gabea (–LMB). Tratatu gabeko laginean, batez ere kokapen zitoplasmikoa du YFP-USP12 proteinak; tratatuta, aldiz, kokapen nuklearra eta zitoplasmikoa hartzen du. B) HeLa zeluletan eginiko esportazio-entseguaren irudiak: antzeko kokapena agertzen dute Rev(1.4)-GFP kontrol negatiboak eta USP12 proteinan deskribatutako NESa kodetzen duen plasmidoak (Rev(1.4)-NES^{USP12}-GFP). Hau da, ustezko NES sekuentzia hori ez da NES funtzional bat. Saiook ActD gehituz (+ActD) ala gehitu gabe (–ActD) egin ziren. C) USP12 fusio-proteina basatiaren (WT) eta NES mutatua duen (NESmut) fusio-proteinaren adierazpen eskematikoa. Mutatutako NESaren sekuentzian, aldatutako aminoazidoak gorriz erakusten dira. D) YFP-USP12 WT eta YFP-USP12 NESmut gainadierazten dituzten HeLa zelulen irudi konfokalak: proteina basatiak zein mutanteak kokapen zitoplasmikoa agertzen dute. Prestakinetako zelula-nukleoak DAPI tindaketaren bidez behatu dira. (1. erreferentziatik hartutako eta moldatutako irudia, Elsevierren baimenarekin).

Esportazio-entseguan erabilitako Rev(1.4)-NES^{USP12}-GFP fusio-proteinak ez du Rev(1.4)-GFP kontrol negatiboak baino kokapen zitoplasmikoagoa agertzen, ezta ActD-ren presentzian ere (5B irudia). Beraz, esportazio-entsegu horren emaitzek iradokitzen dute 2016an proposaturiko ustezko NES sekuentzia hori ez dela NES funtzional bat.

Proposaturiko NESak aktibitaterik erakutsi ez arren, proteina osoaren testuinguruan izan dezakeen funtzionaltasun biologikoa aztertzeko, mutagenesi-esperimentua egin dugu. Horretarako, YFP-USP12 basatiaren (USP12 *WT*) ^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91} sekuentziatik aldatu ditugu leuzinatan aberatsak diren NESetan agertzen diren ohiko aminoazidoak; hortaz, NES mutatuaren (NESmut) sekuentzia honakoa da: ^{77}KES<u>AA</u>TC<u>A</u>AD<u>AA</u>HS<u>A</u>^{91} (5C irudia). Gainadierazitako YFP-USP12 WT eta YFP-USP12 NESmut proteinek zelulan zer kokapen duten aztertutakoan, ikusi dugu proteina biek kokapen zitoplasmikoa agertzen dutela (5D irudia). Beraz, USP12ren ^{77}KESLLTCLADLFHSI^{91} sekuentziak ez du proteinaren esportazioa gidatzen.

3.3. WDR20 proteinak haren kokapen nukleozitoplasmikoa gidatzen duen NES aktiboa du

Behin WDR20k XPO1en mendeko esportazioa jasaten duela egiaztatuta (6B irudia), haren NES seinalea zein den ikertu dugu. Ezaguna da NES seinale aktibo ohikoenek α helizearen erako egitura sekundarioa hartzen dutela amino-muturrean [13]. WDR20-USP12-UAF1 konplexua X izpien difrakzioa erabiliz aztertu bada ere [43], ez da α helizerik zehaztu WDR20 proteinaren kasuan. Alabaina, WDR20ren 394 eta 509 aminoazidoen arteko egitura zehaztea oraindik lortu ez denez [43], pentsatu genuen alde horretan α helizeren bat egon zitekeela eta, ondorioz, NESa izan zitekeen sekuentzia. Hortaz, YFP-WDR20ren hiru delezio-mutante egin ditugu; 1-390, 390-510 eta 510-569 aminoazidoen arteko zatiak direnak, hain zuzen ere (6A irudia). WDR20 proteina osoarekin egin bezala, zati horien kokapen zelularra ere zelulak LMBz tratatuz eta tratatu gabe aztertu dugu. YFP-WDR20(1-390) eta YFP-WDR20(510-569) zatiek kokapen nukleozitoplasmikoa hartzen dute, bai LMBz tratatutako laginetan bai tratatu gabeko laginetan. YFP-WDR20(390-510) zatiak, aldiz, proteina osoak zitoplasmatik nukleora jotzeko duen jokaera bera mantentzen du. Hau da, LMB tratamendurik gabe guztiz zitoplasmikoa da; LMBren presentzian, aldiz, kokapen nukleozitoplasmikoa hartzen du (6B irudia). Emaitza horrek WDR20 proteinaren NES seinalea 390 eta 510 aminoazidoen artean kokatuta dagoela ematen du aditzera.



LABURPENA: Nukleo eta zitoplasmaren arteko banaketa da zelula eukariotoen ezaugarririk bereizgarriena. Konpartimentuok fisikoki banaturik egon arren, elkarren arteko komunikazioa etengabea da, eta horretarako estuki erregulaturiko garraio-sistema dago, zeina zelularen homeostasia mantendu eta minbizia eta gisako gaixotasunak ekideiteko ezinbestekoa den. Garraio-sistema horretako pieza gakoa XPO1 esportina da, zeinak kargo deritzen proteina askoren nukleotik zitoplasmaranzko esportazioa egikaritzen duen. Esportina horren eta minbiziaren arteko lotura maiz aipatu izan da, eta badira XPO1 inhibitzen duten agente terapeutikoak. XPO1en inhibizioak bere kargoen banaketa azpizelularrean aldaketak eragingo dituela espero daiteke. Alabaina, XPO1en kargo asko ezagunak badira ere, haren kargo bilduma osoa ez da zehaztu oraindik, eta horrek XPO1 ikerketa proteomikoetarako kandidatu oso interesgarri bilakatzen du. Hori horrela, estrategia proteomiko berri bat diseinatu dugu, zeinean APEX2 peroxidasa erabiliz konpartimentu espezifikoko gertuko biotinilazioa burutu dugun XPO1en kargo berriak bilatzeko. Horretarako, APEX2 zitoplasma eta nukleora iturutu dugu eta, biotinilatutako proteinak afinitate-purifikazioz isolatu ostean, masa-espektrometriaz identifikatu ditugu. Lan honetan azaldutako kontzeptu-froga esperimentuaren emaitzek erakusten dute estrategia hori, XPO1en inhibizio espezifikoarekin konbinatuz, kargo berriak identifikatzeko baliagarria izan daitekeela. Hurbilketa berri honek beraz, kargo gehiagoren identifikazioa erraztearekin batera, XPO1en mendeko garraioan sakondu eta terapeutikoki erabiltzen diren XPO1en inhibitzaileek zelula mailan duten eragina argitzeko ere balio dezake.

HITZ GAKOAK: XPO1, CRM1, garraio nukleozitoplasmatikoa, gertuko biotinilazioa, MS/MS, kargoa.

ABSTRACT: *A major feature of eukaryotic cells is the separation between nucleus and cytoplasm. Although physically separated, these two compartments are in permanent communication through a transport system that must be precisely regulated to maintain cell homeostasis and avoid serious diseases, such as cancer. A crucial element in this transport system is the exportin XPO1, which exports many proteins (so-called cargoes) from the nucleus to cytoplasm. XPO1 alteration has been frequently associated with cancer and XPO1 is an important therapeutic target. The cellular effect of XPO1 inhibition is expected to be mediated by changes in the subcellular distribution of its cargoes. However, while many of XPO1 cargoes have been already identified, the complete set remains uncharacterized, making XPO1 a very interesting candidate for proteomic studies. Thus, we have designed a novel proteomics strategy, based on compartment-specific proximity biotinylation using the APEX2 peroxidase, to search for XPO1 cargos. To this end, we have targeted APEX2 to cytoplasm and nucleus, isolated the biotinylated proteins by affinity purification, and identified them by mass spectrometry. The results of a proof-of concept experiment reported here show that this strategy, combined with specific XPO1 inhibition, can lead to the identification of XPO1 cargoes. This novel approach, therefore, may advance our understanding of XPO1-dependent nuclear export by facilitating the identification of novel cargoes, and may also contribute to better characterize the cellular effect of therapeutically used XPO1 inhibitors.*

KEYWORDS: XPO1, CRM1, nucleocytoplasmic transport, proximity biotinylation, MS/MS, cargo.

**** Harremanetan jartzeko / Corresponding author:*** Jose Antonio Rodríguez. Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Leioa (UPV/EHU), Sarriena auzoa, zg (48940 Leioa). . – josean.rodriguez@ehu.es – https://orcid.org/0000-0002-2823-3733

Nola aipatu / How to cite: Sendino, Maria; Ramírez, Juanma; Mayor, Ugo; Prieto, Gorka; Omaetxebarria, Miren Josu; Rodríguez, Jose Antonio (2021). «Konpartimentu espezifikoko gertuko biotinilazioa: XPO1en esportazio-kargoak identifikatzeko hurbilketa berria». *Ekaia*, 41, 2021, 151-169. (https://doi.org/10.1387/ekaia.22591).

Jasotze-data: 2021, martxoak 11; Onartze-data: 2021, maiatzak 18.

ISSN 0214-9753 - eISSN 2444-3581 / © 2021 UPV/EHU

1. SARRERA

1.1. Proteinen garraio nukleozitoplasmatikoa: prozesua bera eta minbiziaren garapenarekin duen lotura

Zelula eukariotoek unean uneko beharrizanen arabera nukleo eta zitoplasmaren artean proteinak lekualdatzeko gai den garraio-sistema garatu dute. Proteinen nukleo eta zitoplasmaren arteko garraiorako bi hartzaile mota dira ezinbesteko: inportinak, kargo proteinak zitoplasmatik nukleora garraiatzen dituztenak, eta esportinak, kargoak nukleotik zitoplasmara garraiatzen dituztenak. Hartzaileok garraiatuko dituzten kargoen aminoazido segida laburrak diren seinale espezifikoak ezagutu eta lotuko dituzte: inportinek nukleora lokalizatzeko seinaleak (NLS), esportinek aldiz, nukleotik esportatzeko seinaleak (NES) [1].

Nukleo eta zitoplasmaren arteko garraio-sistema estuki erregulatuta egotea ezinbestekoa da zelulen homeostasia mantentzeko. Asaldurarik gertatuz gero, minbizia eta gisako gaixotasun larriak sor daitezke. Ikergai dugun XPO1 proteina (CRM1 izenaz ere ezaguna) nukleotik zitoplasmaranzko proteinen garraioan aritzen den esportina da [2-5]. Ikerketa proteomikoen bidez aurreikusi da XPO1ek mila proteina ingururen esportazioa eragiten duela, hau da, mila kargo inguru dituela [6]. XPO1en kargo ugari jada ezagunak badira ere, ez dugu oraindik XPO1en esportazio-kargo bilduma osoa, XPO1en esportoma, ezagutzen. XPO1ek minbiziarekin zerikusi estua ere badu: XPO1en gainadierazpena gaixoen prognosi okerrarekin erlazionatu da maiz [1-en berrikusia], eta XPO1en mutazio onkogenikoak ere aurkitu izan dira [7]. Horrek, XPO1 minbiziaren aurkako itu terapeutiko garrantzitsu bilakatu du [8], eta berriki, XPO1en inhibitzailea den selinexor farmakoak mieloma anizkoitza tratatzeko oniritzia jaso du [9]. Selinexor farmakoak XPO1 kargoen NESetara lotzea eragozten du. Hortaz, XPO1en inhibizioak zelula mailan duen eragin zehatza ezagutu ez arren, kargo askoren banaketa aldatuko duela aurreikus daiteke. Kargo horiek zein diren jakiteak minbiziaren aurkako terapien garapenean garrantzi handia izan dezake. Horregatik guztiagatik, XPO1 proteomikarako aztergai interesgarria da.

1.2. Proteomikaren bidezko XPO1en kargoen identifikazioa

Proteomikak sistema biologikoetako proteinak identifikatzea, kuantifikatzea eta proteinen arteko elkarrekintzak ezagutzea ahalbidetzen du [10]. Proteomikan oinarritutako XPO1en esportomaren karakterizaziorako ikerketak ere badira [6, 11]. Ikerketa horietan, XPO1en kargoak identifikatzeko proteomikan oso ohikoak diren bi prozedura erabili dira: zelulen frakzionamendua [11] eta afinitate-purifikazioa [6].

Aipatutako bi prozedurok emaitza onak ematen dituzten arren, mugak ere badituzte. Zelulen frakzionamenduan, esaterako, purutasun handiko

frakzioak lortzea zaila da. Afinitate-purifikazioari dagokionez, ohikoa da amua den proteinari estuki lotzen ez zaizkion proteinak prozeduran zehar galtzea [12]. Azken horrek badu zuzeneko eragina XPO1en esportoma aztertzerakoan, XPO1 eta bere kargoen arteko lotura oso ahula izan ohi baita [13]. Muga horiek buruan, hurbilketa berriak garatu dira azkenaldian proteomika arloan, hala nola proteinen gertuko biotinilazioa (PGB) [14]. PGB XPO1en esportomaren karakterizaziorako prozedura baliagarria denetz aztertzeko artikulu honetan deskribatutako kontzeptu-froga ikerketa osatu dugu.

1.3. **Proteinen gertuko biotinilazioa (PGB)**

PGB prozedura entzima markatzaileen erabileran oinarritzen da. Entzima horiek zelula barneko intereseko organulu edo konpartimentura ituratuko dira, eta substratu egokiaren presentzian, gertuko proteinei biotina gehituko die. PGB bidez biotinilatutako proteinak bestelako proteinetatik bereizteko, laginetako zelulak jaso, proteinak erauzi eta biotina marka duten proteinak abidinan oinarritutako afinitate-purifikazioaren bidez isolatuko dira. Biotinaz markatutako proteinetan aberastutako frakzioa tandem masa-espektrometriaz (MS/MS) analizatuko da bertako proteinak identifikatzeko (1. irudia). Egun, biotina-ligasak (BirA* esaterako) [14, 15] eta peroxidasak (APEX2, esaterako) [16-18] dira entzima markatzaile erabilienak [12 eta 19-n berrikusia]. BirA* entzimak mediora gehitutako biotina substratutzat hartu, eta gertuko proteinak biotinilatzen ditu 15-24 orduko epean [20]. APEX2 peroxidasaren kasuan, zelulek 30 minutuz mediora gehitutako biotin-fenola barneratuko dute, jarraian APEX2a H_2O_2-arekin aktibatu eta minutu bakar batean gertuko proteinen biotinilazio eraginkorra ematen da.



1. irudia. PGB bidezko proteinen identifikazioa. Entzima markatzailea beharrezko substratuaren presentzian inguruko proteinetan biotina-marka kobalenteak ezarriko ditu. Biotina-markei esker, entzimatik gertu dauden proteinak zelulako bestelako proteinetatik banatu ahal izango dira afinitate-purifikazioaren bidez. Azkenik, purifikatutako proteinak MS/MS bidez identifikatuko dira.

PGB prozedura ikergaiaren arabera egokitu daiteke, hots, ikergaia proteina baten interaktoma bada, entzima markatzailea proteina jakin horrekin fusionatuko da [21-24]. Ikergaia, ordea, konpartimentu bateko proteoma bada, entzima markatzailea intereseko kokapen horretara ituratuko da [14, 17, 25-27]. Guk dakigula, gure ikergaia den XPO1en esportoma ez da PGB bidez aztertu, eta beraz, ekarpen interesgarria egin dezakeelakoan, PGB testuinguru honetara egokitu dugu.

1.4. XPO1en kargo prototipikoak identifikatzeko konpartimentu espezifikoko PGB estrategia

XPO1en kargo prototipikoak bilatzeko orduan bi kontu aintzat hartu behar dira. Bata, proteinen nukleo eta zitoplasmaren arteko garraioa etengabekoa dela, eta, beraz, PGB azkar gertatzea beharrezkoa dela. Bestea, XPO1 inhibitzeak kargo askoren banaketa azpizelularra aldatuko duela. Lekualdaketa hori, partziala izan badaiteke ere, kargo prototipikoen kasuan erabatekoa izango da, hau da, egoera basalean kokapen zitoplasmatikoa baino ez dute izango, eta, XPO1 inhibitzean, ordea, nuklearra.



2. irudia. XPO1en kargo prototipikoak konpartimentu espezifikoko PGBaren bidez identifikatzeko estrategia. APEX2a zitoplasma edo nukleoan gainadieraztea XPO1en inhibizioarekin konbinatuko da hurrengo lau egoerak sortuz: (i) APEX2zit gainadierazita eta XPO1 aktibo, (ii) APEX2zit gainadierazita eta XPO1 inhibituta, (iii) APEX2nuk gainadierazita eta XPO1 aktibo eta (iv) APEX2nuk gainadierazita eta XPO1 inhibituta. XPO1en kargo prototipiko izateko baldintzak betetzen dituzten proteinak bai (i) eta bai (iv) egoeretan biotinilatzen direnak izango dira.

Lan honetan, PGB XPO1en kargo prototipikoak identifikatzeko baliagarria dela erakusten duen kontzeptu-froga deskribatzen dugu. Horretarako, APEX2 entzimaren bidezko konpartimentu espezifikoko PGB eta XPO1en inhibizioa uztartzen dituen estrategia garatu dugu (2. irudia). Zehazki, APEX2zit eta APEX2nuk markatzaileak sortu ditugu APEX2 entzima zitoplasmara eta nukleora ituratzeko, hurrenez hurren; bi markatzaile horien adierazpena XPO1en inhibitzaile espezifikoa den leptomizina B (LMB) tratamenduarekin konbinatu dugu.

2. MATERIAL ETA METODOAK

Plasmidoen prestaketa

APEX2zit eta APEX2nuk entzima markatzaileak kodetzen dituzten plasmidoak diseinatu eta sortu ditugu pEYFP-C1 (Clontech) plasmidoa erabilita. APEX2zit eratzeko aukeratutako seinalea XPO1ekiko independenteki esportatzen den RIP3 proteinaren NESa [28] izan da, eta proteina fluoreszentea, berriz, sinGFP4a [29]. Proteina horien sekuentzia kodetzaileak HindIII/EcoRI eta NheI/BglII murriztegunеak erabilita klonatu dira, hurrenez hurren. APEX2nuk eratzeko aukeraturiko seinaleak SV40 T antigeno luzearen 4 NLS izan dira; horietako bat NheI eta AgeI murriztegunеen artean klonatu da eta beste hirurak, berriz, BglII eta EcoRI guneen artean. Proteina fluoreszenteari dagokionez, plasmidoaren jatorrizko YFP mantendu da. APEX2 sekuentzia kodetzailea KpnI eta BamHI murriztegunеak erabilita klonatu da APEX2zit zein APEX2nuk plasmidoetan.

Bestalde, Myc-SBSN eta Myc-CK2α' proteinak gainadierazi ahal izateko, SBSN eta CK2α' kodetzen dituzten cDNA sekuentziak pMyc-MSC plasmidoan [30] klonatu ditugu BamHI eta HindIII murriztegunеen artean.

Zelulen hazkuntza, transfekzioa eta LMB tratamendua

HEK293T zelulak % 10 idi-umeki seruma, 100 U/ml penizilina eta 100 μg/ml estreptomizinadun DMEM medioan hazi ditugu (dena Gibco-koa) 37 °C-tan, % 5eko CO_2-dun atmosfera hezean. Transfekzioa egin baino 24 ordu lehenago, HEK293T zelulak estalkidun 12 putzutako edo 10 cm-ko Petri plakatan erein ditugu. Transfekziorako X-tremeGENE 9 transfekzio-agentea (Roche Diagnostics) erabili dugu, fabrikatzailearen argibideei jarraituz. Transfekziotik 24 ordura LMB (Apollo Scientific) 6 ng/ml-ko kontzentrazioan gehitu dugu mediora eta zelulak 3 orduz inkubatu ditugu.

Mikroskopiarako laginen prestaketa eta proteinen kokapen azpizelularra aztertzeko irudi analisia

Zelulak % 3,7 formaldehido PBStan fixatu ditugu 30 minutuz. Myc etiketadun proteinak adierazten dituzten zelulak % 0,2 Triton X-100 PBStan iragazkortu ditugu 10 minutuz, eta ordubetez blokeatu ditugu % 3 BSA PBStan. Jarraian, saguaren anti-Myc antigorputzarekin (Cell Signaling Technology; 1:300) inkubatu ditugu laginok ordu bete; ondoren, PBStan garbitu eta saguaren antigorputzen kontrako AF594 antigorputzarekin (Invitrogen; 1:400) inkubatu ditugu beste ordubetez. Laginak DAPIdun Vectashield muntaketa-medioa erabilita (Vector Laboratories) mikroskopiarako portetan muntatu ditugu. sinGFP4a edo YFP fusio-proteinak adierazten dituzten zelulak fixatu eta garbitu ostean, zuzenean muntatu ditugu. Irudiak Zeiss Apotome2.0 fluoreszentzia-mikroskopioa eta Zen2.6 Blue Edition softwarea erabilita hartu ditugu UPV/EHUko SGIker mikroskopiazerbitzuan.

Irudi-analisia Fiji softwarerako [31] gure taldeak ad hoc sortutako script bat [30] erabiliz egin dugu lagin bakoitzeko gutxienez 50 zelulatan.

APEX2 peroxidasaren bidezko PGB

PGB aurretik deskribatutako protokoloa [32] oinarritzat hartuta egin dugu. Petri plaka bakoitza 500 μM biotin-fenol (BP; Iris Biotech) DMEM-tan inkubatu dugu 30 minutuz eta 37°C-tan. Ostean, plakei, markaketa-kontrolerako laginei salbu, H_2O_2-a (Riedel-deHaën) gehitu diegu 10 mM-eko amaierako kontzentrazioan. Minutu bakar bateko inkubaziodenbora igarotakoan, H_2O_2-aren efektua bertan behera geratzeko, plaka guztiak quencher-soluziotan [32] garbitu ditugu hiru aldiz. Azkenik, zelulak PBStan garbitu, plakatik desitsasteko tripsinarekin tratatu, eta 10 ml PBStan jaso ditugu; 1 ml western plapaketan erabili da, beste 9 ml-ak afinititate purifikazioan.

Western plapaketa

Zelulak bromofenol urdin gabeko 200 μl Laemmli lisi-tanpoitan (125 mM Tris-HCl pH 6,8, % 20 glizerol, % 4 SDS) 10 minutuz eta 95°C-tan inkubatuta lisatu ditugu. Laginetako proteina kantitatea Lowry metodoaren bidez kuantifikatu eta lagin bakoitzetik 20 μg proteina zamatu dugu % 12ko SDS-PAGE geletan. Proteinak elektroforesiz banatu eta nitrozelulosazko mintzetara transferitu ditugu. Mintzak blokeo-soluziotan (% 5 esne gaingabetua TTBStan) ordubetez inkubatu ostean, anti-Biotin-HRP antigorputzetan (Cell Signaling Technology; 1:1.000) inkubatu ditugu beste ordubetez. Amaitzeko, mintzak TTBStan garbitu eta Pierce ECL Plus detekzio-agentea (ThermoFisher Scientific) erabiliz errebelatu ditugu.

Biotinilatutako proteinen afinitate-purifikazioa

Afinitate-purifikaziorako laginak zentrifugatu, jalkinak proteasa inhibitzailedun (PI; Roche) 2,9 ml lisi-tanpoitan (8 M urea, % 1 SDS, 50 mM N-etimaleimida (NEM) PBStan) berreseki, 30 minutuz 4ºC-tan inkubatu eta zentrifugazioz jasotako gainjalkinak lotze-tanpoitan (3 M urea, 1 M NaCl, % 0,25 SDS, 50 mM NEM) orekatutako PD10 zutabeetan (Healthcare) zehar pasarazi ditugu. Eluzioa, 25X PIdun 250 µl lotze-tanpoitan egin dugu.

Afinitate-purifikazioa aurretik deskribatutako moduan [33] egin dugu. Laburbilduz, lotze-tanpoitan ditugun laginak 150 µl Pierce High Capacity NeutrAvidin agarosa bihitxoekin (ThermoFisher Scientific) inkubatu ditugu 3 orduz. Ondoren, bihitxoak sei garbiketa tanpoi (GT) desberdinetan [33] garbitu ditugu. Azken garbiketaren ostean, eta biotinilatutako proteinen eta bihitxoen arteko interakzioak hausteko, bihitxoak 80 µl 100 mM DTTdun 4X Laemmli eluzio-tanpoitan inkubatu ditugu 5 minutuz eta 95°C-tan. Azkenik, bihitxoak biotinilatutako proteinetatik banantzeko, laginak Vivaclear Mini 0.8 µm PES filtrodun zutabeetan (Sartorious) zehar pasarazi ditugu. Jarraian lagineko proteinak SDS-PAGEz banatu eta gela GelCode Blue Stain tindaketa medioan (Thermo-Fisher Scientific) tindatu dugu. Hemendik aurrerako laginen prozesamendua UPV/EHUko SGIker proteomika-zerbitzuan egin da.

Masa-espektrometria analisia

Geletik APEX2 exogenoari, abidinari eta fronteari dagozkien bandak baztertu dira. Gainontzeko intereseko gel zatietan geleango proteinen digestio tripsina entzima erabiliz egin da [34]. Digestioan lortutako peptido triptikoen soluzioa gatzgabetzeko C18 (3M Empore C18) mikrozutabeetan zehar pasarazi dugu.

Peptidoak Acclaim PepMap RSLC (75 µm × 25 cm, Thermo Scientific) zutabe analitiko batera konektatutako Acclaim PepMap100 (75 µm × 2 cm, Thermo Scientific) aurre-zutabe batean zamatu dira. Peptidoak % 2,4-% 80 azetonitrilo-gradientean banatu dira. Masa-espektrometria analisiak nanospray flex ioi-iturri baten bidez konektatuta dauden EASY-nLC 1.200 likido-kromatografiako sistema eta Q Exactive HF-X masa-espektrometroan (Thermo Scientific) egin dira. Masa-espektrometroa ioi positibo funtzioan erabili da, eta 375-1.800 m/z tarteko MS *scan* osoak jaso dira 200 m/z-tan 60 000ko bereizmenarekin. Seinalerik handieneko 10 ioiak fragmentatu eta MS/MS espektroak 200 m/z-tan 15 000ko bereizmenean jaso dira. Datuak Xcalibur softwarea (Thermo Scientific) erabilita jaso dira.

Datuak MaxQuant (v.1.6.0.16) [35] erabilita prozesatu dira UniProtKB SwissProt Human (v 2017-11) datu basea erabilita, non APEX2dun proteinen sekuentziak gehitu diren. Bilaketetarako hurrengo parametroak era-

bili dira: prekurtsoreen eta fragmentuen tolerantziak 8 eta 20 ppm-koak hurrenez hurren, tripsinak gehien jota bi mozketa egin gabe uztea, oxidazioa eta azetilazioa modifikazio aldakor kontsideratzea, eta karbamidometilazioa modifikazioa, finko. Peptido eta proteinen FDRa (*false discovery rate)* % 1ean ezarri da.

Identifikatutako proteina-zerrenden kudeaketa eta analisia

Identifikatutako proteinen sei zerrenda ditugu, horietako bi kontrol laginei ($-H_2O_2$) dagozkie, beste laurak 2. irudian azaldutako egoerei. Egoera horiei dagozkien laginetan zein proteina identifikatu den aztertzeko lehen urratsa zeluletan berez biotinilatzen diren proteinak zerrendetatik kentzea da. Horretarako kontrol laginean identifikatutako proteinak beste zerrendetatik ezabatu ditugu.

Identifikatutako proteinekin bi analisi mota egin dira. Batetik, laginen arteko konparaketak egin dira Venn diagramak erabiliz [36]. Bestetik, UniProtKB datu-baseko [37] (2020-10-22ko bertsioa) *Subcellular location* sailkapenaren arabera egoera basalean identifikatu ditugun proteinak aurretiaz zein konpartimentutan deskribatu diren aztertu dugu.

3. EMAITZAK

3.1. APEX2zit eta APEX2nuk plasmidoen diseinua, eta APEX2 entzimaren kokapen nukleozitoplasmatikoa

Lehenik eta behin, zitoplasmara eta nukleora ituratuko diren APEX2zit eta APEX2nuk proteina-markatzaileen plasmidoak diseinatu ditugu. Proteina kimeriko horiek hiru osagai dituzte; APEX2 peroxidasa, APEX2 intereseko konpartimentura ituratzeko seinalea (NES edo NLSak) eta kokapenaren jarraipena ahalbidetuko duen proteina fluoreszente bat (3A irudia). 2. irudiko estrategia eraginkorra izateko, ezinbestekoa da APEX2zit proteina zitoplasman baino ez adieraztea egoera guztietan. Horretarako, APEX2 zitoplasmara ituratzeko XPO1en menpekoa ez den RIP3 proteinaren NESa [28] aukeratu dugu. Helburu berarekin, sinGFP4a erabili dugu proteina fluoreszente bezala, GFP bertsio hori YFP baino astiroago translokatzen baita nukleora [29]. APEX2nuk proteinaren diseinurako, ordea, SV40 T antigeno luzearen NLSaren lau kopia eta ohikoa den YFP proteina fluoreszentea erabili ditugu.

APEX2zit eta APEX2nuk proteinak kodetzen dituzten plasmidoak HEK293T zeluletan transfektatutakoan, gainadierazitako proteinen kokapena fluoreszentzia-mikroskopiaren bidez aztertu dugu. APEX2zit proteinak kokapen zitoplasmatikoa du egoera basalean zein XPO1 inhibituriko egoeran, eta APEX2nuk proteinak, aldiz, nuklearra (3B irudia).



3. irudia. APEX2dun plasmidoen eraketa eta proteinaren kokapenaren balioespena. A) APEX2dun plasmidoen irudi eskematikoak. Goialdean, APEX2zit plasmidoan sinGFP4a, RIP3 proteinaren NESa eta APEX2 sekuentziek duten kokapenaren irudia. Behealdean, APEX2nuk plasmidoan YFP, lau NLS eta APEX2 sekuentziek dutena. B) APEX2zit eta APEX2nuk proteina-markatzaileak HEK293T zeluletan gainadierazitakoan hartzen duten kokapenaren fluoreszentzia-irudiak.

3.2. Markatzaileen aktibitate entzimatikoa eta MS/MSrako laginen prestaketa

Bi markatzeileen kokapen egokia berretsita, gertuko proteina endogenoen biotinilazioa eragiteko gai diren aztertu dugu. Horretarako, APEX2zit eta APEX2nuk gainadierazten dituzten zelulen proteina erauzkinak erabiliz biotinaren kontrako western plapaketa egin dugu (4. irudia); APEX2 peroxidasa aktibatu gabeko ($-H_2O_2$) kontrol laginei dagozkien kaleetan, APEX2zit edota APEX2nuk proteinen autobiotinilazioari [32] dagozkien bandak baino ez dira ageri. APEX2a aktibatutako ($+H_2O_2$) laginetan, ordea, proteina endogeno ugari biotinilatu direla adierazten duten banda ugarik osatzen duten arrastoak ageri dira. Hau da, APEX2zit eta APEX2nuk proteina endogenoak biotinilatzeko gai dira.

APEX2zit eta APEX2nuk proteinen kokapena (3B irudia) zein biotinilazio ahalmena (4. irudia) berretsita, MS/MSrako laginak prestatu, eta UPV/EHUko SGIker proteomika-zerbitzura bidali ditugu.



4. irudia. APEX2zit eta APEX2nuk bidezko PGB. APEX2zit eta APEX2nuk proteina erauzkinekin biotinaren kontrako western plapaketak: APEX2 aktibatutako laginetan (+H_2O_2) tamaina ezberdineko proteina bilduma zabalak biotinilatu direlako seinale diren banda ugarik osatzen duten arrastoak ageri dira. APEX2 peroxidasa aktibatu gabeko laginetan (–H_2O_2) gainadierazitako proteinaren autobiotinilazioari dagokion intentsitate baxuko banda baino ez da ageri (*).

3.3. **MS/MS analisien emaitzak: kontsiderazio orokorrak**

MS/MS analisian, guztira, 2053 proteina identifikatu ditugu gutxienez peptido batekin (1. taula). Markatzaile bakoitzeko erauzkinetan identifikatutako proteina kopurua antzekoa izan da; APEX2zit erauzkinean 1248 proteina, APEX2nuk erauzkinean, ordea, 1318. Era berean, egoera basalean zein XPO1 inhibitutako egoeran identifikatutako proteina kopurua ere antzekoa izan da APEX2zit zein APEX2nuk erauzkinetan; egoera basalean 1884 proteina, XPO1 inhibitutako egoeran, ordea, 1757. Emaitza hauek iradokitzen dute markatzaile bien aktibitate biotinilatzailea antzekoa dela, LMB tratamenduak ez duela aktibitate hori nabarmen eraldatzen eta lagin guztien prozesamendua antzekoa izan dela.

1. taula. MS/MS analisiaren emaitzen laburpena. APEX2zit eta APEX2nuk proteina-markatzaileak gainadierazitako zelulen erauzkinetan gutxienez peptido batekin identifikatutako proteina kopurua, egoera basalean (–LMB) eta XPO1 inhibiturik dagoela (+LMB). «Guztira» izeneko zutabea, egoera basalean edo XPO1 inhibiturik dagoen egoeran identifikatutako proteinen erredundantzia gabeko batura da. Era berean, «guztira» izeneko lerroa APEX2zit edo APEX2nuk markatzaileekin prestatutako erauzkinetan identifikatutako proteinen batura ez erredundantea da.

	APEX2zit	APEX2nuk	Guztira
–LMB	1157	1195	1884
+LMB	995	1156	1757
Guztira	1248	1318	2503

3.4. Konpartimentu espezifikoko proteinen identifikazioa egoera basalean

Identifikatutako proteina kopurua aztertu ostean, APEX2zit markatzaileak markatutako proteinak zitoplasmatikoak direnetz eta APEX2nuk markatzaileak markatutako proteinak nuklearrak direnetz aztertu dugu. Lehenik eta behin, egoera basalean APEX2zit erauzkinean identifikatutako 1 157 proteinak APEX2nuk erauzkinean identifikatutako 1195 proteinekin erkatu ditugu. APEX2zit erauzkinean esklusiboki identifikatu direnak 689 izan dira, APEX2nuk erauzkinekoak, 727; bestelako 468 proteinak, ordea, bi erauzkinetan identifikatu dira (5A irudia). Emaitza horiek markatzaile bakoitzarekin markatutako proteinak, neurri batean behintzat, ezberdinak direla erakusten dute. Jarraian, UniProtKB datu-basea erabiliz identifikatutako proteinak aurretik zein kokapenetan deskribatu diren aztertu dugu.

UniProtKBn identifikatutako proteina gehienen kokapenaren gaineko informazioa badago: APEX2zit erauzkineko proteinen % 63 zitoplasmatiko (edo zitoplasmatiko eta nuklear) gisa dago deskribatuta, APEX2nuk erauzkinean identifikatutako proteinen kasuan, % 69 da nuklear (edo nuklear eta zitoplasmatiko) gisa deskribatutakoa (5B irudia). Datu horiek agerian uzten dute APEX2zit eta APEX2nuk konpartimentu espezifikoko biotinilaziorako markatzaile baliagarriak direla.



5. irudia. PGB-MS/MS bidez konpartimentu espezifikoko proteinen identifikazioa. A) Egoera basalean APEX2zit eta APEX2nuk erauzkinetan identifikatutako proteinen Venn diagrama. B) Ikerketa honetan identifikatutako proteinek UniProtKB datu-basearen arabera duten kokapena erakusten duten sektore-diagramak. Ehuneko handi batean, gure analisiaren araberako kokapena eta UniProtKBen araberakoak bat egiten dute (marra horizontalek adierazita).

3.5. **XPO1en balizko kargoen identifikazioa**

APEX2zit eta APEX2nuk bidezko markaketaren egokitasuna berretsita, XPO1en balizko kargoak bilatzeari ekin diogu. Horretarako, 2. irudiko estrategiari jarraikiz, APEX2zit gainadierazitako erauzkinetan eta egoera basalean identifikatutako proteinak APEX2nuk gainadierazitako erauzkinetan eta XPO1 inhibitutako egoeran identifikatutako proteinekin erkatu ditugu. Egoera basalean, 253 proteina identifikatu dira esklusiboki APEX2zit erauzkinean. XPO1 inhibitutako egoeran, 123 proteina identifikatu dira esklusiboki APEX2nuk erauzkinean. Proteina-zerrenda bi horiek erkatzean, lau proteina komun aurkitzen dira; LIMD1 (*LIM domain containing protein 1*), TUBAL3 (*tubulin alpha chain-like 3*), CK2α' (*casein kinase II subunit alpha'*) eta SBSN (*suprabasin*) proteinaren bigarren isoforma (6. irudia). LIMD1 eta TUBAL3 proteinak XPO1en kargo gisa deskribaturik daude jada [38,39], eta CK2α' balizko kargotzat proposatu zen aurreko analisi proteomiko batean [6], proteina honen XPO1en mendeko esportazioa oraindik konfirmatu ez bada ere. Emaitza horiek gure prozeduraren eta estrategiaren bermetzat har ditzakegu. Gauzak horrela, XPO1en kargotzat deskribatu gabe dauden CK2α' eta SBSN proteinen banaketa nukleozitoplasmatikoa aztertu nahi izan dugu.



6. irudia. PGBaren bidezko XPO1en kargoen identifikazioa. Egoera basalean eta XPO1 inhibitutako egoeran APEX2zit eta APEX2nuk erauzkinetan identifikatutako proteinak konparatzen dituen Venn diagrama sorta. Soilik APEX2zit erauzkinean egoera basalean eta soilik APEX2nuk erauzkinean XPO1 inhibitutako egoeran identifikatutako proteinak erkatzean (beheko aldea) XPO1en lau balizko kargo aurkitzen dira; LIMD1, TUBAL3, SBSN eta CK2α'.

3.6. CK2α' eta SBSN proteinen banaketa nukleozitoplasmatikoaren azterketa

Myc-CK2α' eta Myc-SBSN proteinak HEK293T zeluletan gainadierazi ditugu. Myc-SBSN proteinaren kokapenak ez du XPO1en mendekotasunik erakusten; zitoplasman eta jariatze-besikulak izan daitezkeen egituretan metatzen da egoera basalean zein XPO1 inhibiturik dagoenean (7A irudia). Behatutako kokapen hori literaturan deskribatutakoarekin bat dator, SBSN jariatze-proteina legez deskribatuta baitago [40, 41]. Myc-CK2α'ren kokapenari dagokionez, egoera basalean zein XPO1 inhibiturik dagoenean nukleozitoplasmatikoa da. Alabaina, LMB tratamenduak nukleoranzko lekualdaketa txikia eragiten duela atzeman dugu. Kokapen-aldaketa hau irudi-analisi semikuantitatiboa eginez egiaztatu dugu (7B irudia). Gauzak horrela, CK2α' XPO1en kargo berria izan daitekeela proposatzen dugu.



7. irudia. CK2α' eta SBSN proteinen banaketa nukleozitoplasmatikoaren azterketa. A. Myc-SBSN HEK293T zeluletan gainadieraztean hartzen duen kokapenaren irudi adierazgarriak**.** Myc-SBSN proteinak ez du XPO1en mendeko kokapenik agertzen, XPO1 aktibo zein inhibiturik egon, zitoplasman eta jariatze besikulak izan daitezkeen egituretan metatzen da. B. Myc-CK2α' proteinak HEK293T zeluletan erakusten duen kokapen nukleozitoplasmatikoa irudi-analisiaren bidez aztertu dugu, bai egoera basalean eta bai XPO1 inhibituriko egoeran. Zirkulu bakoitzak adierazten du zelula bakar baten nukleoan eta zitoplasman antzematen den fluoreszentziaren arrazoia 2 oinarriko logaritmoan [$\log_2$(N/Z)]. Lagin bakoitzaren $\log_2$(N/Z)-ren batezbestekoa eta desbiderapen estandarrak adierazten dira, baita Mann-Whitney U estatistikoa erabiltzean lortutako p balioa ere. Aztertutako bi egoeretan Myc-CK2α' proteinak kokapen gehienbat nuklearra erakusten badu ere, XPO1en inhibizioak CK2α' nukleoan egoera basalean baino gehiago metatzea eragiten du.

4. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

XPO1 esportinak mila inguru kargo-proteinen nukleotiko esportazioa bideratzen du [6]. XPO1 zelularen homeostasirako gako izateaz gain, minbiziaren tratamenduan izan dezakeen rola geroz eta ozenago aipatzen ari da azken urteetan [1-en berrikusia]. XPO1en mendeko garraioaren nondik norakoak ulertu eta minbizian duen garrantzia argitzeko, aurrerapauso handia izango litzateke XPO1en esportoma ondo karakterizatzea. Bide horretan, hurbilketa berri bat planteatu dugu zeinak konpartimentu espezifikoko PGB, XPO1en inhibizioa, afinitate-purifikazioa eta MS/MS analisiak uztartzen dituen.

Hurbilketa berri honen erronkarik handiena PGB eragingo duten markatzaileen diseinua izan da, zitoplasmako eta nukleoko proteinen bildumak era bereizian markatzea berebizikoa baita emaitza esanguratsuak lortuko

baditugu. Hori horrela, APEX2 peroxidasan oinarritutako bi proteina markatzaile kimeriko berri sortu ditugu: APEX2zit eta APEX2nuk. Gainadierazitako APEX2zit zitoplasman eta APEX2nuk nukleoan kokatzen direla berretsita, diseinatu dugun hurbilketa osoa proteomikako kontzeptu-froga erako esperimentu baten bidez balioetsi dugu.

Esperimentuaren diseinua sinplifikatze aldera, aztertutako egoeren erreplika bana eta ez ohikoak diren hiru erreplikak analizatu dugu. Jakitun gara horrek proteina-identifikazioen ziurgabetasuna emendatzen duela; halere, egoera basalean egindako esperimentuen emaitzek erakusten dute ziurgabetasun horrek ez duela hurbilketa bera baliogabetzen. Izan ere, APEX2zit eta APEX2nuk erauzkinetan identifikatutako proteina sortak neurri handi batean ezberdinak badira ere, badira komunak diren beste hainbat proteina ere (5A irudia). Emaitza horrek APEX2zit eta APEX2nuk-ek bideratutako PGB arrakastatsua izan dela ematen digu aditzera, batetik APEX2zit eta APEX2nuk-ekin proteina bilduma ezberdinak markatzea aurreikusi eta lortu dugulako, eta bestetik proteina ugari konpartimentu bietan agertzea aurreikus daitekeelako [42]. Are gehiago, APEX2zit eta APEX2nuk erauzkinetan identifikatutako proteinak UniProtKB datu-basean proteinok duten zelula-kokapenaren deskribapenarekin bat datoz neurri handi batean (5B irudia). Aipaturikoa kontuan hartuta, guk diseinatu eta esperimentalki testatutako proteina markatzaileek konpartimentu espezifikoko PGBrako egokiak direla deritzogu.

Identifikatutako proteina bildumei oniritzia emanda, XPO1en balizko kargoak bilatzen hasitakoan erreplika bakarrarekin lan egiteak dakarren beste muga topatu dugu: erreplika bakarreko datuekin ez dago analisi kuantitatiborik egiterik; ondorioz, kargo prototipikoak baino ezin izan ditugu bilatu. Bilaketa horren emaitza lau proteina izan dira: LIMD1, TUBAL3, CK2α' eta SBSNren bigarren isoforma, alegia. LIMD1 eta TUBAL3 aurretik ere XPO1en kargotzat deskribatuta egoteak [38,39] gure estrategiari nolabaiteko bermea ematen diola deritzogu. SBSN eta CK2α' balizko kargoen nukleo eta zitoplasmaren arteko garraioaren gaineko informaziorik, guk dakigula, eskuragarri ez dagoenez, proteinok HEK293T zeluletan gainadierazi eta XPO1 inhibitzean erakusten duten kokapen nukleozitoplasmatikoa aztertu dugu. SBSN proteinaren kasuan ez dugu XPO1en inhibizioaren menpeko kokapenaren aldaketarik behatu. CK2α' aztertzean, berriz, XPO1 inhibitzean CK2α' proteinaren nukleoranzko aldaketa partzial bat behatu dugu (7A eta B irudiak). Emaitzok ikusita, CK2α' XPO1en kargotzat proposatzen dugu eta planteatutako hurbilketa berria XPO1en kargoak identifikatzeko prozedura aproposa dela planteatzen dugu.

Deskribatutako hurbilketa, beraz, XPO1en esportomaren ezagutzan sakontzeko eta klinikan erabiltzen diren eta XPO1en inhibizioa helburu duten agente terapeutikoek, selinexor kasu [9], zelula mailan duten eragina ikertzeko erabilgarria izan daitekeela planteatzen dugu.

5. **ESKER ONAK**

Lan honetako mikroskopia- eta proteomika-analisiak UPV/EHUko mikroskopia- eta proteomika-zerbitzuetan (SGIker) egin dira, hurrenez hurren. Lan hau Espainiako Gobernuaren MINECO-FEDER (SAF2014-57743-R eta SAF2016-76898-P), Eusko Jaurlaritzaren (IT1257-19) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU) (UF111/20) finantziazioei esker egin da. Baita Eusko Jaurlaritzak (MS-ri) emandako dirulaguntzari esker ere. Gure taldea PROTEOSTASIS BM1307 COST Action-eko kide da, European Cooperation in Science and Technology-k lagunduta.

BIBLIOGRAFIA

[1] SENDINO, M., OMAETXEBARRIA, M. J., RODRÍGUEZ, J. A. 2018. «Hitting a moving target: inhibition of the nuclear export receptor XPO1/CRM1 as a therapeutic approach in cancer». *Cancer Drug Resistance*, **1**, 138-163.

[2] STADE, K., FORD, C. S., GUTHRIE, C., WEIS, K. 1997. «Exportin 1 (Crm1p) is an essential nuclear export factor». *Cell*,**90**, 1041-1050.

[3] OSSAREH-NAZARI, B., BACHELEIRE, F., DARGEMONT, C. 1997. «Evidence for a Role of CRM1 in Signal-Mediated Nuclear Protein Export». *Science*, **278**, 141-144.

[4] FORNEROD, M., VAN DEURSEN, J., VAN BAAL, S., REYNOLDS, A., DAVIS, D., MURTI, K. G., FRANSEN, J., GROSVELD, G. 1997. «The human homologue of yeast CRM1 is in a dynamic subcomplex with CAN/Nup214 and a novel nuclear pore component Nup88». *EMBO Journal*, **16**, 807-816.

[5] FUKUDA, M., ASANO, S., NAKAMURA, T., ADACHI, M., YOSHIDA, M., YANAGIDA, M., NISHIDA, E. 1997. «CRM1 is responsible for intracellular transport mediated by the nuclear export signal». *Nature*, **390**, 308-311.

[6] KIRLI, K., KARACA, S., DEHNE, H. J., SAMWER, M., PAN, K. T., LENZ, C., URLAUB, H., GÖRLICH, D. 2015. «A deep proteomics perspective on CRM1-mediated nuclear export and nucleocytoplasmic partitioning». *eLife*, **4**, e11466.

[7] TAYLOR, J., SENDINO, M., GORELICK, A. N., PASTORE, A., CHANG, M. T., PENSON, A. V, GAVRILA, E. I., STEWART, C., MELNIK, E. M., HERREJON CHAVEZ, F., BITNER, L., YOSHIMI, A., LEE, S. C.-W., INOUE, D., LIU, B., ZHANG, X. J., MATO, A. R., DOGAN, A., KHARAS, M. G., CHEN, Y., WANG, D., SONI, R. K., HENDRICKSON, R. C., PRIETO, G., RODRIGUEZ, J. A., TAYLOR, B. S., ABDEL-WAHAB, O. 2019. «Altered nuclear export signal recognition as a driver of oncogenesis». *Cancer Discovery*, **9**, 1452-1467.

[8] MAHIPAL, A., MALAFA, M. 2016. «Importins and exportins as therapeutic targets in cancer». *Pharmacology and Therapeutics*, **164**, 135-143.

[9] SYED, Y. Y. 2019. «Selinexor: first global approval». *Drugs*, **79**, 1485-1494.

[10] AEBERSOLD, R., MANN, M. 2003. «Mass spectrometry-based proteomics». *Nature*, **422**, 198-207.

[11] THAKAR, K., KARACA, S., PORT, S. A., URLAUB, H., KEHLENBACH, R. H. 2013. «Identification of CRM1-dependent nuclear export cargos using quantitative mass spectrometry». *Molecular and Cellular Proteomics*, **12**, 664-678.

[12] BOSCH, J. A., CHEN, C. L., PERRIMON, N. 2021. «Proximity-dependent labeling methods for proteomic profiling in living cells: An update». *Wiley Interdisciplinary Reviews: Developmental Biology*, **10**, e392.

[13] KUTAY, U., GÜTTINGER, S. 2005. «Leucine-rich nuclear export signals: born to be weak». *Trends in Cell Biology*, **15**, 121-124.

[14] ROUX, K. J., KIM, D. I., RAIDA, M., BURKE, B. 2012. «A promiscuous biotin ligase fusion protein identifies proximal and interacting proteins in mammalian cells». *Journal of Cell Biology*, **196**, 801-810.

[15] CHOI-RHEE, E., SCHULMAN, H., CRONAN, J. E. 2004. «Promiscuous protein biotinylation by Escherichia coli biotin protein ligase». *Protein Science*, **13**, 3043-3050.

[16] MARTELL, J. D., DEERINCK, T. J., SANCAK, Y., POULOS, T. L., MOOTHA, V. K., SOSINSKY, G. E., ELLISMAN, M. H., TING, A. Y. 2012. «Engineered ascorbate peroxidase as a genetically-encoded reporter for electron microscopy». *Nature Biotechnology*, **30**, 1143-1148.

[17] RHEE, H.-W., ZOU, P., UDESHI, N. D., MARTELL, J. D., MOOTHA, V. K., CARR, S. A., TING, A. Y. 2013. «Proteomic mapping of mitochondria in living cells via spatially-restricted enzymatic tagging». *Science*, **339**, 1328-1331.

[18] LAM, S. S., MARTELL, J. D., KAMER, K. J., DEERINCK, T. J., ELLISMAN, M. H., MOOTHA, V. K., TING, A. Y. 2015. «Directed evolution of APEX2 for electron microscopy and proteomics». *Nature Methods*, **12**, 51-54.

[19] ZHOU, Y., ZOU, P. 2021. «The evolving capabilities of enzyme-mediated proximity labeling». *Current Opinion in Chemical Biology*, **60**, 30-38.

[20] KWON, K., BECKETT, D. 2000. «Function of a conserved sequence motif in biotin holoenzyme synthetases». *Protein Science*, **9**, 1530-1539.

[21] ZUZOW, N., GHOSH, A., LEONARD, M., LIAO, J., YANG, B., BENNETT, E. J. 2018. «Mapping the mammalian ribosome quality control complex interactome using proximity labeling approaches». *Molecular Biology of the Cell*, **29**, 1258-1269.

[22] HUANG, X., LEDUC, R. D., FORNELLI, L., SCHUNTER, A. J., BENNETT, R. L., KELLEHER, N. L., LICHT, J. D. 2019. «Defining the NSD2 interactome: PARP1 PARylation reduces NSD2 histone methyltransferase activity and impedes chromatin binding». *Journal of Biological Chemistry*, **294**, 12459-12471.

[23] LI, Y., MERKEL, C. D., XUEMEI, Z., HEIER, J. A., CANTRELL, PA. S., SUN, M., STOLZ, D. B., WATKINS, S. C., YATES, N. A., KWIATKOWSKI, A. V. 2019. «The N-cadherin interactome in primary cardiomyocytes as defined by quantitative proximity proteomics». *Journal of Cell Science*, **132**, jcs221606.

[24] AMER, Y. O., HEBERT-CHATELAIN, E. 2020. «Insight into the interactome of intramitochondrial PKA using biotinylation-proximity labeling». *International Journal of Molecular Sciences*, **21**, 8283-8295.

[25] Mick, D. U., Rodrigues, R. B., Leib, R. D., Adams, C. M., Chien, A. S., Gygi, S. P., Nachury, M. V. 2015. «Proteomics of primary cilia by proximity labeling». *Developmental Cell*, **35**, 497-512.

[26] Bersuker, K., Peterson, C. W. H., To, M., Sahl, S. J., Savikhin, V., Grossman, E. A., Nomura, D. K., Olzmann, J. A. 2018. «A proximity labeling strategy provides insights into the composition and dynamics of lipid droplet proteomes». *Developmental Cell*, **44**, 97-112.

[27] Youn, J. Y., Dunham, W. H., Hong, S. J., Knight, J. D. R., Bashkurov, M., Chen, G. I., Bagci, H., Rathod, B., MacLeod, G., Eng, S. W. M., Angers, S., Morris, Q., Fabian, M., Côté, J. F., Gingras, A. C. 2018. «High-density proximity mapping reveals the subcellular organization of mRNA-associated granules and bodies». *Molecular Cell*, **69**, 517-532.

[28] Yang, Y., Ma, J., Chen, Y., Wu, M. 2004. «Nucleocytoplasmic shuttling of receptor-interacting protein 3 (RIP3): Identification of novel nuclear export and import signals in RIP3». *Journal of Biological Chemistry*, **279**, 38820-38829.

[29] Frey, S., Rees, R., Schünemann, J., Ng, S. C., Fünfgeld, K., Huyton, T., Görlich, D. 2018. «Surface properties determining passage rates of proteins through nuclear pores». *Cell*, **174**, 202-217.

[30] Olazabal-herrero, A., Sendino, M., Arganda-carreras, I., Rodríguez, J. A. 2019. «WDR20 regulates shuttling of the USP12 deubiquitinase complex between the plasma membrane, cytoplasm and nucleus». *European Journal of Cell Biology*, **98**, 12-26.

[31] Schindelin, J., Arganda-Carreras, I., Frise, E., Kaynig, V., Longair, M., Pietzsch, T., Preibisch, S., Rueden, C., Saalfeld, S., Schmid, B., Tinevez, J.-Y., White, D. J., Hartenstein, V., Eliceiri, K., Tomancak, P., Cardona, A. 2012. «Fiji - an Open platform for biological image analysis». *Nature Methods*, **9**, 676-682.

[32] Hung, V., Udeshi, N. D., Lam, S. S., Loh, K. H., Cox, K. J., Pedram, K., Carr, S. A., Ting, A. Y. 2016. «Spatially resolved proteomic mapping in living cells with the engineered peroxidase APEX2». *Nature Protocols*, **11**, 456-475.

[33] Franco, M., Seyfried, N. T., Brand, A. H., Peng, J., Mayor, U. 2011. «A novel strategy to isolate ubiquitin conjugates reveals wide role for ubiquitination during neural development». *Molecular and Cellular Proteomics*, **10**, M110.002188.

[34] Shevchenko, A., Wilm, M., Vorm, O., Mann, M. 1996. «Mass spectrometric sequencing of proteins from silver-stained polyacrylamide gels». *Analytical Chemistry*, **68**, 850-858.

[35] Cox, J., Mann, M. 2008. «MaxQuant enables high peptide identification rates, individualized p.p.b.-range mass accuracies and proteome-wide protein quantification». *Nature Biotechnology*, **26**, 1367-1372.

[36] Bardou, P., Mariette, J., Escudié, F., Djemiel, C., Klopp, C. 2014. «jvenn: an interactive Venn diagram viewer». *BMC Bioinformatics*,**15**, 293-300.

[37] UNIPROT CONSORTIUM. 2019. «UniProt: A worldwide hub of protein knowledge». *Nucleic Acids Research*,**47**, D506-D515.

[38] SHARP, T. V., MUNOZ, F., BOURBOULIA, D., PRESNEAU, N., DARAI, E., WANG, H. W., CANNON, M., BUTCHER, D. N., NICHOLSON, A. G., KLEIN, G., IMREH, S., BOSHOFF, C. 2004. «LIM domains-containing protein 1 (LIMD1), a tumor suppressor encoded at chromosome 3p21.3, binds pRB and represses E2F-driven transcription». *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America*, **101**, 16531-16536.

[39] SCHWARZEROVÁ, K., BELLINVIA, E., MARTINEK, J., SIKOROVÁ, L., DOSTÁL, V., LIBUSOVÁ, L., BOKVAJ, P., FISCHER, L., SCHMIT, A. C., NICK, P. 2019. «Tubulin is actively exported from the nucleus through the Exportin1/CRM1 pathway». *Scientific Reports*, **9**, 5725-5738.

[40] MATSUI, T., HAYASHI-KISUMI, F., KINOSHITA, Y., KATAHIRA, S., MORITA, K., MIYACHI, Y., ONO, Y., IMAI, T., TANIGAWA, Y., KOMIYA, T., TSUKITA, S. 2004. «Identification of novel keratinocyte-secreted peptides dermokine-α/-β and a new stratified epithelium-secreted protein gene complex on human chromosome 19q13.1». *Genomics*, **84**, 384-397.

[41] MOFFATT, P., SALOIS, P., ST-AMANT, N., GAUMOND, M. H., LANCTÔT, C. 2004. «Identification of a conserved cluster of skin-specific genes encoding secreted proteins». *Gene*, **334**, 123-131.

[42] THUL, P. J., ÅKESSON, L., WIKING, M., MAHDESSIAN, D., GELADAKI, A., BLAL, H. A., ALM, T., ASPLUND, A., BJÖRK, L., BRECKELS, L. M., BÄCKSTRÖM, A., DANIELSSON, F., FAGERBERG, L., FALL, J., GATTO, L., GNANN, C., HOBER, S., HJELMARE, M., JOHANSSON, F., LEE, S., LINDSKOG, C., MULDER, J., MULVEY, C. M., NILSSON, P., OKSVOLD, P., ROCKBERG, J., SCHUTTEN, R., SCHWENK, J. M., SIVERTSSON, Å., SJÖSTEDT, E., SKOGS, M., STADLER, C., SULLIVAN, D. P., TEGEL, H., WINSNES, C., ZHANG, C., ZWAHLEN, M., MARDINOGLU, A., PONTÉN, F., VON FEILITZEN, K., LILLEY, K. S., UHLÉN, M., LUNDBERG, E. 2017. «A subcellular map of the human proteome». *Science* ,**356**, eaal3321.